



LURRALDEA & HIZKUNTZA HIZKUNTZA & LURRALDEA

DONOSTIAN
2014KO URTARRILAK 16-17

ANTOLATZAILEAK

BABESLEA



Argitaraldia: 2014ko abendua
Ale kopurua: 500
Baimena: Creative Commons BY-NC-SA
Gipuzkoako Foru Aldundia (Euskara Zuzendaritza Nagusia) eta egileak
Argitaratzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa plaza z.g. – 20004 Donostia
Maketazioa: Imanol Tapia
Inprimatzailea: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Inprimategia
ISBN: 978-84-7907-725-9
Lege-gordailua: SS-1524/2014



LURRALDEA ETA HIZKUNTZA. HIZKUNTZA ETA LURRALDEA.

I. Jardunaldiak.

HELBURUAK

- Geografia eta hizkuntzaren arteko harreman estuaz hausnartzea.
- Lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak euskararen hitun-komunitatearengan duen eragin zuzenaz ohartaraztea.
- Eragin hori kontuan har dadin hartu beharreko neurriez hausnartzea, bai kalteak murrizteko bai onurak indartzeko.

EGITARAUA

2014ko urtarrilak 16, osteguna

8:30-9:00

Harrera eta dokumentazio banaketa.

9:00-9:30 - **Aurkezpena.** (Bideoa)

- **Zigor Etxeburua**, GFAko EUSKARA ZUZENDARIA.
- **Paul Bilbao**, KONTSEILUKO UDAZKARI NAGUSIA,
- **Maren Belastegi**, UEMAko LEHENDAKARIA.
- **Unai Fernandez de Betoño**, UEU, BATZORDE AKADEMIKOKO KIDEA.

9:30-12:00 - **1. Lurralde-antolaketa: oinarrizko printzipioak eta ikuspegi desberdinak.** (Bideoa)

- Lurralde antolamendua. Legelariaren ikuspegia. **Natxo Cubero**, ZUZENBIDEAN DOKTOREA, UPV/EHUko IRAKASLEA. (Aurkezpena)
- Lurraldea hizkuntzetatik. Bizipen eta kudeaketa moduak. **Koldo Telleria**, ARKITEKTOA, UPV/EHUko IRAKASLEA. (Aurkezpena)
- Mahai ingurua. Moderatzailea: **Unai Fernandez de Betoño**, ARKITEKTO DOKTOREA, UEUkIDEA. (Aurkezpena)

12:00-12:15 - Atsedena.

12:15-14:15 - **2. Arnasguneak euskararen herrian: arriskuak.** (Bideoa)

- Zuberoako esperientzia. **Beñat Etxebeste**. ETXALDE ELKARTEKO KIDEA.
- Busturiako esperientzia. **Ziortza Bilbao**, KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA ZINEGOTZIA.
- Zubietako esperientzia. **Xabier Mikel Errekondo**. ESPAINIAKO GORTEETAKO DIPUTATUA. (Aurkezpena)
- Zeraingo esperientzia. **Jakoba Errekondo**. PAISAJISTA. ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOKO ARDURADUNA.
- Moderatzailea: **Dabid Anaut**, FILOLOGOA, EUSKARA TEKNIKARIA.

14:15-15:30 - Bazkaria (izena eman behar da)

15:30-17:30 - **3. Arnasguneen garapena Euskal Herritik kanpo.** (Bideoa)

- Aland Uharteak. **Elisabeth Naucélér**, ZUZENBIDEAN LIZENTZIATUA, FINLANDIAKO PARLAMENTUKO KIDEA. (Aurkezpena)
- Gales. **Meirion Llyvelyn Davies**. HIZKUNTZA-ERAGILEA. (Aurkezpena)
- Flandria. **Wilfried Vandaele**, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO-ZIENTZIAN MASTERRA, FLANDRIAKO PARLAMENTUKO KIDEA. (Aurkezpena) (Testua ingelesez)
- Moderatzailea: **Paul Bilbao**, KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA.

2014ko urtarrilak 17, ostirala

9:00-9:30 - Harrera.

9:30-12:30 - **4. Lurralde-antolaketa eta gizarte erantzukizuna.** (Bideoa)

- Lurraldearen garapena eta euskara. **Zigor Etxeburua**, Euskararako Zuzendari Nagusia eta **Ugaitz Iturbe**, Lurralde Garapeneko Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia. (Testua) (Aurkezpena)
- Arnasguneak euskararen normalizazio-prozesuan. **Iker Salaberria**, Kontseiluko koordinatzailea (Aurkezpena) eta **Miren Seguro**, UEMAko koordinatzailea. (Aurkezpena)

11:15-11:45 - Atsedena.

12:30-13:00 - **5. Ondorioak eta etorkizunerako erronkak.** (Bideoa)

- Jardunaldiaren Batzorde Akademikoaren eskutik: **Iñigo Urrutia**, **Paul Bilbao** eta **Unai Fernandez de Betoño**.

AURKIBIDEA

| | |
|---|---|
| Aurkezpena | 7 |
| <ul style="list-style-type: none">• Zigor Etxeburua, GFAko EUSKARA ZUZENDARIA.• Paul Bilbao, KONTSEILUKO UDAZKARI NAGUSIA,• Maren Belastegi, UEMAko LEHENDAKARIA.• Unai Fernandez de Betoño, UEU, BATZORDE AKADEMIKOKO KIDEA. | |
| 1. LURRALDE-ANTOLAKETA: OINARRIZKO PRINTZIPIOAK ETA IKUSPEGI DESBERDINAK | |
| <ul style="list-style-type: none">• Lurralde antolamendua. Legelariaren ikuspegia. Natxo Cubero.....• Lurraldea hizkuntzetatik. Bizipen eta kudeaketa moduak. Koldo Telleria• Mahai ingurua. Moderatzailea: Unai Fernandez de Betoño | |
| 2. ARNASGUNEAK EUSKARAREN HERRIAN: ARRISKUAK | |
| <ul style="list-style-type: none">• Zuberoako esperientzia. Beñat Etxebeste.....• Busturiako esperientzia. Ziortza Bilbao.....• Zubietako esperientzia. Xabier Mikel Errekondo• Zeraingo esperientzia. Jakoba Errekondo• Lurralde-Antolakuntzaren eta Hirigintzaren araginaz. Dabid Anaut..... | |
| 3. ARNASGUNEEN GARAPENA EUSKAL HERRITIK KANPO | |
| <ul style="list-style-type: none">• Aland Uharteak. Elisabeth Naclér.....• Flandria. Wilfried Vandaele.....• Gales. Meirion Llyvelyn Davies..... | |
| 4. LURRALDE-ANTOLAKETA ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNA | |
| <ul style="list-style-type: none">• Lurraldearen garapena eta euskara. Zigor Etxeburua, Ugaitz Iturbe• Arnasguneak euskararen normalizazio-prozesuan. Iker Salaberria• Arnasguneak euskararen normalizazio-prozesuan. Miren Segurola | |
| 5. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK | |
| <ul style="list-style-type: none">• Jardunaldiaren Batzorde Akademikoaren eskutik: Iñigo Urrutia, Paul Bilbao, Unai Fernandez de Betoño | |

LURRALDEA ETA HIZKUNTZA. HIZKUNTZA ETA LURRALDEA.

I. Jardunaldiak.

2014ko urtarrilak 16, osteguna

Zigor Etxeburua, GFAko EUSKARA ZUZENDARIA | **Aurkezpena**

Egun on gaur hona etorri zareten guztioi. Asko gara eta pozik gaude. Jardunaldiak ikusmina edo jakin-mina piztu duela ematen du eta, alde horretatik, lehenengo hitza poztasuna adierazteko egin nahi dugu. Mahaian gaudenok aurkeztuko ditut lehendabizi. Ezkerretik hasita, Kontseiluko idazkari nagusi den Paul Bilbao dugu, ondoan Unai Fernandez de Betoño Udako Euskal Unibertsitateko Zuzendaritzako kidea, eta nire eskuinetara Maren Belastegi, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakaria. Eta ni neu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean, Euskarako zuzendari, Zigor Etxeburua.

“Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea” jardunaldiak abiatuko ditugu gaur, eta Gipuzkoari atxikita, Gipuzkoa lurralde euskalduna da. Une honetan behintzat, Euskal Herriko herrialderik euskaldunena da, euskaraz bizi ahal izateko baldintzarik onenak eskaintzen dituena. Baina baldintza horiek, aldakorrak izan daitezke enpresen, pertsonen edota erakundeen jardueren arabera. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundian euskaraz bizitzeko eskubidearen alde lan egiteko borondatea dugu, eta gure hizkuntzari lehentasuna eman nahi diogu. Gaur hasi eta lehen aldiz egingo diren “Lurraldea eta Hizkuntza” jardunaldi hauetan, hirien eta herrien geografian egindako aldaketa horiek hizkuntzen garapenean zer eragin duten aztertu nahiko genuke, lurraldearen antolaketak hizkuntzei zertan eragiten dien jakin. Hizkuntzalariek, azken garaietan behintzat, aspektu hauek azpimarratzen dituzte eta jardunaldi hauen bidez horiek atera nahiko genituzke. Euskaraz bizi ahal izateko baldintzak sortu eta bitartekoak jarri nahi baditugu, aspektu sozial guztiak hartu behar ditugu kontuan, lurraldearen garapenarenak, antolaketarenak, eta hirigintzarenak barne. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet bai Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari, Kontseiluari eta Udako Euskal Unibertsitateari lankidetzan jarduteko erakutsi duten prestutasunagatik, eta Euskal Herriko Unibertsitateari jardunaldiak antolatzen eman digun laguntzagatik. Hitza Maren Belastegiri emango diot orain.

Maren Belastegi, UEMAko LEHENDAKARIA | **Aurkezpena**

Egun on. Eskerrik asko gaur hona etorri zareten guztioi eta baita UEUri ere, Gipuzkoako Diputazioari eta Kontseiluari jardunaldi hauek antolatzen elkarlanean egin dugun bideagatik. Udalerri euskaldunetan bizi garen herritarren % 70 baino gehiago euskaraz bizi gara eta gure eguneroko bizitza euskaraz egiten dugu. UEMA 71 euskal udalerrik osatzen dugu. Hizkuntza batek, bizi bada, nagusi izango den eremu bat behar du ezinbestean, eta horregatik, udalerririk daukagun funtzioa oso garrantzitsua da euskararen geroan. Euskarak arnaguneak behar ditu eta udalerrri euskaldunetan egiten diren hizkuntza-politikak, egunerokoan ditugun hizkuntza ohitura, jarrera eta joerak, eragin zuzena dute euskararen. Horregatik, UEMArentzako oso garrantzitsuak dira lurralde-antolaketa eta hizkuntzaren inguruko jardunaldi hauek, arnaguneen arriskuak eta aukerak ere aurreikusi ahal izango ditugulako. Denon gustukoak izatea espero dut.

Zigor Etxeburua: Eskerrik asko Maren, Paul Bilbaori emango diot hitza segidan.

Paul Bilbao, KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA | **Aurkezpena**

Egun on guztioi eta ongi etorri “Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea” jardunaldietara. Kontseiluak duela hiru urte ekin zion arnaguneen ildoaren lanketa intentsiboari eta horretarako eremu horretako bazkide ditugun Euskal Herriaren Euskaraz, Euskaltzaleen Topagunea, UEMA eta EMUN erakundeekin batera lantaldea osatu genuen gure hurrengo urteetako jarduna definitzeko. Arnaguneak euskararen normalizaziorako abiapuntu eta helmuga direla uste dugu, gure ustez, galera prozesua gertatu den kontrako noranzkoan, arnaguneak euskarari eusteaz gain, horiek hedatuz eta euren inguruan

arnasgune berriak sortuz etorriko baita normalizazioa. Eta horietan ere, arnasguneetan ere, hizkuntza-politika zehatzak aplikatu behar dira. Askotan esan izan dugu hizkuntza-politikak zehar-lerrotasun izaera hartu behar duela, eta arnasguneetan ere, zehar-lerrotasun hori oso garrantzitsua da. Horregatik, hizkuntzaren irizpidea ere txertatu behar dugu etxebizitza-politiketan, lurralde- antolamenduan, eta abar. Horretaz hitz egingo dugu gaur eta bihar hemen, Donostian. Egunotan elementu interesgarriak izango ditugu partekatzeko, bai Euskal Herrikoak, bai gure mugez kanpokoak, eta gaur eta bihar egingo dugun lanarekin ea aurrera begirako ondorio eragingarriak ateratzen ditugun. Eskerrik asko.

Zigor Etxeburua: Eskerrik asko Paul, eta azken hitza Unai Fernandez de Betoñok.

Unai Fernandez de Betoño, UEU, BATZORDE AKADEMIKOKO KIDEA | **Aurkezpena**

Egun on guztioi, eta eskerrik asko etortzeagatik.

Unai Fernandez de Betoño nauzue, UEUren zuzendaritza-taldeko kidea, eta aurkezpen- hitz batzuk helaraziko dizkizuet Karmele Artetxe zuzendariaren izenean, berak ezin izan baitu ekitaldian parte hartu.

Jardunaldi hauek hiru gako dituzte abiapuntu gisa: lehenik, gizartean dagoen errealitate eta kezka bat dute sorburu. Bigarrenik, kezka horri erantzuna emateko marko teoriko bat eskaini nahi zaio, gaia pa-txadaz aztertuz, eztabaidatuz eta hausnartuz, beharrezkoak diren ondorio akademikoak lantzeko. Ia 200 pertsona bildu gara gaur hemen, eta jardunaldietako ondorioetan guztion ekarpena jasotzea garrantzitsua litzateke. Eta hirugarrenik, jardunaldiak lankidetzaren emankor baten emaitza direla azpimarratu beharra dago. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kontseiluaren, UEMAren eta UEUren arteko lankidetzaren, UPV/EHUren babesa ere jaso duena. Espero dugu azkena ez izatea.

Gatozen orain mamiaren nondik norakoak pixka bat azaltzera: Lurraldea eta hizkuntza. Edo, zehazi-kiago, lurraldearen antolakuntza eta hizkuntzaren aldaketa. Edo, gure Euskal Herri txiki honetara eka-rrita, hirigintza eta euskara. Erlazio ahaztu hori dugu aztergai jardunaldi hauetan, hurrengo hiru helburu nagusiekin:

Lehen helburua geografiaren eta hizkuntzaren arteko harreman estuaz hausnartzea da. Zeren eta inork ez du kolokan jartzen lurraldearen eta hirigintzaren arteko erlazioa, baina aditu gutxi batzuk dira (hizkuntzalaritzaren alorrekoak gehienak) geografia fisikoaren eta hiztun-komunitateen arteko erlazioaz aritzen direnak.

Bigarren helburua lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak euskararen hiztun- komunitatearengan duten eragin zuzenaz ohartaraztea da. Zeren eta, lurraldea eta hizkuntza erlazionatuta baldin badaude (eta hipotesi horretatik abiatzen gara; jardunaldien amaieran ikusiko dugu zuzen ote gabiltzan), lurralde-antolakuntzak (politikariek eta teknikariek paperezko planoetan erabakitzen duten plangintza ustez neutro horrek) eragin zuzena edukiko du hiztun-komunitateen bilakaeran.

Eta hirugarren helburua hirigintzak euskal komunitatearengan duen eragina kontuan eduki dadin hartu beharreko neurriez hausnartzea da, bai hirigintza-plangintzak sortzen dituen kalteak murrizteko bai sor litzakeen onurak indartzeko. Zeren eta hizkuntza-politikaren alorrean hartzen diren neurriak, behar-beharrezkoak izanagatik ere, ez dira nahikoak gizartearengan, eta, ondorioz, hiztunengan eragi-ten duten faktore ezegonkortzaile guztiak aurreikusteko eta zuzentzeko. Zentzu horretan, bada garaia lurralde antolakuntzaren eta hirigintzaren alorrean ere hizkuntza-irizpide erabilgarriekin eragiteko.

Gauzak horrela, jardunaldien egitaraua horrela dago banatuta:

Gaurko goizaren hasieran lurraldeaz arituko gara bereziki. Eguerdian eta arratsaldean hizkuntzaz, batez ere. Eta bihar goizean lurraldea eta hizkuntza ahalik eta gehien uztartzen saiatuko gara. Guztia, hurrengo bost ataletan banatuta:

Lehen atalean, jarraian hasiko dena, lurralde-antolakuntzari buruzko oinarriko printzipioak entzungo ditugu, hiru ikuspegi desberdinetik: geografiarenetik, zuzenbidearenetik eta arkitekturarenetik. Horretarako, gurekin izango ditugu Peio Lozano geografo doktore eta EHUko irakaslea, Natxo Cubero zuzenbidean doktore eta EHUko irakaslea, eta Koldo Telleria arkitekto eta EHUko irakaslea. Ondorengo mahai-inguruan ni neu ibiliko naiz moderatzaile.

Bigarren atalean, Euskal Herriko lau arnasguneri buruzko esperientziak entzungo ditugu: Zube-roari buruz Beñat Etxebeste Etxalde Elkarteko kideak hitz egingo digu; Busturiari buruz, Ziortza Bilbao Kultura, Kirola, Hezkuntza eta Euskara zinegotziak; Zubietari buruz, Xabier Mikel Errekondo Espainiako Gorteetako diputatuak; eta Zeraini buruz, Jakoba Errekondo paisajista eta Zerain Dezagun Fundazioko

arduradunak. Ondorengo mahai-inguruan Dabid Anaut filologoa eta euskara teknikaria izango da moderatzaile.

Hirugarren atalean, gaur arratsaldean, Euskal Herritik kanpoko Europako hiru arnasguneren esperimentziak ezagutzera emango zaizkigu. Aland uharteei buruz Elisabeth Naclér zuzenbidean lizentziadun eta Finlandiako Parlamentuko kideak hitz egingo digu; Galesi buruz Meirion Daviesek; eta, Flandriari buruz Wilfried Vandaele informazio eta komunikazio-zientzietan master eta Flandriako Parlamentuko kideak. Ondorengo mahai-inguruan Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusia egongo da moderatzaile.

Laugarren atalean, bihar goizean dagoeneko, lurralde-antolakuntza eta gizarte erantzukizuna uztartuko dira hiru saioetan: Igor Ahedo zientzia politikoetan doktore eta EHUko irakaslea komunitatearen garapenaz arituko zaigu; Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari Zigor Etxeburua eta Lurralde Garapeneko Zuzendaritzako Ugaitz Iturbe Gipuzkoako lurralde-garapenaz eta euskaraz arituko zaizkigu; eta Iker Salaberria Kontseiluko koordinatzaileak arnasguneei euskararen normalizazio-prozesuan duten paperaz hitz egingo digu.

Eta azken eta bosgarren atalean, kongresuko batzorde akademikoa osatzen dugun Iñigo Urrutia zuzenbidean doktore eta EHUren Bizkaiko campuseko idazkaria, Paul Bilbao eta hirurok jardunaldiotako ondorioak eta etorkizunerako erronkak zerrendatzen saiatuko gara.

Amaitzen dut. Uste dugu kuriositatea piztea lortu dugula, eta hori ez da gutxi. Espero dugu jardunaldiak interesekoak izatea, eta, gutxienez, gogoetarako bide ematea.

Eskerrik asko guztioi.

1. LURRALDE-ANTOLAKETA: OINARRIZKO PRINTZIPIOAK ETA IKUSPEGI DESBERDINAK.

Unai Fernandez de Betoño | Moderatzailea


Beno, lehen hizlaria bidean dugu, beraz, aldaketatxo bat egingo dugu eta bigarren hizlaria izan behar zuenak hitz egingo digu.

Natxo Cubero Marcos, zuzenbidean doktore eta EHUko irakasle agregatu eta ikertzailea da, zuzenbide administratiboan aditua. Makina bat argitalpen zientifiko ditu bere curriculum zabalean. Adibidez, testuinguru honetan azpimarratu daitezke babes publikoko etxebizitzari buruz Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkarian 2009an argitaratutako artikulua, eta lurzoruaren izaera publikoari buruz ingurumena eta zuzenbidea aldizkarian 2007an argitaratutakoa, Iñaki Lasagabasterrekin batera. Bere aurkezpenaren izenburua "Lurralde-Antolamendua. Legegilearen ikuspegia da". Eskerrik asko Natxo.

Natxo Cubero, ZUZENBIDEAN DOKTOREA, UPV/EHUko IRAKASLEA | Hitzaldia

• LURRALDE ANTOLAMENDUA. LEGELARIAREN IKUSPEGIA.

Eskerrik asko Unai. Lehenik eta behin, eskerrak eman behar dizkiet Udako Euskal Unibertsitateko kideei ni hona gonbidatzeagatik eta, batez ere, nire pertsonarengan konfiantza jartzeagatik. Hasteko, ikuspuntu juridikotik nire ikuspuntua oso oinarrizkoa izango dela esan behar dizuet. Batez ere, lurralde-antolaketari dagozkion tresnen erregimen juridikoa aztertuko dut. Hizkuntzalariak edo teknikariak izanik guztiak, eskemen bidez lurralde-antolamendua ikuspuntu juridikotik zer den hobeto ulertuko dela pentsatu dut.



Kontuan hartu behar duzue lurralde-antolamenduak arautzen duela beti lurraldearen edo lurraldeen erabilera: zer egin daitekeen lurzoru batean, zer egin daitekeen eremu batean, zein muga ezartzen dituen zuzenbideak berak... Zuzenbideak, obligazioak ematen dizkigu alde batetik eta eskubideak bestetik. Arauak, obligazioak ezartzen ditu, lurzoruen jabeentzako batez ere, edo lurzoruen titularren

eskubideentzako (jabetza eskubidea ere kontuan hartu behar dugu). Administrazioak pertsona bati jabetza eskubidea kentzen badio, kalte-ordaina eman beharko dio (eskubidea kentzen diolako). Baina, kasu batzuetan, lurzoruen erabilera arautzerako orduan Administrazioak gizarte eginkizuna betetzen badu, ez dio pertsona horri kalte-ordainik eman beharko. Konstituzioak berak arautzen du eginkizun hori, interes orokorrari lotutako helburua bete behar duela Administrazioak.


Hemen daukazue eskema batean, desjabetzeak beti ekartzen duela kalte-ordaina. Gaur aztertuko dugun planifikazio horretan ere (lurralde-antolamenduak beti behar duelako planifikazioa), lurzoruen erabilerak ezartzen dira eta, kasu horretan, eskubidea mugatu egiten dira; hau da, ez da kentzen baizik eta mugatu egiten da.

Lurralde-antolamenduaren tresnak ikusiko ditugu: Lurralde Antolamenduaren Artezpideak, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak.

Lurralde-antolamenduaren kontzeptuari dagokionez, ikuspuntu juridikotik, lurzoruen erabileraren araubidea edo arauketa da. Azken finean, alde batetik mugak ezarri behar dituzte legeek, erregelamenduek, eta beste alde batetik, osotasunezko ikuspuntua dago; jardunaldi hauetan ikuspuntu hori aztertu behar dugula uste dut, osotasunezko kontzeptuari heldu behar diogula. Zer esan nahi du horrek? Ekonomiari begira, gizarteari begira, hizkuntzari begira eta kasu batzuetan ere ingurumenari begira, lurraldeak eragin handia izango duela eta, beraz, interes guztiak ekonomiaren aldetik, ingurumenaren aldetik, kulturaren aldetik eta hizkuntzaren aldetik ere kontuan hartu beharko direla. Kontzeptua osotasunera heldu behar da eta kohesioa bultzatzeko hizkuntza da tresnarik garrantzitsuenetariko bat.

Zuzenbidean, zer da eskumena? Gaitasuna da, azken finean. Zerbait egiteko, eskubidea egikartzeko, obligazioa betetzeko gaitasuna, ahalmena. Zuzenbidearen aldetik beharrezkoa da edozein gai, edozein arlo aztertzeko orduan, eskumena zein den jakitea: Administrazioak zer egin dezakeen, legegileak zer egin dezakeen, erakunde batek... Estatuak berak eskumen konkretu batzuk dauzka, kostaldea arautzeko eskumena, adibidez; edota uretan, ibai batek autonomia erkidego bat baino gehiago zeharkatzen baditu. Interes orokorreko errepideetan ere izango du eskumena, eta abar. Beraz, estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko harremanak koordinatu egin behar dira, eta koordinatzeko tresnak ere badira.


Eskema honetan azaltzen da:



Autonomia erkidegoek (Euskal Autonomia Erkidegoa, gure kasuan) hirigintza eta lurralde-antolamendua arautzeko zein exekutatzeko eskumenak dituzte, biak. Beraz, hirigintza eta lurralde-antola-

menduan ere kontuan hartu beharko dira Estatuaren eskumen eksklusiboak (kostaldean, uretan, elektrizitate edo telekomunikazio sareetan,...). Autonomia erkidegoak eta Estatu koordinatu egin beharko dira, eta hori Euskal Autonomia Erkidegoan ere gertatzen da. Hirigintza arautzeko edo hirigintza- planak burutzeko eskumena udalerriek daukate, plan horiek behin betiko onartzeko eskumena Autonomia Erkidegoak ere izango duen. Hauen artean ere koordinatu beharko dira, eta gero ikusiko dugu horretarako bideak zeintzuk diren.

Hemen lurralde antolamenduaren planifikazioa daukagu.



Nola egiten da koordinazioa? Kasu batzuetan, txostenen bidez. Zer da txosten bat? Kostaldeen, adibidez, Estatuak lurzoru batean erabilera bat zein kasutan egin daitekeen esaten du. Hori da txostena. Aldeko txostena, txosten positiboa, Estatuak lurzoru batean zerbait egin daitekeela esaten duenean da, kiosko bat jartzea edo hotel bat instalatzea adibidez. Hau bide bat litzateke. Bestela, beraien artean, Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren artean, akordio, adostasun edo hitzarmenak egin ditzakete. Hitzarmen horien bidez, lan bat edo lan publiko bat egin behar dutela zehazten dute, eta lan horren baldintzak adosten dituzte beraien artean. Kasu horretan, Kostalde Legea ere aplikatu behar dela kontuan hartu behar da eta Kostalde Legea Estatuako Parlamentuak onartzen duela.

Ura. Estatuak parte-hartzeko, esku-hartzeko eta lurzoru batean zer egin daitekeen irizteko bere organo propioak dauzka. Ibai batek autonomia erkidego bat baino gehiago zeharkatzen baditu, Estatuok Legea ere errespetatu beharko da ibaiaren arroaren ondoan edota ibaiaren ertzean dagoen lurzoruan.

Tresnak Euskal Autonomia Erkidegoan. Tresna hauek zeintzuk diren interesatzen zaigu. Lehenik eta behin, Artezpideak ditugu. Eusko Jaurlaritzako web orrian agertzen dira eta arauak, planak dira. Artezpideak behin onartuta, eskualdeak behin finkatu eta mugatuta, Lurralde Plan Partzialek arautuko dute eskualdez eskualde zeintzuk diren erabilerak: etxebizitzak eraikitzeko, ekipamenduak eraikitzeko, Sistema Orokorrak eraikitzeko, errepideak eraikitzeko, eta abar. Lurzorua nola okupatzen den arautuko dute (kasu horretan dira mugak, planek jartzen dituzten mugak). Hirugarrenik, Plan Sektorialak daude eta, beharbada, hori da guri etorkizunari begira, hizkuntza arautzeko interesatzen zaiguna. Eusko Jaurlaritza kultura-ondarean izapidetzen ari da Plan Sektoriala gaur egun. Argitaratuta ez dagoenez, ez dakit zeintzuk diren gidalerroak edo zeintzuk diren puntu garrantzitsuenak kasu horretan, kultura-ondarean. Lurraldearen kohesio handiagoa lortzeko arautzea beharrezkoa izango litzateke beharbada, Plan Sektoriala egitea, baina etorkizunari begira eta hausnarketa asko egin ondoren. Arloz arlo arautzen dira

Kasu horretan orientagarriak baino ez dira; beraz, ez dira lotesleak izango. Foru aldundiek Plan Sektorialak onartzerakoan eta udalerriek ere hirigintza-planak lantzerako orduan, adibidez, ez dituzte nahitaezkoak ez diren arauak kontuan hartu beharko, nahiz eta Artezpideetan jasota egon.

Zeintzuk dira Artezpide lotesleak? VIII. atalean azaltzen direnak, adibidez, “azaleko urak erabiltzea”.

Matrizean, alde batetik, erabilerak ikusiko ditugu (etxebizitzak, adibidez) eta bestetik, nola edo non kokatuko diren etxebizitza horiek. Adibidez, babestutako eremu batean etxebizitza eraikitzea debekatuta dago, matrizeak hori dio eta loteslea da. Plan Partzialek bigarren egoitzarako lurzoru eskaintzaren gehienezko mugak ezarri behar dituzte. Arau horiek ere lotesleak izango dira eta Artezpideetan ezartzen dira 20. eta 22. ataletan. Ingurune Fisikoaren Antolamendu-Matrizean erabilerak ezartzen dira (etxebizitza, adibidez) eta gero antolamendu- kategoria zein den (babestua, adibidez). Hiru zenbakia azaltzen bada hemen, debekatuta egongo da. Ikusten duzue, etxebizitza bat babestutako eremu batean kokatzea, debekatuta dago. Beraz, Eusko Jaurlaritzak Artezpideak onartzerako orduan, lurzoru erabilera horiek kontuan hartu dira, lurzoruaren erabilerak debekatu edo onartzeko. Matrize honek, ordenazio fisikoa eta Artezpideak jasotzen ditu bertan. Hirigintza-planak onartzerako orduan matrize hau errespetatu beharko da, bestela, plana hori ezdeusa izango da, baliorik gabekoa.

Artezpideak: onartzeko prozedura.



Planak onartzerako prozeduretan, beti hartu behar dugu kontuan parte-hartzea. Hizkuntzaren aldetik, parte-hartze hori garrantzitsua dela uste dut, azkenean, jendeak alegazioak edo aurkezterakoan hizkuntza erabiltzen baitu (etxebizitzak edota ekipamenduak eraiki nahi badira, Administrazioak beti hartu beharko du kontuan jendeak pentsatzen duena kontuan). Hasiera batean proiektua egiten da; gero, interesa duten administrazioei proiektu hori jakinarazi egin behar zaie; administrazio horiek ere irizpenak ematen dituzte eta printzipioz, proiektua onartu egiten da. Proiektu hori Lurralde Batzordeari ere bidali behar zaio. Lurralde Batzordea, lurralde-antolamendua kontrolatzen duen organoa da. Hirigintza-planak eta lurralde-antolamenduari dagozkion planak koherenteak izateaz arduratzen da, beraien artean kontraesanik ez egoteko. Txostena eman eta gero, Euskal Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da behin-behineko onarpena. Behin-behineko onarpen hori behin Aldizkari Ofizialean argitaratuta, jendeari, edozein pertsonari, parte-hartzeko aukera eman behar zaio. Horregatik esaten da “jendaurreko erakustaldia”. Jendaurreko erakustaldian edozein pertsonak parte hartu dezake eta espedientea, plana, proiektua eta proiektua egiteko agiri guztiak aztertzeke aukera izango du. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak behin betiko onarpena egiten du.

Lehen esan bezala, hirigintza-planek, Plan Sektorialek.... Artezpideak bete beharko dituzte, lotesleak diren Artezpideak batez ere (etxebizitza ofizialak eraikitzeo lurzorua errespetatzea, lurzoruaren zenbatekoa etxebizitzak eraikitzeo, matrizea,...). Jarduera ekonomikoak burutzeko, Lurralde Antolamenduaren Batzordeko irizpenari egin beharko diote kasu, honek egindako txostena ere loteslea baita (lurzoru urbanizazioetan, adibidez, ezin da etxebizitzarik eraiki, nekazaritza eta abeltzaintzari lotutakoak salbu).

Hizkuntza Artezpideetan, guri gaur interesatzen zaigun gaia. Nola agertzen da edo zein kasutan agertzen da hizkuntza Artezpideetan? XVII. atalean, esparru batzuetan hizkuntza bultzatu behar dela esaten da, baina Artezpideek, hizkuntza bera, funtsezko osagaia ez dela ezartzen dute. Artezpideok 1997koak direla pentsatu behar dugu, aldaketa asko egin dira. Duela bi urte ere, Artezpideen aldakuntza proposatu zen Euskal Hiriaren kontzeptua txertatuz, eta Euskal Hiriaren kontzeptua txertatzerako orduan hizkuntza ez da kontuan hartzen. Ondare kulturala aipatzen da, baina industria gisa adierazten da, objektu gisa, ez elementu osagai bizi gisa. Hizkuntzak lurralde- antolamenduari eragiten badio, osagai bizi izatea beharrezkoa dela uste dut. Artezpideetan, objektu industrialak, ekonomikoak, merkataritza-objektua, baino ez da adierazten kultura-ondarean bertan. Lurralde-antolamenduak hizkuntzari eragiten dion heinean, ezarpen egokiak azaldu behar dituela esaten da, baina hizkuntzari berari garrantzi handiegirik ematen ez zaiola uste dut, eta gainera, Artezpide horietan bi paragrafo baino ez dira agertzen. Artezpide horiek orientagarriak baino ez dira eta printzipio orokorrak baino ez dituzte azaltzen. Ez dira lotesleak, ez zaie botere publikoei obligaziorik ezartzen hizkuntzaren aldetik, eta etxebizitzak eraikitzerako orduan, hiria eraikitzerako orduan, hizkuntzari ez zaio aipamenik egiten. Artezpideetan kultur ondarearekin lotutako gidalerro batzuk azaltzen dira (kultur ondarea, belaunaldi gaztea,...) baina ikusten duzue, beti aipatzen da "kultur turismoa", "kultur industria"... Kulturaren eta behar bada kultur ondarean bertan hizkuntza kokatzen bada, hitz horiek, botere publikoek beti merkataritza-objektu bezala ezartzen dutela adierazten dute, "kultur industria". Euskarazko liburuak argitaratzea, euskarazko kultur ekitaldiak,... objektuak dira herritarren aurrean. Herritarroi hizkuntza gure artean erabiltzea interesatzen zaigula uste dut, komunikatzeko eta funtsezko bizimodua burutzeko, eta ez bakar-bakarrik merkataritza-objektu edo industria bezala.

2012an Artezpideen aldakuntza proposatu zen. Euskal Hiriaren kontzeptuan zerbitzu kulturalak agertzen dira baina kultura, hezkuntza eta aisialdia sustatzeko. Oso adierazgarria da aldakuntzan bertan *hiria* agertzea, ez *herri txikia* edo ez *herria*, baizik eta hiria. Eta hirian zerbitzuak pertsonen zuzentzen zaizkie, baina erosteko; edota sustatzeko, baina ez gure bizimoduari eragiteko. Hori islatu da aldakuntzan, Euskal Hiria kontzeptu horretan. Beraz, aldaketa, hizkuntzaren aldetik, ikuspegi bakar batetik ezarriko da Artezpideetan: hirien ikuspegitik, ez herri txikien ikuspegitik.


Plan Partzialek Artezpideak garatzen dituzte. Artezpideek eskualdeak ezartzen dituzte eta eskualde bakoitzak bere Plan Partziala dauka. Baina hauek (eta ia-ia guzti-guztiak begiratu ditut), hizkuntzari buruz ea zer esaten den bilatu dut eta hizkuntza eta euskara ez dira Plan Partzial batean ere agertzen. Plan Partzial batean, batez ere, lurzoruaren erabilerak zehazten dira, interes orokorreko ekipamenduak, edo berrikuntzak behar dituzten lekuak; ikerlan ekonomikoak direnak, batez ere. Hizkuntza ez da kontuan hartzen. Izaera juridikoari dagokionez, hirigintza-planek Plan Partzialak errespetatu behar dituzte; ez bade errespetatzen, hirigintza-plan hori automatikoki aldatu beharko da, bestela, indargabeturik geldituko da. Onartzeko prozedurari dagokionez, prozedura horietan jendaurreko erakustaldia dela garrantzitsua uste dut. Lurralde Antolamenduaren Sailak hasiera eman behar dio prozedurari: kasu horretan proiektua burutzen du, eta horren ondoren, beste administrazioen edo beste administrazio baten organoen ikuspegiak edo iritziak, alegazioak, biltzen ditu. Administrazioei entzunaldia eman ondoren, Lurralde Antolamenduaren Batzordearen irizpena behar da. Irizpena, kasu horretan, txostena izango da. Batzordeak ea hirigintza-planak Lurralde Plan Partziala betetzen duen egiaztatu behar du, lurralde-antolamendua koherentea izateko. Gero, behin betiko jendaurreko erakustaldian edozeinek aurkeztu ditzake alegazioak eta gainera, jendaurreko erakustaldiak espedienteak eta proiektuak aztertzeo aukera ere ematen tu. Edonork aurkezten ditu alegazioak. Hori garrantzitsua da printzipio demokratikoaren aldetik eta, batez ere, lurralde-antolamenduaren kohesio handiagoo erdiesteko. Lurralde Antolamenduaren Batzordeak txostena eman ondoren (loteslea den txostena), behin betiko onarpena egiten du Eusko Jaurlaritzak.

Plan Sektorialek arloz arloko plan edo proiektuak aurkezten dituzte (kostaldeetan, parke eolikoetan, kultur ondarean,...). Lurralde Antolamenduaren Batzordeak, Plan Sektorial horiek beste planak (Artezpideak eta Lurralde Plan Partzialak) betetzen dituzten edo ez adierazten duen txosten bat egin beharko du. Kasu batzuetan, Estatuak berak plan batzuk onartzeko eskumena daukala kontuan hartu behar

da (telekomunikazio, elektrizitate, ur, errepide, interes orokorreko errepide eta portuetan...). Estatuak ezarritakoari egin beharko zaio kasu, bere eskumenez kanpo jarduten ez badu betiere; kasu horretan Konstituzioaren aurkakoa izango da eta errekurtsioa, eskumen-gatazka planteatu daiteke Konstituzio Auzitegiaren aurrean. Ez dut uste hori interesatzen zaigunik. Lurralde lan sektorialak egin daitezke Estatu eta autonomia erkidegoen artean. Akordio edo hitzarmen batera heltzen badira, akordio hori ere loteslea izango da beraien artean. Akordio horretan, lan sektorial horiek burutzeko adostutako eskumen eta baldintza ekonomikoak ezarriko dira. Hori ez betetzeak, Plan Sektorialen deuseztatzea dakar.

Eta azkenik, "Ingurumena eta Lurralde Antolamendua". Eusko Jaurlaritzatik, hau da, Euskal Autonomia Erkidegotik, udalerrira pasatu gara. Udalerrian, hirigintza-planek, lurzorua erabilerak ezartzen dituzte. Sektorez sektore onartzen den araubidean mugak ezartzen dira (hondakinetan, sailkatutako jardura baimenetan, ingurumenean edo babestutako natur eremuetan) eta hirigintza-planek muga horiek errespetatu behar dituzte. Honen adibide bat: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak sailkaturiko jardura baimenak ematerako orduan, aldeko txostena eman behar du; Lurralde Antolamenduaren Batzordearen Babestutako Natur Eremuetarako irizpena, ordea, ez da loteslea izango. Ingurumenaren gaiarekin jarraituz, 2000 Natura Sarea dago, ingurumenaren ikuspuntutik babestuta dauden eremu batzuk daude. Horrek zer esan nahi du? Ba printzipioz, hirigintza-planek eta lurralde-antolamenduak 2000 Natura Sareari dagozkion araubideek ezartzen dutena kontuan hartu beharko dutela, eta leku horietan jardura batzuk debekatuta daudela.

Lurralde Antolamenduaren Batzordeak espediente edo proiektu guztiak jaso eta txosten loteslea eman beharko du aztertutako planak lurralde-antolamenduaren tresnak betetzen dituen ala ez ziurtatzeko. Hirigintza-plan batek Artezpideak bortxatzen dituela esaten badu, plan hori aldatu beharko da. Eta ikusten duzuenetz, laukitxo horretan, lurralde antolamenduaren plan guztietako bateragarritasuna aztertzen da.



Koordinazio printzipioa. Administrazio guztien arteko (estatukoa, autonomia erkidegoetako eta udalerrietako) koordinazio printzipioa bultzatu behar da. Nola? Kasu batzuetan, txosten batzuen bidez. Txostenak koordinazioaz arduratzen den administrazio batek eman behar ditu: kostaldearen kasuan Estatuak, adibidez; ingurumenaren inguruko kasu batzuetan, Eusko Jaurlaritzak; tresna guztien artean bateragarritasun eta koherentzia lortzeko, Lurralde Antolamenduaren Batzordeak. Horregatik, koordinazio printzipioak administrazioen artean itunak, hitzarmenak sinatzea dakar, elkarlana aurrera eramateko, lan publikoa aurrera eramateko eta kooperazio eta lankidetzaren printzipioak bultzatzeko.

Ingurumen Ebaluazioa ere kontuan hartu behar da. Ingurumen Ebaluazioan ere parte hartzeko prozedura jarraitu behar da, eta prozedura horretan (eta beste prozedura guztietan), lurralde-antolamenduari lotutako informazioa eskuratzeko eskubidea izango dugu herritarrok. Ingurumenaren kasuetan, pertsona pribatu batzuei (zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsoneri, erakundeei, adibidez) ingurumenaren elementu fisikoei lotutako informazioa eskatu ahal izango zaie. Gardentasun Legearen ondoren, edozein pertsonak eskatu diezaiokete informazioa Administrazioari, eta honek informazio hori emateko betebeharra du (babestutako sekretuak edota segurtasuna betetzen ez duten kasuetan salbu). Pertsona horrek eskubide hori du, eta jurisdikzioari informazio hori eskuratzeko eskubidea egikaritzea eskatu diezaiokete. Bestalde, Administrazioak informazioa argitaratzeko beharra izango du kasu batzuetan. Zein informazio? Parte-hartzeko eskubidea bermatzeko, parte-hartze prozedura nola eraman behar den, eta zein urrats eman behar diren azalduko duena.

Informazioa eskuratzeko eskubidea eta parte-hartzeko eskubidea garrantzitsuak direla uste dut, horregatik jarri dizkizuet. Hizkuntzaren aldetik, herritarren komunikazioa eta lurralde kohesioa bermatzeko garrantzitsuak da. Informazioa eskuratzeko prozedura hau da, jurisdikzioa.



Administrazioak erantzuten ez badu edo eskaera ezesten badu, jurisdikziora jotzeko aukera dago, pertsonon eskubidea delako, azken finean. Parte-hartzeko eskubideari dagokionez, lehenik eta behin, Administrazioak informazio bat argitaratu behar duela esaten da, parte-hartzeko eskubidea egikaritu ahal izateko. Gero, edozein pertsonak jendaurreko erakustaldian alegazioak aurkeztu ditzake, eta espedienteaz aztertzeko aukera izango du gainera. Ikusten duzuen bezala, lurralde-antolamenduaren planak eta tresnak onartzerako orduan, eta gero plan horien ebaluazioa egiterako orduan, parte-hartzeko eskubidea izango dute herritarrek.


Bukatzeko, ondorioak azalduko dizkizuet nire (edota beharbada zuzenbidearen) ikuspuntutik.

- Lehenengo, Lurralde Antolamenduaren tresnetan, aipamen eta garrantzi gutxi eman zaio hizkuntzari. Lehen aipatu dugu Artezpideetan bi paragrafo baino ez direla ematen. Nik uste dut kezka garria dela, gaur egun.
- Bigarrenik, herritarren arteko komunikazioa edo komunikaziorako bideak baino ez dira kontuan hartzen. Informazioaren gizaratean, telekomunikazioak, Internet, garraiobide sareak... Lurralde-antolamenduaren osotasunerako ez da ezer aipatu.
- Helburua kultur ondarea sustatzea da, bai, baina helburu turistiko edo industrialarekin. Hori baino ez da aipatzen Artezpideetan. Eta Lurralde Plan Partzialetan ere euskara hizkuntza ez da aipatzen, ez da jasotzen. Gabezia hori bete behar dela uste dut.

rrean gizartearentzako zer den ikusteko) hau da hor azaldu zen lainoa. Ikusten duzuen bezala, “arte” da gehien aipatzen dutena, edo “diseinua”, edo “eraikuntza”, eta laugarren ideia “nire ideiak” da, pixka bat arriskutsua iruditzen zaidan gai bat. Ikusten dena adierazgarria den arren, adierazgarriagoa da ikusten ez dena. 80 ikasleek batek bakarrik aipatu zituen “pertsonak”, “ingurumena” ez zuen inork aipatu, eta “hizkuntza” ere ez zuen inork aipatu. Zergati hauek esplikatzeko eta egoera honetatik abiatuta, behin karrera bukatu genuenean, hausnarketa horietatik abiatu ginen Hiria Kolektiboaren barruan.

Hemengo fakultatean ikasi genuen arkitektura, karrera tekniko bat, eta mundu errealera irteterakoan benetan gaitasun asko ez genituela konturatu ginen, hiri- antolamendurako batez ere. Etxebizitza bat egiteko, edo gauzak diseinatzeko gai ikus genezakeen gure burua, baina ez ginen pertsonak biziko ziren lurraldeak edo hiri zatiak antolatzeke gai sentitzen. Teorikoki, jakintza asko genituela ikusten genuen, baina praktikoki ez genekien teoria urbanistikoa egunerokotasunean nola erabiltzen zen. Hortik hasi ginen eraikitako hirien inguruan generoa eta hirigintzaren inguruan lanean, jendearekin harremana eduki nahian, guk teorian ikasi genituen gauza horiek jendeak nola bizi zituen ikusteko. Zergatik? Hiritargo eta gizarte anitz batek, nolabait ere, herri eta lurralde bakar bat daukala ulertzen genuelako, eta bizipen ezberdin asko eduki ditzakegulako islatzeko lurralde bakar horretan; ez genuen hori antolatzeke gaitasuna pertsona bakar bezala ikusten. Gure gizartean, azkenengo ehun urteetako historia laburrean, lurraldea eta bizimodua ere aldatu egin direla ikusten genuen, baserri isolatueta bizitzetik, pertsona isolatuak izatera pasatu ginela, hiri elkartuetan. Beste alde batetik, lurraldea gure bizimodua izan dela ulertzen dugu, duela ez askora arte (lurraldean lan egiten, lurraldearen hartu-emanetik eta lurraldearen ezagutzatik, lurraldearekin kontaktuan). Bizimodu bat eta lurralde modu bat eman dizkigu horrek, eta hortik, lurraldea azpiegituren euskarri soil bat izatera pasa gara.

Hau ez da errealitatea, obra artistiko bat da,



Lurraldea
azpiegituren
euskarri
soil

Ingold, T (2000)
The perception of
the environment:
essays on
livelihood,
dwelling and
skill. Routledge.

baina lurraldearekiko gure harremana nola aldatu dugun adierazten du; lurraldeari lotuta egotetik eta lurraldean lan egitetik, lurraldea pasabide bezala ulertzen dugu gaur egun eta ez daukagu lurraldearekin kontakturik. Kontaktua asteburuetan daukagu beharbada, hiritik irten eta trekking egiten dugunean edo, ze ez gara mendira joaten jada. Zuzeneko harreman hori galdu dugu. Tim Ingoldek esaten duen bezala, lurraldearekin daukagun esperientzia edo daukagun harremanak errespetu mota bat edo bizipen mota bat emango digu lurralde horrekiko. Nondik ari gara lanean? Zer pentsaeratik? Zertan gabiltza? Lau kontzeptu pixka bat gainetik azalduko ditut, eta konplexutasunean eta zientzia postnormalean sakonduko dut ondoren.

Azkenengo urteetan bizitza asko sinplifikatu eta mugatu dugula ulertzen dugu, baina bizitza bera eta gure pentsatzeko modua konplexuak dira, eta konplexutasun horri ezin diogu uko egin: pentsamendu sistemiko batetik, aurrez aurre begiratu behar diogu. Pentsaera ekosistemikoak gauza guztiak elkarrekin harremanetan daudela esaten dut, eta ezin ditugula isolatu; guk ere hori uste dugu. Arturo Escobarrek azaltzen duen *plurimundua* ulertzen dugu, hau da, mundu bakar bat daukagula baina mundu horren barruan gure pentsaera eta antologiaren arabera, mundu ezberdin asko daudela. Mundu bat berdina da, baina nola bizi dugun, gure harremanak nola diren, bai lurraldearekin, bai besteekin, zer hizkuntzatan, gure kulturaren arabera,... mundu hori ikusteko moduak aldatzen dira. Funtowich eta Ravetzek aipatzen duten *zientzia postnormala*, aurrez aipatzen nuzuen unibertsitateko teknika hori eta tokiko jakintza edo herritarrok daukagun jakintza horren hibridaziotik ateratzen den zientzia berri edo hibridatu bat da. Eta beste alde batetik, ingurunea edo ingurua bizipen bat bezala ulertzen dugu. Lurralde bat nola bizi dugun, lurralde horrekiko ikuspuntu bat izango dugu: autoz pasatzen baldin bagara, lurralde horren ikuspuntu bati izango dugu eta baratze bat baldin badaukagu, aldiz, beste ikuspuntu bat.

Gaur egun, arrazoiaren eta zientziaren garaian bizi garela uste dugu, eta egia absolutuak arrazoiak eta zientziak ematen dizkigula. Hau pentsamendu dikotomikotik dator (gauzak zuriak edo beltzak dira eta ez dago erdibiderik), eta gure jakintza antolatzeke moduak laborategian egindako jakintza batetik datozenak dira. Laborategiko jakintza hau ezagutza sortzeko bide bezala sortu zen zientziak, natura ezagutzeko modu bat da. Naturatik gauzak laborategian isolatu eta egoera ideal batzuetan aztertu izan ditu zientziak, gero, mila teoria eta formula ateratzeko. Gaur egun, zientzia eta pentsaera arrazional eta zientifiko honek, gauzak bizipenetatik ulertu ordez, teknikatik eta zientziatik ulertzera eramán gaitu. Betiko adibide bat jarriko dut, denok egin dugun problema bat: bat Bilbotik ateratzen da eta beste bat Donostiatik. Zer puntutan elkartzen dira? Zientziak hor X dagoen puntu horretan elkartzen direla esaten digu. Errealitateak, aldiz, *inguru* horretan elkartuko direla esaten digu, baina segur aski, inoiz ez puntu horretan.

Adibide simple honekin, zientziak asko lagundu digula eta oso baliagarria dela adierazi nahi dut, baina ez dela egia absolutua. Zientziak jakintza bat edukitzera gerturatzen gaitu baina ezin dugu hori egia absolutu bezala hartu, bestela, laborategian egindako gizarte isolatu bat sortuko dugu eta gizakiok ere horrela funtzionatuko dugu, bai gure hartu-emanetan eta baita lurraldearekin ere. Pentsaera arrazional honen grafikoa edo gure buruan ideiak antolatzeke modua, pixel irudi honekin adierazi nahiko nuke:



jakintza asko dauzkagu baina elkarrekin harremanetan jarri gabe antolatzen ditugu gure buruan. Pentsaera dikotomiko hau oso orokorra da, ez da dimentsionala, absolutista da, aldagaitza eta itzulgaitza. Pentsaera konplexu batetik funtzionatzen badugu, aldiz, dimentsio anitzeko pentsaera daukagu, fakto-

re asko kontuan eduki ditzakegu eta faktore asko aztertu ditzakegu, erlatiboa da (gure iritzia gertatzen denaren eta ditugun jakintza berrien arabera alda dezakegu), eta itzulgarria da.

Honela, konplexutasuna, gure harremanak, gure erlazioak eta gure interakzioak ulertzen dituen nolabaiteko sare bat izango da. Konplexutasuneko pentsaera batetik, gure emozioak, maitasunak, intuizioak, esperientziak, ezustekoak... denak sartuko ditugu erabakiak hartzerako orduan (edo kasu honetan, gure lurralde-antolaketa egiterako orduan).


Beraz, lan egiten dugun bide honetan, pentsaera arrazional honetatik beste pentsaera askoz ere dinamikoago eta lotuago batera pasatu nahiko genuke; gure ideiak denak elkarrekin nahasi eta aldi oro aldatzen dira, eta hortik sortzen dugu kasu honetan hiri antolamendua edo lurralde-antolamendua egiteko jakintza.

Daniel Canogarren irudi honek nahiko ongi adierazten du benetan bizitza zer den.



Bizitza, harreman, tentsio, erlaxatze eta gauza dinamiko bat. Pertsonen arteko harreman bat da hau baina inguruarekin, lurraldearekin, naturarekin... berdin konparatu genezakeen. Beti gaude harremanetan, beti tentsioan eta beti aldatzen. Ezin dugu ezer orekatu, dena dago mugimenduan. Hiri-antolamenduan eta hirigintza egiterakoan, ikuspuntu hau txertatzeko gabilta lanean.

Beste eskema honekin, gaur egungo hirigintzaren errealitatea adierazi nahi da.



Alde batetik, Administrazioa daukagu (politikariak eta teknikariak lan bat egiten) eta beste alde batetik, gizartea (beste errealitate batean). Bi mundu oso desberdin eta gainera, hirigintza eta lurralde-antolamenduan, normalean, gertatzen dena zera da: tentsio guneak daude, bakoitza bere aldera doa eta beti gatazkak sortzen dira edozein erabakiren aurrean. Gure helburua erabaki hauek teknikariek eta politikariek bakarrik hartu ordez, parte-hartze prozesuen bidez eta hasierako elkarrizketa batetik abiatuta, elkarlan komun batean bukatzea da. Horretarako, zientziaren ezagutza, tokiko ezagutza, jendeak bere egunerokotasunean daukan ezagutza ditugu, eta hirigintzako eta lurralde-antolamenduko erabakiak bi ezagutza horien nahasketatik hartu behar direla uste dugu, zientzia postnormaletik.

Azkenean, parte-hartzea eta ingurua zuhaitz moduan adierazi nahi duten esku batzuk ikusten ditugu hemen.




Irudi honekin, gure lanean parte-hartzea nola ulertzen dugun azaltzera iritsiko gara. Lehen Natxok aipatu duen bezala, legeek, plan bat egin, plan hori erakutsi eta parte-hartzea orduan hasten dela uste dute. Guk parte-hartzea hasieratik egin behar den prozesu bat dela uste dugu, eta edozein hirigintza-plangintzatan bide jarraitua izan behar duela prozesuarekin batera, ez duela balio aldi behin parte-hartzea erabili, eta gero gure tekniko eta politikariek beraien bidea jarraitzea, berriro parte-hartzea hasi, eta gero politikoei beste aldetik jarraitu. Bestalde, parte-hartzea formazio, lan eta ekintza bezala

ulertzen dugu; hau da, parte-hartzeak formaziorik gabe ez dauka zentzurik, ezin diogu besterik gabe jendeari zer nahi duen galdetu horrek ze ondorio izan ditzakeen edota aurretik zer gauza egin diren jakin gabe. Parte-hartzea lana da, parte-hartzeak aldaketa bat ekarri behar du, eta erreflexu erreal bat izan.

Gaur ekarri dizuedan kasua “Zaldibar Eitten” prozesua da. Zaldibarreko Antolamendurako Plan Orokorra parte-hartze bidez egiten ari gara. Orain dela urtebete hasi ginen eta adibide honetatik eta adibide honen barruan egin den ikerketa baten ondorioz, hizkuntza eta lurraldearen arteko harremanean bukatuko dugu.

Lehen esan dizuedan bezala, hemen eskema bi aurkezten dizkizuet:



ezkerrekoa, legeak edo Natxok esplikatzen digun plan bat egiteko prozesu bat izango litzateke (diagnostiko bat egiten da eta gero, aurrerakin bat). Gezi urdina teknikariek eta politikariek egiten duten lana izango litzateke eta gezi gorria, legeak nolabait plan bat egiteko legeak eskatzen dituen parte-hartzeak.


Plan hau egiteko lehiaketa bat egon zen. Aurkeztu genuen proposamenak, prozesu tekniko eta politiko baten barruan eta hasieratik, parte-hartzea txertatu eta aurrez aipaturiko hibridazio horretatik erabakiak hartzea planteatzen zuen. Gero, legeak markatzen dituen erakustaldiak egitea, noski, horko alegazioak eta jasotzea... baina erabakien oinarria parte-hartze prozesu hibridatu batetik egitea.

Gainetik kontatuko dizuet nola egin zen edo nola egiten ari garen. Aurkezpena egin zen herrian, eta aurkezpen honetan herritarrei Natxok esplikatzen diguna (baina oso gaineratik) esplikatzen zitzaizkien, gure ikuspuntua ere sartuta. Plan Orokor bat egiteko orduan, Natxok esan duen bezala, Eusko Jaurlaritza, Aldundia eta lurralde mailako legedia ditugu; beste alde batetik teknikariak gaude (arkitekto, antropologo, soziologo,...); beste alde batetik herriko politikariak daude; eta azkenik, herritarrak daude. Denak prozesu horretan sartu behar dira erabaki bakarrak hartzeko, lurraldea bakarra baita.

Lurraldea gauza konplexu eta nahasi bezala ulertzen badugu, konplexutasun hori kudeatzeko lan hori sistematizatu beharra daukagu. Horregatik, parte-hartze prozesuan, hiru arlotan ari gara lanean: ingurumenaren arloan, hirigintzaren arloan eta gai sozialetan. Gai hauek ez ditugu banatutako zerbait bezala ulertzen, bata bestearen barruan eta elkarrekin harremanetan dauden gaiak bezala baizik.

Lehenengo lan tailerra (beroketa tailerra deitu diogu), prestatzeko eta parte-hartzen hasteko dinamika berri batzuk sortzeko izan zen, hizkuntza berri batzuetatik. Euskal Herrian, gatazka egoera baten ondorioz, zenbait harreman oso biziak daude. Hitzek askotan elkar ulertzeko balio ez dutela uste dugu eta Alex Carrascosa artistarekin egin dugu lan. Berak, artea eta bakearen uztarketarekin, gatazka

egoeretan artearen bitartez helburu batzuetara iristeko lanean dihardu. Eskuinean dagoen eskema horretan adierazten da funtzionamendua.



Mahai bat izango litzateke. Lehenengo kasu honetan, pertsona bakoitza non eserita dagoen eta hasiera batean zer marrazten duen ikusten da. “Etxea” islatuko luke honek, nolabait, eta honek “kalea”. Pertsonak, hurrengo atalean, kalean, elkarren arteko guneak marrazten dituzte. Eta tailerra bukatzeko, denen artean erabakita, “plaza” marrazten dute (espazio komuna, lurraldea,... izango litzatekeena). Hau da Zaldibarren egin zen kasua. Kasu honetan politikariak, herritarrak, teknikariak,... denak nahasi ginen, edo nahasten saiatu ginen. Ikusten duzuen bezala, hutsune bat dago hemen: hau politikarien mahaia da, eta hau beste denona. Ez zen nahasketa hori lortu, baina ez zen inor ezertara behartu, gauzak naturalki joan ziren. Zaldibarreko maparen edo lurraldearen maparen barruan, bakarkako marrazkietatik hasita, marrazki orokor bat lortzen da hizkuntza berri batetik abiatuta, hitz egin behar handirik gabe, bromeekin... eta tentsioa asko jaitsiz; beste era bateko hizkuntza batetik hasten da prozesu hau. Tailer horren bukaeran, margoarekin, edo hizkuntza berri horrekin, indibidualtasun batetik kolektibotasun batera pasatzea da lortzen dena, bukaerako gozamen eta harrotasun batera pasatzea, talde bat osatzea; bakoitzak marrazki bat egin du, marrazki horretaz harro dago eta gainera jende gehiagorekin egin du marrazki hori.

Hurrengo tailerretako lehenengo tailerra, azterketa izan zen. Aurretik aipatutako hiru gaiak herritarren artean banatuta, zein arazo dauden aztertzen dira, eta zein tokitan. Arazo horiek mapa batean kokatzen dira, ez dira idatzi bakarrik egiten, fisikoki ere kokatzen dira. Bestalde, hirigintza eta hiri-plan-teamenduaren aldetik, lurraldea lurralde bezala ulertzea nahi izan dugu beti, eta ez herri eta hirietan egiten den gauza bat, edo lurzoru urbanizagarrian egiten den gauza bat bakarrik. Natxok lehen esan duen bezala, hirigintzarekin lurralde guztia antolatzen dela uste dugu, eta nahiz eta azkeneko urteetan etxebizitza, errepide eta azpiegituretan zentratuta egon, lurralde guztiaren ikuspuntua izan behar dugu, garrantzi berdina izan behar dute herriko plazak eta mendi puntan dagoen harizti batek. Hori islatzen saiatu gara prozesu guztian, lurralde guztia hartuz beti.

Hortik, lehenengo tailer horretatik, herritarrek dauzkaten ardurak eta beraien egunerokotasunean bizi dituzten arazoak ateratzen dira. Tailerrera etorri diren pertsonak ez ezik herritar orok jakin ahal izateko, herrian pareta batean arazo horien deskribapena eta kokapena jartzen dira, sozializazio bat eginez.

Ondorengo tailerrean, arazo hauen dekonstrukzioa dator: arazo hauek ulertu, hausnartu eta zergatik sortu diren jakiten saiatu. Arazoaren aurretik egoera zein zen ikusten saiatzen gara eta arazoaren ondoren nolako egoera izan daitekeen. Horrek, arazoa desblokeatzen laguntzen digu pixka bat. Arazo horiek mapetan kokatu eta faktore ezberdinak aztertzen dira, betiere taldeka lan eginez (informazio pila bat kudeatzeko aukera daukagu pertsonen bizipenetatik). Bukaeran, irudikapena egiten da, arazoez gain zer onura dauden.

Tailer hauetaz gain, hainbat elkarrizketa egin genituen bai emakume taldeekin, bai gazte taldeekin, ... Ikastolara joan ginen, umeez beraien herria nola bizi eta ikusten zuten jakitera. Hortik ere bizipen eta informazio nahiko garrantzitsuak atera ziren.

Hauek egin zituzten muralak dira, adibidez.

EG

Elkarrizketak Gaztetxoekin - Infancia



Hau ikastolatik alde batera begiratuta, alde horretatik herria ikusten da, eta hemen mural honen atzealde dena grisa dela ikusten duzue. Beste leihotik, paisaia hau marrazten dute. Biak Zaldibar dira, baina hau auzoetara, edo mendira ematen duen leiho batena da. Hemen atzealdea guztiz berdea da eta nahiko esanguratsua da bat erabat grisa eta bestea erabat berdea izatea.

Parte-hartze prozesu honetan, inkesta bat pasa genuen parte hartzen zutenen datu batzuek izateko. Sexu aldetik emakume eta gizonen artean nahiko orekatuta egon da, adinen aldetik 30 eta 60 urte arteko jendea egon da batik bat, eta euskara maila ere aztertu da, parte-hartze prozesuaren barruan ea herriaren errealitatearen adierazgarria den ikusteko. Hizkuntza-mailan euskara izan da altuena, baina maila ertain eta baxuko jendeak ere parte hartu du, nahiz eta herriko estatistikek maila baxu eta ertaineko jende gehiago dagoela esan. Euskal hiztunen parte-hartzea, herriaren proportzioan dagoena baino handiagoa izan dela esan dezakegu. Auzoetako datuak ere jaso genituen, zein auzotan bizi den bakoitza.

Eta zertan gabilta orain? Parte-hartzean, eta hirigintzaren hizkuntza herritarrengan jartzeko eta herritarren hizkuntza hirigintzan jartzeko erremintak bilatzen aritu izan gara lanean azken urteotan. Hasieran egiten genituen parte-hartze prozesuak oso xumeak eta oso txikiak ziren, eta ez ziren batere lotesleak. Gaur egun, bukaeran lotesleak izango diren Plan Orokorrak egitera iritsi gara, legeak sortuko dituztenak, eta parte-hartze prozesu hori legitimatzeko parte-hartzen duen jendearen profila, nolabait ere, herri horren erreflexua izatea behar dugu. Ezin dugu parte-hartze bat gure lau lagunekin bultzatu. Zenbait herritan prozesuak egin eta nork parte-hartzen duen ez kontrolatzea gertatu zaigu, deialdi irekiak egiten dira eta zer modutan egiten direnaren arabera, jende bat etortzen da eta beste bat ez da etortzen. Zaldibarreko kasuan, antropologia teknika batzuk sartu dira antropologia aldetik ikerketa bat egiten ari nintzelako, eta prozesua hasi aurretik ikerketa antropologiko bat, nolabaiteko etnografia bat bultzatu dugu, Zaldibarreko egitura soziala eta gizarte egitura nolakoa zen ulertzeko eta horrek gero prozesuan isla izan zezan.

Prozesua hasi aurretik 20 elkarrizketa egin dira eta elkarrizketa hauek zeini egin jakiteko, herriko politikariei eskatu zitzaizen bakoitzak bere ustez herriarentzako adierazgarria zen pertsona bat aurkezteko. Hortik hasita 20 pertsonataraino iritsi gara. Bitxia izan da, eta horregatik dakart argazki hau.

ZALDIBAR EITTEN: PARTEHATZEARA GOAZ

ESTER ARTE-PHILARRETA
Zere Zaldibar eiten. Oinarritzko Zaldibar antolaketa ez da.

ZARITEN HANBERTO
Gure herria da, gure diragarri dena ez da. Gure herria, gure herria. Gure herria ez da gure herria, gure herria.

ELI GIL ARRIOLA
Herriak, herriak. Herriak ez dira herriak. Herriak ez dira herriak, herriak.

ANAITZA BILGORA
Herriak ez dira herriak. Zaldibar herria da, herria, herria, herria. Herria ez da herria, herria.

JAMES TORA Y MARCELA RICO
Herria ez da herria. Zaldibar herria da, herria, herria, herria. Herria ez da herria, herria.

ELFI GILGIL
Herria ez da herria. Herria ez da herria, herria, herria. Herria ez da herria, herria.

BENITO FALCÓ
Gure herria da, gure herria. Herria ez da herria, herria, herria. Herria ez da herria, herria.


JOSU ANDUELLA BILBAO
Herria ez da herria. Herria ez da herria, herria, herria. Herria ez da herria, herria.

RODICA ZAFITZIOA eta AITZA LUIS MARTINEZ
Herria ez da herria. Herria ez da herria, herria, herria. Herria ez da herria, herria.

Modu honetan lan egiteagatik, herrian kontsentsu bat lortu dugu. Euskal Herrian dauden alderdi politiko gehienak daude herri honetan, eta prozesua modu honetan hasteagatik alderdi politiko guztiek prozesua babestea lortu dugu, beraien aurpegia jartzea prozesuari bultzada emanez (hori dezente garrantzitsua dela uste dut).

Elkarrizketatuei zera planteatu zitzaion: lau garai desberdin hartu genituen (60ko hamarkada aurretik, 60tik 80ra, 80tik 2000ra eta 2000tik aurrera). Egoera horretan, ordu bateko elkarrizketak izan ziren. Garai ezberdin bakoitzeko plano bat izan genuen eta pertsona bakoitzaren haurtzaro, gaztaro, heldutasun eta erretiro garaiei ingurukoak izan ziren egindako galderak; bizitzako fase horietan beraien herria nola bizi izan zuten bai hiri-ingurua, eta baita landa-ingurua ere. Hortik, bizitza, zaintza- lanak, eskola, harremanak, festak, ura edo errekurtsioen gestioa,... bezalako gaiak aztertu dira. Pertsona bakoitzak bere garaian izan zituen bizipenen transmisio bat izan da, azken finean.

20 pertsona hauetatik profil batzuk mantentzen saiatu gara.



Auzo txiki asko ziren, denak oso antzekoak tamainaz, batzuk errepidearekin erlazionatuta, beste batzuk elizarekin, beste batzuk ibaiarekin,... baina lurraldearen sakabanaketan lurraldea antolatzen zuen auzo-entitate bat zegoen. Gaur egunera iritsita, Zaldibarreko herri ingurua Zaldia eta Artia auzoak elkartuz hazi da, eta beste auzoek lehendik zuten egitura berdina mantentzen dute, bai eraikin aldetik, eta baita sozialki ere. Hiri ingurua asko aldatu da (eraikin aldetik, azpiegitura aldetik eta sozialki), baina auzoek nolabaiteko beraien aspaldiko egoera mantentzen dute.

Hortik, hiru sistema ezberdinu ditugu, hiru antolaketa sozial.



Bata, laranja dagoena litzateke: auzoetako sistema sozialak edo harreman-sistemak lirateke, non auzo horietan oraindik auzolanegian egiten den antolaketa sozial bat mantentzen den (uraren kudeaketa bat daukate iturburu batekin, beraien bideak beraiek mantentzen dituzte...). Auzoetan bakarrik dagoen antolaketa bat dago eta beraiek, betidanik datorren antolaketa bat dela esaten dute. Gorriz daukagu herrigunea: hirigunea izango litzateke, edozein herritako antolaketan bezala. Azkenik, urdinez, inguru industrial: hor ere beste antolaketa modu bat dago, beste bizipen modu bat, eta beste faktore batzuen arabera antolatzen da bizitza.

Tabarak egindako SEIC ereduak esplikatu nahiko nizuke orain. Berak giza ekosistemak ekosistema hauetan antolatzen direla esaten digu, gizarte-antolaketak dituen lau faktore bereizten ditu. Alde batetik, errekurtsoak, energia eta bizimodu mota; beste aldetik, informazioa, hizkuntza, jakituria eta kultura; kutsadura, aldaketa eta degradazio gaitasuna ondoren; eta azkenik, erakundeak eta administrazio sistemak.

| | |
|--|----------|
| Errekurtsoak Energia Bizimodu mota | E |
| Informazioa Hizkuntza Jakituria Kultura | I |
| Kutsadura Aldaketa Degradazioa | C |
| Instituzioak Antolaketa sistemak Administrazioak | S |

Tabara, 2006

Berak, gizarte guztiak lau elementu hauen artean antolatzen direla ulertzen du, eta lau elementu hauek erabat lotuta daudela elkarrekin, sistema ezberdinek beraien artean harremanak dituztela. Sistema sozio-ekologiko hauek faktore askoren inguruan pentsa ditzakegu. Zaldibarreko azterketa honetan oinarrituz, sistema hauek hizkuntzaren inguruan antolatzen baldin baditugu, hau da, euskara sistema sozio-ekologiko bat bezala hartzen badugu, gaztelania beste sistema sozio-ekologiko bat bezala eta ingelesa beste sistema sozio-ekologiko bat bezala, nolabait ere, ondorio batzuk azaltzen zaizkigu. Landa-eremuk auzoak euskararen presentzia askoz handiagoa daukaten toki bat izango lirateke, hor bakarrik ematen den antolaketa sozial berezi bat daukatenak eta lurraldearekin (baratze aldetik, ustiapen aldetik,...) eta kutsadura aldetik ere, beste harreman desberdin bat daukatenak. Herri inguru askoz erdaldunagoa litzateke, benetan erdal sistema baten barruan egongo litzatekeena. Sistema sozialak gaztelaniaren eragin askoz handiagoa izango luke, eta bizimodua askoz inguru horretakoagoa izango litzateke. Industria guneak globalizazioaren isla izango lirateke, ingelesa eta Internet izango lirateke komunikazio hizkuntzak, bizimodu eta harremanak ere Zaldibarretik askoz kanporagokoak izango lirateke. Ikus dezakegun bezala, errekurtsio, informazio, kutsadura eta sistema sozial ezberdinak egongo lirateke gizarte hau hizkuntzaren arabera antolatzen badugu, lurraldearekin batera.

Tabarak, sozio-ekosistema hauek elkarren artean interakzioak daukatela esaten digu, eta interakzio hauek, orokorrean, sistema handiek (kasu honetan sistema globalak, ingelesarekin eta industriarekin kokatutako sistemak), sistema txikiagoak jateko joera daukatela, beraien inguruan uniformizatuz. Ingelesa, autoarekin, mugimendu handiarekin eta harreman ez-fisikoein erlazionatuko genuke, baina kontsumo mota bat dago, produkzio industrialaren inguruan kontsumo eragin bat dago, eta mugimendu eragin bat dago. Euskararen kasuan, naturarekin lotutako inguru bat izango litzateke, eta hiri-inguru urbanoan ere mugikortasun ezberdinak egongo lirateke, oinezkoak ere asko. Batez ere ikusten duguna zera da: euskarak eta euskal inguruak duen harremana, bere inguruaren barruan dela, landa-lurrak bere baitan jartzen direla harremanetan, eta hizkuntza aldetik ere, sistema globalarekin eta sistema urbanoarekin harremanak dituela. Harreman hauek ezberdinak dira. Hiriguneko jendeak landa-inguru paseatzera joateko toki bezala ikusten du, beraien mugikortasuna inguru horrekiko behatzaile edo aisialdi harreman bat da; landa-inguruko jendea, berriz, beti autoz mugitzen da, ez da herrian gelditzen, bere kontsumoa egitera Bilbo edo Durangoko merkataritza-guneetara joaten da eta beraien harremana askoz ere globalagoa da alde horretatik hirian daudenena baino. Hau guztia ikusi den gauza bat da, aztertu gabe dago. Unai jardunaldi hauek zeudela komentatu zidan eta hau kontatzeko eta kontrastatzeko aukera ona zela iruditu zitzaidan. Gero galdera garaia izango dugu eta ea zer esaten didazuen.

Sistema hauen arteko harremanak hizkuntzatik hasten dira, hizkuntza eta informazioa dira sistema batek bestearengan lehenengo ukitzen duena. Bigarrenik, errekurtsioak eta kontsumo faktoreak aldatzen hasten dira. Hirugarrenik, kutsadura aldatzea bat dator, gorantza doana. Eta azkenik, sistema horren barruko erakundeak konplexuago bihurtzea edo areagotzea bultzatzen dute. Zaila da harreman hauek gelditzea, azkenean, erakundeak, antolamenduak edo legeak direlako sistemen arteko harreman honetan ukitzen diren azken gauza. Harreman hauetan zer faktore sartzen direnaren arabera, zer faktorek gora egiten dutenaren arabera, besteek behera egiten dute. Kontsumo eta bizimodu maila igotzen baldin badugu, energia gehiago, kontsumo gehiago eginez, kutsadura ere gora igotzen da, erakunde eta antolamendu sozial askoz ere konplexuagoa sortzen da, eta hizkuntza jakituria eta kulturak berriz, behera egiten dute. Hau da, kontsumo globalizatu honen barruan sartzen garen heinean, gure biodibertsitate kulturalak behera egiten du eta tokiko jakituria hori ere galtzen joaten gara. Guk gure parte-hartze prozesuetan tokian tokiko jakituria bilatzen dugu: baseritar batek lurralde hori ze landare aldatuz nola ustiatu dakienean, zer haizek jotzen duen, non dagoen iturburua... Hori guztia galtzen doa sistema hauen arteko harremanetan.

Hori zen pixka bat gaur kontatu nahi nizuena: gizarte lanetik, beste lurralde batzuk, herri eta hiri batzuk, ametsetik at gauzatzea ere posible dela. Eskerrik asko.

Unai Fernandez de Betoño | Hitzaldia

Eskerrik asko, Koldo.

Beno, nik ere aurkezpen labur bat ekarri dut mahai-ingurua pixka bat girotzeko eta berehala irekiko dugu galderen txanda, Koldori edo Natxori, ezer komentatu nahi izatekotan.

Beraz, eztabaidarako ideia batzuk luzatuko dizkizuet. Pernandoren egia batzuekin hasiko naiz: Lurra izeneko espazio-ontzian bizi gara, eta irregularra da, ezin gara edozein tokitan bizi.




Toki bat aukeratu behar dugu, eta asko garenez, denok aukeratu nahi ditugu toki hoberenak: ez dugu mendi puntan oso urrun bizi nahi, ez dugu oso kontrako klimak dituzten lekuetan bizi nahi, beraz, nomadak ez garen heinean, gizaki gehienok lurraldeagatiko borroka batean sartzen gara. Horrek hizkuntzen arteko borrokan isla argi bat du azkenean, horretaz dezente dakigu euskaldunok.


Hizkuntzalaritzaren alorretik, geografia eta hizkuntza aspalditik lotu izan dira. Denok ezagutzen dugun Bonaparteren mapetako bat ekarri dizuet hona, 1863koa, eta berak geolinguistikatzat joko ez bazuen ere, geolinguistika egiten ari zen. Geografia eta linguistika lotzen ari zen, euskararen aldaera ezberdinak erabiltzen zituzten hiztunak non kokatzen ziren aztertuz. Beraz, hizkuntza eta geografia lotuta daudela aspalditik dakigu, aspalditik ikusi izan da.

Hirigintzaren ikuspegiaren ere, hirigintzaren eta geografiaren arteko lotura aspaldikoa da, nahiz eta uste genuena baino gertuagokoa. XX. mendearen hasieran, Patrick Geddes izeneko biologo batek, hiriak ez daudela lurraldean bakarrik, eskualde batean daudela esan zuen, bailara batean daudela, eta bailara horretako toki bakoitza lanbide batekin erlazionatu zuen (goiko marrazkian ikusten den bezala hori da Geddesen bailararen ebaketa famatua).

Giza-finkamenduen kokalekua



The Valley Section diagram by Patrick Geddes, as published in 1909. Note the various types of human settlements along the entire valley region. From circa the 1950s onwards the valley region is usually depicted devoid of settlement types other than the big city at the lower end.



Team 10's reinterpretation of Geddes's Valley Section by adding a comparative and synchronic 'Scale of Association'.


Geddesek, bailararen goiko zonaldeetan, meatzaritzan, basogintzan, ehizan... aritzen zirenak bizi zirela esan zuen. Bailararen erdialdean, abeltzainak, eta hondoan, amaiera aldean, errekatik eta itsasotik gertu, nekazariak eta arrantzaleak bizi eta lan egiten zutela. Giza finkatzearekin egin daiteke paralelismoa: normalean, bailararen goialdeko zonetan, baserriek osatutako auzo barreiatuagoak egoten dira, erdialdeetan, herri ertainak kokatzen dira eta bailaren hondoetan (hoberen komunikatuta dauden zonalde horietan), herri handiagoak eta hiri handiagoak. Beraz, geografiaren eta hizkuntzaren arteko lotura, eta geografia eta hirigintzaren arteko lotura... hiru osagai horiek lotzea bakarrik falta zaigu.

Horretarako, oso interesgarria topatu dut Julio Caro Barojak egindako *Los Vascos* liburuan (1949an idatzia) erakusten digun Euskal Herriko mapa hau, ondoren Xamarrek *Orhipean* liburuan argitaratzeko moldatuko zuena. Bertan, Euskal Herriko hiru unitate nagusiak erakusten dizkigu. Hegoaldetik iparraldera joanez ondokoak ditugu: Araba eta Nafarroa hegoaldeko Ebroren sakonuneko zonaldea; zonalde ertaina, zeinetan batez ere Arabako Lautada eta Iruñerria dauden; eta ipar isurialdea. Berak, hiru lurralde-unitate horiek industrializazioa eman baino lehenagoko giza finkatzeekin erlazionatu zituen: hegoaldean, herri handi eta elkarrengandik urrun daudenak; erdialdean, Lautadan eta Iruñerrian batez ere, herri txiki eta elkarrengandik gertu daudenak; eta ipar isurialdean, baserri isolatuak eta auzune barreiatuak. Caro Barojak, plano honekin, hirigintza eta geografia batzen dizkigu berriz ere. Eta testua irakurtzen bada, berak ere hizkuntzarekin lotura egin zuela ikusten dugu zera esanez: hiru unitate handi horietako banaketa hori, zeinetan hirigintza eta euskal geografiaren artean erlazio zuzena dagoen, euskararen hedadurarekin eta atzerakadarekin erlazionatuta dago. A zonaldean, ipar isurialdean, euskaraz egiten zela esaten du (XX. mende erdialdeko idazki bat da); B zonaldean, Arabako Lautadan eta Iruñerrian, goi-ordoki horietan, XVI. eta XIX. mendeetan euskarak atzerapen nabarmena jaso zuela esaten du; eta C zonaldean, hegoaldean, berak ez duela bertan inoiz euskaraz hitz egin ote denaren berririk. Ez naiz eztabaida horretan sartuko, ea Arabako eta Nafarroako hegoaldean euskaraz hitz egin ote zen edo ez. Hemendik oso interesgarria dena, norbaitek, antropologia eta etnografia ikuspuntutik, hiru elementu horiek (lurraldea, hizkuntza eta hirigintza) lotu zituela da.

Kontu honetan osagai bi aipatu behar ditugula iruditzen zait: bata kuantitatiboa da eta bestea kualitatiboa. Batean, tamainaz ari gara (zenbat etxebizitza egin behar ditugun, egiten ditugun, eta horrek zer erlazio duen euskal hiztunengan). Bestean, etxebizitza horiek, auzo horiek, hiri horiek, nola egiten ditugun izango dugu kontuan. Horrek ere eragina dauka euskal hiztunengan.

Alderdi kuantitatiboari buruz hitz egiterakoan, demografiak hitz egin behar da, ez hirigintzaz bakarrik. Lehen, Koldok, Zaldibarren 70eko hamarkada inguruan zer nolako aldaketa egon zen aipatu du, eta hori Euskal Herri osoan gertatu zen.

Euskal Herriaren demografia-bilakaera



Hemen 50eko eta 75eko urteen artean Euskal Herriko biztanleria ia-ia bikoiztu zela ikusten da, eta denok ditugu buruan biztanleria ia hirukoiztu zeneko herriak. Horrek, sekulako eragina izan zuen. Bigarren industrializazioak etorkin asko erakarri zituen (Espainiatik batez ere) eta eragin handia izan zuen hizkuntzan. Lehenik eta behin, hirigintzan, noski; etxebizitza asko behar ziren eta azkar behar ziren. Ez dut gogorarazi behar Bilbo aldean zer-nolako arazoa egon zen txabolismoarekin. Arazo hori konpontzeko, besteak beste, Otxarkoagako etxebizitza-poligonoa eraiki behar izan zen, azkar-azkar, 3700 etxebizitza jasotzeko bertan. Donostian ere Bakea poligonoaren kasua daukagu, Bidebietan, zeinetan 750 etxebizitza egin ziren lau urtetan. Edo Baionan bertan, Santa Gurutzeko ZUP famatua, 1100 etxebizitza halako bloke erraldoi batean, errepidetik goazenean denok ikusten duguna.

Zer ekarri zuen 1960 eta 1970eko hirigintza azkar eta masibo honek? Arkitektura eta hirigintzaren alorrean mugimendu modernoaren deitzen dugun estiloaren ideiak, nagusiki Le Corbusier izeneko arkitekto batek aldarrikatu zituen ideiak, bertan txertatzea. Le Corbusierrek, kalea hilda zegoela esan zuen, eta hori kontuan hartuz egin behar dugula hirigintza. Euskararekin, hitzuneekin, erlazio handia du horrek. Berak, hiriak parke erraldoi batzuk izan behar zirela esaten zuen, zeinetan etxebizitza oso handiak kokatu behar ziren, eta ondoren, funtzio ezberdinak zonaka banatu. Hirietan lau giza funtzio nagusi zeudela esaten zuen: lan egitea, lo egitea, aisialdia eta zirkulazioa. Zirkulazioa autoari utzi behar zitzaion, eta beraz, lau edo hiru zonatan banatu behar ziren hiriak, ondoren, errepide azkarren bidez dena efizienteki lotzeko, hiria makina bat balitz bezala ia-ia. Horrek ohiko kalearen heriotza ekarri zuen, zeinetan alde batean eta bestean eraikinak dauden, dendak dauden...

Hirigintzan gertatu ziren aldaketa horiek oso eragin handia izan zuten, demografiatik. Hirigintza eredu bat hartu edo beste bat hartu, euskaraz mintzatzen ez diren etorkin asko etortzen badira, aldaketa soziolinguistikoak egon egingo dira, demografia kontu bat delako, azken finean. Nik baino askoz gehiago dakien batek, Mikel Zalbidek, adibide xume bat jarri zuen, Legazpikoa. 50eko hamarkadatik aurrera, industrializazio bizkorraren eraginez, herrira etorkin asko iritsi zirela esaten du berak, Nafarroatik eta batez ere, Gaztela aldetik. Eta horren eraginez, erdal giroa nagusitu zela, kaskoan eta langile-auzo handian. Beno, agian komentario hau ez da oso zientifikoa, iritzi bat da, baina denok bizi izan dugu hori. Gipuzkoa eta Bizkaiko herrietan batez ere, 60ko eta 70eko hamarkadetan jaso zen, baita 80ko hamarkadetan ere, beste hainbat herritan.

Hori, alde kuantitatiboa litzateke, tamainarekin eta demografiarekin oso lotuta dagoen aldea. Eta bestalde, aspektu kualitatiboa egongo litzateke. Hirigintza mota ere aipatu dut, nolakotasunez edo hitz egiten hasi naiz. Mugimendu modernoaren hiriak kalearen heriotza ekartzen zuela aipatu dut. Hirigileak duela zenbait urte konturatu ziren horretaz eta "agian bide hau ez da oso jarraitu beharrekoa, aldatu

egin behar dugu, buelta bat eman behar diogu honi” esan zuten. Gertatzen dena, ondoren etorri den eredu oraindik okerragoa izan dela da. Ondoren suburbanizazioaren eredu etorri da, Ameriketako Estatu Batuetan jaio zen eredu bat, Bigarren Mundu Gerra eta gero ekonomia berpizteko antolatutakoa, batez ere. Zergatik berpizten zuten ekonomia? Ba bakoitzari etxetxo bat eta lorategitxo bat emanaz, ekonomiaren sektore asko bultzatzen zirelako. Hasteko, etxegintzaren sektore inportantea; jarraitzeko, auzune horiek aldirietan hirietatik kanpo egiten zirenez, beharrezkoa zen auto bat bertara heltzeko, beraz, autogintzaren sektore garrantzitsua ere martxan jartzen zen; autoak erabiltzeko errepideak behar ziren, eta ingeniari zibilaren sektorea ere martxan jartzen zen. Autoa eta etxetxoa erosteko, kreditua behar zen, hortaz, maileguak martxan jartzeko bankaren sektore indartsua martxan jartzen zen, negozio biribila zen. Hura “amets amerikarraren ideia”rekin lotuz, halako bizitzako arrakastaren ideia ere oso ondo islatu zen, horregatik heldu da gurera.

Suburbanizazioaren emaitza edo erakusgarri asko ditugu Euskal Herrian. Batzuk nahiko zaharrak dira, 60ko eta 80ko hamarkadakoak, Bilbo aldekoak. Denok izango dituzue buruan Unbe-Mendi, Berriagamendi, La Bilbaína Mungia aldean (oraintxe bertan, Mungiatik iparrera beste urbanizazio erraldoi bat egiten ari dira), edo agian euskararen arnasgune argiagoak diren eta gertuago dauden beste herri batzuetan. Senperen bertan, euskararen festa egiten den tokian, lakuan bertan, ez dakit inguruan zer dagoen konturatu zareten. Halako urbanizazio erraldoi bat dago, bakoitza bere etxetxoan bizi da hesi baten barnean, hori da hango hirigintza panorama. Ez dago herrigunean, herrigunetik urrun dago (2-3 kilometro artean), beraz, hauek segur aski Senperen bertan lan egiten badute ez dut uste autobus urbanoan joango direnik. Bakoitzak bere autoa hartu, eta bere etxetik bere lanera joango da, ez dute beraien artean hitz egingo, ahozkotasuna ez da sustatuko. Eredu honek ez du ahozkotasuna sustatzen. Hori edozein hizkuntzarentzat da kaltegarria, ez euskararentzat bakarrik, baina gauden egoeran egonda... Goliath bati harri bat botatzen badiozu mina egingo dio baino ez du lurrera botako; guri harri bat botatzen badigute, erori egiten gara agian. Guretzat, askoz ere kaltegarriagoa da ahozkotasuna bultzatzen ez dituzten hirigintza-ereduak aurrera eramatea.

Gainera, suburbanizazio hautemangaitzago batzuk daude. Senperekoa oso argi ikusten da, Berriagamendikoa oso argi ikusten da, baina Aizarnazabalgo eredu honek agian ez dirudi hain txarra.

Suburbanizazio hautemangaitzagoa



Aizarnazabal

Sentsibilitatez egin dela uste dut: adosatu batzuk sartu dira, (kaskoaren azalera bikoiztu egin zen bere garaian), baina nolabaiteko sare bat dago, kaleak daude, nahiz eta jendea hesien barnean bizi. Esate baterako, Koldo Izagirrek oso ondo salatu du hau *Autopsiarako Frogak* (2010) liburuan, “Aizarnazabal Revisited” izeneko artikulutxo edo idatzian: “Burges-koxkorren ametsa, pribatukeria, etxe

sarrera langatuak Aizarnazabalen, egitura urbanoan sortu tumore larri, lorategi itxituratuak, itxiturak keretaz itsutuak, eta gora behatuz gero, Aizarnazabalen, Eguberriz, Santa Claus agertuko zaizu urbanizazio berriko etxeko balkoietan...

Pareta-bitarteko multzo hesituok ez ote dira zirkulazio librearen traba, topagunearen aitziko, hizketaren etsai, hitzaren ukatzaile?"


Bete-beteen asmatu duela uste dut. Eredu hori ahozkotasanaren kontrakoa da eta ez eredu hori bakarrik. Azken urteetan aparkalekuetara iristen diren igogailu horietara nahiko ohituak gaude, igogailuan sartu, gure eskailera-buruan atera eta gure etxera sartzen gara. Lehen, gutxienez, igogailuak ez ziren aparkalekuetara jaisten eta portaletan auzo-lagunekin topo egin eta zertxobait hitz egiten genuen. Gero eta gutxiago gertatzen da hori.

Beraz, hau esan eta gero, zer demonio proposatzen dut? Aspektu kuantitatiboari dagokionez, hedapen urbanistiko berriak oso ondo kontrolatu behar ditugula uste dut. Zein da horretarako gakoa? Lurralde-antolakuntza. Nire ustez, udalerrri mailako Plan Orokorrek ezin dute gai hau gehiegi konpondu. Adibide argi bat jarriko dut: Aia batean 200 etxebizitza berri beharrezkoak balira, nire ustez, azterketa serio bat egin beharko litzateke horrek hiztun komunitatearengan zer ondorio dituen ikusteko, zeren eta Aian kaltegarria izan daitekeen eragin bat, Zarautzen ez da hain kaltegarria agian. Eta hori, ez da Aiako Plan Orokorra egiterakoan konpontzen; horretarako eskala pixka bat igotzea beharrezkoa da, eskualdean bertan zer dagoen begiratzea. Hor sartuko lirakeke Natxok aipatutako Lurralde Plan Partzialak. Goi-goian leudekeen Lurraldearen Antolakuntza Gidalerroak oraintxe bertan aldatzen ari dira Natxok esan bezala, eta hizkuntza ez da bertan aipatzen.

Gai hau kuantitatiboki kontrolatzeko, gutxienez, udalaren eskumen batzuk eskualdera pasatu beharko lirakekeela uste dut, eta eskualdeak, indartu: etxebizitza beharrak non dauden ikusiz, hobeto banatuz, kontuan hartuz zer eragin edukiko dituen etxebizitza berri horiek egiteak (egitea beharrezkoa baldin bada, noski). Beraz, alde batetik, lurralde-antolakuntza indartzea. Agian eskumenak kentzea esan dut, baina printzipioz ez litzateke hala izango, gaur-gaurkoz, Plan Orokor batek goian dagoen Lurralde Plan Partzialak esaten duena bete egin behar baitu. Gertatzen dena, gaur egun, Lurralde Plan Partzialek hizkuntzaren ikuspegia kontuan hartzen ez dutela da. Eta bestetik, alderdi kualitatiboari dagokionez, komunitatean gehiago pentsatzen duen hirigintza bat sustatu behar dugula uste dut, komunitatea sortu, bultzatu eta sustatzen duena.


Andres Duany hirigile estatubatuar-kubatarrek egindako eskema ezagun bat duzue hemen.

Suburbanizazio-prozesua bideratzeko → KOMUNITATERAKO HIRIGINTZA



Erdiko bidetik gorako zonalde horretan eredu suburbanoa adierazten du, nola zonatan banatzen den hiria: merkataritza-zentro erraldoiak alde batetik, bulego-guneak bestetik, etxebizitzak edo lo egiteko auzuneak bestetik, kale sarerik gabe,... Ezin zara toki batetik bestera oinez joan, kaleak, errepideak, etxetoetan bukatzen baitira, kaleitsuak daude. Berak, erdiko bidetik behera dagoen eta ohikoagoa edo tradizionalagoa den hirigintza mota proposatzen du, zeinetan ohiko kale korridorea dagoen, etxebizitzak alde batera eta bestera dauden eta, beraz, merkataritza txikia, dendak, egon daitezkeen. Ekipamenduak hiri-sarean txertatuta daude, ez daude bereiz. Ez duzu autoa hartu behar ekipamendu horietara joateko... eredu horrek kaleko giroa sustatzen duenez, ahozkotatuna ere sustatu egiten du eta hori, gutxienez, ez da euskararen kontra joango.

Azken finean, proposatzen dudana auzoari garrantzi gehiago ematea da, besterik gabe. 1929ko marrazki bat dakarkizuet.



Nahiko gauza zaharrak ekarri dizkizuet, baina ia gauza gehienak esanak daudela uste dut. Behar-bada tiraderatik atera eta berriz ere buruan jartzea da egin behar dena. Clarence Perryk hirigintza egiteko unitatea hau dela esan zuen, auzoa, zentro bat daukan auzoa, erabilera mistoak dituen auzoa. Ez duzu lkeara, Max Center erraldoi batera joateko autorik hartu behar, zeren eta leku horietan erdal giroa nagusi dela badakigu, eta azken finean, euskara gutxiago sustatzen da. Gainera, egiten ari naizen komunitaterako hirigintza honen aldarria ez dut hizkuntzaren ikuspegitik bakarrik egiten, bakoitzak bizi garen auzoan bertan lan egingo bagenu, benetan askoz ere osasuntsuago biziko ginatekeela uste dut nik. Hau agian erraza da esaten, zaila da egiten, baina gutxienez, hobe da plan bat argi edukitzea, ideiak argi edukitzea. Beraz, hemendik aurrera niri arnagune bat zer den galdetzen badidate, nik ez dela bakarrik euskara, euskara gehi komunitatea dela esango dut. Eta komunitate hori sustatzeko, bultzatzeko, hirigintzak zeresana baduela uste dut. Besterik gabe, eskerrik asko.

Hauek esanda, ez dakit norbaitek zerbait galdetu nahi duen, iradoki, kritikaren bat egin... Lasai irekiko dugu txanda, ea galdera bat edo bi ateratzen diren, eta nik bestela badaukat baten bat prestatuta.

1 | Parte-hartzea

Publikoa: Kaixo, egun on. Eskerrik asko topaketa eta jardunaldi hauengatik. Nik pare bat galdera edo hausnarketa ditut. Bat zuri, Natxo. Legea garatzerakoan, "Lege Estatala" (hala deituko diogu) udalerrri

bakoitzera iritsi ezin dela ikusten dugu, udalerrri bakoitzak ezaugarri propioak dituelako. Hor, puntu batetik aurrera, nolabaiteko askatasun bat dago (“garatu zuek zuen Plan Orokorra, Plan Bereziak, Plan Partzialak, urbanizazio proiektuak,...”), bete beharreko estandarrak egongo lirartekeen arren. Baina gero, plan edo urbanizazio proiektu horiek gauzatzekoan, euskararen erabilera urria da gaur egun. Esanguratsuenak diren Plan Berezi edo Plan Orokorra erdaraz eginak dira. Administrazioan ere askatasun bat dago, zuk euskaraz gauzatu ditzakezu planak hala nahi izatekotan, baina oso gutxi gauzaten direla iruditzen zait niri. Ez dakit zuek ikuspuntu berdina izango duzuen, zergatik izango den... Administrazioak euskaraz jasotzeko gaitasuna dauka (beraiek ikusiko dute beraien teknikariak ea euskara dakien edo ez, edo proiektu hori itzultza bidali beharko duten edo ez), baina euskaraz plan gutxi gauzaten direla uste dut. Nire irudipen bat da, ea zuei zer iruditzen zaizuen.

Natxo Cubero: Printzipioz, edozein herritarrek dauka Administrazioaren aurrean euskera erabiltzeko eskubidea, eta Prozedura Legeak ere hizkuntza ofiziala errespetatzea beharrezkoa dela ezartzen du. Hirigintzan, lurralde-antolamenduaren eskubidea Autonomia Erkidegoak dauka, eta kasu horretan Udalak ere bai. Beraz, herritarren ikuspuntutik eskubidea egikari daiteke, eta Administrazioak ere eskubide horri bide eman behar dio. Printzipioz, hori argi dago. Baina gero, praktikan, ez dakit zergatik ez den euskara hizkuntza ofizial moduan erabiltzen. Ez dakit zuzenbidearen aldetik formakuntza edo lan pedagogiko nahikoa egin den ala ez. Legeak ere, eta Euskal Legeak Normalizazioaren Legean ere, euskara erabiltzeko bideak ezartzen dira baina gero, praktikan, zalantzak agertzen dira.

Publikoa: Beno, eskerrik asko Natxo. Gero Koldori ere beste galdera bat egin nahiko nioke. Zaldibarraren egin duzuen lana oso ona izan da, ondorio interesgarri batzuk atera dituzue, orain hausnarketa egiteko ere egokiak. Plan Orokorra egin duzue. Plan Orokorra ez du udalerrri guztiaren antolamendu xehatua sartzen, hainbat punturen egiturazko antolamendu bat baizik; lurzoru urbanoan xehatuko zenuen, baina lurzoru urbanizagarri horretan Plan Berezia egin beharko da kasu bakoitzean antolamendu xehatu hori zehazteko, eta agian hor ere beste herri-partaidetza bat edo bultzatu beharko zenuketen, hor etortzen baitira azken finean egitasmo berrietan hainbat eta hainbat kritika eta gatazka (bataren iritziak, bestearenak,...). Nik esan duzun hori azpimarratu nahiko nuke, partaidetza hori bultzatzen dugunean, hortik ateratako ondorioak bezain garrantzitsua dela partaidetzaren portzentajea ikustea (eta portzentaje hori oso goikoa izatea lortu behar dela, nolabait ere). Demagun udalerrri batean gauza zehatz bat egin behar dugula, Plan Berezi bat, proiektu espezifiko bat. Herritarren partaidetza eskatzen dugunean eta ondorioak eta emaitzak garbiak direnean, % 80a aldekoa eta beste % 20a kontrakoa denean, partaidetza oso lagungarria da eta ondo dator. Baina zer egin dezakegu partaidetzak % 51 aldeko eta % 49 kontrako direla esaten duenean? Proiektua eraldatuz erdibide bat bilatzen saia gaitetzeko agian, baina askotan hori ere ez da hain erraza izaten. Kasu horretan zer egin dezakegu partaidetzaren erabilera horrekin emaitzak hain desberdinak direnean? Nola kudeatu kasu horiek?

Koldo Telleria: Zaldibarreko Plan Orokorra martxan dago. Orain Diagnostika bukatu dugu eta Aurrerapena egitera goaz, hor gaude. Guk ez dugu parte-hartzea jendeari erabakitze gaitasun osoa emateko bide bezala ikusten, izan ere, orain Aurrerapena egiterako orduan gaude eta gure prozesuan zehar, Aurrerapen honetarako *preferendum* bat planteatu da. Preferenduma aukera batzuk jarri eta zuk esan duzun botazio moduko bat egitea litzateke, ez A, B edo C aukeratuz, aukera ezberdinetako aspektu ezberdinak ikusiz botazio konplexuago bat eginez baizik, eta bertatik joera batzuk aterako lirarteke. Ez dugu parte-hartzea “hau” edo “hau” aukeratzea denik sinesten, orain, Aurrerapena egiterako orduan, xehetasuneko plan bat aukeratzeko; aurrerago Plan Berezi edo Plan Partzial batekin garatuko den inguru horrek zer joera izan behar dituen, zein diren nahiak, zein diren helburuak, zein diren arriskuak,... eta horiek ondo zehaztea da helburua. Tekniko eta tokiko jendearen hibridazio horretatik, ez da herritarrak arkitekto bihurtzea eta arkitektook herritar, bien nahasketatik sortuko den zerbait baizik. Zehaztaper horietan eta botazioetan ez dugu gehiegi sinesten, guk parte-hartzea ulertzen dugun bezala. Eta aurreko galderarekin, euskararekin eta... Gure taldean, talde ezberdinak daude (ingurumen lanean ari direnak, arkitektoak, antropologoak,...) eta bakoitzak bere hizkuntzan egiten du lan, eta dokumentuak bakoitzaren hizkuntzan doaz. Gure parte-hartzeko dokumentua euskaraz joan da eta euskaraz dago. Egoera horrekin zenbait herritan arazoak izan ditugu; Gipuzkoako beste herri batean lan bat entregatu dut orain, eta erdaratzeko eskatu didate. Nik, eguneroko lanean, esfortzu gogorra egin behar izan dut euskaraz lan egiteko, hirigintza eta arkitekturako ikasketak erdaraz egin baititugu. Baina Administrazioak berak ere, euskara babesten duen heinean, erdara babesten du.

Publikoa: Amaitzeko, Zaldibarreko kasuan egin duzun eskeman, herrian bertan erdararen erabilera gehiago nabarmentzen zela komentatzen zenuen mendiko auzo txikietan eta baino. Gero Unaiak, adibidez, herrigunearen hazkuntza ere eremu batzuetan kokatzea hobe dela esaten zigun, ingurumenari buruz egiten zituen hausnarketa txikien harira: errazagoa dela herri barruan garraio publikoak eta bultzatzea, zatitutako eremu txikietan baino (non garraio publikoa garatzea zailagoa izango zela). Nola uztartu dezakegu euskararen erabilera herria handituz edo gutxituz? Azken finean, euskara ez dakien bat agian erosoago sentitzen da eremu handi batean, bere kasuan dagoen jende gehiago egongo delako eta agian eremu txikian baino euskara ikasteko behar gutxiago duelako, hor euskara pixka bat ikastera behartuago sentituko litzatekeelako edo. Nola uztartu euskararen erabilera eremu txiki-handietan eta ingurumenaren zaintza, bai garraio publikoak... garatuz? Beno, honekin bukatzen dut, eskerrik asko.

Unai Fernandez de Betoño: Nik horretarako ez daukat erantzunik. Nik dakidana da Euskal Herri honetan, Igeldoko igeltxoak euskalduna baino gehiago kontuan hartzen dela. Igeldoko igeltxoak Igarako putzu batean zegoelako, hango industriagunea handitu zenean, sekulako arazoak egon ziren. Horrek, bertako hirigintza-plana aldatzeko eragina izan zuen. Bisoia europarra ere kontuan hartu zen Ondarroan Aieriko urbanizazio handi eta berria planteatzerakoan, eta bertan behera gelditzeko arrazoiak bat hori izan zen. Barrika eta Plentziako Txipioko urbanizazioa ere bertan behera gelditzeko arrazoiak padura horretan dauden ornogabeak oso aberatsak omen direla izan zen. Hau pixka bat probokatzeko esaten dut. Animaliak gara, baina arriskutsua iruditzen zait euskalduna desagertzeko arriskuan dagoen espezie gaixo baten moduan tratatzea. Baina egia da planak askoz gehiago aldatzen direla ingurumeneko gaiak kontuan hartuta (eta oso ondo iruditzen zait, ez nago hori kritikatzeko); bestea ez da kontuan hartzen. Nik ez dakit zehazki, ez daukat zure galderarentzako erantzunik, baina gutxienez, mahai gainean jarri behar dugula uste dut. Nik ere galdera hori egiten diot nire buruari. Beste gauza bat galdetu behar zenuela uste nuen, ea euskaldunok ez dugun inoiz zerbitzu guztiak izango dituen hiri handi bat edukiko. Zuk ere Koldo, ia beti egiten den bezala, landagunea eta euskara, eta herrigunea eta erdara erlazioan dituzu. Ez dugu inoiz hiri handi euskaldun bat edukiko? Lehen aipatu dudana Koldo Izagirrek *Autopsiako Frogak* liburuan esaten du bazirudiela duela urte batzuk Donostia izan zitekeela hiri handi hori, eta beno, gaur egun ez da hain baikorra.

Koldo Telleria: Nik, azkenean, laborategi lan bat egin dut hizkuntzekin eta gizartearekin, eta hizkuntzarekin baino gehiago, gizartearen bizimodua dela ohartu naiz. Harreman horietan gehiago da hizkuntza bati erlazioatutako bizimodu mota bat, hizkuntza bera baino. Zuk esaten zenuenarekin, nik ez dut uste erantzun bat dagoenik zure galderarako, eta tokian tokiko aukera eta azterketak egin behar direla uste dut. Guk egin dugun azterketa honekin ez gara eredu baten bila joan; hemendik aurrera, parte-hartze prozesuetan eta hirigintza prozesuetan izan beharreko ikuspuntu bat itxuatzerantz baizik. Ingurumena landu nahi badugu eta ingurumenaren gainean erabakiak hartu badira, komunikazioa eta jakituria hori dena euskara hiztunetan gehiago egongo da, lurraekin harreman zuzenago bat izan dutelako beti, gaur egun harreman horrekin jarraitzen dutelako, eta beraien bizimodua ere lurraekin, hizkuntzarekin lotuta, jasangarriagoa delako. Nire aurkezpena alde horretatik planteatu nahi nuen, hirigintza eta lurralde-antolamendua egiterako orduan, etorkizunerako planteamendu egoki bat emateko jakituria ezberdinak non bilatu jakiteko, eta hor, Natxok ondarea aipatu du lehen. Ondarea, lurralde-antolamenduan objektu bat bezala planteatzen zaigu, oso ondo esan duzun bezala. Orain, 2006tik aurrera, ondare immateriala Lurzoruaren Lege berrian ondare bezala sartzen da, eta alde horretatik joan beharko genukeela uste dut nik. Ondarea, harizti batean ondoak non ateratzen diren jakitea ere bada, eta ondare hori, segur aski, euskararen baitago dago erdara edo ingelesaren baitago baino. Bide horiek jorratu nahi baditugu; hizkuntza aukeraketan eta hizkuntza zaintzan nolabait ere zuzentzeko bidea izan nahi zuen aurkezpenak.

Unai Fernandez de Betoño: Nik hiri handiaren ideia edo pixka bat sakontzeko, Natxori: Euskal Hiria bultzatzen ari den kontzeptu hori, euskararen atzerakada bat edo ekar dezakeena, pixka bat azaldu diezagukezu?

Natxo Cubero: Galdera hori soziologoentzako izango dela uste dut. Agiria beti soziologo, arkitekto, ekonomialariek... egiten dute. Agiria ikusita, ez da ez euskaraz ez hizkuntzaz hitz egiten, kulturaz hitz egiten da, ondareaz, industria kulturalaz, turismoaz... eta ez dakit euskara komunikatzeko eta lurralde-antolamenduaren kohesioa lortzeko tresna bihurtzeko biderik onena den, zalantzak ditut. Soziologoek izango dute zeresanik ideia honi buruz. Agirian beti "kultur" hitza, eta "kultura-ondare" hitza azaltzen

dira (dokumentuan 18-20 aldiz), baina euskara, hizkuntza, ez da agertzen. Nik horren inguruko nire kezka azaldu dizuet, beharbada azkenean euskara merkataritza-objektu industrial bat bihurtu daitekeela iruditu zaidalako baina... non daude pertsonak? Lurralde-antolamendua pertsonok, herritarrok egiten dugu. Horregatik, gaur egun lurraldea, hizkuntza eta euskararen arteko harremanak eta kohesioa erdiesterako orduan, parte-hartzea tresna garrantzitsuena dela azaldu dizuet.

2 | Parte-hartzea

Publikoa: Koldok kontatutakoaren harira, kontatu zidaten esperientzia baten oroipena etorri zait. Herriren batean hondamendi natural bat egon zen eta herria berreraikitzeke bertakoen parte-hartzea eskatu zuten, herri hura lehen nolakoa zen gogoratzeko. Elementu kulturalengatik, talde bi egin zituzten: bat gizonezkoena eta bestea emakumezkoena. Irudi bat, marrazki bat egiteko eskatu zieten, garai batean erabat deseginda gelditu zen beraien herri hori nolakoa zen adierazteko. Eskatu zieten gauza bakarra adostea izan zen, ezin zituzten proposamen ezberdinak aurkeztu, talde bakoitzak bakarra aurkeztu behar zuen. Itxura denez, gizonezkoek hilabeteak pasa omen zituzten eztabaidan eta ezin adostu, eta azkenean lau marra aurkeztu zituzten; emakumezkoek, aldiz, astebetean plano xehatu bat aurkeztu zuten. Halako adibide bat adierazgarria da, genero ikuspegiak lurralde-egituratzearen eta lurralde-ikuspegiari begira zeresana baduela ikusteko. Ez dakit aztertu duzuen, baina nik Zaldibarren ea hizkuntzari lotuta halako ezberdintasunik egon den jakin nahiko nuke, alegia, euskaldunek egin dituzten diagnostiko edo azaldu dituzten ikuspegi eta proposamenetatik eraldunek egin dituztena. Edo nahi baldin bada, landa-inguruan egin diren proposamenetatik, beste herrigunean egin edo azaldu diren proposamenetara.

Koldo Telleria: Ez. Hizkuntza, komunikatzeko orduan zaindu dugu. Begirune handia izan dugu komunikazioaren esparrua zabaltzerako orduan eta tailerretan ere aurkezpenak bi hizkuntzatan egin dira. Lantaldeak libreki antolatu dira eta bakoitza bere hizkuntzan moldatu da. Ez dugu azterketa sakonik egin, ez nintzateke zeinek zer ekarpen egin duen esateko gai izango. Niri bi gauzek harritu naute gehien: batetik, landa inguruak duen bizitza modu globala izan da, eta bestetik, prozesuaren hasieratik gaurdaino jendeak egin duen pentsaera aldaketa (landa-eremuan batez ere). Herriko arazoak garbiak izan dira: autoa eta oinezkoen arteko gatazka, parke baten kudeaketa... Landa inguruan, ordea, pinuen ustiapena, mugak nola sortu, ekosistema pentsaera sartzeko landa inguru horretan... Hasierako jarrerak oso gogorrak izan ziren eta arazo gehien edo konfrontazio gehien izan dugun tailerra baso ustiapena eta landa-gunearen ingurukoa izan da, hori egon dira iritzi kontrajarri handienak. Baina beharbada hori egon dira parte-hartzaileen hausnarketa eta iritzi aldaketa gaitasun handienak ere. Gaur egun, Zaldibarren, pinua dago batez ere. Beste aldetik, egin diren azterketetan, aurretik ekosistemikoki eta ekonomikoki onura hobeak zituzten beste mila erabilera zeudela ikusi da, eta beste adibide batzuk erakutsiz bideak zabaltzeko landa inguruan erabaki potenteak hartzeko moduan. Ez dakit erantzun dizudan.

3 | Parte-hartzea

Publikoa: Bai, nik bi galdera. Gai hau planteatu genuenean, Aldundian, etxe barruan ere sorpresa aurpegiak ikusi nituen hizkuntza, lurraldea eta lurralde-antolaketa gai hauek elkarri lotuta aurkezterakoan. Beraz, Natxori bereziki baina gainerakoei ere: zer aurreikus dezakegu gai hauekin udaletara edo beste administrazio batzuetara joaterakoan? Toki horietan hizkuntza eta lurralde-antolaketa elkarri lotuta aurkeztean edo kontuan izateko eskaria egiterakoan? Eta herritarren partetik ere zer aurreikusi dezakegu? Hori bat. Eta bigarrena, hori bai Natxo, bereziki zuri: zer beharko genuke Lurralde Plan Partzialetan hizkuntzaren gaia planteatzeko?

Natxo Cubero: Bi galderak lotuta daudela uste dut. Plan Partzialetan, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzerako orduan adibidez (Administrazioak bultzatzen baititu beti), Administrazioak erantzukizun bat daukala uste dut. Hori alde batetik. Bestetik, eskualde batean lurraldearen erabilera antolatzeke edo finkatzerako orduan, hiria nola ordenatzen den hartu behar dugu kontuan, zer eragin izango duen euskararen. Unai proposamen bat egin du, eta arkitekturan ni ez naiz jakitun, baina agian etxebizitzaren zenbatekoa edo etxebizitzarako lurzorua zenbatekoa mugatuz, kaleak nolakoak izan behar diren mugatuz, eta batez ere, komunikazio-bideak, errepideak eta azpiegitura handiak non kokatu behar diren zehaztuz, horretan eragin genezake. Hori hiriarri dagokionez. Bestalde, Plan Partzialek eskualdeetan

dauden herrigune edo herri txikien araubidea izango dute. Baina zer gertatu da? Plan Partzialak ikusi ditudanetan, hizkuntza ez dela aipatzen. Beraz, etxebizitzak eraikitzeko zenbatekoak, lurzorua... beste irizpide batzuei begira mugatzen da, ez euskarari begira. Eta nik Lurralde Plan Partzialetan, euskarak faktore gisa eragina izan behar duela uste dut. Artezpideetan faktorea dela ezartzen da, eta lurralde-antolamendua arautzerako orduan faktorea da, baina ez da funtsezkoa; Artezpideek beraiek ezartzen dute ez dela funtsezko osagaia. Lurralde Plan Partzialetako memorian, edo ordenazio fisikoari buruzko araubidean, hizkuntzaren irizpide hori sartu daiteke lurzoruaren erabileran (eta batez ere etxebizitzan, Unaik aipatu duen bezala). Irizpide hori sartzea komenigarria dela uste dut. Irizpide hori ez da aipatzen ez memorian, ez ordenazio fisikoaren analisi edo azterlanean, ez ekonomiaren aldetik egiten den azterlanean. Eta gero, lehenengo galderari dagokionez, oso laburra izango naiz. Azterketa horiek Artezpideetan txertatu behar direla uste dut. Hizkuntza etxebizitzaren zenbatekoa finkatzerako orduan irizpide bat izan behar dela iruditzen zait, eta matrizean ere kontuan hartu beharko litzateke lurzoruaren erabilerak finkatzerako orduan. Orain ez daukagu. Eta gainera, Euskal Hiria aztertzerako orduan Artezpideen aldakuntza egiten denean, kultura agertzen da baina euskara hizkuntza ez, hori da arazoa.

Koldo Telleria: Nik zerbait esan nahi nuen. Euskara hirigintza edo lurralde-antolaketa nola txertatu esaten zenuen. Gu 2002an hasi ginen generoa eta hirigintzaz hitz egiten; jendeak barre egiten zigen. Benetan eragina zuela ikusten genuen, eta horretan sinesten genuen. Gaur egun, lan asko egiten dira generoa eta hirigintzaren inguruan, eta parte-hartzearekin berdina gertatzen da. Guk, duela hamaika urte parte-hartzeaz eta hirigintzaz hitz egiten genuenean, estralurtar batzuk ginen, baina horretan sinesten genuen. Begira hamar urtetan nola aldatu diren gauzak. Ez gure lanagatik, zentzuzko gauzak zirelako baizik. Hizkuntzarekin, beste horrenbeste dela uste dut, oso txikitik hasi eta gero eta lan handiagoak eginez, ikerketa askorekin, eta lehenengo ulertuz. Gauza da harremana ikusten dela, zerbait ikusten dela, baina landu gabe dagoela oraindik, ez dago ondoriorik. Ikerketa garai batean gaudela uste dut. Legeetara iristeko eta araudian txertatzeko irizpide bezala planteatu daitezke, baina benetan lotesleak diren erabakiak hartu aurretik ikerketa lan handia dago, eta gauza txikitatik hasita, benetan horrela ikusten badugu, seguru iritsiko garela.

Unai Fernandez de Betoño: Bost minutu gehiago dauzkagu, ea galdera bat edo bi edo hiru sartzen diren.

4 | Parte-hartzea

Publikoa: Koldorentzat: lehenengo zuen Zaldibarko pilotalekuaren kontu hori oso erudugarria iruditu zaidala esan behar dizut. Nola egin duzuen kontatu duzunean, denok egin dugu barre txiki bat herritarrek alde batera eta politikariak beste alde batera eseri direnean. Beste mahai batzuk hutsik zeuden, eta niri burura etorri zaidana hutsik zeuden horiek lurzoru jabeenak izango zirela izan da. Non daude zuen esperientzia horretan lurzoru jabeak? Eta pilotaleku horretan nolabait pilota erreboteraino joan denez, Natxorentzat: oso ondo adierazi diguzu eskema bidez Estatuak, autonomia erkidegoak,... non dauden, eta bakoitzaren papera, funtzioa eta indarrak. Zoritxarrez, gure hizkuntzaren lur-eremua ez dator Estatuarekin bat; Estatuak gauza bat da, hiru lurralde ezberdinetan gaude, eta Lurzoruaren Legeak Estatuak ipintzen ditu. Posible al da estatu bat, hiru lurraldeak edo hizkuntzaren lurralde-osotasuna hartuko duenak hemen planteatzen ari zareten euskararen normalizazio ikuspegi horretara iristea?

Koldo Telleria: Parte-hartze prozesu horretan lur-jabeez galdetzen zenidala uste dut. Lur-jabeak herritarrek dira, eta herritar guztiak izan dute aukera prozesu guztira etortzeko, komunikazio zabala egin da. Politikari batzuk lur-jabeak dira, eta herritar batzuk lur-jabeak dira. Guri lur-jabea ez zaigu ardua. Prozesuan ez zaio garrantzi berezirik eman lur-jabeari, garrantzirik ez daukala uste dugulako. Garrantzia eguneroko bizitzari eman diogu. Kudeatu behar denean eta beste gauza batzuk daudenean emango zaio garrantzia gero, baina benetan beharrak eta indarrak identifikatzerako orduan, lur-jabeak bere bururantz begiratuko du eta ez du kolektibotasunerantz begiratuko. Hortaz, ez dugu esfortzu berezi bat egin.

Natxo Cubero: Estatuaren eragina, eremu batzuetan eskumen eskusiboa daukalako erakutsi dizuet. Horrek, lurraldean ere bere isla izango du: kostaldean, uretan, interes publikoko azpiegituretan, eta abar. Euskarari begira, lurralde-antolamendua arautzerako orduan, euskara irizpide gisa erabili behar dela uste dut, baina Estatuak ezin du esku-hartu kasu horretan, euskara bultzatzeko eskumenean

(salbu eta administrazio-prozedura batean parte hartu behar badu). Lurralde-antolamenduan eragina izan dezake, eskumen eksklusiboa baitauka. Ez hirigintzan, baizik eta hiri batzuetan plana onartzerako orduan. Eta nola? Estatuak plan sektorialak, araubideak, legeak,... onartu ditzake eta horiek udalerrientzako bete beharrekoak izango dira.

Unai Fernandez de Betoño: Sentitzen dut baina azken galdera egingo dugu, esperientziak ikusteko denbora murriztuko zaigu-eta bestela.

5 | Parte-hartzea

Publikoa: Labur egingo dut. Pixka bat kritikoa izango naiz ni. Birritan atera da eta euskara eta landa-munduaren arteko idealizazio bat dagoela iruditzen zait. Ez dakit beti bezala jarraitzen ote dugun, bere garaian Txomin Agirrek mendiaren idealizazio hori egin baitzuen bere *Garoa* liburuan (berak beste lotura batzuk egiten zituen), baina ez dakit orain ere horrelako lotura errazegiak ez ote diren egiten. Eta horren bidetik, egiten den beste lotura erraz bat etxebizitza berri edo herrien hazkuntza eta erdalduntze arriskuaren artekoa da. Nik edo beste norbaitek, norabait bizitzera joan nahi izatea gerta daiteke, zehatz-mehatz, arnasmunea delako, eta horrek ere hazkuntza bat ekarriko luke. Hor Unai aipatutako komunitatearen gai hori gakoa dela uste dut. Hausnarketa bat, besterik gabe.

Unai Fernandez de Betoño: Ni neurri batean ados nago. Idealizazio bat dago eta kasu askotan ez da egia izango, baina herrietan etxebizitza gune berriak egiten direnean zer gertatzen den aztertzen hasten zara eta, azken finean, euskaldunon kalterako izaten dela ikusten da. Ekosistema batean aldagai berri bat sartzen denean, desoreka une bat dago oreka berri bat lortu arte. Herri batean etxe berri bat egiteak, desoreka bat ekartzen du. Batek sortzen duen desoreka txikia da agian, baina 100, 200, 2000 egiten direnean, horrek asko desorekatzen du. Nire ustez, horrek zer eragin izango duen aztertzea da gutxienez egin behar dena, ingurumenaren alorrean egiten den bezala esate baterako. Horrek eraginik ez duela edukiko ondorioztatzen bada, ados, baina gutxienez, goazen aztertzerara. Nire ustez, Lurraldearen Antolakuntza Artezpideetan oso ondo detektatu beharko liriateke arnasmuneak, eta etxebizitza kuantifikazioa egiten denean, horiek oso ondo zaindu beharko liriateke hizkuntzaren ikuspegitik. Gutxienez, minimo hori lortu beharko genuke, zeren eta egiten ari den aldaketan, etxebizitza kuantifikazio minimo bat ezarri da berritasun bezala. Aia bat, Aizarnazabal bat (aipatu ditudan bi herri horiekin jarraitzeagatik), nahi eta nahi ez hazi egin beharko dira azkenean euskalhiria.net izeneko gidalerro horiek behin betiko onesten baldin badira. Nire ustez, kontu hauek kontuan hartu beharko liriateke etxebizitza kuantifikazio berriak egiterakoan. Idealizazio puntu bat dago, baina nik uste, zoritxarrez, hor zerbait gehiago ere badagoela.

Koldo Telleria: Ni zurekin nago bi idealizazioetan eta ez dakit, asko hitz egiten ari da euskara eta etxebizitza, etxebizitza eta euskaraz, eta oso arriskutsua dela uste dut, hain gauza sinplea ez delako. Hemendik ezin gara buruan euskararentzat etxebizitzak egitea txarra dela erlazionatuz joan. Etxebizitza asko egin behar dira euskaldun asko bizitzeko. Non, nola,... hori da kontua. Aurreko hausnarketa batera joango nintzateke ni: goazen lurraldea euskaratik nola ulertzen den, erdaratik nola ulertzen den eta ingelesetik nola ulertzen den ikustera, eta alde bakoitzak zer onura dauzkan planteatzera, ez euskarak bakarrik, erdal guneak eta ingelesa guneak ere. Lehenengo jardunaldietan gaude, hausnarketa garai batean eta analisi garai batean, eta sinplifikazio hori erabat sinplea da. Niri hori ikusteak asko lagundu dit: hurrengo prozesuetan lurraldea nola begiratu jakiteko, eta zeinengana jo zer jakin nahi dudanean. Euskara-etxebizitza harremanaz asko hitz egin da goiz honetan hemen eta faborez, hautsi.

Unai Fernandez de Betoño: Ondo dago puntualizazioa nire ustez eta puntualizazio horrekin bukatuko dugu. Hamabiak eta laurdenetan bueltatuko gara.

2. ARNASGUNEAK EUSKARAREN HERRIAN: ARRISKUAK.

David Anaut, FILOGOEA, EUSKARA TEKNIKARIA | Moderatzailea

Jardunaldiko bigarren mahai-inguru honetan, Euskal Herriko lurralde eta udalerrri ezberdinetako lekukotasun batzuk ezagutu behar ditugu. Saio honetan bost hitzaldi ditugu, bost hitz. Bi orduko iraupena dauka, orduan bakoitzak printzipioz, gehienez hogeitun minutuko tartea daukagu hizketarako. Horren ondoren, gelditzen den tartea zuei hitza emateko utziko dut, zerbait galdetzeko edo zerbait esateko.

Hitza hartzen lehendabizikoa Beñat Etxebeste izango da. Zuberoako Etxalde elkarteak kidea da eta higiezinetakoa agentea. Etxalde elkarteak, etxebizitzaren inguruko dinamika bat eta lan bat egiten ari da, Zuberoan bereziki, baina bere eragiteko esparrua Ipar Euskal Herri osoa da. Ondoren, Ziortza Bilbaok hartuko du hitza. Busturiko Kultura, Kirola, Hezkuntza eta Euskara zinegotzia da, eta Busturian azken hamarkadetan gertatutakoa azalduko digu, hirigintzak euskararengan izan dezakeen eraginaren adibide bat. Hirugarrena, Xabier Mikel Errekondo izango da. Usurbilgo alkatea zen UEMAn gaurko gaiaren inguruko kezka hau planteatu zenean eta berak Zubietako egoera azalduko digu. Eta hitza hartzen laugarrena, eta azkenengoa, Jakoba Errekondo izango da, Zerain Dezagun Fundazioko teknikaria. Lehen sektorea eta hirugarrena uztartuz, herriaren garapen sozioekonomikoaz arduratzen den fundazioa da Zerain Dezagun Fundazioa eta Jakobak horren inguruko argibide batzuk emango dizkigu. Lau hizlariak bukatzen dutenean, neronek nolabaiteko gogoeta bat egingo dut, arnasguneen ikuspegitik edo, lurraldea eta hizkuntza gai honen inguruan. Besterik gabe, hitza emango diogu Beñati.

Beñat Etxebeste, ETXALDE ELKARTEKO KIDEA | Hitzaldia

• ZUBEROAKO ESPERIENTZIA.

Egun on edo eguerdi on guztiei. Iparraldean ordu honetan jaten dugu eta hemen lan egin behar dugu, ez da berdina. Barkatu nire euskararengatik, ez naiz eskolan ibili euskara ikasteko eta batua Hegoaldeko tabernetan ikasi dut. Gaia oso berezia dela jakinik hitz teknikoak izango dira, baina badakit imaginazio handia duzuela eta dena ondo ulertuko duzuela. Etxalde elkarte bat da, elkarte oso normal bat. Franzian festak egiteko edo kirol talde bat sortzeko egiten diren elkarteak bezala, Etxalde izeneko elkarteak sortu dugu guk. Berrogei bat lagun gaude ideia erraldoi baten itzulian. Lehen Euskal Herriko Lege Zaharra zegoen eta gaur egun Napoleonek edo erromatarrek eskaini diguten jabetasun pribatuaren sistema daukagu. Sistema horrek gauza guztiek jabe bat izan dezaten nahi du. Jabe hori, normalean, pertsona fisiko bat da. Pertsona hori hiltzen denean, ondasun horiek ondoko jendeari pasatzen zaizkio (izan hurrengo belaunaldia, auzoa...) eta pasatze horretan Estatuari zergak ordaindu behar zaizkio. Familiak ondasun hori bereganatu ezin badu, ordaindu ezin badu, merkatura ematen da ondasun hori. Merkatura oso altua denez (hori da Miarritze, Donibane Lohizune eta Baiona edo Donostia bezalako hiriekin gertatzen dena), dirudunek erosten dituzte ondasunok eta dirurik ez dutenek edo mailegurik eduki ezin dezaketenek urrunago joan behar izaten dute bizitzera, gero eta urrunago. Dirudun horiek zendutakoan, etxe hori berriz merkatura sartzen da eta bertan, eroslearen arteko konpetentzia bat egongo da beti, jendearen arteko gerra ekonomiko bat.

Nire lanarekin (higiezinetakoa agentea), familietan eta herrietan zer gertatzen den ikusten dut: diru asko joaten da estatu edo eskualdeko kolektibitateetara zerga moduan, edo finantza mundura bestela, maileguen bidez. Sistema horretan parte hartuz, sistema hori hausteko zer egin zitekeen pentsatzen aritu gara gu. Etxe, lur, lantegi, edo nahi dena, behin betiko kolektiboki (elkartearen izenean) jabetzea da gure helburua, etxe horren barnean den errentaria beti errentaria izango dela jakinez, inoiz hura erosteko eskubiderik izan gabe. Oso inportantea da hori. Merkaturik pribatuari etxe edo leku bat behin ordainduta, ordainduta dago betiko. Hori egin ondoren, errentariak ez luke alokairu handirik ordaindu beharko, eta bai kontsumitzeko, edo beste ondoko etxe bat edo ondoko lur bat erosteko, edo haurren

formakuntzarako, edo lantegietako langileen prestakuntzarako dirua izango luke. Hori eginez, dirua ez da finantza-mundura joango, hori da Etxalderen ideia.

Berrogei bat lagun gaude eta memento honetan ez dugu jenderik falta, denbora baizik. Une honetan sei apartamentu ditugu bi atalondotan, zortzi edo hamar bat garaje, eta salerosketa toki bat, denak Zuberoan. Falta duguna denbora pixka batekin edo denbora osoz egon daitekeen norbait da, kostaldeko hiriguneetan, arazoa den lekuetan, gauzak antzeman (enkanteetan eta saltzeko direnean) edota bestela ere, lan egiteko, ondasun asko dituen eta sail publikoan ari den elkarte batentzako zerbait emateko prest egongo litzatekeen jendea badagoela dakigulako. Elkarte horretatik fundazio bat nola egin ere ikertzen ari gara, jendeak beren ondasunetatik zerbait eman ahal izateko. Orduan, hizkuntza eta etxebizitzaren arteko lotura, hizkuntza baino gehiago, Euskal Herriak lehen zuen funtzionatzeko era dela uste dugu. Lege zaharrak ez etxaldeetan "jabeak" eta "besteak" zirenik esaten, bizitzeko modu bat zen. Bi belaunaldi jabe bizi ziren bertan, baina ez ziren sekula lurraren jabe, erabileraren jabe baizik. Eta horri, erabiltzeari, gauzen erabiltzeari eman behar zaio lehentasuna. Hori, ez besterik. Eskerrik asko.

David Anaut: Eskerrik asko Beñat. Lehen esan bezala, galderarik edo baduzue mesedez apuntatu eta saio guztiak bukatzen ditugunean, orduan egingo ditugu. Hitza orain Ziortzak hartuko du.

Ziortza Bilbao, KULTURA, KIROLA, HEZKUNTZA ETA EUSKARA ZINEGOTZIA | **Hitzaldia**

• BUSTURIKO ESPERIENTZIA.

Beno, hasi aurretik eskerrik asko antolatzaile guztiei gaur gure esperientzia hemen zuekin partekatu ahal izateagatik. Ez naiz asko luzatuko, argi azalduko dut. Ez dakit Busturia eta Murueta herriak ezagutzen dituzuen, hauek kokatzen dituzuen. Busturia eta Murueta Urdaibaiko Biosfera Erreserban daude, Busturialdean, Gernika eta Bermeo artean. Busturia erdian kokatzen da, batetik zazpi kilometrora eta bestetik beste horrenbestera. Kontua da, 60ko hamarkadan ontziola bat sortu zela Muruetan, Muruetako ontziola, "astilleros" deitzen dena gaur egun (erdaraz erabiltzen da). Horrek ondorioak izan zituen gure herrian. Ontziola horiek lursail bat zeukaten Busturian eta bertan etxebizitza eraikin bi eraikitzeke agindua eman zuten. Espainiatik, herrialde ezberdinetatik, familia pila bat etorri ziren bi eraikinetan banatutako 48 etxebizitza horietara, eta etorkin horiek batez ere Extremadura, Zamora, Gaztela-Mantxako beste herrialde ezberdinetatik, Galiziatik... etorri ziren. Horrek zer ondorio izan zuen gure herrian? Ondorioa zuzena izan zen, auzo batean batez ere. Busturia bost auzoz osatuta dago, Altamira, San Kristobal, Paresi, Axpe eta San Bartolome, eta etorkin horiek guztiak auzo berdinean kokatu ziren, San Kristobal auzoan.

Zer gertatu zen? Auzo horretako populazioa igotzeaz gain, auzo hori erdaldundu egin zela. Muruetako ontziolak lursail horiek erabili zituen jende hori ekartzeko. Busturirako orban moduko bat izan zen, ghetto moduko bat sortu zen han; beste inguruetako langile ezberdinak ere egon ziren, baina horrek guztiak eragin handia izan zuen. Unaiak lehen komentatu du kanpotik etorritako jendeak zer eragin izaten duen herri ezberdinetan. Gure hizkuntza ohituretan negatiboki eragin zuen, beste lau auzoak oso euskaldunak zirelako. Beti izan gara euskaldunak oso (orain horrela izaten jarraitzen dugu) eta zorionez, urteen poderioz, San Kristobal auzoan aurrerapauso bat eman izan dugu. Gure eskola publikoak horretan eragin handia izan duela esan dezakegu.

Datu batzuk ematearren (2011ko EUSTATen datuak): Busturiko biztanleria 2011n 1.745 pertsonakoa izan zen. Euskaldun kopuruaren araberrako datuak ondokoak dira: % 70a inguru euskara hutsekoak, erdaraz egiten dutenak % 13a eta ia euskaldunak direnak, 359 biztanle, % 20a. Datu horiek aldatuz joan dira, 2014an euskaldun gehiago daude. Saiatzen ari gara hori askoz euskaldunago izaten, hor dago koska. Udalaren lana hor dagoela uste dugu. Euskararen arloan, aldaketa honetan, eskolak arrakasta ikaragarria izan zuela esan dut. Datu batzuk ekarri ditut. Lehen, erdal ereduak bakarrik egon zen 60ko hamarkadan. D ereduak jarri zen gero, B ereduak ere bai. Aukera egon zen erdaraz, elebidunez ala euskara hutsean ikasteko. 1996-97tik aurrera, herriko eskolan D ereduak bakarrik jartzen da mar txan; 1995-96. urteetan 8.mailan talde bakarra zegoen B ereduak, beste guztiak, hortik beherakoak, denak ziren euskara hutsezkoak.

San Kristobal auzoa apurka-apurka aldatuz joan dela uste dut, bertan jende euskaldun, familia euskaldun gehiago hasi dira bizitzen. Populazioa aldatuz joan da, eta Udalak hor lan handia izan duela uste dut. Lehen beste herritarrekin harremanik ez zuen jende horrek kultur batzordeetan parte hartzen du gaur egun, herri-batzarretan. Handiagoa da herriarengan duten eragina. Beraien auzokoekin baka-rik zuten harremana lehen, eta, arlo horretan, errealitate euskaldunago batera goazela uste dut, aldatuz doa apurka-apurka. Gaur egun, eraikin bi horietan euskaldun jendea bizi da gehienbat. Bertan bizi den erdaldun jendeak bere seme-alabengatik, ilobengatik, birbilobengatik Udalak antolaturiko euskara eskoletan parte-hartzen dutela ikusten dugu, saiatzen direla, euren jarrera aldatu dela. Eguneroko bi-zitza horretan parte-hartzen saiatzen dira nahiz eta batzuetan iskanbila sortu: jaietan ateratzen ditugun liburuxkekin beti egongo da kexaren bat erdaraz ez delako ezer jarri, euskara hutsean atera delako, edo bandoak ateratzerakoan euskarari indar gehiago ematen zaiolako eta beraiek ez dutelako ulertzen. Herri euskaldun bat izanik, UEMAko kide izanik eta biztanleriaren % 70a euskalduna izanik, gakoa hor dagoela uste dut, ahal den neurrian euskara hutsean egin behar dugula. Lan handia daukagu oraindik herri mailan egiteko, bai udal barruan zein herritarrekiko hartu-emanetan, baina udal ordezkariok ilusioz ari gara lan handia egiten, motibazio handiarekin ekingo diogu lanari, eta familia horiengan euskararen presentzia gero eta handiagoa mantentzen saiatuko garela uste dut. Euskaldun guztion hizkuntza-eskubideak bermatzeko hori da gure lana. Udalaren arlotik, auzotar horiek euskaraz gero eta gehiago aritzera gonbidatzen ditugu, normaltasun batera heltzeko. Eskerrik asko.

David Anaut: Eskerrik asko Ziortza, eta orain Xabier Mikel Errekondoren txanda.

Xabier Mikel Errekondo, ESPAINIAKO GORTEETAKO DIPUTATUA | Hitzaldia

• ZUBIETAKO ESPERIENTZIA.

Egun on. Deitu zidatenean, Zubietari buruzko informazioa garatzea planteatu zidaten. Zubietar peto-petorik egongo bada ere, lurralde-antolamenduak bertan zer eragin izan duen azaltzeko, herri sena duen gaur egungo auzo horren errealitatea Usurbilgo udaletxetik izan genuen esperientziatik kokatu ahal izango dugula uste dut. Sarrera txiki bat egingo dut, orokorra printzipioz, eta gero Zubietari helduko diot datu historiko batzuk botatzeko, Zubietari zer den benetan ulertzeko garrantzitsuak direla uste baitut. Azkenik, bere ezaugarriak aipatzen bukatuko dut, herri-izaera eta bere garapenari begira zer egoeratan aurkitzen den azalduz. Lehenik eta behin, galdera batekin hasi nahiko nuke: erakundeetan, trama bat edo margo bat plano baten baitan idazten denean, benetan ziur al gaude politikari horiek kontziente direla paper zuri horren azpian herri bat dagoela? Kontziente al dira hor badagoela hizkuntza bat, ohitura bat, kultura bat, harreman batzuk, bizitzeko molde bat? Herri-komunitate bat badagoela? Gure ustez, horiek guztiak dira herri egiten duten baloreak, eta nire ustez behintzat, herri-antolamenduan hartutako erabaki horiek guztiek balore hauek bermatu beharko lituzkete, hain justu.

Kontziente gara, beharbada gehiegitan, interes aparteko batzuen mesederako hartzen direla erabakiak edo margotzen direla tramak. Lurralde antolamenduak benetan eragiten ote du herri izaeran? Hemen guztiok nire iritzia berdina izango duzuela uste dut, noski eragiten duela. Nik behintzat argi daukat, inolako zalantzarik gabe. Tresna funtsezkoa den lurralde-antolamendu hori diseinatzen denean, zein norabidetan aplikatzen den da kontua. Horrek markatuko du benetan herri baten izaerari eta garapenari zer ekarpen egiten dion, gehitzen duen, babesten duen, baloreak bermatzen dituen, edo kontrako efektua sortzen duten. Zer zeren menpe dagoen, alegia: erakunde eta legeak herri-interesak eta herritarren interesak pean, edo beste interes batzuen pean jartzen diren. Edo nor noren menpe: politikariak eta teknikariak zuzenak diren ala ustelak diren (gaur egun errealitateak oso hurbiletik erakusten digu ohikoa dela halako egoera bat ikustea).

Beraz, bestetik zera esan nahi nuke: tamaina inportantea al da lurralde-antolamenduak eragiten duen edo ez ikusteko? Lurralde-antolamenduak Donostiaren izaerari eragiten dio, baina herri txikiei ere gehiago, eta Gipuzkoan denok dakigu gutxi gorabehera 60 bat herri badirela 5.000 biztanletik beherakoak, eta 1.000 biztanletik beherakoak ere asko eta asko direla. Herri bakoitzak (eta batzuetan auzoek ere) bere ezaugarri propioak dituzte, eta ezaugarri propio horiek bereak eta ezberdinak dira. Donostian bertan, adibidez, Bidebietak ezaugarri batzuk, ohitura batzuk, funtzionatzeko ohitura batzuk ditu baina Zubietak beste batzuk. Lurralde-antolamenduak bere oinarriko printzipio nagusienak ere ez

betetzera ohituta gaude, interes publikoa edo parte- hartzea direnak. Gure ustez, horiek zaintzea eta bermatzea funtsezkoa da. Eta sarrera honekin amaitzeko, lurralde-antolamendua Administrazioetik kudeatzen dela esan nahi nuke, baina herri baten izaeran dena ez dela lurralde-antolamendua, dena ez dela Administrazioa, alderantziz; Administrazioak hirugarren pertsona gisa jokatu beharko lukeela uste dut, lehenengoa eta protagonista herritarra delako. Herritarrik gabe ezin da herri izaerarik izan, ezin da herri molderik izan; Administrazioak, lurralde- antolamenduaz gain, diru-laguntza politikak, baliabideak (lokalak...), aholkularitza eta abar eskaini beharko lituzke, baina herritarrak behar dute izan eragile. Eta hain justu, hori esan eta gero, Zubietari helduko diot.

Zubietara ezagutu dezagun, ezaugarri fisikoak botako ditut lehenengo. Zubietara zazpi bat kilometro karratuko eremu bat da, landa eremua nagusiki (hori ere aldatzen ari dagoen arren). 533 bat biztanle ditu gaur egun eta esan genezake heren bat Usurbilgo parte dela eta bi heren Donostiako parte dela, beraz, gaur egun behintzat bi udalerrietan banatutako herri izan zen auzune bat da. 292 bat biztanle Donostiako eremuan bizi dira, 241 biztanle inguru Usurbilgo eremuan. Gainera, uharte bat modukoa da. Donostiako auzoa bada ere, urruti gelditzen da, eta horrek ere izan ditu bere ondorioak, Donostiarentzat urruneko gune bat izan baita gehienetan. Honez gain, Lasarte-Oria daukagu. Lasarte-Oria, ekialderantz gutxi gorabehera kaskoa bi kilometrotara gelditzen den herria da, 18.000 biztanlekoa, eta horren baitan kokatu behar ditugu Zubietaren izaera eta bilakaera.

Nolakoa da Zubietara? Zubietara ez da bi herrietan banatutako auzo bat soilik; duela mila bat urte herria izandakoa, eta gaur egun ere herri sena mantentzeko lanean edo borrokan dabilen herri edo auzoa; baizik eta herritarrak dituen gune edo komunitatea da. 1379an herritarren komunitatea zen eta ordura arte behintzat independentea izan zen. Indarkeria egoeragatik etxalde batzuk Donostiako Forura lotzea erabaki zuen, eta beste etxalde batzuk Usurbilgora. Jauntxo etxeak gutxi gorabehera 21 ziren orduan, hamalau Donostiara joan ziren eta zazpi Usurbilera joan ziren; horrek, lur eremuetan mosaiko bat sortu zuen, gero ikusiko dugun bezala. Zubietak ez du bere herri izaera hor galtzen, hor justiziako administrazio lanetan babesa izateko elkartzen da Donostia eta Usurbilera, baina gainontzeko kudeaketa lana berak egiten du zuzenean. 1503. urtean, adibidez, unibertsitate izaera du eta horrek herri izaera ematen dio. 1813an Donostia erretzen da eta Zubietako baserri batean, Aizpurua baserrian, Donostiako politikari eta jauntxoak biltzen dira; hor egiten dituzte Donostiaren berreraikuntzarako erabakiak hartzeko egin beharreko bilera guztiak. Izaera aldetik, hori inportantea dela uste dut. 1869an Desamortizazioaren Legearen beldurrak daude eta komunitatean zeuden jabetzak pribatizatu egiten dira: zazpi kilometro karratuetatik, seitik gora. Beste datu bat, hipodromoa adibidez. Hipodromoa Zubietan dago, eta Donostiako hipodromoa edo Lasarteko hipodromo bezala da ezaguna. Beno, irain bat da zubietarrentzako Lasarteko hipodromoa deitzea. Ibaiaren bestaldean dago Lasarte, eta lurak, inolako zalantzarik gabe, zubietarrak dira; ikusi dituzuen arrazoiengatik Donostiaren mugan eta jabetzan, baina Zubietako hipodromoa da. Herri baten izaerarako inportantea da hori, edozeinek uler dezakeen bezala. 78an bigarren kilometroak Zubietan egin ziren, eta txartelean ez zuen jartzen Donostiako eremuan egiten zirenik baizik eta "2. kilometroak, Zubietara" jartzen zuen. Horrek badu bere garrantzia, Zubietak bere izaera duela onartzen delako. 1995ean legeak aldatzen dira, eta Foru Arau bat onartzen da non Zubietari ez zaion Tokiko Erakunde Txikiaren izaerarik onartzen eta bere izaera auzune bezala baino ez da gelditzen; hori etorkizunerako garrantzitsua izango zen. Usurbilgo eta Donostiako udalek beraien udal erregelamenduetan aldaketak egin zituzten orduan eta auzo-batzar bat onartu eta sortu zuten auzo-alkate baten figurapean baina berezko eskumenik gabe (bere eskumenak informatu, aholkatu eta abar ziren, baina besterik gabe), Donostiako eta Usurbilgo udalen borondatepean gelditzen zen, alegia. 1996an Zubietaren etorkizunerako eta hemendik aurrerako etorkizunerako ere oso inportantea zen gauza bat gertatzen da, Deslindea, hain zuzen ere. Eta zergatik diot Deslindea? Zergatik diot garrantzitsua dela? 1379an herri batera edo bestera pasatzen direnean, etxe bakoitza bere lurrekin pasatzen. Horrek Donostiari arazoak sortzen dizkio, bere garapen haietarako. Deslinde hori, zubietarrek Usurbil eta Donostiako udalei zerbitzuak hobetzea eskatzen dietelako onartzen da: etxebizitza gehiago eraikitzea, plaza, frontoia, zerbitzuak eta abar. Donostiak hori ikusten du, onartzen du eta Usurbil, Zubietara eta Donostiak Deslinde hori eta horren ondorioz etorriko diren plaza berriak, etxebizitzak eta abar egitea adosten dute. Zein da ondorioa? Usurbilgo jabetza albo batean kontzentratzen dela, eta beste guztia, aske gelditzen dela Donostiarentzat. Hori, nire ustez, akats galanta izan zen bere garaian. Donostiak gaur egun lur horiek nola eta zertarako erabiltzen dituen ikusten da, ez zubietarrak eta ez usurbildarrak aintzat hartu gabe. Hori esanda, gaur egun zer esango genuke. Zubietarrak bere izaera

propioa berreskuratu eta bilatzeko lanean ari dira, inolako zalantzarik gabe; historia horren oinordekoak dira eta hori bilatzen dute. Argi daukate beraien etorkizuna, beraien izaera, euskara eta hezkuntzan oinarritu behar dutela batez ere. Hala ere, eta hein handi batean, egia da gaur egun zerbitzu gehienak Usurbiletik jasotzen dituztela. Egoera pixka bat margotzearen, euskararen egoera gaur egun Zubietan, honako hau da:

Euskara. Kale erabilera 2011

| | Ezagutza(2006) | Erabilera |
|--------------|----------------|-----------------|
| Zubieta | 74,6 | 61,5 |
| Donostia | 40,4 | 18,2 |
| Usurbil | 69,9 | 61,9 (73,2 kxk) |
| Lasarte-Oria | 40,0 | 20,3 |

Ezagutza 2006koa bada ere, 2011koak dira datu berrienak, Lasartekoa 2013koa. Ikusten duzue Zubietak ezagutza altua duela (% 74,6) eta erabilera ere altua du (% 61,5); Donostiak eta Lasartek, ezagutza eta erabilera askoz baxuagoa daukate; eta Usurbilek, Zubietaren parekoak dituela esango genuke, ezagutza eta erabilera. Koadro honek zera erakusten digu: Lasarte bi kilometrotako eremuan dagoela ikusita, eta Donostia urrunago dagoela ikusita, etorkizunari begira, izaera hori mantentzea erraztuko duena Usurbilekin izan dezakeen harremana izango dela da. Indarguneak baditu, herritarrak beraien eginkizunetan antolatu eta mugitu egiten dira, edozein dinamika kulturaletan. Hor ez dago arazorik, alderantziz. Beste indargune bat hezkuntza dela esango genuke, funtsezkoa. Zubietak, herri eskola txiki bat du eta funtsezkoa da herri etorkizunerako bere baloreak eta transmisioa egiteko. Zubietarrek haurrak dituztenean, etxean mantentzen dituzte bi urtera arte edo Usurbilen dagoen Haur Eskolara bidaltzen dituzte bestela. Bi urte dituztenean, eskola txikira bidaltzen dituzte, eta eskola txiki hori D eredukoa da, bertako naturarekin oso itsatsia, txertatua, guraso elkarteak eta oso gainean eramaten laguntzen duena, oso inplikaturik. Denok dakigu, dena den, Eusko Jaurlaritzarena dela eskumena eta egon izan dira arriskuak; guraso elkarteak lan eta borroka asko egin behar izan du horri eusteko, Zubietarentzako oso garrantzitsua dela jakinik. Hezkuntzatik hori mantentzea lortu da behintzat, baina Donostiako Udaletik arazoak sortu izan dira. Eskola txiki horrek hazkunde bat eskatzen zuen eta gurasoek hazkunde hori egitea eskatu zioten, hortaz, Donostiak eskola txiki hori kentzea erabaki zuen, bere eremuan baitago. Donostiak ez du eskola txiki hori Zubietarentzako garrantzitsua denik ulertzen, eta planteatzen duena "autobusa jarriko dizuegu eta Lasartera eraman itzazue" da. Kontxo, begira horrek Zubietarentzat zer ekarriko lukeen. Ez. Azkenean, Usurbiletik, edukiontzi eramangarri batekin eman genion irtenbidea eskola txikiari, momentuko irtenbidea, oraindik ere existitzen dena. Beti horrelako borrokatan ibili izan direla esan nahi dut. Gaur egun, dena den, pozten naiz, eraikin hori handitu eta baldintza horiek hobetzeko Donostiako Udaletik prestutasuna azaldu dutela jakin baitut. 46 haur daude gaur egun, eta Zubietarentzat oso garrantzitsua da.

Beno, hori esanda, kultura ere oso inportantea da, orain ikusiko duzuen bezala. Usurbilgo Udalak bertako eragileei dirua ematen die urtero hainbat eta hainbat ekimen prestatzeko. Kirola ere inportantea da (ez Real Sociedad-eko kluba hor dagoelako, ez hipodromoa hor dagoelako), bertan antolatutako txirindulari talde bat eta badabiltzalako, eta batez, "errebotea" izena duen kirol molde bat dutelako. Herriko gazte gehienak pasatzen dira errebotea jokatzetik; oso berezia da, Euskal Herrian, iparraldean jokatzeko da nagusiki (batzuek ezagutuko duzue) eta Gipuzkoan, Villabonan eta Zubietan mantendu izan da (gaur egun Oiartzunen eta Azkoitian ere plaza berriak egin direla uste dut). Zubietaren izaerarako eta etorkizunari begira, ez da garai bateko ondare bat mantentzea soilik; kirolek eta errebotetik, ondare bizi bat, eta Zubieta bizitzeko modu bat egin daitezke.

Ingurumenak ere izaera markatu dio Zubietari. Zoritxarrez beharbada, naturan bertan bizi dira zubietarrak. Erraustegiaren mehatxua tokatu zaie eta honi kontra egiten jakin izan dute; bestetik, hiri hondakinen konponbideari begira beraien ekarpena modu alaian egiten. Inplikazioa ikaragarria izan da eta Zubietak, lehenengo pertsonan, protagonismo izaera izugarria izan du (onerako zein txarrerako). Zoriontzekoa da. Balore izugarriak jaso dira, ez baita memento bateko kontua izan, hamar urteko lana baizik, hamar urteko borroka; horrek balore eta gauza positibo eta harrotasun izugarriak utzi ditu.

Bukatzen joateko, Donostia eta Usurbilek Zubietarekiko izan duten jarrera aipatuko dut, eta guk Udaletik izan dugun esperientzia. Batetik, 90ko hamarkadan, Donostiak zubietarra inoiz aintzat hartu ez duela esan behar da. Mercabugati, Azkar edo Ciudad del Transporte direlakoak, edo Real Sociedadekoa egin zuenean, inoiz ez du aintzat hartu herritarra. Bere garaian, hasiera batean 3.000 etxebizitzako proposamena ibili zuten bolo-bolo, gero 2.200eko proposamena, eta azkenean 2010ean onartutako arauetan 1.010 bat etxebizitza onartu zituzten. Baina Donostiaren izaera, Donostiaren mehatxua Zubietarentzat, hauxe da azkenean: etxez bete, espekulatu (ikusten duzue Zubietako kaskoa han muturrean dago

Zubieta. 2005ean 3000;
2200etxeb.!



eta etxez nahi zuten bertara iritsi). Hau hasierako planteamendua zen, astakeria bat zen, atzera egin zuten, baina buruan hori dago eta mehatxua hor egongo da beti. Zubietako etorkizunari begira dagoen beste mehatxu handia, bigarren errepidea litzateke: hipodromoaren gainaldetik, 1 Errepide Nazionaletik Lasarteri begira bigarren ingurabidea litzatekeena, kaskoaren parean amaitu, zubia aldatu eta N-634 errepidera joango litzatekeen bidea. Gaur egun estua da, ondo dago, baina nork esaten du etorkizunean ez ote duten halakorik buruan izango? Zubietak ez du erremintarik hori gelditzeko, eta Usurbilek ere ez luke izango.

Batzuen eta besteen jarrerarekiko, bi proiektu itzel daude gaur egun Zubietan:

Zubieta. 2012



goikoa erraustegiarena litzateke, poligono industrial bat, Martuteneko kartzela horra eramatea Donostiak Martutenen etxebizitzak egin ahal izateko... Azkenean, Donostiaren mehatxupean, hor dago. Zubietarrek argi daukate Donostiarentzat (hala izan da behintzat orain arte) lur zati bat baino ez direla, eta kanpo eraso bezala hartu izan dituzte beti Donostiatik etorritako planteamenduak edo plangintzak (ez da inolako prebentziorik hartu Zubietak eskatzen dituen gutxieneko baloreak bermatze aldera). Gainera haserre daude 1813an Zubietak Donostiako berreraikuntzarako izan zuen jarrera jakinda. Detaile bat, adibidez. Zerbitzuak nahasketa bat dira: ura Usurbilek ematen du, hondakinak tarteka, argiteria Usurbilek, garbiketa Donostiak... Beti izan dira gorabeherak eta liskarrak. Ura, adibidez, Usurbilek ematen zuen, eta Donostiak nahikoa zuen Usurbilekin zerbitzua diru batean edo bestean adostea... oraindik gauzak lotu gabe daude. Donostiak nahiago izan zuen Lasarterekin hitzartu, handik hargune bat hartu eta Zubietara eramatea. Nahiago izan zuen hori egin, Usurbilek eramaten zuen urarekin adostu baino. Hori da Zubietarekiko jarrera. Ez dugu esango Usurbilek ez duela jarrera txarrik izan Zubietarekin. Historian atzera eginda, bertako jauntxoek ez zieten zubietarrei eliza eraikitzen utzi; gero azkenean eraiki zuten, noski. Eta, udala zein izan den, fiskalizazio-kontrolak zorrotzagoak izan dira. Baina Usurbilek behintzat, Deslindea egin zenetik hona, urtero 100.000 euro eman dizkio Zubietako herri- batzarrari berak nahi dituen proiektuak erabaki eta garatu ditzan. Usurbilentzat Zubieta osotasun bat izan da beti, Donostiako eremuak ez ditu inoiz baztertu, alderantziz; hondakinen kontuarekin, babes ofizialeko etxeak egin izan dituenen, edo bertako zerbitzuekin (kiroldegia, haur eskolak...) zubietarrek denak osoki tratatu izan ditu. Eta nik uste dut, hori zubietarrek ere badakitela eskertzen.

Ondorio gisa, nire ustez, zera ikusten da: Zubieta herria izan zen. Maila batean, gaur egun, herri sen hori mantentzen du, mantendu nahi du eta garatu nahi du, baina guztiz egoera ahulean aurkitzen da ez duelako inolako ahalmenik, inolako tresnarik. Horren ondorioz, bere etorkizuna Donostia eta Usurbilgo Udalen borondatearen baitan dago. Beraz, nolako herria izan nahi du Zubietak? Ba egia esan, politikarien ahaleginaren norabidearen arabera izango da, eta batez ere, herritarrak aintzat hartuta beharko du izan.

Bukatzeko, detaile bat soilik: ez dugu mehatxu ikaragarri bat aipatu. Donostia eta Usurbilez aritu gara, baina hemen PTSak eta beste eremuak badaude, Diputazioak, Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak beraien eskumenak dituzte, eta autopista elektrikoa dela, edo autobia dela... Zalantzarik gabe, udalez gaindiko eskumenetan beti mehatxupean egongo da, eta Zubietak oraindik ere izango ditu orbainak. Zortea espero diogu. Eskerrik asko.

David Anaut: Eskerrik asko Xabier Mikel eta hitza Jakoba Errekondori emango diogu.

Jakoba Errekondo, PAISAJISTA. ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOKO ARDURADUNA. | Hitzaldia

• **ZERAINGO ESPERIENTZIA.**

Lehenengo eskerrik asko zeraindarrok gure herri proiektua azaltzera etortzera gonbidatzeagatik. Berez, hitzaldi hau Elixabete Garmendiak eman behar zuen baina arazo pertsonalak medio niri pasatu didate lana, eta ahalik eta hoberen moldatzen saiatuko naiz.

Hasteko, nik horrelakoetan ez dut inoiz ez argazkirik, ez liburuxkarik ekartzen; nahiago izaten dut hitza erabili, zuek imajinazioari ematea eta gero errealtatean Zerain ezagutzen joatea. Baina pixka bat girotzeko eta gure hitzei benetako zentzua emateko gazta ekartzen dugu beti, eta niri entzuten didazuen bitartean gure herriko zaporea izango duzue ahosabaian, ea gustatzen zaizuen.

Gazta horrek milaka urtetako historia laburbiltzen du: gure mendiak, gure hariztiak, gure pagadiak, gure belardiak, gure artaldeak (etengabeko hobekuntza genetikoaren ondorioa), gure amonaren eskuak gazta hori egiten... Azkenean, laburpen txiki bat da, baina egia da gure ahosabaiak memoria historikoa duela eta gure genetikan txertatuta daudela horrelako gauzak, horrelako zapoak, horrelako usainak... eta guk egiten dugun dena hor biltzen da.

Zerain Gipuzkoako herri txiki bat da, 267 biztanle ditu eta XX. mendeko biztanleriaren gainbehera tipikoaren adibide nabarmena da. XX. mendearen hasieran 600 biztanle izan zituen bere gorenean, aktibitate edo ekintza ekonomiko jakin bati lotuta, meategietara (burdina ustiatu izan da Zerainen historikoki). *Zerain* izena idatziz azaltzen den lehenengo dokumentu historikoa XVI. mendekoa da, baina gure meategien izenak oso zaharrak dira: Barbaris, Troia... erromatarren garaikoak. Zerain beti egon da burdinari eta mendiari lotuta, naturari, artzaintzari batez ere (Neolitotik abiatuko ginateteke). Eta XX. mendean, batez ere XX. mende osoan, burdinaren ustiapenari. XX. mendearen erdian itxi ziren meategiak (50ko hamarkadan) eta lanik gabe gelditu zen Zeraingo jendea. Etengabeko huste prozesu bat gertatzen hasi zen orduan. Horri gure baserriaren herentziaren sistema lotu behar diogu, badakizue nolakoa den. Maiorazkoak heredatzen du baserria baina ez etxe bezala, baserria ez da etxea soilik; baserria ganadua, tresneria, mendiak, basoak, eskubideak, urak... dira. Hori seme-alabetako batek hartzen du beti. XX. mendera arte erraz konpontzen zen normalean, jendea Ameriketara, edo komentuetara, edo fraide, edo moja... joaten zen. Baina XX. mendean jendea "saneatzen" hasi zen, eta beste ohitura batzuk hartu ziren dira. Jendea industria siderometalurgikora lotu zen batez ere.

Zerain mendi kasko batean dago, eta alde bietara dituen bailaretan industria hori ikaragarri garatu zen da: alde batetik, Legazpi aldean Legazpi, Urretxu, Zumarraga...; eta, beste alde batetik, Olaberri, Beasain, Ordizia... zona horretan. Zeraindarrek paradoxa alu samar bat bizi zuten dute: lanera etxe ondora joan behar zuten (etxetik ordu laurden batera), eta bizitzen ere aldameneko herrira joan behar zuten. Aldamenekoekin, badakizue, ez gara sekula ondo konpontzen, eta beti arerio izan dugunarengana joan behar dugu lanera, baina baita ere bizitzera, baserri herri bat denez etxebizitarik ez dagoelako. Orduan, 70eko hamarkadan, bertako gazteak elkartu eta horri buelta eman behar zaiola esan zuten dute, etxeak eraiki behar zirela. Gorabehera dezenteren ondoren, kooperatiba bat sortu eta kaskoan 24 etxebizitza eraikitzea lortu zuten dute; hori lehenengo urrats garrantzitsua izan zen, 24 familia gazte, berri, Zerainera lotzea. Horrek familia gazteak, haurrak... ekarri zituen eta bat- batean eskola berreskuratu egin behar zutela planteatu zuten (garai hartan eskola txikiak oraindik ixten ari ziren). Eta beno, borroka handien ondoren, eskola bat irekitzea lortu zen. Eskola hori kokatzeko gotzaindegia eskatu zitzaion baimena aspaldiko urteetan hutsik zegoen apaizaren etxea eskolarentzat kokapen egokia zela ikusten baitzen, herriaren erdian... eta gotzaindegia ukatu egin zuen baimen hori. Orduan herritarrak joan eta sartu egin ziren, okupatu egin zuten eta eskola bertan ipini zuten. Eskolaren ondoren ludoteka, liburutegia... etorri ziren, dena auzolanean; borondatezko jendea prest zegoena ludoteka irekitzeko, liburutegian lanean aritzeko...

Oso garrantzitsua izan zen hori, lurraldean sakabanatutako jendea eta haurrak elkartzeko (ez eskola orduetan bakarrik baizik eta eskola orduetatik kanpoko ekintzekin...), herri-komunitate zentzu hori indartzeko.

Guretzat horretan, eskola oso garrantzitsua da. Eta ez eskola izatea bakarrik, eskolaren formatua baizik. Askotan kontuan hartzen ez den gauza bat dela uste dut, eta hezkuntzan lanean ari den jendearekin gorabehera asko izan ditut. Jendeak eskola- eredu potolo eta oso ondo markatutakoetara jotzen

du, eta Zerainekoa aldiz eskola txiki bat da, eta eskolako haurrak, denak, elkarrekin daude: hiru urte izan, sei izan, zortzi izan... Ez daude urteka banatuta, eta hori, nire ustez, herriaren etorkizunaren edo gerora izan duen arrakastaren gakoetako bat da. Beste herri batera joaten baldin bagara, normalean, adin bateko jendearekin osatuta daude kuadrillak, “nire adineko jendearekin”. Beti egon naiz hiru urtetik hasi eta ez dakit noiz arte elkarrekin ikasten, kuadrilla handi bat, denok adin berekoak eta gu gara kuadrilla. Eta bi urte gehiago, bi urte gutxiago dituztenak nortzuk diren ere ez dakite. Alderantziz, Zerainen, eskolan beti daude elkarrekin. Horrek komunikazio bat (oso inportantea) eta kate bat ekartzeko ditu; hau da, orain hiru urte dauzkan haurra zortzi urte dauzkan haurrarekin dago eskolan, eskolaz kanpo, aisialdirako ekintzetan, kirolean... Horrek gutxienez komunikatzeko erraztasuna eta ezagutza ekartzeko ditu. Orain zortzi urte dituenak hiru urte zituenean, orain hamahiru urte dituenarekin zegoen, eta hamahirukoa hamazortzikoarekin... Etengabeko kate bat sortzen ari da Zerainen, komunikazio kate bat (ez bakarrik transmisioaren ikuspegitik, baizik eta hitz egiteko erraztasuna, ezagutza...). Hori gero oso-oso inportantea izango da herri-batzarretan adibidez; edo parte-hartze prozesuetan. Jende aurrean hitz egiteko, edo hamar urte dituen haur batek 60 urteko aitona baten aurrean hitz egin edo gai batez eztabaidatzeko beldurrik ez izatea. Hortaz, eskola eta bere formatua oso inportanteak dira.

Horrekin batera, Franco ondorengo lehen udal hauteskundeetarako, etxe horiek sortu zituen kooperatibaren inguruko gazteen dinamika horrek hautagai-zerrenda bakar bat sortu zuen, herriaren ikuspegitik herriarentzat lanean hasi behar zutela pentsatuz. Hau orain arte mantendu den gauza bat da eta guretzat beste gakoetako bat: hautagai-zerrenda independente bakar bat hauteskunde guztietan. Jende asko erratu egiten da; jendeak, udaletxera sartzen denean (alkate, zinegotzi eta azken aldiaren teknikarietara ere zabaltzen ari da), “herria gu gara” pentsatzen du. Eta ez, ez, ez, udala herriaren tresna bat da. Zerainen hori garbi dago: herria gauza bat da, eta udala edo udaletxeak beste gauza bat, herri horren tresna bat. Hori garbi daukate. Kolore guztietako jendea sartzen da baina txaketa kanpoan gelditzen da eta herriarentzat lan egitera sartu behar dute. Hautetsien zerrenda beti era asanbleario batean hautatzen da, batzar batean, eta hauteskundeak egin aurretik egiten dira benetako hauteskundeak. Hortik ateratzen den jendeak hautetsien zerrenda bat erregistratu eta antzerkia egiten da, hauteskundeak, eta abar. Hau ere oso garrantzitsua da: udaletxera sartzen den jendeak, guk bizitza kalitatea deitzen diogun eremuan lan egiten du (azpiegiturak...). Imajinatu 1979an lehenengo udala sortu zenean: baserri asko urik gabe, argindarrak gabe, biderik gabe, telefonorik gabe... zer esanik ez ur zikinak... Agian ez da hemen ateratzeko gaia baina beste batean horrek hizkuntzan duen eragina aipatu beharko genuke. Zerainen, edo edozein herri txikitik, landa-eremuan, edozeinek etxe bat erosten duenean dena bere kontura doa; nik Donostian etxe bat erosten badut, ez dut zalantzarik izango argindarra, ura, Internetarako konexio oso ona... izango ditudala, ur zikinak norbaitek kudeatuko dituela, zaborra biltzera etorriko zaizkidala... Landa-eremuan, oraindik, Neolitoan gaude horrelako gauza askotan. Orduan, gure ustez, Udalaren zereginik garrantzitsuena hori da. Momentu honetan energia, konektibitatearekin... ari gara lanean.

Eskola, ludoteka, liburutegi... horren bueltan, kultur etxea sortu zen da. Kultur etxea guretzat ez da eraikuntza bat. *Etxea*, euskaraz, ez da eraikin bat, egitura bat baizik; zerbaiti eusten dion egitura bat, hori da etxea. Gurdiak bere gurtetxea dauka, harriak bere harretxea... eta Zerainen kulturak bere etxea dauka, eta etxe hori jendea da, pertsonak dira. Horren inguruan lanean hasi zen talde bat da, gerora, ia-ia nahi gabe ondarearen inguruan lanean hasi zena: jende helduari garai bateko langintzei buruz elkarrizketak egiten hasi ziren, argazkiak, bideoak, informazioa biltzen, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzen... Urtekari bat atera zen 1988an (hau garrantzitsua izan zen) eta 25.a pasatu dugu jada; urtean zehar egin diren ekintzekin eta Zeraini buruzko ikerketa eta informazioarekin urtekari potolo bat argitaratzen da urtero. Hori kultur etxearen lana da. Eta kultur etxea guretzat oso garrantzitsua da alde horretatik, batez ere barruko energia endogenoak sustatzen dituelako eta jendartearen trinkotzen duelako, eta horrek arrazoiak ematen dizkigulako zeraindar eta komunitate horretako partaide izateaz harro egoteko. Hemen pauso garrantzitsu bat eman zen 1992an. Diputazioak bere Kontzertu Ekonomikoa berreskuratu zuenean, hasierako urteetan ez zegoen hainbeste diru gastatzeko egituratuta, eta diru asko banatu zuen herrietan. Herri gehienek ikaragarriko kiroldegia, kultur etxe izugarriak, marmolezko udaletxeak... egin zituzten, eta Zerainen, ordea, ondarea berreskuratzen hasi ziren: 1711ko kartzela bat, pribatua zen eta erorita zegoen ermita bat (arte mudejar pixka bat zeukan eta garrantzi historikoa. Konpontzearen truke publiko bihurtu zen eta ermita horren inguruko ohiturak berreskuratu ziren), XIX. mendeko zerrategi hidrauliko bat ere berreskuratu zen... Ondarearekin arduratutako taldea zen kultur

etxe hau. 1992an ondarea etxeak, ermitak, kartzelak... bakarrik ez zirela pentsatu zen, lurralde osoan sakabanatutako gauza bat baizik. Orduan, uda batean, herriko gazte guztiak bildu ziren eta etxez etxe bidali ziren ikusten zituzten gauzen inguruko fitxak betetzera (ondare etnografikoa). Hortik 2.500 piezako katalogo bat sortu zen, lurraldean bordatan, etxe-inguruetan, baserrietan... sakabanatuta zegoen ondarearekin. Ez genuen ondarea bakarrik lortu, gauza asko lortu genituen. Ikuspegi poliedrikoa lantzen ari gara beti Zerainen, ez dugu gauza zorrotz bat egiten. Nik toki askotan ikusten dut, "ni euskara teknikaria naiz eta hau egiten dut, edo ni kulturakoa naiz, ni kirolekkoa naiz...", ez. Hemen gauza bat egiten denean biotopoaren ikuspegitik egin behar da, biziaren ikuspegitik, eta tiraderarik ez dago lurralde honetan. Orduan horrekin ez genuen katalogoa soilik lortu: gazte guztiek herri osoa pasatzea lortu genuen, toponimia ikastea, bideak nondik nora zihoazen ikastea, plazan bakarrik ikusten zuten pertsona bat baserri batekin lotzea, baserri hori non zegoen, nola iritsi, bideak... gauza asko. Lurraldea gurea sentitzea eta gu bertako partaide. Katalogo horretatik, 1992an bertan, erakusketa bat antolatu zen Diputazioko *Zaharkinak* programaren barruan eta hamabost egunetan 10.000 pertsona pasatu ziren han erakusgai jarri ziren mila piezak ikustera. Piezak sailkatu eta hamabost egunez frontoian egon zen erakusketan. Herritarrak hura zaintzen egon ziren (gau eta egun han egon behar zelako) eta harritu egin ziren guretzat traste zaharrak ziren gauzek (edo balore izugarriak ez zutenak hurrengo San Juan sutan lasai asko erre zitezkeenak) kanpoko hainbeste jende erakartzen zutelako.

Ez hori bakarrik. Meategietako gauzak, adibidez. Baserri batean kasko bat dago, beste batean pikotx bat, beste batean pala bat... eta sakabanatuta inongo balorerik ez daukan gauza batek, beste batzuekin elkartuta, gu denon historia kontatzen du: gurea, gure aurrekoena eta gure lurraldearena. Horrek, halako beste "klak" bat ekarri zuen eta hortik museo iraunkor bat sortzeko proiektua abiatu zen, 1993ko abenduan ireki zena (jada hogeit hamar urte dira museoa ireki zenetik). Guk herri museoa deitzen dugun honetan 350 pieza daude eta herriaren historia dira. Ahal zen eta herriko familia gehienetako piezak han egoten saiatu ginen, ez bakarrik balore jakin bateko piezak jartzen; museo hau ez da erakusgai kontzeptu bat, herritarren gune berezi bat baizik, aldare bat izango balitz bezala (gure familiako etxe bakoitzeko pieza garrantzitsuenak han daude). Hortaz, ez da bisitariaren ikuspegia soilik kontuan hartzen, sortzailearen ikuspegia ere han dago. Egunen batean museora joaten bazarete, sarreran ikusiko duzuen lehen gauza piezak eman zituzten herriko familia guztien izenak izango dira, eta horiek museoko parterik inportanteena dira, pertsonak. Museoak hurrengo saltoa ekarri zuen: Zeinek ireki behar du atea? Zeinek aldatu behar du bonbilla erretzen denean? Zeinek garbitu behar du? Planteamendua ondare hori mugimendu ekonomiko baten sorrera izan zitekeela izan zen. Bi pertsona jarri ziren lanean lanaldi erdira eta konturatzerako jende pila bat, bisitari pila bat etortzen hasi ziren, batez ere haurrak eskoletatik. Haur horiek, familia ekartzen zuten gero asteburuetan. Hori guztia nolabait moldatzeko batzorde bat sortzea planteatu zen, Zerainen etorkizun ekonomiko batez hitz egiten hastea posiblea ote zen aztertzeko. Bere bizimodua Zeraindik eta Zerainen sortzen zuen jendea batzorde horretan bildu zen udalarekin eta kultur etxearekin batera; "Zerain Proiektua" deitzen genion honi eta "Irautetik bizitzera" deitu genion prozesu bat sortu genuen. Ia-ia inork ezagutzen ez zuen eta irauten ari zen herri abandonatu batek bizitzera pasatu nahi zuen, eta hori dinamika ekonomiko batek ekarriko zuen, lanak ematen baitu bizitza. Hortik sektore bi lotu behar genituela planteatzera iritsi ginen. Batetik, gure ondare hori ikusi eta gozatzera etortzen zen bisitariarena batetik, baina paisaiaren mantenuarena, horrek paisaia mantendu behar zigan. Guk ez genuen lehen sektoretik bizi zen jende guztia hirugarren sektorerara pasatzerik nahi, Pirinioetan gertatzen ari den bezala. Lehen lehenengo sektoretik bizi ziren eta orain ez duzue artalderik, ez-eta behirik ikusiko, ez- eta basorik martxan, zerrategiak ere itxita daude... Rafting, camping, supermerkatu, landa-turismo eta halakoak ikusiko dituzue. Baina turistak ez du hori ikusi nahi, natura ikusi nahi du. Eta natura zeinek zaintzen du? Ba lehenengo sektoreak. Hemendik, gure paisaia kulturalera iristen gara, guretzat garbi dago: guk bizi dugun lur hori guk sortu dugu. Euskal Herrian ez daukagu metro karratu bakar bat ere naturala denik, berezkoa mantendu denik, primarioa, Indonesian edo Brasilen topatu dezakegun bezala. Bizi dugun hori, den-dena guk egin dugu: gure amonak, haren amonak, haren amonak... nahi dugun arte joatea daukagu, baina guk sortutakoa da bizi dugun lurralde hau. Orduan, paisaia kulturala da, ez naturala. Kultura da hor gakoa: gure kulturak diseinatu du, oratu du, moldatu du paisaia hori. Erre, landatu, inausi egin dugu, bideak egin ditugu, urak tokiz mugitu... guk sortutakoa da. Hori Zerainen bakarrik dago, aldameneko herrira joaten bagara ezberdina da. Komunitate bakoitzaren indarra eta etorkizuna hor dago. Horregatik, guretzat klabea da paisaia kultural horren ustiapenean lehenengo sektorea bultzatzea.

Lehenago ez dut esan baina batzorde hartatik fundazio bat sortu genuen, eta fundazio horren ize-na ez da Exhibition Center, edo Culinary, edo Physics Center, hemen Donostian bezala. Gurea “Zerain Dezagun” da. Zerain aditz bihurtuta erein, eragin, egin, ekin... nahi dugunarekin lotzen dugu. “Zerain Dezagun Fundazioa”. Memento hau guretzat oso inportantea da. Hiru oinarri finkatzen dira: Udala, bizitza kalitatea lantzen ari dena; kultur etxea, energia endogenoak eta gizartearen trinkotzea lantzen ari dena; eta fundazioa, etorkizun ekonomikoa lantzen ari dena. Guk hori guztia lurrarekin lotzen dugu, gure aberastasunik handiena eta gure paisaia kulturalaren klabea lurraldea dela ikusten baitugu. Azken zazpi urteetan lur-erosketa politika basati bat egiten ari gara (urtero herriaren % 2a erosten ari gara) laguntza publikoarekin eta Udalaren aldetik, eta baso autoktono berezietara bideratzen ari gara batez ere (ez harizti edo pagadiak, horiek nonahi dauzkagu). Monokultibora ere iristen ari gara toki batzuetan, pinuarekin bezala, etorkizunean balore izugarria emango dioten landare bereziekin. Egunen batean herriaren energia bertatik sortu eta energia esportatzaile bihurtzera ere heldu ahal izateko biomasa lantzen ari gara; eta, era berean, lur funtsa bat sortu dugu (*gorde-lurrak* deitzen duguna), etorkizuneko nekazari gazteentzat lurra eskura edukitzeko.

Paisaia kultural aren ikuspegi hori urrats izugarria da, auzolanetik herri-lanera pasatu gara eta. Auzolana, orain hain goratuta dagoen hitz hori, beti ezkortasunetik sortu da, auzolana negatiboa da (base-rria erre zaigulako egiten dugu auzolana, biderik ez daukagulako egiten dugu auzolana, artaldea galdu dugulako...) eta hori atzera begira bizitzea da. Zerainen, ordea, aurrera begira jarri gara. Hemendik 50 urtera gure produktu turistiko berriak, produktu pedagogiko berriak, gure energia sortzeko basoak... diseinatzen ari gara, herria prospektiban begiratzen ari gara, eta hori da herri-lana, auzolana alde batera utzita. Horrez gain, ikuspegi kulturala (hau guztia ez da posible parte-hartze prozesu izugarri bat ez baldin badago). Zerainen parte-hartze prozesua azkenengo 30 urteetan gertatzen ari da, eta jendeak herri-batzarretara etortzen jarraitzen du, ber tan esaten denak garrantzia duela, kasu egiten zaiola eta balio duela ikusten duelako. Guretzat kultura ez da txistua jo, txapela jantzi eta aurrekua dantzatzea. Askotan kultur teknikariek hori dauka te “nirea kontzertuak antolatzea da, edo ez dakit zer da...”. Ez, ez, kultura komunitate batek, herri batek, bere arazoei irtenbidea emateko daukan gaitasuna da, hori da benetako kultura, eta hori da kultua izatea.

Beste alde batetik, iraunkortasuna dago. Iraunkortasunaren betiko definiziora joaten bagara, “etorkizuneko belaunaldiéi nahikoa baliabide uztea beraien proiektua garatzeko”, ni horrekin ez nago ados. Repsol, Iberdrola... eta guzti horiek egongo ira ados horrekin. Guretzat iraunkortasun a lurralde batek ematen duena lurralde horretan gelditzea da; hau da, Zerainen sortzen den aberastasuna, Zerainen gelditu dadila. Horregatik hau guztia herriko enpresa txikiekin, familiek sortzen dituzten lanpostuekin... garatzen ari gara. Eta politika honekin hamasei urte daramatzagu lan honetan (azken fundazioa 1997an sortu zen) eta 34 lanpostu sortu dira herrian. Hau izugarria da.

Bukatzeko, guk garbi daukagu etorkiz una barruti k landu behar dugula, ez gaude inoren zain. Kanpotik egiten diren planifikazioek guri ere eragiten digute noski (PTSak, Diputazioak, Eusko Jaurlaritzak... esaten dituztenak) baina gakoa guk egitean dago, barrutik egitean. Besteek nahi dutena esatea daukate, baina beti dago egiteko aukera, beti dago tarte bat, zirrikitu bat... zentzuz jokatuta, noski. Eta hori egin ez ongi pasatzen dugu, eta zorionsuagoak gara. Eskerrik asko.

David Anaut | Hitzaldia

Eskerrik asko Jakoba. Zuekin gogoeta batzuk partekatzen saiatuko naiz (pixka bat amasguneen ikuspegitik beharbada), hirigintza, lurralde-antolakuntza eta bien arteko lotura eginez.

• LURRALDE-ANTOLAKUNTZAREN ETA HIRIGINTZAREN ERAGINAZ

Lurralde antolakuntzak eta hirigintzak bizitza sozialeko, herritar ron eguneroko bizitzako alor askotan eragiten du, zuzenean eta zeharka. Hainbat a lorretan bezala, hizkuntzaren egoeran eta hiztun-komunitate arengan ere eragina dauka. Modu intuitiboan aise sumatzen da hori, baina egiaztapena ere bada, nahiz eta azterketa oso zehatz eta eguneratuen falta dagoen.

Lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak euskararengan duen eragina eta ondorioa, euskararen erabileran eta ezagutzan esate baterako, euskararen lurralde zabalean antzeman liteke akaso, baina inon baino agerikoagoa da amasguneetan, eta horren berri emateko esperientziak eta datuak baditugu.

Ondorio errealak, zehatzak eta praktikoak dira. Alor honetako politika eta jardun jakin batek, euskararen ezagutzan eta erabileran eragin dezake, ezagutza eta erabilera tasak jaitsez. Herri euskaldun edo arnaguneetan etxebizitza sail bat egin eta bertara gune erdaldun handietako hainbat herritar erdaldun etortzen bada, herriko euskaldunen dentsitatea jaisten da eta, ezinbestean, euskararen erabilera ere bai, harreman-sareak aldatzen direlako eta elebakar bakar baten presentzia hutsak harreman-sare konplexu bat zeharo alda dezakeelako. Hor dugu datu objektiboa, ondorio zehatz eta praktikoa. Irakurketa sakonagoak egin litezke, Xabier Bengoetxeak eta Roberto Manjonek BAT aldizkarian argitaratutako artikuluetan aipatutako dislokazio demografikoaren eta soziokulturalaren bidetik esate baterako.

Euskararengan eragiten duten faktore soziopolitikoak, ekonomikoak edo kulturalak, askotan euskararen kalterako izan dira. Nolanahi ere, ez dute definizioz eragin eta ondorio kaltegarriak izan behar. Hirigintza izan liteke euskara atzeraraziko duen faktorea, baina izan liteke faktore neutro samarra, eta baita euskarari garatzen lagunduko diona ere, edo gutxienez hizkuntzaren normalizaziorako ahalegin batekin koherentea eta bateragarria dena. Hirigintza-ereduak erabakiko du hori.

Hirigintza eredu jakin bat oso indarrean egon da azken aldian, XXI. mendearen hasieratik esate baterako, etxebizitzak noiznahi eta nonahi eraikitzea ekarri duena, oso erritmo azkarrean. Eredu horren barruan ere maila eta intentsitate ezberdinak egonen ziren, baina oro har ikusten dena da, eta hori konstante edo ezaugarri komuna da, lurraldea antolatzeko eta hirigintza egiteko eredu horrek ez duela hizkuntza irizpiderik izan. Ez da alde zuzenik neurtu hirigintzaren garapenak izanen lukeen ondorio negatiboa, ez da inpaktu soziolinguistikoa neurtu, edo neurtu bada ez da hori zuzentzeko baliabiderik edo neurriak aplikatu.

Azken aldiko ereduaz esaten ari garena, jakina, eredu zaharragoei berdin-berdin aplikatzen ahal zaie. Gaurko aurkezpenetan lurralde ezberdinetako esperientziak ikusi ditugu, baita garai ezberdinetako lekukotasunak ere, XX. mendearen bigarren erdialdekoak eta XXI. mendekoak esate baterako. Hizkuntzari dagokionez, denetan errealitate berbera ikus dezakegu: normalean planifikatzeko garaian hizkuntzaren alderdiari ez zaio inolako arretarik jarri, existitzen ez den alderdi bat izan da.

Lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak hizkuntza-egoeran duten eraginaren inguruko kontzientziaz eta egin den lanketaz

Hizkuntzaren gaia hain presente duen eta euskalgintza bezalako mugimendua sortu duen herri batean, agian deigarria da ez zaiola ia sekula erreparatu gai honi, edo ez dela ia sekula neurri edo urrats zehatz eta eraginkorrik egin. Ohartu zenik bazen, noski, eta horren adibide da UEMAREN 1994ko jardunaldietan horren inguruko txosten bat aurkeztu zela. Gero gai horrek ez du bilakabiderik izan. Kasualitatez gauza gutxi gertatzen denez hemen, arrazoi batzuk bilatu beharko ditugu:

- Lurraldearen eta hizkuntzaren aferaz jakitunen edo kontzienteen izan litekeen sektorearentzat, euskalgintzarentzat alegia, lurralde-antolakuntza eta hirigintza eremu urruna, lehorra eta arrotza gertatuko zitzaion, bertan jarduteko zaila eta teknikoa akaso.
- Gai honek izan lezakeen garrantziaz behar bezala ohartzeko, lagungarria eta are beharrezkoa izanen zen datu argiak eta esanguratsuak edukitzea, intuizioa ebidentziaren lurraldera ekarriko luketenak. Ikerlan sakon eta osorik ez da egon agian. Duen garrantzia eta tamaina ongi barnerratu gabe, nekez emanen zaio lehentasunik, eta bestela ere euskalgintzak badauka nahikoa lan.
- Agian, lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak beharko lituzketen hizkuntza irizpideen kontzientzia zutenek ere, planteamendu ausart bat egiteko erreparoa sentituko zuten. Konfiantza falta moduko bat, irizpide eta proposamen ausartak ulertuko eta onartuko ote ziren. Ez bakarrik erakunde publikoetako guneetan, baita herritarren artean ere.
- Lurralde-antolakuntzan eta hirigintzan hizkuntza irizpideak ezartzeak ziur asko zenbait jardueraren (etxebizitza, esate baterako) erritmoa eta intentsitatea neurtzea eta gelditzea ekarriko luke. Erritmoa frenetiko samarra izan den zenbait urtetan, horrek nolabaiteko korrante eta interes ekonomiko, sozial eta politiko batekin talka egitea ekarriko zukeen, eta horri aurre egiteko ere konbentzimendu handia behar da.
- Lurraldea antolatzeko eta hirigintza planteatzeko garaian hizkuntza minorizatuen gakoak kontuan izan duten eredu teoriko eta praktikoa hurbilik ez dugu izan. Izanen ziren akaso, baina euskalgintzak oro har, eta arnaguneetan gabiltzan euskalgintzako edo udaletako teknikariok, militanteok, zinegotziok eta ordezkariok oro har ez ditugu ezagutzen.

Jardunaldi hauek antolatu direla ikusita, badirudi orain badugula lurralde-antolakuntzak eta hirigintzak euskararen ezagutzari nahiz erabilerari eta kultura lokalari egin diezaioketen kaltearen gutxieneko kontzientzia, baita datu gutxi batzuk ere, eta gehiago jakin beharraz ere kontziente gara. Gisa berean, herrien eta eskualdeen garapenaren inguruko eredu eta ikuspegi alternatiboek euskararen eta bertako kulturaren garapenari egin diezaioketen onuraz ere kontziente izan beharko genuke, datu zehatzak eta jakingarriak lortu, eta gehiago jakin beharraz kontzientziatu. Gai honi heltzeko motibazioa modu bertsuan ekar lezake galeraren eta kaltearen kontzientziak edo onuraren eta eragin positiboaren kontzientziak.

Arnasguneak

Arnasguneak ez dira herri euskaldunak soilik, baina arnasguneen multzoan oso azpimultzo garrantzitsua dira, euskararen erabileraz eta hegemoniaz betetzen dituzten baldintza horiez gain, euskararen transmisioa edo sozializazioa modu bete-betean egiten dutelako, horrek kualitatiboki duen garrantziarekin. Euskararen dentsitateak egiten ditu, besteak beste, herri euskaldunak arnasgune. Dentsitate horretan gertatuko diren aldaketek eragina izanen dute euskalduntasun horretan.

Arnasguneak ez dira estatikoak, egoerak okertu edo hobetu egin daitezke. Esate baterako, arnasguneak AHT, merkataritza-gune erraldoi eta hirigintza sakabanatuaren mehatxuaren mende egon litezke.

Kasu jakin batzuetan, herri euskaldunak hiri erdaldunen luzapen bihurtzen ari dira, komunikabideen hobekuntzari esker, hirigintzari esker... Sarritan erraz iristen da herri euskaldun horietatik aisialdi-guneetara, merkataritza-guneetara, lanera... eta gune erdaldunetatik arnasgune horietara bizitzera etortzea eskaintza erakargarria da.

Egia da, nolana ere, arnasgune guztiak ez daudela posizio geografiko eta sozial berean. Batzuk gune erdaldun indartsuen ondo-ondoan, beste batzuk aparteago edo babestuago.

Ikerketa handirik ez dagoela esan dugu lehen, baina komeni da zehatza den zer edo zer aipatzea. Hizkuntza gutxituari arriskua edo galera ekarriko dion hirigintza-ereduaren adibiderik badugu Euskal Herrian, eta eredu horrek dakarren ondorio zehatzez ere hitz egin dezakegu. Adibide gisa, Hausnartu sarien V. edizioan saritutako lan batek erakusten diguna. Xabier Bengoetxearen lanean, 2012ko *BAT* aldizkariaren 4. zenbakian argitaratutakoan, Gipuzkoako hainbat herri euskaldunetan etxebizitzaren hazkundearen eta euskararen inguruko zenbait daturen arteko korrelazioa egin daitekeela agertzen da. Datu horiek, hain zuzen ere, euskaldunen dentsitatearen jaitsiera, euskararen etxeko erabileraren jaitsiera eta ama-hizkuntza euskara dutenen indizearen jaitsiera dira. Hiru datu horiek eta herri txiki horietan gertatutako etxebizitzaren hazkundera lotuta agertzen dira. Herri horien hazkundera 2001etik aurrera gertatu zen batez ere, etxebizitzaren gorakadarekin batera. Etxebizitza horiek, jakina, ez dituzte bertakoek erosi eta bete, ez dira eraiki bertakoen beharrak asetzeko. Horra hor lurralde-antolakuntzaren ondorio zuzen eta kezagarria, arriskua baino gehiago emaitza praktikoa eta zehatza ekarri duena.

Politika bat izan da, eta da, herri euskaldunetan etxebizitzak eraikitzea, herriak bizirik mantentzeko helburuz (baina ez, esplizituki edo kontzienteki behintzat, herriak "euskaraz" bizirik mantentzeko helburuz). Askotan agian asmoa zen etxeak egitea bertakoek herrian jarraitzeko, baina ondorio praktikoa izan da, hainbatetan, kanpotik etorritako erdaldunak gelditzea bertan.

EAEko V. Inkesta Soziolinguistikoaren txostenean ere antzeko gogoeta jaso da: "Azken 20 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak gora egin du apurka-apurka EAEn (batez beste 4 puntu). Igoera hori hiru lurraldeetan eta lehenengo hiru gune soziolinguistikoetan gertatu da. Laugarren gune soziolinguistikoan, aldiz, euskararen erabilerak behera egin du (7,5 puntu 1991tik hona). Beherakada horren atzean azken urteotan hirigune erdaldunagoetatik gune euskaldunetara bizitzera joan direnen hizkuntza-ezaugarriak daude. EAE. V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011."

Gaurko lekukotasunek eta lehendik ezagutzen ditugunek ere errealitate zehatz batzuk marraztu dizkigute, eta irizpiderik ezak eta inertziak dakartena erakutsi digute: erdaldunen poltsak inguru euskaldunetan, herriko harreman-sareak eraldatzea, herriko errealitate soziokulturala aldatzea, herrietako bizimodua eta bizitzeko estiloa aldatzea... Ez dira soilik hizkuntzari dagozkion kontuak, eta ez dira soilik herri euskaldunei dagozkienak, aldaketa zabalagoak dira. Baina hizkuntzari ere badagozkio, eta herri euskaldunetan nabarmenak dira, agian beste inon baino nabarmenagoak.

Badira, noski, bestelako ereduak, eta hori, adibidez, Zerainek erakutsi digu. Zerain ez dago bailara gorde batean galduta, errepiderik gabe eta inkomunikatuta, eta zeraindarrak planeta honetakoak dira. Herria garatzeko planteamendu jakin bat izan dute, hala ere, bertako kultura eta hizkuntza ere gogoan izan dituenak. Pentsatu, esan eta egin egin dute, eta horrek erakusten du badagoela bidea egiteko aukera. Hirigintza eta lurraldea bizitza-kalitatearekin eta proiektu nahiz dinamika kultural batekin lotuta planteatu daiteke, herriaren garapen egokiarekin lotuta.

Zenbait ideia gogoetarako

Lurralde-antolakuntza eta hirigintza eredu desegoki batek euskararengan eragin negatiboa izan dezakeela bistakoa den bezala, gai bera bertakotasunetik eta bertako kulturaren garapenetik lantzeak euskararen garapenerako ondorio positiboa izan dezakeela ere bistakoa da.

Teknikoki egingarria den hori, politikoki eta sozialki egingarri izan dadin lortu behar da, eta horretan gaude oso berde. Arduradun politikoez izan beharko lukete guztiaren kontzientzia eta jakitun, baina baita herritarrak ere. Oraindik ez zaigu ia bururatu ere egin hirigintza planifikatzen denean euskara ere kontuan har dezakegunik. Esate baterako, ingurumen-inpaktuaren txostena egiten den bezala, inpaktu soziolinguistikoarena ere egin daitekeela. Delikatua izan liteke kasu askotan kontua, hazi eta garatu nahia inpultso edo bulkada nahikoa zabaldua delako. Baina euskararen egoera ere delikatu askoa da, eta hori ere gogoan izan behar da.

Neurriak planteatzeko, badirudi hizkuntza ekologiaren paradigma oso hedatua eta onartua egon beharko lukeela. Ingurumenari dagokionez, ez da beti itxaron jende guztia kontzientziatua egon arte neurriak ezartzeko, eta zenbait kolektiboren eskubideei dagozkienetan ere ez, logikoa den moduan bidez esanda.

Neurriez ari garenean, esate baterako, hirigintzan har litezkeen neurri batzuez ari gara. Etxebizitzaz jabetzeko hizkuntza gaitasuna frogatu behar izatea; edo ezagutza hori balioestea; edo etxebizitzaz jabetzeko hizkuntza gaitasuna frogatzeko epea ematea; edo etxebizitza berririk ez egitea; edo etxebizitzak saltzeko marketin politikan euskara sartzeara... Horrelako erabakiak mahai gainean jar litezke. Ausardiarekin egin proposamenak, horiek eztabaidatu eta aurrera eramanez edo baztertzeko aukera gero ere izango da eta.

Une jakin batean hartutako erabaki okerrekin ez dute nahitaez konponezinak izan behar, baina askoz merkeagoa eta eraginkorragoa da aurreikuspenak egitea, irizpideak sartzeara, aurretiaz jokatzeara. Merkeagoa eta eraginkorragoa da langile euskalduna kontratatzea, erdaldunak kontratatuta eta ondoren euskalduntzea baino. Errazagoa eta eraginkorragoa da herria euskaldun mantentzea, erdaldunen multzoak eta poltsak euskalduntzea baino.

Han edo hemen sortu eta landu diren kontzeptu batzuen berri ematea komeni da, gogoetarako eta lanerako: Zerainen landu duten paisaia kulturala, esate baterako itxuraz urrun dauden kontzeptuak integratzeko edo gutxienez hurbiltzeko balio dezakeena, kultura, natura eta lurraldea bezalako ideiak integratzeko.

Lurraldearen antolakuntzan eta hirigintzan bertakotasunak eta bertakoen interesak ere rol garrantzitsua jokatu behar dute.

Ikuspegi eta proiektu estrategikoak behar dituzte herriek. Lurralde-antolakuntza eta hirigintza ez dira eremu isolatuak, ez gauzatzeko garaian noski, ez ondorioetan, ezta planifikatzeko garaian ere beraz. Etxebizitzak eta azpiegiturak herriaren garapen soziokulturalarekin lotuta egon beharko lukete. Osotasun baten barruan ikusi behar dira.

Proiektu estrategiko horietan erakunde publikoek eta herritarrek parte hartu behar dute, prozesu parte-hartzaileak izan behar dute. Prozesu parte-hartzaileak egin daitezke eta egiten dira batzuetan udalerriko hirigintza lantzeko. Hori da tokia, akaso, irizpideak landu eta adosteko. Politika normatibo bat egon behar da, baina araututa egon gabe ere hainbat erabaki har litezke.

Idea ezin da izan arnaguneak burbuila bihurtzea, ixtea, isolatzea. Datorren gizartea eta bizimodua ez da hori. Baina irekidura ongi egin ezean, euskararen kalterako izanen da. Lurralde-antolaketa ezin da itsu-itsuan egin, hizkuntzaren irizpidea kontuan izan gabe.

Epeak ere kontuan har litezke. Garapena zenbat eta programatuagoa eta kontrolatuagoa denboran, orduan eta errazago izanen da neurri zuzentzaileak sartzeara eta egoera berrietara egokitzea.

Arnaguneetan, elkarren berri izan behar dugu: ideiak, kontzeptuak, ikuspegiak, datuak eta ekintza zehatzen inguruko berriak trukatu behar dira.

Etxebizitzen salmentarako marketinean non dago euskara? Etxebizitza eta bizitzeko tokia bilatzeko garaian, nork hitz egiten du hizkuntzaren aldagaiari buruz? Komeni ote da?

Interesgarria izanen litzateke azterketa xehe bat egitea etxebizitzen hedapenak eta azpiegitura handiek nola eragiten dioten herri euskaldunei jakiteko, datu zehatzak eskuratuz.

Balizko neurri batzuen bideragarritasunaren azterketa juridikoa ere egin beharko litzateke.

Jardunaldien ondoren egin beharreko galdera: zer egin behar da? Zer egin behar dute UEMAK, GFAk eta Kontseiluak, esate baterako? Hasteko, gaia landu eta aztertu, informazioa jaso eta sistematizatu, ikerketa zehatzak egin. Irizpideak landu eta behar den tokira eraman, udalerrietako eta udalerriz gaindiko erakundeetara. Udalerrietan ere eztabaidatu, dagokion tokian (parte-hartze prozesuak, udalak...). Ikuspegiak ere udalerriz gaindikoa izan behar du, elkarren ondoan daudenek ere elkarri eragin handia egin diezaioketelako.

Horrekin bukatu dut. Printzipioz, gure esku-hartzeak bukatu dira eta zuek hitza hartu, zerbait galdetu edo zerbait esateko txanda da.

1 | Parte-hartzea

Publikoa: Orain komentatu duzunaren harira, lehen goizean Natxori galdera egiteko gogoz gelditu naiz. Oso interesgarria iruditzen zait hemen agertu den guztia eta eman beharreko urratsak dira, noski. Hizkuntza-irizpideak beharrezkoak dira. Baina beste kontzeptu bat ere badago, Busturialdekoa, hor badira babes-eredu batzuk. Busturia Biosferaren Erreserba baten barruan dago. Honez gain, Parke Nazionalak, Biotopo Babestuak... daude. Eskumen ezberdinak dituzten erakunde ezberdinek ematen dituzten babes tipoak dira hauek, ez? Ez dakit, gero arratsaldean Finlandiatik ere etorriko dira, eta agian beraiei mahai gainean jarri ahal zaie (eta badakit hemen UNESCOko jendea ere badagoela gainera), ea horrelako bestelako babes tipo bat (biosfera bera edo bioaniztasuna babesteko egiten diren bezalakoak), planteatu daitekeen kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna babesteko.

David Anaut: Badaki norbaitek erantzuten? Nik, teknikoki, edozein gauza planteatu daitekeela pentsatzen dut. Guk idatz genezakeen, edo dakitenek idatz lezaketen testu hori, gizartearekin batera planteatu behar da gero; zailtasuna, izatekotan, hor dago nire ustez. Planteamendua ulertu eta onartu beharko litzateke, eta lana hor dagoela uste dut. Ingurumenak babesa eta neurri konkretu batzuk behar dituela ulertzea iritsi gara, eta hizkuntzaren egoerak ere hori eskatzen digula ulertzea iritsi beharko ginateke agian. Teknikoki, planteatu litekeela uste dut, zalantzarik gabe. Gaur egungo legediarekin segur aski ez (hori Natxok jakingo du), baina beno, legeak ere aldatu daitezke. Legeak aldatzearekin batera, gutako askoren jarrera aldatu beharko litzateke, eta beharbada, sozialki eta politikoki hori dezente landu beharko litzateke, nire ustez.

2 | Parte-hartzea

Publikoa: Azken galderaren ildotik, proposatzera edo galdetzera ausartuko naiz: ingurune-faktorea dela eta eremu babestuak diren bezala, kultur ondarea ere izendatuta dago eta mailak daude, babes-mailak daude kultur ondare historiko-artistikoan. Zergatik ez hizkuntza-eremu babestuak, eta zeini dagokio babes hori ematea? Hori da nire galdera, Natxok erantzutetako dela imajinatzen dut. Eta beste aldetik, David, biztanle kopurua edo hiztunen kopurua handitzea edo gutxitzeak izan dezakeen eragina dela eta, ez da kopurua soilik, zer auzo berri batera etortzen direnak lo egitera etortzen badira bakar-bakarrik, zer hizkuntzatan lo egiten duten guri bost, hizkuntzaren erabileran ez du eraginik izango. Hizkuntzarekin batera hirigintza esku-hartzeek askotan kostu sozial handiak eta herriaren kohesioan eta herriaren nortasunean eragin handia izaten dutela da kontua. Eta azkena, hiztunen kopurua handia baldin bada, zuk ondo esan duzun bezala, denbora badago hor jokatzeko.

David Anaut: Ez dakit Natxok erantzun behar duen, bestela aurreratu egingo naiz. Ni konforme nago, ez da kopuru kontua bakarrik; egia da etortzen diren horiek "lo egitera besterik ez" esaten dela, baina horien eragina hori baino gehiago ere badela uste dut nik. Ez da bakarrik etorri, hesi horretan sartu, lo egin... Ez, ez, nik uste horrek baduela gero giro gutxiago herriko bizitzan eta kontua hori da, erdaldun bakar batek ingurua bera eta harreman-sare bat erdalduntzeko daukan gaitasuna. Hala ere, zure irakurketarekin konforme nago.

Natxo Cubero: Davidek aipatu duen bezala, gauza delikatuak dira. Erregimen juridikoak arau ezberdinak onar ditzan (euskara babesteko eremu bat edo arau bat onartzerako orduan, adibidez), zuhurtzia handiarekin jokatu behar da. Zergatik? Kasu batzuetan, diskriminazioa sortu litekeelako. Hau saihesteko, pisuzko arrazoi batzuk eman beharko dira. Administrazioak edo legegileak, pisuzko arrazoiak eman behar ditu ez diskriminazioa saihesteko soilik, edozer babesteko baizik (egoera berezi bati erantzun bat emateko arau ezberdinak onartzeko, adibidez). Lehenik eta behin, ikerlan batzuk egin behar ditu, adituen iritzia jaso, babestutako eremua finkatu eta mugatzeko. Horren ondoren, babestutako eremu horrek arau bereziak izango ditu. Babestutako eremu horietan etxebizitza ezin da eraiki, adibidez (salbuespenak ere ezagutzen ditugu, Busturialdean esaterako, zuzenbideak ere albuespenak dituelako). Baina orokorrean, proportzionaltasun printzipioa aplikatu behar da, eta arrazoi horiek ere interes guztiak kontuan hartu behar dituzte (euskararen interesak, jabeen interesak eta interes horien neurketak). Oreka bat bilatu beharko du Administrazioak.

David Anaut: Bi hitz eskatuta daudela uste dut. Beste norbaitek nahi baldin badu beharbada orain eskatu, eta bestela, bi hitz horiekin itxiko dugu gaurko eguerdiko saioa.

3 | Parte-hartzea

Publikoa: Kaixo. Nik aipatu nahiko nukeena arnaguneentzat edo euskara nagusi deneko herrientzat diskriminazio positiboko neurriak bultzatzea da. Behin eta berriz aipatu da herri batean 100 etxebizitza egin behar diren kasua... eta hor aztertu beharko litzateke ea benetan beharra ikusten delako den edo egoerak horretara bultzatu duelako (ratioen kontuengatik, zerbitzu batzuk lortzeko...). Herri guztiak parekatu egiten dira azkenean eta biztanle kopurua edozein delarik ere, batzuetan zerbitzu batzuk lortzeko minimo bat eskatzen da: euskaltegian talde bat sortzeko zortzi laguneko ratioa da minimoa, adibidez. Herri txikietan ezinezkoa da hori. Herri batera kanpotar edo erdaldun dezente etorri bada neurri zuzentzaile garrantzitsu bat izango zen, baina bestela, zortzira iritsi ezin bada, taldea ezin daiteke sortu. Ongi egongo litzateke herri horiei (herri txikiei batez ere) halako babes edo diskriminazio positiboa emateko administrazioen arteko elkarlan eta koordinazioa.

4 | Parte-hartzea

Publikoa: Orain arte, arnaguneei edo udalerrri euskaldunei nolabait babesa eman nahi izan zaie ikuspegi juridikotik. Bere mementoan Euskararen Legea onartu zen 8.3 artikularen oinarrian. Euskararen Legeak bazuen euskara bereziki edo euskara nagusi izango zuten zenbait udalerrri izango zirela aurreikusitako edo baimentzen zuten artikulua. Konstituzio Auzitegiak artikulua hura Konstituzioz kontratatzat jo zuen. Jardunaldi hauetan planteatzen ari dena, nire ustez, paradigma aldaketa bat da. Hemen, lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren ikuspegitik horri nola heldu planteatzen ari da. Paradigma aldaketa bat da hori, eta bai ikerketarako zein praktikarako bide oparoa dagoela iruditzen zait. Ea natur eremu babestuen teknikak baliatu daitezkeen galdetu da; memento honetan dauden esperientziak agertu digutenez, gaia batere landuta ez dagoela uste dut. Lurralde-antolakuntzak ez dio horri beharrezkoa den moduan heldu. Urdaibaiko biosferako PRUG-ean, oker ez banago, hizkuntza, berezko hizkuntza eta nolabait ikuspegi kulturaletik abiatuta, zerbait azaltzen da. Arautzeko aukerak agertzen direla uste dut, ikuspegi juridikotik aztertzeko gauza asko ditugula iruditzen zait (Davidek hainbat etxeko lan jarri dizkigu eta horretan jarriko gara), baina egia da hor arazo batzuk sortuko direla. Batasun Europarrean dagoen zirkulazio askea izango da bereziki arazo horietatik bat, ea horrek noraino mugatzen gaituen edo ez. Juridikoki, horri aurre egiterik badagoela iruditzen zait, euskararen eta hizkuntza gutxituen babesa erabat justifikatuta dagoela, proposatzen diren neurriak proportzio baten barruan sartu beharko liratekeela eta benetan arazoizkoak izan beharko liratekeela. Gauza horiek aztertu eta landu beharko liratekeela iruditzen zait, eta lurralde-antolakuntzak bide bat zabaltzen digula erronka horri heltzeko.

David Anaut: Beno, azkenengo hitza eskatuta zegoen, Aitziberrek eskatu du han.

5 | Parte-hartzea

Publikoa: Nire ustez behintzat, azken finean, lehentasun kontua da. Hemen interesen gatazka batekin topatuko gara betiere. Gauza askorekin gertatzen da, aurten Oartzunen gertatu zaigu guri: hurrek,

parke batean errekarako bidea egitea proposatu dute, eta gatazka Europako bisoia da; Europako bisoi horrentzako errekarako bidea zabaltzea traba da. Orduan zein da lehentasuna azkenean, Europako bisoia edo herriko haurrek errekaraz disfrutatu ahal izatea? Gauza bera gertatuko da hizkuntza kontuetan. Niretzako, gaur eta bihar izugarrizko mugarrira jartzen ari gara. Arlo ezberdinetako jendea (teknikari, arkitekto, arduradun politiko,...) hausnarketa honetan hastea. Esan den bezala, lege babesa oraingoz zaila izango da (Urkijo jauna hor izango dugu bizkarrean, zaintzen) baina urratsak eman daitezke, eta urrats horiek emateko ausardia behar da azken finean. Beste arlo askotan ausartak izaten badakigu interesatzen bazaigu edo komenigarria iruditzen bazaigu eta honetan, beste hainbeste; ausardi pixka bat eta euskaldunok baditugu zirrikituak topatzeko abilitadeak.

David Anaut: Beno, eskerrik asko eta honekin goizeko saioa bukatutzat emango dugu.

3. ARNASGUNEEN GARAPENA EUSKAL HERRITIK KANPO.

Paul Bilbao, KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA | Moderatzailea

Goizean ere aurreratu dugu, eta arratsaldeko saio honetara gure mugetatik kanpoko hiru adibide oso desberdin ekarri nahi izan ditugu, iruditzen zaigulako hiru gonbidatu hauen ekarpenak interesgarriak izango zaizkigula guri ere etorkizunari begira arnasmuneak babesteko, sustatzeko eta hedatzeko proposamenak jorratu behar baditugu. Gainera, goizean zehar oharrak hartzen ikusi ditut denbora guztian eta pentsatzen dut hasieran pentsatuta zeukaten esku-hartzea eta orain goizean entzundakoarekin hartu dituzten oharrekin, desberdina izango dela. Antolatzaileen izenean eskerrak eman nahi dizkiet hona bertaratzeagatik, badakidalako agenda nahiko beteak dituztela eta esfortzu handia egin dutela beraien esperientziak gurekin partekatzeko.

Esan bezala, hiru hizkuntza komunitate edo lurraldeko ordezkariak ditugu. Batetik, Finlandiako estatuan kokatuta dauden Aland uharteetako ordezkaria; bestetik, Belgikako estatuan kokatuta dagoen Flandriakoa eta azkenik, Erresuma Batuan kokatuta dagoen Galesekoa. Metodologia nahiko sinplea izango da, beraiei 30 minutuko ekarpena egiteko eskatu zitzaizen eta horren ostean gure galdera edo kezkek argitzeko txanda zabalduko dugu.

Lehenarekin hasita, Aland uharteekin hasita, Elisabeth-i bertara etortzeko komentatu genion uharteetako eskuorri bat bidali zigun. Batzuk ekarri ditugu hona guztiok jasotzeko eta eskuorri horretan Aland uhartei buruzko definizio bat agertzen zen, honela: "Aland uharteak Finlandiako eskualde suediar autonomo eta desmilitarizatua dira". Niri oso bitxia egin zitzaidan, beraien burua definitzen dutenean, azken finean, hizkuntza delako beraien lurraldea definitzeko ardatzetako bat. Egia da askotan Euskal Herrian soziolinguistika eta hizkuntzen kudeaketaren inguruan eta ikastaroak egin izan ditugunean, askotan Finlandia aipatu izan dela, hain zuzen ere, bertan pertsonaltasun printzipioa aplikatzen delako, baina Elisabethi beste eskaeratzeko bat egin genion. Esan dugun bezala Aland uharteek beraien burua suediar hiztun definitzen dute eta beraz Aland uharteak suediararen arnasmune bat dira. Arnasmune izateaz gain, hori horrela izan dadin lan handia egin dute gainera eta gure ustez garrantzitsuena arautu egin dutela da, benetan Aland uharteetan suediera hizkuntza nagusia izan dadin. 1921ean Nazioen Ligak uharte horiek Finlandiaren mende geldituko zirela erabaki zuen, baina Elisabethek azalduko duen bezala, baldintzetako bat suediera hizkuntza mantentzea izan zen, eta horregatik, Elisabethi beste beste, hizkuntzen eremuan dagoen araudiari buruzko kokapen edo aurkezpen bat egiteko eskatu genion.

Elisabeth Naclér politikari eta legegaria da eta Finlandiako Parlamentuko ordezkaria, are gehiago, Aland eskualdeko parlamentuko ordezkari bakarra da. Zuzenbidean lizentziaduna eta ibilbide politiko luzea duena. Hasieran Alandeko administrazioan, bertan egon zen 1979tik 2006. urtera arte eta 2011n Finlandiako Parlamentuko kide hautatu zuten. Nik ez daukat beste ezer esateko, eskerrak beste behin Elisabeth eta zurea da hitza.

Elisabeth Naclér, ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA, FINLANDIAKO PARLAMENTUKO KIDEA | Hitzaldia

• ALAND UHARTEAK.

Eskerrik asko hitzaldi hau ematera gonbidatzeagatik. Zuen aurrean egoteko gogo handia nuen. Zuk ongi esan duzun bezala, liburuxka ugari ekarri ditut hona gaur. Nik uste dut Aland uhartei buruzko liburuxka hau 14 hizkuntzetara itzulita daukagula, jende asko baitago interesatuta Alandeko autonomian, baina oraindik ez dugu euskarara itzuli. Espero dut hemen norbait horretarako prest agertzea. Aland uhartein lurralde, kultura eta hizkuntza autonomia 1921eko Nazioen Ligan azpimarratu zen. 1917ko gatazka baten emaitza izan zen hori, hain zuzen ere, Finlandia independentzia lortzeko prozesuaren barne eman zena. Iraganean, zehazki 1809. urtera arte, Finlandia eta Aland uharteak Suediaren esku zeuden, eta urte horretan, bai Finlandia bai Aland uharteak Errusiaren esku geratu ziren. Errusiarrak

berehala hasi ziren uharteak gotortzen, ikuspegi estrategikotik begiratuta, oso garrantzitsuak baitziren: Aland uharteak kontrolatuz gero, San Petersburgo, Stockholm eta abar kontrola zitezkeen. Gotorleku izugarri bat eraikitzen ari ziren (beno, izugarri handia izateko asmoa zegoen, baina inoiz ez zuten eraikitzen amaitu), 1854. urtean, Aland uharteetan Krimeako Gerrak eztanda egin zuenean. Oso arraroa izan arren, Frantziak eta Britainia Handiak beren ontzidiak batu eta Errusiarrak garaitu zituzten. 1856ko Parisiko itunean, Errusiarrek Aland uharteak berriro ez gotortzeko konpromisoa hartu zuten. Datu hori garrantzitsua da, nazioarteko esparruan eta nazioarteko itun batean Aland uharteak aipatzen ziren lehen aldia baitzen.

Lehen esan dudan moduan, Finlandiak 1917. urteko abenduan lortu zuen independentzia. Baina hori baino lehenago, independentziari buruzko eztabaida abian jarri zenean, Aland uharteetako biztanleak ere beraiekin zer gertatuko zen eztabaidatzen hasi ziren. Lehen Mundu Gerraren garaia zen, Errusiako Iraultzaren garaia, eta alandarrek ez zekiten Errusiaren esku egongo ziren eta beraz, errusieraz bakarrik hitz egingo zuten, edo Finlandiako estatu independentearen barne egongo ziren, eta beraz, finlandieraz bakarrik hitz egingo zuten (egun denok dakigun arren Finlandia herrialde elebiduna dela, baina alandarrek ez zekiten hori). Beraz, Suediako erregearengana jotzea erabaki zuten, baita Suediako lehen ministroarengana ere, eta Suediaren barne sartzea eskatu zieten. Eskatera bat ere egin zuten, baina ez erreferendum bat; eta garaiko datuen arabera, etxean zeuden pertsonen % 96k (asko mari-nelak baitziren eta itsasoan baitzeuden) eskaera hori bozkatu edo sinatu zuten. Hala ere, ez dio axola % 96 zen ala beste zifra bat zen, kontua da gehiengo argi bat zegoela eskaera horren alde. Erregeak eta Suediako gobernuko ordezkariak alandarrei harrera egin zieten Stockholmen, jarrera oso positiboa izan zuten, baina ez zen ezer gertatu, lehen esan bezala, garai hori oso arriskutsua izan baitzen mundu mailan. Ez zen ezer gertatu, harik eta Geoge Clemenceauk, Frantziako lehen ministroak, Parisen adierazpen batzuk egin zituen arte, hain zuzen ere Lehen Mundu Gerrari amaiera eman zion ituna, hau da, Versailleseko Ituna eta “ziur asko Suediaren interesak asetzeko gai izango gara” edo antzeko zerbait aipatu arte. Adierazpen horiek Finlandia esnarazi zuten, eta finlandiarrek ikaratu egin ziren, ez baitzekiten zer gertatuko zen.

Lehen esan dudan moduan, Finlandia herrialde elebiduna da; suedieraz ere hitz egiten da, baina ez zen eremu urriko hizkuntzatzat jotzen, Finlandian bi hizkuntza multzo nagusi daudelako, baina *de facto* behintzat, eremu urriko hizkuntza zen, gutxiengoarena, alegia. Hala ere, gutxiengo hori ez zen pobrea eta analfabetoa, botere handia zuen, berez, gobernuan zenbait ministro zituen, eta beraz, beraienzat oso garrantzitsua zen Aland uharteak ez galtzea. Beraz, gutxiengo horrek finlandiar gehiengo konbentzitu zuen Finlandia herrialde elebiduna izan zedin, era horretan, munduari frogatzeko herrialde zibilizatua zela eta Aland uhartearen kontua konpontzeko gaitasuna zuela. Eta hori lortu zuten. Parisen erabaki zen gai hori ez zela Versailleseko Itunaren barne konpondu behar, segurtasun gai bat baitzen, eta beraz, Nazioen Ligan jorratu behar baitzen. Hala, 1921. urtean, Britainia Handiak Nazioen Ligan aurkeztu zuen gai hori. Eta agian hori izan zen Suediara jotzeko beste arrazoietakoa bat, hau da, ez hizkuntza arrazoia soilik, baizik eta segurtasun arrazoia ere bai (konfiantza handiago zuten suediar estatu zaharrearantz finlandiar estatu berri eta hauskorrean baino). Nazioen Ligak erabaki zuen Aland uharteek finlandiar subiranotasunpean egon behar zutela, baina betiere uharteetako suediar hizkuntza eta kultura betirako mantenduko zirela behar bezala bermatuta. Hitzez hitz, hau adierazi zuen Nazioen Ligak: Finlandiak erabaki du Aland uharteetako populazioaren hizkuntza, kultura eta berezko suediar usadioak mantentzen direla bermatzea.

Hori guztia posible izan zen Finlandiak bere Konstituzioa onartu berri zuelako; izan ere, lehen esan dudan bezala, Finlandia herrialde elebidun gisa sortu zen, non bai suediera bai finlandiera hizkuntza ofizialak ziren. Aland uharteetarako irtenbidea eremu urrituko erkidego baterako irtenbide gisa izendatu zen; horren helburua zen nazionalitate bat babestea, babes elementu oso indartsuekin, ziur asko, oso biztanle gutxi babestu behar zirelako, gutxi gorabehera 22.000 inguru (gaur egun 28.000 - 29.000 inguru dira). Baltiko osoko uhartearen artean, Aland izan da populazioa areagotu duen bakarra, eta hala izan da azken hamarkadetan. Beno, hau guztia gertatu zenean, Finlandia nahiko desesperatuta zegoen eta beretzat garrantzitsua zen uharteak bere esku egotea. Gaur egun, batez ere Suedian, jende askok galdetzen du “Nola izan zen posible hori, alandarren gehiengoak Suediaren barne egotea nahi bazuen? Nola izan zen posible hori?”. Finlandia herrialde independente berria zen, gerra odoltsu bat izan berri zuten boltxebikeen aurka, eta herrialdearen zati bat modu horretan hautsi edo bereizi izan balitz, herrialdea kinka larrian geratuko zitekeen. Beraz, hori izan zen horren arrazoi nagusia. Garai hartan ez

zeukaten jarraitzeko eredurik. Historia osoan abian jarritako lehendabiziko autonomia irtenbideetako bat izan zen; ondorioz, Aland autonomian erabilitako mekanismo eta elementu asko eredu gisa erabili dira aurrerago, baina garai hartan, ez zeukaten ezer eredu edo adibide gisa erabiltzeko. Suediaren eta Finlandiaren arteko gatazka bat zen, eta bi estatu horiei hiru eguneko epea eman zitzaien irtenbide hori onartu ala ez onartzeko. Berez, alandarrek ez duten inolako paperik izan gatazka horretan. Bi alderdiek (hots, Suediak eta Finlandiak) Alandeko Autonomia Legea onartu zuten, alandarrek alde aurretik testu hori ukatu zuten arren. Ahal ere, nolabaiteko berme batzuk gehitu zitzaizkion testu horri. Hau da, Autonomia Lege horri paragrafo batzuk gehitu zitzaizkion, eta testu berri hori Berme Lege izendatu zen. Berme Lege horretan xedatutakoa hurrengo bi Autonomia Legeetan (1953koa eta 1993koa) ere ageri da. Baina ni ez naiz hona etorri Alandeko autonomiari buruz hitz egitera, hots, gatazkak konpontzeko tresna dela azaltzera, gehienetan horri buruz hitz egiten dudanez, hori ekiditea oso zaila egiten zaidan arren. Hiru urte eta erdi pasa nituen Jugoslavia ohiko gerran; gatazka askotan egon naiz, baina hala ere, halabeharrez esan behar dut bi parlamentu ditugula, bereizita, eta beraz, lehia legala dagoela Finlandiako parlamentuaren eta Aland uharteetako parlamentuaren artean. Hau da, nahiko autonomia zabalagoa, ez dugu ogasun eskumenik, baina indar handia daukagu, eta Finlandia Europar Batasunean sartu zenean, guk EBtik kanpo geratzeko aukera genuen, esaterako, Faroe uharteak eta Groenlandiak bezala. Egia da Faroe uharteekin eta Groenlandiarekin harreman ona dugula, eta Eskandinaviako lan-kidetzan ere harreman ona dutenez, beti konparatzen dugula gure egoera haienarekin.

Berme Lege horretako lehenengo paragrafoa irakurri dut lehenago, hau dio: Finlandiak erabaki du Aland uharteetako populazioaren hizkuntza, kultura eta berezko suediar usadioak mantentzen direla bermatzea”, eta horretarako, honako bermeak ezarri ziren Autonomia Legean:

Alandeko parlamentua eta udalerrriak (16) ez daude behartuta hezkuntza suedieraz ematen ez duten eskolak babestu edo diruz laguntzera. Estatuaren hezkuntza oinarrien arabera, hezkuntza suedieraz ere eman beharko da. Lehen hezkuntzako ikastetxeetan, Estatuak edo komunak ez du finlandiera babestu edo diruz lagunduko, komuna interesdunaren onespenik gabe. Hau da, horrek ez du esan nahi finlandierazko hezkuntza ematen duten eskolak debekatuta daudenik; baizik eta eskola horiek pribatuak izan behar direla, eta egia esan, inoiz ez da egon horrelako ekimen pribatu baten aldeko interesik. Horrez gain indarrean jarritako beste mugek ere helburu bera zuten; eremu urrituko erkidego txiki horren hizkuntza babestea. Muga batzuk ondasun higiezinak (lursailak) erosteko ezarri ziren, beste batzuk bozkatzeko eskubidean; baina muga garrantzitsuena zen Nazioen Ligak legearen aplikazioa egiaztatu behar zuela. Finlandia Aland uhartean kexak zegokion agintari eskudunari helarazteko derri-gortuta zegoen, eta kexa horrek lege jatorria bazuen, Hagako Auzitegi Iraunkorrera bidaltzera. Ez zen inoiz horrelakorik gertatu, eta gai interesgarria izan arren, ez naiz hori aztertzen hasiko orain.

Muga horien xedea zen populazioa oso apala zela kontuan hartuz (22.000 pertsona bakarrik), horren konposizio etnikoa ez aldatzea. Hau da, muga horiei esker, ezinezkoa bihurtu zen ekintzaile batek, Finlandiatik Aland uharteetara joan, bertan lursail bat erosi, industria bat abian jarri eta finlandiera ama hizkuntza duten mila langile uhartera eramatea, horiek hauteskundeetan bozkatzeko eskubidea izatea, eta ondorioz, uharteko hizkuntza egoera erabat aldatzea. Hori zen muga horien guztien xedea. Hau da, Nazioen Ligan, hizkuntzaren inguruan ezarri ziren neurri guztiak. Horrek esan nahi du Aland uharteetan, eskola guztiak suedieraz ematen direla, eta suedieraz bakarrik. Finlandiera edo suomiera atzerriko beste hizkuntza gisa irakasten da. Arestian aipatu dudana bezala, posiblea izango litzateke eskolak finlandieraz ematen dituen ikastetxe pribatuak irekitzea, baina oraingoz ez da horrelakorik gertatu. Finlandiera ama hizkuntza duten familiek, haurrak badituzte, eta Aland uharteetara bizitzera joaten badira, oso argi dute uharteetako hizkuntza ofizial bakarra suediera dela, eta beraz, eskola guztiak suedieraz direla. Halaber, suediera da Aland uhartean eta finlandiar estatuaren arteko hartu-emanetarako hizkuntza bakarra. Horren barne daude finlandiar estatuak uhartean bertan dituen bulegoak, finlandiar estatuak Aland uharteetan dituen ordezkariak baitira. Finlandiarekin, hots, Helsinki hiribururekin hartu-emanik eduki beharrez gero, horiek suedieraz egiten dira. Beraz, suediera da hizkuntza ofizial bakarra.

1953. urtean, Aland uharteek Autonomia Lege berria onartu zutenean, Nazioen Liga desagertuta zegoen dagoeneko, eta ziur asko, Alandek horregatik lortu zuen Egoitza Eskubide delako konpentsazioa. Bost urtetan zehar uhartean bizi izan bazara (eta noski uhartean jaio bazara eta zure gurasoak alandarrak badira, jaio bezain laster eskuratzen da eskubide hori), eskubide hori lortzen duzu. Hau da, ez bazara uhartean jaio baina bost urte badaramatzazu bertan bizitzen eta finlandiar herritartasuna baduzu, Egoitza Eskubidea lortzen duzu, eta horri esker, uhartean lursailak erosi, negozioak abian jarri

eta udal hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea duzu. Inolako mugarik gabe, alegia. Horrek esan nahi du, Aland uharteetara bizitzera joaten bazara (hori edozeinek egin dezake), bertan lanpostu bat lortzen baduzu, eta herrian etxe bat erosteko eskaera egiten baduzu, urtebete igaro ondoren, etxea erosteko baimena lortuko duzula. Kontua ez da jendeari uhartera bizitzera etortzen ez uztea, baizik eta Helsinkiko edo Stockholmeko edo beste nonbaiteko jendeak uharterako lursailekin ez espekulatzea. Beraz, edonor joan daiteke uhartera bizitzera, baina horretarako baimena behar da, eta uhartean negozio bat martxan jarri nahi izanez gero, horretarako ere baimena behar da. Hala ere, Egoitza Eskubidea baduzu, ez da horrelako baimenik behar. Hori bai, ezin da bozkatzeko baimenik eskatu; hau da, Egoitza Eskubidearekin bakarrik bozkatu daiteke. Hau da, Egoitza Eskubiderik gabe, Finlandiako presidentetzarako hauteskundeetan edo Finlandiako parlamenturako hauteskundeetan bozka dezakezu, baina ez udal hauteskundeetan. 1993. urtean horrela zegoen egoera, eta Egoitza Eskubide hori konpentsazio antzeko zerbait zela esaten zen, hain zuzen ere Nazioen Liga desagertuta zegoelako, eta ez zegoelako nazioarteko kontrolik autonomia horretan.

Baina 1993. urtean hirugarren Autonomia Legea onartu zuen Alandek, eta Egoitza Eskubidea lortzeko beste baldintza bat gehitu zen: suediera jakitea. Baldintza hori ez zen Legearen aurreko bertsioetan ageri. Beraz, lehen ere esan dudan moduan, hizkuntza zen Legearen xede nagusia. Alandarrak soldaduska egitetik salbuetsita daude. Askok pentsatzen dute Aland uharteak desmilitarizatu zirelako daudela salbuetsita, eta beraz askok esaten dute "guk babestu behar ditugu alandarrak, beraiek ez direlako gai beren burua defendatzeko". Baina ez dauka zerikusirik desmilitarizazioarekin edo defentsarekin, hizkuntzarekin baizik. Finlandiak ezin izan zuen bermatu, alandarrek, soldaduska egitean, suediera bakarrik erabiltzea. Gaur egun, armadan badago suediar atala, baina garai batean ez zegoen halakorik, eta suediar unitaterik edukiz gero ere, finlandiar armada zuzentzeko hizkuntza ofiziala finlandiera da. Hori da azalpen ofiziala, baina munduko herrialde gutxik nahi izaten dute beren armadan gutxiengo bat edukitzea, hain zuzen ere beste herrialde bateko atal izatea nahi duen gutxiengo bat edukitzea. Gauza bera gertatu zen Jugoslavia ohian, ez baitzuten gutxiengorik nahi beren armadan. Baina lehen esan dudan moduan, ofizialki, salbuespenaren arrazoi nagusia hizkuntzari lotuta dago.

Beraz, alandarrek bestelako betebeharrak dituzte, eta horietako bat ez da inoiz izan itsasoan pilotatzea. Jarraian, 6. Kapitulua erakutsi nahi dizuet.

Hau da, gure Autonomia Legeko 6. kapitulua, hizkuntzari buruzkoa, alegia. Aland uharteen autonomia ez dago Finlandiako Konstituzioan oinarrituta; nazioarteko erabaki bat izan zen, hiru eguneko epean bi alderdiek adostutakoa. Finlandiako Konstituzioak esaten duen gauza bakarra da Aland uharteek autonomia dutela, Aland uharteen Autonomia Legean xedatutakoaren arabera. Autonomia Legea ez da konstituzio bat, baina lege konstituzionala da, lege arrunt batek baino berme handiagoa duena, Alandeko parlamentuak ere onartu duelako.

Gaur egun, horrelako gatazka egoera batean, integrazioari buruz hitz egiten dugu: hau da, eremu urrituko erkidegoei dagokienez, asimilazioa onartezina da, integrazioa sustatu behar da. Garai hartan, berriz, gatazka ez zen integrazio kontua, suediera betiko bermatzea baizik. Ez dakit kapitulu hau irakurtzen denbora galdu behar ote dudan. Baina ikusten duzuen moduan, Alandeko hizkuntza ofiziala suediera da (herriar gehienek erabiltzen duten hizkuntza), eta ez dut horretan gehiegi sakondu nahi, baina Finlandiako eta Alandeko ordezkari osatutako erakunde arbitrarioan ere, suediera erabiltzen dute hizkuntza gisa, eta Auzitegi Gorenarekin egiten diren harremanetan ere, komunikazio guztiak suedieraz egin behar dira. 37. paragrafoan, ikusten duzuen moduan, finlandiar herritarrek eskubidea dute finlandiera erabiltzeko, baina estatu mailako ordezkarien aurrean bada soilik, ez udalerrietako edo Alandeko ordezkariekin; kasu horretan, testuan argi jartzen duen moduan, suediera izan beharko da erabili beharreko hizkuntza. Jarraian paragrafo bereziki interesgarri bat ageri da, 1994. urtekoa (testu hau 1994. urtekoa baita), eta bertan adierazten da itun bat beste hizkuntzetan bakarrik idatzita badago bidali daitekeela Alandera (Europar Batasunean ezinezkoa baitzen ingelesez edo frantsesez idatzitako testuak Aland uharteetara bidatzea, baina bai Finlandiara bidaltzea, Aland uharteetara bidaltzeko suedieraz idatzita egon behar zelako. Horregatik, 1994. urtean aldaketa hori ezarri zen, Aland uharteetara ingelesez, frantsesez, alemanez, gazteleraz edo beste edozein hizkuntzetan idatzitako testuak bidali ahal izateko).

Espero dut ikustea paragrafo honetan jartzen duena; hau da, norbaitek eskatzen badu, Alandeko agintariek eta Alandeko gobernuak, testua finlandieraz idatzita eman beharko dutela, baina testuak ez du xedatzen agintari horiek finlandieraz jakin behar dutenik; baizik eta testu hori finlandieraz eman behar dutela, hau da, finlandierara itzuli behar dutela. Zoritzarrez, ez daukat gai horretan gehiago

sakontzeko denborarik, gustatuko litzaidake, baina beno, nahi duenak, gai honi buruz gehiago irakur dezake. Minutu gutxi batzuk besterik ez zaizkit geratzen, eta beraz, galdera bat egingo dizuet: irtenbide hau ona al hau? Bai, irtenbide ona omen da, nazioarteko erakunde batek modu iraunkorrean konpondutako gatazka bakarrenetako bat izan delako. Baina beste gatazka batzuetarako eredia al da? Nik esango nuke horrelako gaietan ez dagoela eredurik. Eskubide kolektibo era bat da lurralde autonomia, eta horrek esan nahi du populazio guztia dagoela autonomia horren barne. Hau da, ezin da ezetz esan autonomia pertsonalaren kasuan bezala. Finlandiako suediera hiztunen kolektiboko kideek autonomia pertsonala dute. Hau da, Finlandian, pertsona bakoitzak erabaki dezake suediera hiztunen erkidegoaren barne dagoen ala ez. Finlandiako konstituzioan xedatutakoaren arabera, Finlandia herrialde elebiduna da, eta 2003. urtetik aurrera, Hizkuntzaren Legeak xedatzen du esparru hori. Hala ere, lege hori ez da Aland uharteetan aplikatzen. Finlandiako konstituzioaren arabera, Finlandia iparraldeko Sámi herriak eskubide bereziak ditu bere hizkuntza babesteko. Nazio Batuen Erakundearen arabera, herri indigena da Sámi herria. Finlandiak, bere mugen barne, erregimen ezberdinak ditu indarrean, egoera berezia da, berez eredutzat jotzen dena, baina oso zaila da egoera horietako elementu bat bakarrik kopiatzea.

Ez naiz Finlandiako konstituzioan zer jartzen duen azaltzera etorri, ez nago hemen Finlandiako lege esparruari buruz hitz egiteko, baina gai oso interesgarria iruditzen zait. Finlandiako konstituzio Batzordeko kidea naiz, eta nahiko kezkatuta gaude konstituzioko paragrafo jakin batekin. Paragrafo horren arabera, administrazio baten antolakuntzan, lurralde muga egokiak jartzea izan beharko litzateke helburua, era horretan, finlandiera eta suediera hiztunen populazioek aukera izan dezaten zerbitzuak beren hizkuntzan jasotzeko, betiere lege bidez ezarritako udal mugen printzipioen baldintza berdinetan. Zer esan nahi du horrek? Horrek esan nahi du orduak eta orduak pasatzen ditugula lanean Konstituzio Batzordean. Baina honek guztiak ez dauka zerikusirik Aland uharteekin, uharteak ez baitira lurralde elebidun. Beraz, Aland uhartearen kasuan, ez naiz horrekin kezkatu behar.

Eztabaidak egon dira, batzuek diote emankorragoa izango litzatekeela Finlandiako suediera hiztun kolektiboeri eremu urriko erkidego estatusa ematea, eta horren bidez, nazioartean, eremu urriko kolektibo eta hizkuntzei buruz ezarritako estandarrei erreferentzia egiteko, baina eztabaida horrek ez du emaitzarik izan, eta ez da kolektibo horien estatusa aldatzeko ekimenik abian jarri. Oposizioa gogorra da, Finlandiak bi hizkuntza nazional dituelako. Onargarria al da Aland uharteetan hizkuntzak horrelako babesa edukitzea? Bai, populazioa horren apala denez, nire ustez, horrelako babes mekanismorik izan ez balu, eta Suedia estatu ahaidearen laguntzarik gabe, Alandeko populazioaren baldintza bereziek ez zuketean gaur egunera arte bizirik iraungo. Urtetan zehar, Suediak babesa eman die Aland uhartei, hain zuzen ere hizkuntza garrantzitsua den esparruetan, besteak beste, hezkuntzan, komunikabideetan, gizarte laguntzetan eta osasungintzan, eta ziur asko, arestian aipatutako eremuetako da Aland uharte, hizkuntza eremu babestu bat, alegia.

Gaur egun, gure ikasleen % 75 Suediara joaten da. Estatu ahaide oso garrantzitsua da Suedia. Baina ez al dago arazorik? Askotan, Alandeko autonomia pribilegiotzat jotzen da, eta ondorioz, talde nazionalistek irtenbideari aurka egiten diote, finlandiar gehiengoaren ordezkariak, hots, uharteetan bizi diren finlandiarrek, eremu urrituko erkidego gisa ere eskubideak eduki beharko litzaketela esanez. Baina ez dago lege kontzepturik eremu urriko esparru batean bizi den populazioaren gehiengoak eremu urrituko erkidego gisa eskubideak izateko. Horrek ez du esan nahi giza eskubideak errespetatu behar ez direnik. Aland uharteetara bizitzera joaten diren pertsonak badakite eskolak suedieraz bakarrik direla, eta horrek ez du arazo handirik sortzen. Aland uharteetan 92 nazio ezberdineko pertsonak bizi dira, eta bertan 40 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Ez da gizarte isolatu bat, ez ditu atzeritarrak ukatzen, edonor joan daiteke bertara bizitzera, baina Aland babestuta dago finlandieraren aurrean, hori argi dago. Askotan esaten da “ingelesaz badakizu, ez babestu ingelesaren aurrean”, eta nik zera esaten dut askotan: “Quebecen ingelesaren aurrean babesten dira”, ez finlandieraren aurrean, eta noski, gure kasuan, finlandieraren aurrean babestu behar gara. Gehiengoaren hizkuntza eta eremu urriko hizkuntza zein diren da gako.

Gaur egun, Finlandian hizkuntza testuingurua aldatzen ari da, argi eta garbi, eta gero eta sentimendu nazionalista gehiago pizten ditu gaiak. Udaberri honetan, herritarren ekimen bat jorratuko da Finlandiako parlamentuan: eskoletan suediera nahitaezko gai gisa irakastea proposatuko da. Kontuan izan 50.000 sinadura biltzea eskatzen dela horrelako ekimen bat parlamentuan aurkezteko. Baina ekimen horretan, “suediera nahitaezko irakasgai” kontzeptuaren ordez “nahitaezko irakasgai” gisa ai-

patzen da, hau da, konnotazio oso peioratiboa du, eta “nahitaezko” hitz horrek nolabaiteko indarkeria zentzua ere badu. Ekimen horrek ez du zerikusirik Aland uharteekin, baina horrelako giroa dagoela kontuan hartuz, zaila da modu serioan jardutea eta errespetuzko trataera jasotzea.

Uda honetan Transilvaniako eta Hungariako ordezkariekin hitz egin nuen; hau guztia azaldu nienean, asko haserretu ziren, eta zera esan zidaten: gaia ez da finlandiera, gai hau nazioarteko kontua da. Finlandia da gure eredia, Finlandia beti izan da gure eredia, eta orain eredu hori zapuzten ari zarete.

Alandarrek askoz ere modu kartsuagoan babesten dute beren hizkuntza, Finlandiako suediera hitzunik baino askoz ere gehiago, hori argi izan. Finlandiako parlamentuan, suedieraz hitz egiten duen bakarretakoa naiz ni. Jendeak askotan galdetzen dit: “interpreterik al duzu?”. Eta nik zera erantzuten diet: “ez, ez daukat interpreterik. Nik esaten dudana ulertzen ez duten pertsonak dute interpretea”. Finlandia herrialde elebiduna da, eta parlamentuan bi hizkuntzak erabil daitezke. Nik finlandiera ulertzen dut, eta beraz, ez du interpreterik behar. Eta interpretea niregana etortzen bada, beti esaten diot “zergatik ez zara esertzen nik esaten dudana ulertzen ez duten pertsonen ondoan?”. Finlandian, oro har, suediera hitzunik finlandieraz ere hitz egiten dutenez, gehienetan finlandierara jotzen duten arren, nire ustez, Aland uharteetako ordezkari gisa, nire betebeharra da erakustea suediera Finlandian oraindik bizirik dagoen hizkuntza dela, ez ipuin zaharretako hizkuntza bat soilik.

Amaitzeko, arestian aipatutako ideia bat aipatu nahi dut berriro: askotan esaten da Aland uharteek pribilegioak dituztela, baina aipatutako neurri guztiak ez dira pribilegioak, konpentsazio bat dira, alandarrek ez zutelako beren estatu ahaidearen barne egotea lortu; gainera, eremu urriko erkidego izatea inoiz ez da pribilegio bat; herrialdeko gehiengoaren hizkuntza bera edukitzea da pribilegioa. Eskerrik asko.

Paul Bilbao: Eskerrik asko Elisabeth, eztabaidarako hainbat elementu atera direla uste dut. Lehen esan dut soziolinguistikari edo hizkuntza-eragintzari buruzko ikastaroetan normalean pertsonaltasun printzipioaren eredu Finlandia jartzen zaigula eta lurraldetasun printzipioaren eredia azaltzen zaigunean, normalean, Belgika izaten da adibidea, Flandria, Valonia eta abar.

Hurrengo gonbidatua Flandriatik datorkigu, Wilfried Vandaele. Zergatik aukeratu dugu Flandriako adibidea? Beno, Flandria bera ere lurraldetasun printzipio hori amasguneen kontzeptuari erabat lotzen zaiola uste dugu. Lurraldetasun printzipioaren arabera lurraldea da hizkuntza horretan bizi dena eta pertsonak lurraldeko hizkuntzari moldatu behar zaizkio, eta ez alderantziz. Hala ere, egia da, Flandriak egoera desberdinak bizi dituela: ez da gauza bera Flandrian nederlanderak duen egoera edo Flandriaren barruan kokatzen den Bruselan, hiri elebiduna deitzen den horretan, zein den nederlanderaren egoera. Hizkuntzaren garapenak kontrako noranzkoa hartu du batean eta bestean. Gainera, azken urteotan beste fenomeno bat gertatzen ari da Flandrian. Brusela inguruko lurralde inguruetara nolabaiteko migrazio-mugimenduak egon dira; eremu horiek Flandriaren lurraldean kokatzen dira baina migrazio-mugimendu horietan gehienak frankofonoak dira. Horrek hainbat arazo sortu ditu Flandrian eta horren ondorioz zenbait neurri hartu behar izan dituzte.

Hori guztia azaltzeko, esan bezala, Wilfried Vandaele gonbidatu dugu. Berak masterra du nederlanderazko eta ingelesezko literaturan eta komunikazio eta hedabideen zientzietan. Dutch and Flemish Congress Foundation erakundeko idazkari nagusia izan da, Flandriako Ingurumen Agentziako komunikazio buru ere eta 1998-2009 artean Flandriaren eta Holandaren arteko Itun Kulturalaren idazkari nagusia izan zen. Horren bidez, Flandriako eta Holandako Gobernuei aholkuak egiten zitzaizkien hezkuntzan, kulturen, zientzian eta abar. 2009an Flandriako Parlamentuko kide hautatu zuten eta besteak beste bere alderdi N-VA kultur aferetarako batzordean ordezkatzeko. 2013an Belgikako senatari izendatu zuten eta bertan Flandriako Parlamentua ordezkatzeko. Hortaz, gizarte mugimenduetan bai, baina politikan ere eskarmentu handiko gizona dugu Wilfried. Wilfried, zurea da hitza.

Wilfried Vandaele, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO-ZIENTZIAN MASTERRA, FLANDRIAKO PARLAMENTUKO KIDEA | Hitzaldia

• **FLANDRIA.**

Jaun-andereok, eta nire laguntzaile ederra, Irati. Eta nire beste laguntzaile ederra, Paul, diapositibak aldatuko dituen, ez dakidalako euskaraz irakurtzen.

“Arratsalde on”, ongi esanda dago hori? Oso arriskutsua da beste hizkuntza batean hitz egitea, ez dakizun hizkuntza batean hitz egitea, jaun-andereak. Flandrian bagenuen ingeleseko irakasle bat, eta behin, urtarrila zen, gaur bezala, han geunden guztioi “Happy New Year” (urte berri on) esan nahi zigun arren, “I wish you all a Happy Birthday” (urtebetetze zorionsua opa dizuet guztioi) esan zigun. Beraz, arriskutsua da beste hizkuntza bat erabiltzea.

Hizkuntza irizpideak, Flandrian gizartea antolatzeke baliabide gisa

Eskerrik asko Donostiara etortzeko gonbita egiteagatik. Kultura eta hizkuntza eskubideen alde eta Espainiaren aurrean, Euskal Herriak autogobernuaren alde egiten duen borrokak antza handia du Flandriak Belgikaren aurrean duen borrokarekin.

35 urte daramatzat lanean Flandriako Mugimenduko eta Flandriako Alderdi Nazionalistako kide gisa, gaur egun, Flandriako parlamentuko kide naiz, baita Belgikako senatuko kide ere, Flandriako Aliantza Berria alderdiaren izenean (N - VA).

Jardun osoko politikari bihurtu baino lehen, Flandria eta Herbehereen arteko kultura itunaren idazkari nagusia izan nintzen. Gaur egun, Nederlandarren Hizkuntza Batasuneko presidenteordea ere banaiz. Flandria eta Herbehereen artean nazioarteko lankidetzak daukagu hezkuntzan, kulturen, hizkuntzan eta abar. Nederlandara Herbehereetako hizkuntza ofiziala da, baina baita Flandriakoa ere. Etxean, askotan flandrieraz hitz egiten dugu, dialekto sistema bat dena, alegia. Baina gure hizkuntza ofiziala nederlandara da. Ez genuen flandriera hizkuntza estandar gisa garatu.

Hizkuntzak Belgikan

Flandriar populazioak gehiengoa du Belgikan, baina 1930era arte (Belgika 100 urte lehenago sortu zen, 1830ean), unibertsitate batean, zehazki Ganteko unibertsitatean, ez zen ikasgairik eskaini nederlandaraz.

Flandriak 6,5 milioi biztanle ditu, eta Herbehereek ia 17 milioi biztanle. Guztira, 23 milioi pertsona baino gehiagok hitz egiten du nederlandaraz. Europar Batasuneko hizkuntza ofizialetako bat da nederlandara.

Dakizuen bezala, gaur egun, Europar Batasunak 28 estatu kide eta 25 hizkuntza ofizial ditu. Hizkuntza zerrendako 8. postuan dago nederlandara, beraz, nederlandara ez da hizkuntza txikia, baina hala ere, presiopean dago.

Frantses gutxiengoak flandriar gehiengoa menderatu zuen

Belgika 1830. urtean sortu zen. Ofizialki, konstituzioak dio bakoitzak nahi duen hizkuntza erabiltzeko askatasuna duela. Belgikarren gehiengoa flandriarra izan arren eta nederlandara edo flandriera dialektoen bat hitz egin arren, hizkuntza ofiziala frantsesa zen garai hartan.

Goi mailako klaseek frantsesetik hitz egiten zuten. Epaitegietan, hezkuntzan eta administrazio publikoan frantsesetik hitz egiten zen. Bizitzan arrakasta izan nahi zutenek frantsesetik hitz egin behar zuten. Frantsesetea oso azkarra izan zen.

Brusela da horren adibide garbi bat: historikoki, flandrieraz hitz egiten zen hirian, baina gaur egun, frantsesa da nagusi, flandrieraz hitz egiten den lurralde inguratuta egon arren.

Flandriarrek hizkuntza eskubideak eskatu zituzten

1860tik aurrera, flandriarrek hizkuntza eskubideak eskatzen hasi ziren, egoera asko onartezinak zirelako. Ikasleek debekatuta zeukaten nederlandaraz hitz egitea, baita jolastokian ere. Nederlandaraz hitz eginez gero, zigortu egiten zituzten. Pertsona batzuei heriotza zigorra jarri zitzaion, baina ez zuten epaitegian zer esaten zen ulertu ere egin.

Handik 100 urtera, zehazki 1962. urtean, hizkuntza mugak ezarri ziren.

Belgikan 4 hizkuntza eremu daude:

- Niderlandera eremua (Flandria)
- Frantses eremua (Walonia)
- Alemaniako eremua (eremu txiki bat, Alemaniako mugatik gertu)
- Eremu elebiduna (frantsesa eta niderlandera): Brusela

Lurraldetasun printzipioa eta pertsonalitate printzipioa

Hizkuntza eremuak eta hizkuntza mugak ezarri izanak esan nahi du lurraldetasun printzipioa aukeratu dugula hizkuntza eskubideekin lotutako gaietarako. Hau da, hizkuntza eskubideetarako ez genuen pertsonalitate printzipioa aukeratu. Latinez: “ius solis” versus “ius personae”. Pertsonalitate printzipioak esan nahi du pertsonak eskubideak dituela eta edonon bizi dela ere, eskubide horiek bereak direla. Kasu horretan, hizkuntzari dagokionez, autoritate publikoak gizabanakora egokitu behar dira. Lurraldetasun printzipioak, berriz, eskualdeari eskubideak ematen dizkio. Hau da, gizabanakoak eskualdeko ohituretara egokitu behar dira (adibidez, hizkuntzara).

Nire ustez, lurraldetasunaren printzipioa da esparru publikoan funtzionatu dezakeen sistema bakarra. Belgika bezala, modu federalean antolatuta dauden estatu guztiek erabiltzen dute printzipio hori. Giza Eskubideen Europako Epaitegiaren ustez, printzipio hori ez da bazterzailea (1968). Eskualde batek, gizarte batek, arau jakin batzuk ditu, hizkuntza jakin bat dauka, eta gizabanakoentzat komenigarria da hizkuntza hori erabiltzea, baldin eta gizarteko kide izan nahi badute. Etxean, esparru pribatuan, jendeak nahi duena egin dezake; hau da, nahi duen hizkuntzan hitz egin dezake, eta gauza arraroak ere egin ditzake (buruz behera ibili, biluzik, ahoan untxi hil batekin, swahiliz abesten), baina herritarren eta agintarien arteko komunikazioa gertatzen denean, hizkuntza arauak bete behar dira.

Pertsonak beren artean komunikatzen direnean, legearen arabera, nahi duten hizkuntza erabil dezakete, baina gizartearentzako komenigarria da esparru publikoan behintzat, jendeak eskualde horretako hizkuntza erabiltzea. Beraz, Flandrian niderlandera da hizkuntza hori.

Flandrian, herrialde gehienetan bezala, pub bat irekitzen baduzu, nahi duzun izena jarri diezaiokezu, nahi duzun hizkuntza aukera dezakezu, jatetxe batek nahi duen hizkuntza erabil dezake bere menuan eta abar. Baina gogoan izan: Quebecen/Kanadan ez da hori gertatzen, dendak, tabernak eta abar irekitzeko hizkuntza baldintza batzuk behar direlako.

“Hizkuntzarentzako arnasmune” bat behar dugu, esparru kultural bat, “etxean bezala” sentitzeko, ulertzen dugun pertsonen artean babestuta gaudela sentitzeko, hau da, gizarte kohesioa eta solidaritatea daudela sentitzeko.... elementu horiek guztiak oso garrantzitsuak dira gizarte irmo bat eraikitzeko.

Europako kultura eta Hizkuntza Politikak

Europar gizarte eta kultura ezberdinak daude, hizkuntza eta kultura aldaera ezberdinak daude, eta horri esker, Europaren berezko ezaugarriak izan beharko lirakeen aberastasuna eta aniztasuna sortzen dira. AEBak, berriz, kulturen arragoa dira.

Europa ez da beti argia izan gai honen inguruan: betidanik egon da nolabaiteko tirabira helburu ekonomikoen eta helburu kulturalen artean. Alde batetik, ezerk ez du merkataritza askea eta zerbitzu, ondasun eta pertsonen trafikoa askea oztopatu behar; baina bestetik, kultura aberastasuna (eta beraz baita hizkuntza aberastasuna ere) garrantzitsuak dira Europan. Printzipio hori, hain zuzen, onartu zen Maastrichteko Itunean (1992): kulturari buruzko paragrafoak (128. artikulua) identitate kulturala babestu eta sustatzeko aukera ematen die herrialdeei. Ni izan nintzen paragrafo horren egileetako bat. Horrez gain, hezkuntzari buruzko paragrafoak (126. artikulua) hizkuntzen garrantzia azpimarratu zuen. Amsterdameko (1997) eta Lisboako (2007) Itunek berretsi zuten Europar Batasunak kultura eta hizkuntza aniztasuna errespetatzen dituela.

Europako herrialdeek baimena dute beren filmak, liburuak, telebista programak, artelanak eta antzokiak diruz laguntzeko, horrek hein batera arte merkataritza askea mugatzen duen arren, eta horrek lehia nolabait alda dezakeen arren. Estatu kide ezberdinek eskatu zuten “kultura salbuespen” hori egun Europan eta AEBen artean negoziatzen ari diren “Atlantikoaz haraindiko Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzan” (Trans-Atlantic Trade and Investment Partnership (TTIP)) ere txertatzea. Nazioartean badaude bestelako tresna batzuk, ez bakarrik hizkuntza ezberdinak babesteko, baizik baita “hizkuntza txikiagoak” edo eremu jakin batean bakarrik erabiltzen direnak babesteko ere. Horietako batzuk ikusten dituzuen hemen.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna ere indarrean daukagu (1966. urtean onartutakoa eta 1976. urtetik aurrera indarrean), eta horren arabera, estatu bateko eremu urriko erkidego bateko kideek beren hizkuntza erabili dezakete (27. artikulua). Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna daukagu beste aldetik (1992, 1998az geroztik indarrean); Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoa dago, eremu urriko hizkuntza eta kulturen informazio sarea (1987). Eremu Urriko Erkidego Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena daukagu azkenik, kulturaren, hezkuntzaren, irratiz zein telebistaren eta hizkuntzaren esparruetan eremu urriko erkidegoentzako eskubide batzuk bermatzen dituen. Azken hitzarmen horren gaia pil-pilean dago Flandrian eta Belgikan. Belgikak 2001. urtean sinatu zuen hitzarmen hori, baina Flandriak ez du inoiz sinatu. Flandriak ez du sinatu nahi, itun horrek lurraldetasun printzipioa arriskuan jarriko duela uste duelako, hau da, hizkuntza eremuen eta mugen egitura, Belgikako estatu federalak oinarri gisa erabiltzen duen egitura, alegia. Arazoa da Belgikan, frantses hiztunak oso inperialistak direla. Ez dira bizilagun zintzoak, etengabe mugaz haraindian joaten saiatzeko direlako. Bizilagun zintzo batek ez du hori egiten. Konturatu baino lehen, bizilagun frantsesa zure ohean daukazu lotan. Zure emaztearekin, gainera!

Flandriarren beldur hori are gehiago areagotu zen, Columberg jaunak (1998) eta Nabholz-Haidegger (2002) jaunak Europako Batzorderako txosten negatiboak idatzi zituztenean. Espainiak 1995. urtean sinatu zuen eremu urriko erkidegoen babeserako esparru hitzarmena.

Hizkuntza, gizartea antolatzeke tresna gisa erabilia

Berez, jendeak hizkuntza baldintzak betetzea espero dugu beti: lan eskaintzetan, adibidez, hizkuntza irizpide garrantzitsua da. Hizkuntza ez da arraza edo aurrekari etnikoak bezalakoa. Hau da, hizkuntzak ikas daitezke. Flandriako eta Belgikako legeek diote inor ez dela hizkuntza dela eta baztertu behar. Baina: hizkuntza irizpide gisa erabili daiteke, baldin eta norbaitek horrekin jendea motiba badezake! Batzuetan, eztabaida hori oso zaila izaten da!

Flandesek nederlandera jakitea erabiltzen du irizpide gisa lanpostu bat aurkitzeko aukera areagotzeko, erkidegoan integratzeko, eta eskualde jakin batzuk bizitzeko moduko baldintzetan mantentzeko. Beraz, jendea nederlandera jakitea eskatzeko arrazoiak ez dira kulturari edo hizkuntzari lotutakoak soilik, sozialak ere badira.

Pertsonak, elkarren arteko komunikazioan, elkar ulertzen badute, seguruago sentitzen dira, solidaritatea areagotu egiten da eta abar. Hamarkada askotan borrokan aritu ondoren, gaur egun, Flandrian, administrazio publikoak, epaitegiek, hezkuntzak eta enpresek nederlandera erabili behar dute. Flandriarrek hizkuntza irizpideen inguruan erabiltzen dituzten tresna batzuk auzipetuta egon dira Belgikako auzitegietan, nazioarteko epaitegietan, edo Europako Auzitegian, Belgikako frantses hiztunen eskutik.

Ikus ditzagun hizkuntza lege batzuk, eta nazioarteko zein herrialdeetako auzitegi zein erakundeek horien aurrean izandako erreakzioak. Esparru hauek aztertuko ditugu: Epaitegiak, hezkuntza, enpresak, administrazioa, etxebizitzak, gutxieneko soldadak, eta bestelako esparru batzuk.

Flandrian, auzitegiek nederlandera erabili behar dute. Bruselan, nederlandera edo frantsesa erabili dezakete. Norbaitek, adibidez, atzeritarrek, ez badute hizkuntza ulertzen, interprete bat eska dezakete.

Hezkuntza

Haur hezkuntzan, lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan, nederlandera erabili behar da (1963ko legea). Salbuespen gutxi batzuk daude, baina ez du merezi horiek aipatzeak.

Salbuespena da esperimendu batzuk daudela, hau da, eskola batzuetan, irakasgai batzuk migratzaileen hizkuntzan irakasten direla, era horretan, migratzaile horien integrazioa areagotzeko. Bestelako esperimenduak ere egin dira murgiltze hezkuntzaren inguruan: horrek esan nahi du ikasgela batzuetan, frantsesa eta ingelesa ez direla hizkuntza gisa irakasten, era horretan, haurrek hizkuntza horiek txikitatik ikas ditzaten. Flandrian badaude beste salbuespen batzuk, eta gutako gehienoi ez zaigu metodo hori gustatzen.

Unibertsitateek eta goi mailako hezkuntza erakundeek ere nederlandera erabili behar dute. Baina goi mailako hezkuntzan, gero eta irakasgai gehiago ingelesez ematen dira, atzerriko ikasleak erakartzeko, eta Flandriako ikasleei nazioarteko merkatuan aukera gehiago emateko. Herbehereetako unibertsitate batzuetan, ikasgai guztiak ingelesez ematen dira. Flandrian hori ezinezkoa da oraindik. Iaz lege berri bat onartu zen (berez, Flandriako legeri "dekretu" esaten zaie), unibertsitateetan ingelesa susta-

tzeko, baina hala ere, muga batzuk daude oraindik: Flandriako unibertsitate guztiak kontuan hartuta, % 6ak bakarrik dauka baimena lizentziatura ikasgaiak beste hizkuntza batean emateko (gehienetan ingelesez), eta masterrei dagokienez, unibertsitate guztien % 35ek bakarrik eskaini ditzake ikasketa horiek beste hizkuntza batean.

Araudien zorrotzasuna gero eta apalagoa dela esan daiteke, beraz. 10 urteko epean, gai horri buruzko bi txosten idatzi nituen, eta epe horretan, argi dago nederlanderak behera egin duela, ingelesak gora egin duen bitartean.

Enpresak

Flandrian, enpresa guztiak nederlanderaz erabili behar dute langileentzako ahozko edo idatzizko komunikazio guztietan, zein dokumentu ofizial guztietan. Bruselan, enpresek nederlanderaz idatzi behar dituzte dokumentuak beren flandriar langileentzat, eta frantsesez, frantses hiztun diren langileentzat. Baina, errealitatean, enpresa askok ingelesa erabiltzen dute komunikazioetarako.

Flandrian kokatutako enpresak nederlanderaz erabiltzera behartzen dituen legeari dagokionez: Europako Auzitegiak (2013ko apirilaren 16an) adierazi zuen lege horrek (1973an onartutakoak), pertsonen eta zerbitzuen trafiko askea oztopatzen duela. Europako Auzitegiaren arabera, testuaren bi bertsio egitea da irtenbidea: bat nederlanderaz eta bestea beste hizkuntza batean. Beraz, Flandriak 40 urteko lege hori egokitu behar du.

Administrazio publikoa

Flandrian, gobernua, probintziak eta udalerriak nederlanderaz erabiltzen dute herritarrekin komunikatzeko (1966ko legea). Agintari erdi-publikoen kasuan, esaterako, garraio publikoko agintarien kasuan (autobus, tren konpainiak) eta agintari publikoentzako lan egiten duten enpresen kasuan ere, lege hori bete behar dute. Printzipioz, jendeak ere nederlanderaz erabiltzen du agintariekin harremanak edukitzeko, adibidez, obra lizentzia bat eskatzeko. Errealitatean, flandriarrak oso toleranteak izaten dira askotan, erraz egokitzen dira. Erabilgarria dela ikusten badute, erraz pasatzen dira beste hizkuntza batera. Adeitasun kontu gisa ikusten dute. Baina hizkuntzaz aldatzen badugu, nahi dugulako izan beharko da, ez horretara behartuta gaudelako.

Administrazioari buruz ari garela, Bruselako egoera, hau da, Belgikako hiriburu elebidunarena, eta horren inguruan kokatutako flandriar udalerrien egoera aipatu nahi dut. Bruselan, nederlanderaz eta frantsesaz dira hizkuntza ofizialak, eta funtzionarioek, eta ospitaleetako mediku zein erizainek, bi hizkuntzak jakin behar dituzte. Baina, errealitatean, askotan ez dakite nederlanderaz, frantsesez bakarrik hitz egiten dute. Askok diote hori logikoa dela, Bruselan, gutxiengo batek hitz egiten baitu nederlanderaz. Baina hori ez da hala. Lehenik eta behin: Brusela flandriar hiria zen, eta frantsestu egin zen. Bigarren, flandriarrak Belgikako gehiengoak dira, baina autogobernuaren bidean etsi egin dute. Belgikako gobernuan eta parlamentuan mekanismo ugari daude, flandriar gehiengoak frantses gutxiengoari bere borondatea ez inposatzeko. Baina flandriarrek Belgikako erakundeetan gehiengoak edukitzeari uko egin zioten, horren ordainetan, Bruselan baztertuta egon ez zitezten.

Bruselaren menderatze frantsesak Brusela inguruko flandriar erkidegoetan ere eragina du. Frantses hiztun gero eta gehiago (Bruselako nazioarteko erakunde eta enpresetan lan egiten duen jende gero eta gehiago ere), Brusela inguruko udalerririk eder, berde, lasai eta seguruetan bizi dira, eta udalerririk horiek flandriarrak dira. Udalerririk horietako batzuetan, frantses hiztunek hizkuntza eskubide bereziak lortu dituzte. Dokumentu ofizialak, lehen hezkuntza eta abar frantsesez jasotzea eskatzeko baimena dute. Flandriarrek beti pentsatu zuten neurri hori behin-behinekoa izango zela, eta epe jakin baten ondoren, desagertu egingo zela, baina frantses hiztunen ustez, eskubide horiek betiko dira. Beraz, frantses hiztunek gero eta presio handiagoa egiten dute flandriar erkidegoetan.

Brusela inguruko flandriar udalerririk batzuetan, gaur egun, biztanleen % 50 frantses hiztunak dira. Gutxienez, hori diote frantsesek. Udalerririk horietan, frantsesak hizkuntza eskubide bereziak ditu. "Hizkuntza ezaugarri bereziko udalerririk" izenarekin dira ezagunak. Baina, arestian esan dudan moduan, frantses hiztunek beti nahi dute pixka bat harago joan. Adibidez: hauteskundeak egiten direnean, flandriar komunitateetako frantses hiztunek eskubidea dute hauteskundeetako paperak frantsesez eskatzeko. Gehienetan, dokumentuak nederlanderaz idatzita jasotzen dira, baina frantses hiztun batek dokumentuak frantsesez nahi baditu, horiek eska ditzake. Frantses hiztunek uste dute nahikoa dela behin eskatuta. Hau da, etorkizunean, dokumentuak automatikoki frantsesez jasotzea espero dute.

Belgikako Auzitegi Konstituzionalera kexak bidali zituzten, baina Estatuko Kontseiluak ez zien arrazoia eman.

Hizkuntza erraztasunak dituzten erkidegoak ditugu hemen.



Flandriako gobernuak erabaki zuen nederlanderaz hitz egiteari uko egiten zioten frantses hiztun diren alkaterik ez izendatzea Flandriako Udalerrien Batzorderako. Ondorioz, frantses hiztunek Flandria auzitara eraman zuten, eta Europako Batzordeak Flandriari errieta egin zion.

Etxebizitzak

Etxebizitza dagokienez, etxebizitza sozial bat alokatu nahi badute, migratzaileei nederlandera ikasteko eskatzen die Flandriak (2008az geroztik). Era horretan, kontratuan idatzitakoa uler dezakete (eskubi-deak eta obligazioak), eraikineko segurtasun arauak uler ditzakete, eta bizilagunekin zein agintariekin komunika daitezke. Flandriako gobernuak doako nederlandera ikastaroak eskaintzen dizkie migratzaileei.

Belgikako frantses hiztunen gobernuak eta Giza Eskubideen aldeko Ligak Belgikako Auzitegi Konstituzionalera jo eta lege horri aurka egin zioten. Belgikako Auzitegi Konstituzionalak (eta horren aurretik Estatuko Batzordeak) adierazi zuen legea zuzena zela. Baina, bestalde, Nazio Batuen Erakundeak Arraza Diskriminazioaren Aurkako Batzordea, ez zen epai horrekin ados agertu. 2008. urtean hau esan zuen: "Batzordea kezkatuta dago flandriar erkidegoak 2006ko abenduaren 15ean onartutako dekretuaren inguruan, nederlanderaz dakien edo nederlandera ikasteko konpromisoa hartu duten pertsonen bakarrik eskaintzen dizkielako etxebizitza sozialak". Hau da, Batzordeak ez zuen dekretua "kondenatu", baina "gaiaren inguruko kezka azaldu zuen". Beraz, batzordearen jarrerak ez zuen legezko ondorioz izan, baina atzerrian, Flandesen irudia modu nabarmenean kaltetu zen.

Udalerri batzuen kasuan, norbaitek etxe bat edo lursail bat erosi nahi badu, nederlandera ikastea eskatzen zaio (Flandriako Etxebizitza Kodeak alokairuko etxebizitza sozialak besterik ez ditu arautzen). Normalean, jendeari nederlandera ikasteko eskatzen diogu, baina ez diogu maila frogatzeko azterketarik egiten. Udalerri batzuek bai, azterketak egiten dituzte, eta batzuetan ezagutza maila handiagoa ere eskatzen dute. Hori diskriminazio gisa ikusi zen, argi eta garbi. Baina nederlandera ikasteko eskatzea, hau da, ahalegin bat egiteko eskatzea, eta hori frogatzeko azterketarik ez egitea ez da diskriminazioa. Europako Batzordeak lege hori eta udalerriek abian jarritako neurrien inguruko arrazoiak ematea eskatu zion Flandriari (2008).

Guri ez zaigu iruditzen lege horiek arrazistak direnik, edo nazionalitate zein etnia irizpideak erabiliz, pertsona jakin batzuei mesede egiten dienik. Ez! Hizkuntza da irizpidea, eta edonork ikas dezake hizkuntza, beren hizkuntza edo kultura edozein dela ere, eta era horretan, eskualdearekin lortura garatu.

Flandriara bizitzera etortzen diren pertsonak, ez badute diru-sarrerarik eta udalerraren eskutik "gutxieneko errenta" jaso nahi badute, nederlandera ikasteko ahalegina egin beharko lukete. Flandriako gobernuak doako ikastaroak eskaintzen ditu horrelako kasuetarako. Berriz ere diot: nederlandera ikasteko eskatzen diegu, ez diegu azterketarik egiten. Beraz, beraiek konpromiso bat hartzen dute, ahalegina egiteko konpromisoa hartzen dute, baina ez ditugu maila edo emaitza jakin bat lortzera behartzen. Udalerrri batzuek bai, eskatu zuten epe jakin baten ondoren, nederlandararen oinarritzko maila bat zutela frogatzea.

Baina, egoera horren aurrean, Europako Batzordeak arrazoiak eskatu zituen. Erkidegoek azpimarratu zuten, erabaki hori hartu zutela, gutxieneko errenta jasotzeko orduan, jendeak lanpostu bat bilatzeko borondatea azaldu behar zuelako. Borondate hori benetakoa dela egiaztatzeko, udalerrriak irizpide ezberdinak erabil ditzake. Eta nederlandera ikasteko borondatea izan daiteke irizpide horietako bat.

Hizkuntza irizpideak beste esparru batzuetan

Lidekerkeko udalerrriak beste arau bat ezarri zuen: eskola ondorengo edo oporretako haur eskoletan onartuak izateko, haurrek nederlandaraz hitz egin behar zutela. Flandeseko barne ministroak arau hori indargabetu zuen, giza eskubideen aurkakoa zela eta diskriminazioa sortzen zuela adieraziz.

Merchtemeko udalerrriak beste arau bat onartu zuen: merkatuetan postua duten saltzaileek nederlandera bakarrik erabiltzea. Grimbergeneko udalerrriak antzeko zerbait egin zuen. Bi kasuetan, Flandeseko barne ministroak arau horiek indargabetu zituen.

Antzeko adibideak beste herrialde batzuetan

Flandesen, ikasleek ikasgaiak ematen diren hizkuntza ezagutzea eska dezakete eskolek. Hau da, nederlandaraz jakitea. Herbehereetan, adibide are irmoagoa daukagu: ile-apaintzaile izan nahi zuen neska batek bere ama eraman zuen ile mozketara azterketarako modelo gisa. Bere amak gaztelaniaz bakarrik hitz egiten zuen. Eskolak ez zion ama modelo gisa erabiltzen utzi, ikaslea bezeroarekin nola komunikatzen den ere azterketaren atal garrantzitsua dela adieraziz. Tratamendu Berdintasunerako Herbehereetako Batzordeak adierazi zuen eskolaren erabakia zuzena zela.

Beste adibide bat ematearren, Akupuntoreen Herbehereetako Elkartek beren kideei eskatu zien nederlandaraz hitz egiten jakitea. Tratamendu Berdintasunerako Herbehereetako Batzordearen ustez, hori eskatzea arrazoizkoa zen, akupuntore baten zerbitzu kalitatearen atal garrantzitsua baita elkartek ematen duen informazioa ulertzea.

Beste kasu batzuetan, Tratamendu Berdintasunerako Herbehereetako Batzordea ez zen ados agertu nederlandera erabiltzeko eskaerarekin: gimnasio batean nederlandera erabiltzea exijitu zen (larderia ekiditeko). Batzordea neurri horrekin ados egongo zitekeen, horrekin batera larderiaren aurkako bestelako neurriak hartu izan balira.

Arestian aipatu dut Flandriako erkidego batzuetan eskualdearekin lotura duten pertsonak etxebizitza sozialak saltzeko lehentasuna ezartzen dela. Belgikako frantses hiztunek lege horri aurka egin zioten, baina Walonian, Belgikako frantses hiztunen eremuan, antzeko printzipio bat aplikatzen dute etxebizitza sozialak esleitzeko: 'la priorité communale'.

Duela gutxi, Danimarkako ordezkartza bateko kideek kontatu zidaten Danimarkan, atzeritarrek ezin dutela etxerik erosi kostaldero lehen 500 metroan kokatutako eremuan. Dirudienez, Danimarka Europar Batasuneko kide bihurtu zenean, Europak baldintza hori onartu zuen. Enpresetako hizkuntza erabilerari dagokionez, adibidez, Herbehereetan eta Amerikako Estatu Batuetan ere arauak daude. AEBetan, "English-Only Rules" araua daukate, adibidez.

Ondorioa

Belgikan eta Flandrian, azken 150 urtetan arauak eta legeak bozkatu ditugu flandrierari, hots, Belgikako gehiengo diren flandriarren hizkuntzari, frantsesaren eskubide berak emateko, azken hori Belgikako gutxiengoaren hizkuntza dela kontuan hartuta. Beraz, Belgikan, gehienetan eremu urrituko erkidegoak babesteko erabiltzen diren tresnekin babesten da gehiengoa.

Lurraldetasun printzipioa aukeratu genuen, hizkuntza eremu eta mugekin. Flandeseko eremuan, administrazioak, auzitegiek, eskolek eta enpresek erabili beharreko hizkuntza nederlandera da.

2000. urtean, Flandriak lege berri bat onartu zuen, eta horren arabera, migratzaileek, gutxieneko errenta (diru laguntza) jaso nahi badute, edo etxebizitza sozial eta merke bat alokatu nahi badute, nederlandera ikasi behar dute. Konpromiso bat hartu behar dute, gero ez zaie azterketarik egiten. Gizarte kohesioa indartzeko modu gisa ulertzen dugu lege hori, gizarte kohesioan hizkuntza garrantzitsua baita, baina horren atzean ez dago arrazari edo etniari lotutako arrazoirik.

Horrez gain, udalerrri jakin batzuek, beren etxebizitza merkatuan presio handia badago, eta prezio altuen ondorioz, bertakoek ezin badute etxerik erosi, “eskualdearekin lotura” duten pertsonen lehentasuna ematen diete. Horretarako arrazoiak ere sozialak dira: adibidez, eskualde horietan gazteak bizitzea. Europa beti izan da anbigua hizkuntzen eta kulturen babesari dagokionez: alde batetik, kultura aniztasuna Europako aniztasunaren oinarria da; eta bestetik, ondasunen, pertsonen eta zerbitzuen trafikoa askea oztapatzen du.

Europartze eta globalizazio prozesuak, eskala handiko migrazioarekin lotuta, presio handia sortzen du hizkuntza eremu homogeneoaren kontzeptua mantentzeko orduan. Eskualde jakin batzuetako hizkuntzaren alde hartzen diren neurriak zaharkituztat edo baztertzailatzat hartzen dira askotan.

Era horretan, gure “hizkuntza arnasmune” babestu edo sustatzeko neurrietako asko auzitegi eta batzordeek zalantzan jartzen dituzte, bai Belgikan, bai nazioartean. Batzuetan, lege edo neurri horiek mantentzea lortzen da, baina beste batzuetan ez. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea, hizkuntza bat erabiltzeko baldintzak ez duela arraza edo etnia elementuetan oinarritutako diskriminaziorik sortu behar.

Agian, erabaki errazena izango litzateke amore eman eta gauzak beren bidea egiten uztea. Ondorioz, indartsuenak bizirik iraungo luke, eta gure hizkuntza eta kultura txikiagoak desagertu egingo liriateke. Batzuetan iruditzen zait gazteak liriatekeela gehiegi kezkatuko hori gertatuko balitz, edo hobe esanda, hori gertatzeko aukerak ez dituela horrenbeste kezkatzen. Niri dagokidanez, benetan uste dut oraindik ere beharrezkoa dela gure hizkuntzaren eta kulturaren alde borroka egiten jarraitzea. Gure hizkuntza babestea (nederlandera edo euskara dela) da Europako aniztasunari egiten diogun ekarpena.

Eskerrik asko. Agur.

Paul Bilbao: Eskerrik asko Wilfried. Egia esan ikuspegi askotatik Galesek eta Euskal Herriak badituzte antzekotasun ugari; antzeko hedadura daukagu, ezagutza-tasa egia da gurean altuagoa dela baina ez dago alde oso handirik bien artean, eta egia da Galesen hizkuntzaren arnasmuneez hizkuntzaren berreskurapen prozesuan duten garrantziaren kontzientzia aspaldi hartu zutela, bai Ingalaterrako Gobernuak hartu dituen hainbat erabakiren ondorioz, bai Gales ere oportetarako gune bihurtu izan delako.

Egia da Galeseko lurraldeak biziki pairatu duela haien lurraldetik kanpoko migrazio mugimendua, gehienbat Ingalaterratik joaten ziren herritarrena. Hango gizarte eragileek hainbat kanpaina egin izan dituzte “kolonizaziorik ez”, edo “Gales ez dago salgai” edo halako leloekin, eta era berean nahiko entzunak izan dira bertan jabetza- lege berezien aldeko aldarria, eta baita lurraren erabilerrako politike-tan eta planifikazioen aplikazioak zehaztean, Galesa ere kontuan hartu beharreko elementua izateko eskaera. Horregatik, hemen partekatu nahi genuen hirugarren adibidea Galesekoa zen eta horretarako Meirion Davis ekarri dugu.

Gales ekarri nahi genuen, baina beste alde batetik, gizarte eragileen ahotsa ere ekarri nahi genuen. Wilfried gizarte mugimenduetan ibili izandakoa da baina gaur egun politikari profesionala da eta Elisabethek ere politikan dihardu. Beste ahots mota bat izatea ere nahi genuen eta Meirionek hori beteko du, gizarte eragileen ahotsa. Cymdeithas yr Iaith Galesaren aldeko presio talde bateko eskualde antolatzailea izan zen, horren ostean [izen identifikatu gabea] erakundean lan egiteari ekin zion, erakunde horren helburua hizkuntza komunitate mailan indartzea da eta erakunde horretako lehen langilea izan zen eta egun erakunde horrek 15 pertsona ditu lanean. Horretaz gain, [izen identifikatu gabea] erakundearen lehendakaria ere bada. Erakunde horrek etxebizitza, hizkuntza eta lana eskemaren baitan egiten du lan eta etxebizitza soziala, galesa eta negozioak uztartzen dituzte. Gaur egun, galesaren lan merkatu-plana garatzeko lanean dihardu, gales hiztunen kanporako migrazioa gutxiagotzeko eta galesaren bidezko zerbitzuak handitzeko, eta azkenik, toki garapenaren aurkako talde baten parte hartzen du. Ikusten duzue, herrigintza biziki ezagutzen du Meirionek eta besterik gabe berari emango diot hitza.

Meirion Llyvelyn Davies. HIZKUNTZA-ERAGILEA. | Hitzaldia

• **GALES.**

Aupa, arratsalde on. Mila-mila esker hona gonbidatzeagatik.

Eskerrik asko hitzaldi hau emateko gonbidapena egiteagatik. Galesen esaera edo kexa bat daukagu, eta hau dio: estimu handiagoa zaiela igelei eta katagorriei galesera hitzunei eta galesera hiztunen erkidegoei baino. Gaurko aurkezpena honela izendatu du galeseraz: “Cynllunio yng Nghymru a’r Gymraeg: methiant mwyaf y mudiad iaith?” edo zuen hizkuntzan “Plangintza Galesen eta galeseran: hizkuntza mugimenduaren porrot handiena”. Galesen estatusari, hezkuntzari eta abarri dagokionez, nahikoa arrakasta izan dugu, baina esparru horiek irabazten errazak dira, jendeari eskubideak ematen dizkiozulako. Plangintzak, berriz, batzuetan eskubideak kentzen dituen gai gisa ikus daiteke, eta beraz, gai zaila, konplexua zein aspergarria denez, ziur asko horregatik ez dugu horrenbesteko arrakastarik izan.


Conwyko Menter laith-erako egin izan dut lan (eskualde antzeko bat da, eta nik eskualde horretarako egin dut lan).



Jakin dezazuen, Galeseko konderrri edo eskualde bakoitzean Menter laith bat dago. Conwyko Menter laith-eko kideak gara, eta horregatik, erkidegoan galesera sustatu eta indartzeko modu ezberdinak lantzen ditugu, baita horretarako programa ekonomikoak ere. Hori da gure xedea.

Nire ustez, Conwyren eta Euskal Herriaren artean antzekotasun ugari daude. Hemen ikusten dituzuen kamisetak oso ezagunak dira, “Cymraeg” jartzen du bertan, eta Heineken garagardoaren publizitateko lema bat oinarritzat hartzen dute, ez dakit ezagutzen duzuen: “probably the best beer in the world”. Kamiseta honetan, lema horrekin jolastuz, “European bizirik dagoen hizkuntza zaharrena ziurrenik” jartzen du. “Ziurrenik” hori garrantzitsua iruditzen zait, ziur asko, euskara zaharragoa baita. Baina beno, galesera ere nahiko hizkuntza zaharra da.

Beraz, kasu honetan ere antzekotasunak daude.



| Gales | Euskal Herria |
|--------------------------------|-----------------------|
| Hedadura 20,799km ² | 20,947km ² |
| Hiztunak 560,000 | 665,800 |
| 3,063,456 | 2,589,600 |
| % 19 | % 25.7 |

Eta kolore berdinak ere bai. Historikoki, egun Britainia Handia den eremu arrosa honen gehien-goan hitz egiten zen galesera.



Hori 500 KO inguruan. Beraz, azkar-azkar testuinguru historikoa azalduko dizuet. Azkar aipatuko ditut datuak, gero zuek horri buruz irakur dezakezue: independentzia subiranoa 1282. urtean galdu genuen, eta horren aurretik gure berezko sistema legala galdu genuen, ziur nago zuentzat ere oso ezaguna dela gai hau. Hizkuntzari estatusa kendu zioten elementuetako bat da hau. Gertaera hau aurrerago gertatu zen: berriro ere hezkuntza sistema erabiliz, galesera ezabatu zuten. Haurrek Welsh Not izeneko egurrezko pieza eraman behar izaten zuten, eta egunaren amaieran, galeseraz hitz egiten harrapatzen bazuten, pieza hori zintzilik zuen haurra jo egiten zuten. Neurri hori abian jarri zen garaian,

herrialdearen gehiengoa elebakarra zen, eta galeseraz bakarrik hitz egiten zuen, baina neurri horren ondorioz, etxeetan galeseraren erabilerak behera egin zuen. Txostenak, berriz, hau dio: galesera izugarriko desabantaila da Galesentzat, eta oztopo ugari jartzen dizkio jendearen aurrerapen moralari zein merkataritza oparotasunari. Oso zaila da hizkuntza horren ondorio kaltegarriak ez gainestimatzeko”.

Dakizuen bezala, Industria Iraultzaren ondorioz, Gales nabarmen industrializatu zen. Alde batetik, galesera gure herrialdeko hizkuntza nagusia zen askoz ere emigrazio gutxiago egon baitzen Eskozian edo Irlandan baino, eta horregatik, beste hizkuntza zeltekin alderatuta, galesera askoz ere egoera hobean zegoen. Baina 1911. urterako, galesera hitzunon populazioa erdira murriztuta zegoen. XX. mendean, lorpenak egin genituen, eta horiek jendeari eskaini genizkion: Galesen estatusa, galesera auzitegietan erabiltzea, galeserazko lehen hezkuntza eskolak... eta 1962. urtean, Cymdeithas ir laith sortu zen, Galesen estatusa aldarrikatzeko irratia adierazpen ezagun baten ondoren.

Adibide bat ikus dezazuen, hona hemen seinale bat: argazki honetan, jendea seinaleak kentzen ari da. Hau da Cymdeithas yr laith-en sinboloa, hau da, herensugearen mingaina, badakizue banderan herensugea ageri dela? Ba mingaina irudikatzen du. Hemen ere lorpen gehiago ditugu, oso ezberdinak, telebista, irratia, estatusa... hizkuntza estrategia nazionala ere bai.

Horrek guztiak gaur egunera ekarri gaitu: Hizkuntzaren Lege berri bat dugu, eta horren arabera, galesera hizkuntza ofiziala da Galesen. Britainia Handian ez dago hizkuntza ofizialik ez dagoelako konstituziorik; baina galesera hizkuntza ofiziala da Galesen, eta ingelesa ez, *de facto*, gehiengoaren hizkuntza izan arren. Beraz, hizkuntza estrategia nazional berri bat daukagu, baina, aldi berean, egoera nahiko kezagarria da, aurreko erroldarekin alderatuta, azken erroldaren arabera, 20.000 galesera hitzun gutxiago daudelako. Nire ustez, horren arrazoi nagusia kanpotik datorren immigrazioa da.

Ingalaterrarekin dugun harremanari buruz: oro har, Gales nahiko landa-herrialdea da. Eguraldia ez da oso ona, baina Ingalaterrako beste leku itsusiago batzuekin alderatuta. Beraz, jendea Galesera bizitzera etortzen da.


Ingalaterra baino askoz ere pobregoak ere bagara, eta beraz, Ingalaterrako jendearentzat errazagoa da Galesen etxeak erostea (Alemaniarrek ere egoera berean daudela pentsatzen du, Wilfriedek lehen azaldu digun moduan). Beraz, plangintza modu zehatzagoan aztertuko dut orain. Historikoki, plangintza batzuk oso gaizki egin dira, adibidez, galesera hitzunen erkidego osoak lekuz aldatu dira. Plangintzaren eta hizkuntzaren arteko harremana: usadioz, galeserak ez du harreman onik izan plangintza prozesuarekin, jendeak aurka protesta egin arren, azaldu dizkizuedan akats horiek guztiak egin zirelako. Historikoki, horren ondorioz, bigarren etxebizitzak arazo handia izan dira, gu ere kostaldean gaudelako. Jendeak ezin izan du etxerik erosi bere herrian, eta horrek haserre handia sortu du hamarkadetan zehar. Gatazka horrek 1980ko hamarkadan egin zuen eztanda, eta protesta gisa, bigarren etxebizitza ugari erre ziren.

Etxebizitzen boom edo goraldi horrek nahiko efektu txarra izan du gure arnasguneetan. Hori baretzen saiatzeko kanpainak egin dira. Adibidez, elkarre batek seinale hau jartzen zuen salgai zeuden etxeetan, jendeari salgai ez zegoela esateko .

- Ondorengo etxebizitzaren gorakadak eta Ingalaterratik zetorren immigrazioak ondorio izugarriak izan zituzten galesaren hitzunkomunitateetan.




Hau beste eranskailu bat da, poster baten antzekoa, gure herriak “ez kolonizatzea” eskatzeko.



Baina 1961eko mapak argi erakusten du: eremu ilun guztietan, populazioaren % 80 galesera hitzunik dira, hau da, eskualde horiek arnasguneak dira. 2001. urtean, arnasguneen eremu hori tamaina honetara murriztuta zegoen. Oraindik % 60ko galesera hitzundun eremuak ditugu, baina ehuneko oso handiak desagertzen ari dira, kanpotik datorren immigrazioaren eta landa eremutik hirietarako migrazioaren ondorioz. Eremu horietan jaiotako pertsonak aztertuz gero, adibidez, ni bizi naizen lekuan, Gwynedden, bertako populazioa aztertzen badugu, bertako populazioaren % 90ek galeseraz hitz egiten du oraindik. Oro har % 70ekoa da portzentajea, beraz, kanpoko immigrazioak eta hirirantz gertatzen ari den emigrazioak eragina dute.


Hau da azken erroldaren mapa. Populazioaren % 70ak galeseraz hitz egiten duen eremuak non dauden azaltzen du.

Cyfran y bobl (3 oed a throsodd) sy'n gallu siarad Cymraeg, fesul Adran Etholiadol, 2011



Hemen bizi naiz ni. Egia esan, ehunekoak gora egin du pixka bat. Ez dakit nire gauza den, baina... ikusi duguna da galesera hitzunen ehunekoak gora egin duen eremuetan, plangintza egokia egin dela, lanpostuak eta hezkuntza egokiak daudela; beraz, elementu horien guztien nahasketaren emaitza dela esan daiteke. Gwynedd izeneko eremu honetan, tokiko erakundeetan lanpostu bat lortzeko galeseraz jakin behar da. Kontuan hartu behar da tokiko erakundeak 8.000 langile dituela, eta beraz, eskualdean eragin handia duela. Hemen ikusten ditugun zifrak % 70etik gorako gales hitzunen erkidegoak dira. 1991. urtean 87 erkidego zeuden, 2001. urtean 59, eta gaur egun 49.

Grafiko honek azken mende honetan galeserak izandako bilakaera islatzen du.



Beraz, ikusten duzuen moduan, mende hasieran ia milioi bat hitzun ginen, eta gaur egun 500.000 inguru gara. Zifretan, hitzunen heren bat galdu dugu, baina hasierako populazioarekin alderatuta, bostena gara gaur egun. Beraz, argi dago immigrazioak eragina duela. Hemen galesera elebakarren kopurua ageri da. Ehun urte atzera egiten badugu, 250.000 genituen, baina, dirudenez, gaur egun ez daukagu elebakarrik. Noski, gaur egun, badaude oraindik ingelesez hitz egiten ez dakiten haurrak. Nire seme-alabek urtebete eta lau urte dituzte, eta ez dakit hitz bat ere ingelesez (oraingoz). Baina badakit 15 urte bete arte armairuan itxita edukitzen badituzte ere, ingelesez hitz egiten ikasiko dutela, ingelesaren eragina oso handia delako.

Jendea fenomeno honi buruzko erantzunak aurkitzen saiatu da. Etxebizitza Elkarteak sortu ditugu, bertako jendeari lehen tasuna emateko. Baina prozesu horretan arazoak izan ditugu, etxebizitza bat esleitzeko irizpide nagusia premia soziala baita. Horren ondorioz, premia handiagoa duen kanpoko jendea egon daiteke, eta ondorioz, eskualdean bizitza osoan bizi izan den norbaitek baino lehenago lortuko du etxe bat. Cymdeithas yr Iaith erakundearen "Jabetza Legea" delakoaren aldeko kanpaina egin dute, arazo horri, hots, etxebizitzaren arazoari erantzuna emateko (hemen ikusten duzue manifestari bat "salgai" kartelak kentzen ari dela).

Beraz, honako hauek dira "Jabetza Legearen" printzipio nagusiak: lehenik eta behin, etxebizitzak eraikitzeke edozein ekimen bertako premien arabera ebaluatu beharko litzateke; jarraian, alokatzeke etxebizitzak egon beharko lirateke, lehenbiziko etxebizitza erosten duten pertsonentzako laguntza, bertakoei lehen tasuna ematea, eta erkidegoarentzako plangintza egitea, galesera ere kontuan hartzen duena. Horrez gain, plangintzako aurreikuspen guztiak berriro ebaluatzea, plangintza horrek urteak baitaramatza indarrean. Beraz, kanpaina horren ondoren, 1988. urtean, Welsh Office edo Galeseko Departamentua delakoaren eskutik ohar edo jarraibide hauek jaso genituen. Gaur egun Batzar Nazio-

nala daukagu, baina horren aurretik Welsh Office izeneko zegoen indarrean, eta Ingalaterrako parlamentuko kide bat izan ohi zen estatuko idazkariak kudeatzen zuen. Baina 1997az geroztik, eskumenak deszentralizatu egin dira. Beraz, hemen ikusten dugu, plangintza egiteko gai garrantzitsu bihurtu dela galesera. Puntu horretatik aurrera, jendeak galesera kontuan hartu dezake plangintza egiteko orduan. 1997. urte inguruan, eskumenak deszentralizatu eta plangintza gure Parlamentuaren esku geratu zen, hau da, eskumenak Galesen esku geratu ziren. Baina 2004ko apelazio kasuak aztertu zirenean, ikusi zen azken 18 urtetan apelazio auzitegiak hartutako 27 ebazpenetan bakarrik hartu zela kontuan galesera. Eta galesera kontuan hartu arren, kasu batean ere ez zen galesera erabili. Berri izan dugun kasuetako bat da hau, kasu arrakastatsua izan zelako, 59 etxe eraikitzea ekidin zuelako. Hori da garrantzitsuena. Hori da plangintzako ikuskatzaileak esaten duena (aplikazioa onartu edo onartzen ez duenak): “Zerbitzu fisikoek gaitasun nahikoa dute horrelako eskalako etxebizitza eraikuntza ekimen bat onartzeko, baina bertako bizilagunek kezkatzen naute, ez baitakit horrelako erkidego batek gaitasunik ote duen eskala handiko etxebizitza eraikuntza kanpaina gero eta handiagoak xurgatzeko”. Hau da, galeseran ondorio kaltegarriak izango lituzke. Antzeko beste kasu gutxi batzuetan ere irabaztea lortu dugu.

Gaur egun Technical Advice Note (Gomendio Ohar Teknikoa) delakoa daukagu. Ez da lege bat, baina galeseraren inguruko plangintzarako gomendioak ematen ditu. Zoritxarrez, hori indarrean egon arren, inork ez du erabiltzen, ez delako nahitaezkoa.

Horren ondorioz, elkarte talde batek indarrak batu zituen hizkuntza ebaluazio bat sortzeko, hau da, hizkuntzan sortzen den eragina ebaluatzeko irizpideak sortzeko. Gaur agian horri buruz hitz egin da, ingurumen eraginari buruzko irizpideak dauden moduan, hizkuntza eraginak ebaluatzeko irizpideak ezartzea da, alegia.

Kasu honetan, tokiko autoritateak hala nahi badu, enpresaren batek etxebizitzak eraiki nahi baditu, hizkuntza ebaluazioa egitea eska dezake. Hori izango litzateke lehenengo pausoa, hau da, etxebizitza eraikitzaile gisa, zure jarduera horrek galeseran izango duen eragina azaltzea. Beraz, nahiko erraza da. Jendeak pentsatzen badu jarduera horrek eragin negatiboak izango dituela, orduan enpresak hizkuntza eraginari buruzko ebaluazio osoa egin beharko du.

Beraz, adibidez, ebaluazio horretan horrelako galderak egingo lirateke: Politikak/planak/programak/proiektuak populazioa handitu/murrizteko aukerak badaude, horrek: ingeles/galesera hitzunen arteko orekan eragina izango al du (zentzu positibo edo negatiboan) edo galesera hitzunen kopuruan murrizketa absolutu edo proportzionala sortuko al du? Jendeak horretan jarri behar du arreta, hori da galdera garrantzitsuenetako bat, eta lanpostuei lotuta ere beste galdera ugari daude.

Erantzun horiek guztiak elkartu eta bakoitzari puntuazioa ematen zaio: eragin positiboa bada, (1) batekin markatzen da; eragina neutrala bada (0) batekin markatzen da, eta negatiboa bada, (-1) batekin markatzen da. Ez dut xehetasun gehiagorik emango, dagoeneko ongi azaldu baitizuet. Horrelako ebaluazioetan zein galdera mota egiten diren erakutsi nahi nizuen labur-labur. Nire ustez, galdera horien erantzunak aztertzeko ez da ezagutza soziolinguistikoko handirik behar. Ehunekoak hartzen dira kontuan, eta ez galeseraren erabilerari lotutako harremanak erkidegoaren barne.

Beraz, ebaluazioaren arabera, eragina negatiboa bada, etxebizitza eraikitzaileari neurri zuzentzaileak ezartzeko eskatuko dio tokiko agintariak, era horretan, eragin hori horren negatiboa izan ez dadin. Beraz, horrelako kasuetan neurri hauek hartzea proposatu daiteke:

- Etxebizitzak faseka eraikitzea, eta ez aldi berean; tokiko premietarako etxe merkeak eraikitzea (horiek bertako pertsonak bakarrik eros ditzaketela zehaztuz).
- Tokiko etxebizitza erregistroan izena emanda dauden pertsonen etxebizitzak emateko hitzarmenak sinatzea.
- Lanpostuak sortzea.
- Bertako langileak kontratatzea (bertako enpresa txiki bateko eraikitzaile edo igeltseroa kontratatzea etxeak eraikitzeko).
- Bertakoentzako prestakuntza ekimenak sustatzea.
- Establezimenduen kanpoaldean seinaleak bi hizkuntzetan jartzea.
- Hezkuntza (galeserazko lehen hezkuntzako ikastetxe bat ezartze aldera).

- Galeseran murgiltzeko ikastaroak eta langileentzako galesera ikastaroak babestu eta diruz laguntzea, esaterako, hizkuntza planak eta murgiltze unitateak.
- Erkidegoen barne galesera sustatzeko hizkuntza ekimen/proiektu kulturalak babestu eta diruz laguntzea. Hori arriskutsua izan daitekeela uste dut, bereziki nik bezala erakunde batean lan eginez gero, ziur asko hori guztia egiteko dirua jasotzen baita, baina ez baita diru kopuru handia izango eraikiko diren etxebizitzaren balioa kontuan hartuta. Beraz, esan daiteke jendea "erosteko" modu bat dela. Beraz, edo ez dira etxebizitza asko eraikitzen eta ezarritako neurri zuzentzaileen balioa oso handia da, edo egoera ez da orekatua izango. Hala ere, kontuan hartu behar da ingurumen kasuetan, etxebizitza eraikitzaileek ez dutela dagokion dirua ordaintzen, beraz, ez dut uste hizkuntza dela eta dirurik ordainduko zuketarik.

2011 eta 2013 bitarte, tokiko 25 agintaritik hiruk bakarrik bete dute hizkuntza ebaluazioa, beraz, 50.000 eskaeretatik 16 bakarrik bete dira. Ehuneko hori oso apala da, baina kontuan hartu behar da hori egitea ez dela nahitaezkoa, tokiko autoritatearen borondatearen arabera baizik.

2009. urtean, nazionalisten eta sozialisten arteko koalizio gobernua eta nazionalistek TAN 20 berrikusteko ahalegina egin zuten. Berrikuspen hori aurten argitaratu da, beraz, lau urte behar izan dituzte, eta azken bi edo hiru urtetan, gaelikoari lotutako mugimenduaren arreta nagusia hori izan da, hau da, berrikuspen hori argitaratzea. Egia esan, emaitza ez da batere ona izan. Tokiko agintariek datozen 15 urtetarako plangintza egiten badu bakarrik egin nahi da arestian aipatutako ebaluazioa, betiere etxebizitzak eraikitzearen zenbateko azalera erabiliko den kontuan hartuta. Beraz, ebaluazioa puntu horretan egingo litzatekeela adierazi dute, eta ez banakako kasu bakoitzean, hau da, eskaera egiten denean. Tokiko autoritate batzuek dagoeneko zehaztu dute banakako eskaerak iristen direnean egingo dela ebaluazioa, eta beraz, horrek ere egoera ahuldu egiten du.

Astelehenean bilera batean egon nintzen, nik lan egiten dudako erakundean, hau da, Plangintza Departamentuan. Aipatutako hori guztia egingo dutenez, plangintza dokumentuan aipatzen den lehen gauzetako bat hau da: "galesera babestuko dugu". Baina gai hori eztabaidatu genuenean, hau esan zuten "gezurra da, ez dugu hori egingo, baina sistemaren ondorioz gezurra esan behar dugu". Tokiko erakundeko ordezkarietako batek esan zuen plangintza eragileekin gezurretan ari zirela, eta uste dut, plangintza eragileak ez direla oso pozik egongo.

Beraz, badugu azpiegitura antolatuta, eta oraingoan ere ikusi beharko dugu etxebizitza eraikitzaileek hizkuntzaz haraindian doazen apur batzuk emango dizkiguten, era horretan, etxebizitzak eraikitze-ko eskubidea erosteko. Gobernuak oraindik ez du ebaluazio tresna argirik garatu. Egia da memento honetan horretan lanean ari direla, eta noizbait argitaratu beharko dela, baina ez dakit noiz.

Beraz, herrietan etxebizitzak eraikitzeak arazo hau sortzen du:

populazio hazkundera buruzko datuak Planning Inspectorate edo Plangintza Ikuskaritzak ematen ditu, Ingalaterrako erakunde bat da, eta datuak Galeseko gobernuari pasatzen dizkiot, eta jarraian, Galeseko udalerrien artean banatzen dira datu horiek. Proiektzio datuak formula antzeko baten arabera osatzen dira, baina etxebizitzaren merkatuan datozen 15 urtetarako populazio zifrak zehazteko erabiltzen dira.

Galeseko gobernuak 320.000 etxe kalkulatu ditu datozen 20 urtetarako.

2011ko erroldaren arabera, Galeseko populazio hazkunderaren % 90 immigrazioaren ondorioz sortu da, batez ere Ingalaterratik iritsitakoa. Beraz, bertako populazioa gertuago dago 32.000 biztanletik 320.000 biztanletik baino.

Gaur ikusi duguna kontuan hartuta, urte dut teoriarik behintzat pixka bat aurrera egin dugula, baina errealitatean desastre hutsa da. Ez du funtzionatzen. Zergatik?

Ba, hein handi batean, hizkuntza plangintzaz arduratzen direnek ez dituztelako plangintza gaiak ulertzen, eta ez dituztelako galeserari lotutako gaiak ulertzen. Honek funtzionatzea nahi badugu, bi gaiak ulertuko dituen norbait behar dugu.

Gai soziolinguistikoen oinarrien inguruko ezjakintasuna dago. Populazio elebakar berria, estatus handiko hizkuntza erabiltzen duena, eta populazio elebiduna nahasten badira (kontuan hartuta populazio elebidunaren lehen hizkuntzak askoz ere estatus apalagoa duela), nahiko argi dago zer gertatuko den: ingelesak irabaziko du. Ba horrelako gauzak ez dira kontuan ere hartzen. Etxebizitza eraikitzaileekin hitz egiten saiatu gara, eta hau esan diegu: konturatzen al zarete honek guztiak zein ondorio kaltegarri sortzen dituen galeseran? Eta niri begira gelditu dira. Ni klimatologoa banintz, petrolio enpresa

handi bati berokuntza globalaren efektuak azaltzen saiatzea bezala izango litzateke; hau da, erantzun bera jaso nuen. Gaur egun, berokuntza globalari buruzko nahikoa froga dituzten moduan, nire ustez, guk ere gauza bera egin behar dugu, kasu dokumentatu gehiago bildu behar ditugu, behar bezala frogatzeko "hau gertatu dela, galeserak gora edo behera egin duela". Kasu batzuetan, bertako premiak behar bezala neurtu dira, etxe gutxi batzuk eraiki dira, eta galesera hitzunen portzentajeak gora egin du. Beraz, argi dago posible dela plangintzari esker galesera hitzunen kopurua areagotzea. Hala ere, kasu askotan, etxebizitza gehiegi eraikitzearen ondorioz, hizkuntza egoera erabat aldatu da, eta horren frogari daude.

Horrez gain, plangintza prozesuaren barne, galeserak ez du "garrantzia" nahikorik. Plangintzaren xedeak itxura ona duen arren, oso eskaera gutxi ezetsi dira hizkuntza arrazoiak bakarrik direla eta. Gehienetan, etxebizitzak eraikitzeo plangintza bati aurka egiteko, hizkuntza gaiez gain, bestelako gaiak ere erabiltzen dira, besteak beste, bide azpiegituren gaia.

Nire ustez, gobernuak ez dauka gai honetan aurrera egiteko borondate politikorik.

Galesen kasuan, proiektatutako etxebizitza kopurua handiegia da; eta Ingalaterran ez dute Galeseko hizkuntza egoera ulertzen.

Horren aurrean, gauza gutxi egin daitezke. Bigarren etxebizitzaren gaiari aurre egiteko, nire herriko autoritateak % 200eko zerga ezarriko du bigarren etxebizitzetan, era horretan, herriko etxebizitza asko bigarren etxebizitza bihurtu ez daitezkeen, ni bizi naizen eskualdeetako herri askotan, bereziki kostaldeko herrietan, etxeen erdia hutsik dagoelako.

Nire ustez, gaur egun kohesio handiagoa dago bertako taldeetan, etxebizitzak eraikitzeo planak bertakotasun handiagoarekin egiteko borroka egiteko. Jendeak gero eta argiago dauka, horri aurre egiteko, frogak behar dituztela, hau da, ezin diotela etxebizitza berriak eraikitzeari aurka egin berriak direlako soilik; aurka zergatik dauden adierazi behar dute, eta etxebizitza horiek zergatik sortzen dituzten efektu negatiboak; halaber, efektu negatibo horiek galeseran eragina izango luketela ere frogatu beharko dute.

Etxebizitzaren plangintzaren eskumena Galesen esku dagoenez, Plangintzaren Legea osatzen ari dira une honetan. Gehienetan, eskaera bat aurkezten denean, lehen aldiz ezetsi egiten da, baina eskaera horrek auzitegietan amaitzen badu, tokiko autoritatea beldurtu egiten da, kasua galdu eta beren aurkako demanda jarriko dutelakoan, galeserak ez duelako oinarri arauturik, hau da, politikak bakarrik dituelako. Beraz, hizkuntzari lotutako mugimendua Galeseko gobernuari presio handia egiten ari da, galesera Plangintza Lege berriaren barne egon dadin. Horrez gain, etxebizitzak eraikitzeo eskaerak eta horiek galeseran duten eragina erakunde independente batek aztertuko dituela bermatu nahi dute, gaur egungo sisteman, etxebizitza eraikitzaileak egiten baitu hizkuntza ebaluazioa, eta ondorioz, ebaluazio bat egiten den arren, etxebizitza horiek eraikitzeak galeserari mesede egingo diola esango baitu ebaluazio horrek. Adibide bat azalduko dizuet: herri batean hiru hizkuntza ebaluazio egin ziren. 300 etxe herri batean beste 300 etxebizitza eraiki nahi ziren, eta lehenengo ebaluazioaren arabera, etxebizitza eraikitzaileak esan zuen kanpaina horrek oso eragin ona izango zuela galeseran. Baina herritarrek beren ebaluazioa egin ondoren, ikusi zuten kanpaina horrek oso eragin kaltegarriak sortuko zituela galeseran. Horregatik da horren beharrezkoa hizkuntza ebaluazioa independentea izatea. Gaur egun, Galesen badugu Hizkuntza Batzorde bat, eta hori kontuan hartuta, erakunde horrek egin beharko luke hizkuntza ebaluazioa, modu independentean. Ez dut uste tokiko autoritateek gaitasun maila egokia dutenik plangintza autoritateekin batera ebaluazioa horiek egiteko.

Beraz, presio honi guztiari esker, plangintza sistemaren barne, galeserak garrantzia handiagoa izatea espero dugu. Horrez gain, tokiko autoritateak populazio zifra altu horiei uko egitera animatu nahi ditugu, Gales eta Ingalaterra osoan, tokiko autoritate bakar batek egin baitu hori, lake district-eko Conwy herriak alegia. Herri horretan, beren populazio zifrak osatu dituzte, eta proposamen hori onartu egin da. Nire ustez, posiblea da populazio zifrak murriztea, eta eragin soziolinguistikoekin zifra apalago horiek justifikatzea.

Lau herri ari dira etxebizitza eraikuntza masiboari aurre egiten. Bodelwyddan herrian 1000 etxe daude, baina 2000 etxebizitza berri eraiki nahi dituzte.

Bethesdan bizi naiz ni. 6000 pertsona inguru bizi dira bertan, baina 80 etxebizitza berri eraiki nahi dituzte, herrian dagoeneko 120 etxebizitza huts egon arren.

Bangor herrian ere antzekoa da egoera.

Brynaman herriaren adibidea oso interesgarria da, hegoaldean, gobernuak berak aitortu baitu eremu batean galesera gainbeheran dagoela eta zerbait egin behar dela. Horretarako, hiru edo lau pertsona kontratatu ditu, eremu horretako arazo zehatzak zein diren azter dezaten. Beraz, alde bate-tik, gobernuak eremu horretan nolabaiteko inbertsioa egin du, baina bestetik, politika zentralari esker, etxebizitza eraikitzaile batek 300 etxebizitza eraiki ditu. Alde batetik, gobernuak ahaleginak egiten ari da galeserari laguntzeko, baina ahalegin horiek ez daude egituratuta, eta gainera, ez datoz bat gobernuaren beraren plangintza politikekin.

Mila esker. Gai hau ezin dugu gehiago saihestu. Memento honetan, Galesen gai hau jorratu beharra dago: hezkuntzan, estatusen eta beste esparru askotan arrakasta izan dugun arren, azken 50 urtetan izandako lorpen guztiak galtzen ari gara plangintza prozesuaren ondorioz, eta hori oso kontuan hartu behar dugu. Europan horrelako plangintza adibide gehiago ditugun heinean, gero eta onargarriagoa izango da. Jendea ez da arazo horri aurre egiteko ezer berririk egitera ausartzen. Eta guretzat, Galesen, errazagoa izan da lanean hasi eta aurkako kanpaina egiten hastea lorpen errazagoak izan diren esparruetan, besteak beste, galeseraren estatusen, hezkuntzan, telebistan eta abar. Baina borroka hau irabazten oso zaila da, zuei guztioi zorte ona opa dizuegu, zuek irabazten baduzue, guk ere irabazi egingo dugulako.

Paul Bilbao: Eskerrik asko Meirion. Ohartu zaretenez, denbora gainera etorri zaigu. Hamaika zalantza egongo, galdera asko egongo direla pentsatzen dut. Elementu interesgarri asko atera dituzte, hainbat gauza lotzen zaie goizean esandakoei. Ba al dago zalantzarik, galderarik, iradokizunik?

Lehen esan bezala, gauza asko atera direla uste dut. Oso eredu desberdinak ekarri nahi izan ditugu; bat gehiago plangintzari begira, gizarte mugimendua eta hor izan dituzten arrakastaren bat ere azaldu du Meirionek, ez ikuspegi etsigarritik baina bai ikuspegi errealista batetik. Goizean errepikatu diren gauzak apuntatu ditut nik: eragin linguistikoa neurtzeko zerbait (beraiek ere horretan ari dira), corpus juridikoaren garrantzia (Aland Uharteetan, besteak beste, suedierak azkenengo mendean jarraitu izan badu, corpus juridiko egokiak berebiziko garrantzia hartu duela)...

Publikoa: Ni hasiko naiz. Hasteko, eskerrik asko emandako azalpenengatik, eta duda bat. Guk gai hau planteatu izan dugunean, hemen Euskal Herrian, lehenengo erantzunak sorpresazkoak izaten dira, gaia planteatzeagatik beragatik. Eta hurrengo erreparoa handia izaten da, gai hau planteatzeari beldurra: zaintza, gurea lehenestea, gure hizkuntza gure lurrian. Are gehiago, ideia horiek ultra-eskuinaren ideiak izan daitezkeela ere leporatu izan digute. Badakit, bereziki Flandrian, hori zer den badakitela baina Galesen gai hau planteatu izan denean bertakoek nola hartzen duten jakitea gustatuko litzaidake.

Meirion Davies: Jendea gai honen inguruan kezkatuta dago. Galestarrek ez dute nahi munduak gure herria estremizatzen jotzea, gai hau jorratu den gehienetan, muturrekoak direla esan baitiete. Baina ingelesek immigrazioari buruz hitz egiten dutenean, hau da, Europatik iristen den immigrazioari buruz hitz egiten dutenean, eta horrek ingelesean duen eraginari buruz kezkatzen diren arren, ez dut uste kezkatzeko arrazoi gehiegirik dutenik, baina Galesen ingelesek immigrazioari buruz hitz egiten dugunean, kezkatzeko arrazoi ugari ditugula uste dut. Jendea Galesera bizitzera ez joateko faktoreetako bat da galeseraz jakin behar duzula lanpostu bat lortzeko. Horrez gain, hezkuntza ere galeseraz da, ni bizi naizen ingurunean behintzat, hala da. Batzuetan, lanpostu bat lortzeko galesera jakin behar bada, arrazistak garela esaten dute. Dagoeneko eztabaidatu dugu honi buruz, eta hizkuntza gaitasun bat da, hau da, norbaitek zenbatzen jakingo ez balu, ez luke lanpostua lortuko, ba kasu honetan gauza bera da. Baina ez dut uste abian dauden politikak behar bezala funtzionatzen ari direnik eta erreakziorik sortzen ari direnik, uste dut ingelesek hori pentsatzen dutela. Momentuz behintzat, nik lan egiten dudan tokiko autoritateak oportetako etxebizitzaren zergak % 200era areagotu nahi ditu, eta hori bai ari dela erreakzioak sortzen. Nik uste dut ez dela arazorik egongo, baina oraingoz behintzat hori da gai nagusia.

Elisabeth Nauc ler: Kontua da gehiengoaren aldetik erreakziorik ote dagoen ikustea, eta noski, Aland uharteetan gehiengoak garenaz, ez da erreakziorik sortzen, baina Finlandian bai. Erreakzio horietako askotan ikusten da ez dutela historia ezagutzen, ez dutela gure testuingurua ezagutzen, ez dutela gure egoera ulertzen... badago Benetako Finlandiarrak izeneko alderdi bat, inoiz gertatu ez den historia ustiatzen ibiltzen dena. Duela pare bat urte, alderdi horretako parlamentari batek egindako adierazpenetan adierazi zuen bere ustez, Somaliako homosexual eta immigrante guztiak Aland uharteetara bidali behar zirela, eta orduan ikusi beharko litzatekeela zein gizarte eredu egongo litzatekeen. Adierazpen

horri buruz zerbait esateko eskatu zidatenean, zera esan nuen nik: Aland uharteetan edonor zela ongietorri, baita parlamentari hori ere. Barkamena eskatu zuen arren, nahikoa oihartzun izan zuen gai hark. Baina Gabonetan ere, suediar hitzun batek, zehazki kazetari batek, antzeko adierazpenak egin zituen, eta Finlandiako suediar hitzuna dela kontuan hartuta, askoz ere larriagoak izan ziren bere hitzak. Aland ezertarako eredua ez zela adierazi zuen, finlandiarrek ez zutela inolako eskubiderik; eta gainera, eremu urriko hizkuntzak hitz egiten dituzten mundu osoko lekuetatik Aland uharteetara joaten direla beren eredua aztertu eta gero beren erkidegoetan aplikatzeko, bertako eredua krudela eta ez kopiatzeko modukoa izan arren. Iragan abenduan Transilvanian egon nintzen, horrek zerikusia dauka aipatu berri dudanarekin: Transilvaniara joan eta Errumaniako hungariar eremuetan Alandeko autonomia aplikatuz gero, errumaniera debekatzea bezala izango litzatekeela esan zidaten, eta noski, nik ez nuke inoiz horrelako azalpen sinplerik emango, Finlandian autonomiari eman zaion irtenbidearen zati bat dela azaltzen saiatuko nintzateke, baina gehiengoaren aldetik horrelako erreakzioak jasotzen ditugu. Beste gai bat ere aipatu nahiko nuke, arestian aipatu ez dudana, dagoeneko gehiegi luzatzen ari nintzela iruditu zaidalako. Danimarkan ezarri dituzten muga bereziak aipatu dituzue, eta Alanden ere Danimarkan bezalako baldintza bereziak ezarri direla esan daiteke, hau da, protokolo berezia geneukala, izan ere, Europar Batasunean sartu baino lehen, dena baita posible, baina behin Europar Batasunean sartuta, ezer ez baita posible. Horrez gain, duela urte batzuk, Errusiak araudi berezi bat onartu zuen, Errusiako muga ondoko lehenbiziko 100 kilometrotan atzerritarrek etxebizitzarik erosteko debekua ezartzeko. Hori atzerritar guztiei aplikatzen zaie. Beraz, horrek esan nahi du araudi horrek finlandiarrei eragiten diela gehienbat, Bigarren Mundu Gerran mugaren alde batean beren etxeak galdu ondoren, mugaren beste aldean erosi baitzuten etxea. Gai hori Parlamentuan eztabaidatu zen, eta Europar Batasun mailako gaia zela erabaki zen, ez Finlandiari bakarrik zegokiona, araudia ez baita finlandiar herritarren aurkakoa, atzerritarren aurkakoa baizik. Gabonetan zehar ekimen bat jarri zuten martxan Finlandian. Niri ez zidaten ekimena sinatzeko eskatu, bazekitelako zein izango zen nire erreakzioa, baina Finlandiako parlamentuaren gehiengoak, zehazki 101 parlamentarik sinatu egin zuten. Eta zer dio ekimen horrek? Finlandiak Errusiaren moduko araudi bat onartu beharko lukeela, eta horrekin Alandeko irtenbideari egiten diote erreferentzia. Aurrerago, egunkarietatik galdetu zidaten ekimen hori sinatuko nukeen eta nik ezetz erantzun nuen, ez nuela horrelakorik sinatuko, ez baita finlandiarren edo errusiarren kontua, gai nazionalista arrazista bati buruzko eztabaida baizik. Europar Batasunarentzat arazo bat da araudi hori, atzerritarren aurkakoa delako, eta beraz, horrelako gaiak agertzen direnean, Europar Batasunak arduraz jokatu beharko lukeela uste dut, hau da, gai horiek ez litzatekeela esparru nazionaletara mugatzen utzi behar. Gu guztion betebeharra da gai hau Europar Batasun mailara eramaten saiatzea. Hizkuntzak eta horrelako tokiko neurriak babesteko orduan, Europar Batasunak ardura bere gain hartu behar duela iruditzen zait.

Wilfried Vandaele: Ondorio hori gaurko saiorako egokia iruditzen zaidan arren, adierazi nahi dut merkatu libreari aurre egitea oso zaila dela. Merkatu libreari aurre egiten ari baikara, eta nire ustez, hori baita arazoa. Etxebizitza bat edo lursail bat saltzen duen norbaitek ahalik eta etekin gehien lortu nahi du. Edonork nahi du hori, flandriar nazionalista izan arren, zerbait saltzen badu, salmentaren bidez ahalik eta etekin handiena lortu nahi du, eta beraz, eskualdearekin lotura duen norbaiti saldu behar badiozu, zaila bihurtzen da ahalik eta etekin gehien lortzea, erosle hautagaiak gutxiago baitira, eta beraz, prezioa apalagoa izango baita. Beraz, saltzaileentzat ez dira albiste onak, horiek flandriar nazionalistak ere izan arren. Nire ustez, horrelako neurriak jartzeko orduan, hori da benetako arazoa. Hau da, etxebizitzak erosi edo alokatzeko plangintza bereziak ezartzeko orduan... merkatu librearen aurrean zaude, jendearen sakela ukitzen duzu, eta beraz, oso zaila da hori lortzea.

Paul Bilbao: Printzipioz, hemen utziko dugu. Eskerrik asko guztioi, eta eskerrik asko beste behin ere Wilfried, Meirion eta Elisabethi hona etortzeagatik. Bihar ere hemen izango dira, eta bestelako zalantzak argitzeko prest izango ditugu. Ondo izan eta bihar arte.

Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea.

I. Jardunaldiak.

2014ko urtarrilak 17, ostirala

Iñigo Urrutia, EHUko IRAKASLEA | **Aurkezpena**

Gaur laugarren panela aurkeztea egokitu zait, hain zuzen lurralde-antolaketa eta gizarte erantzukizunari lotutako panela. Honen ondoren atsedenaldea egingo dugu eta azken ondorio batzuk aurkeztuko dizkizuegu gero.

Lehenbiziko zatiari dagokionez, gure artean Zigor Etxeburua, Ugaitz Iturbe, Iker Salaberria eta Miren Segurola ditugu. Hasi aurretik, intendentiako gauza txiki bat: lurralde-antolakuntza eta komunitatearen garapenari buruzko hitzaldi bat prestatuta zeukan Igor Ahedok gaur goizerako, baina ikaragarritzko sukarra dauka eta ez du etortzerik izan. Edozelan, zuei barkamena eskatzeko eskatu digu. Beraz, aldaketa hori kontuan hartuz, Zigor Etxeburua eta Ugaitz Iturberen hitzaldiarekin emango diegu hasiera gaurkoari.

Dakizuen bezala, Zigor Etxeburua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara zuzendaria da eta Ugaitz Iturbe Lurralde Garapeneko Zuzendaritzako kidea. Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza handia eskaini die jardunaldi hauei eta alde horretatik eskerrak eman nahi dizkiot. Aurkezpen honek, gure jardunaldietako ardatz diren bi ikuspegiak elkartzen ditu; ideia nagusia Gipuzkoaren garapenaren argazki bat egitea da, euskararen ikuspegitik hain zuzen. Ikuspegi berritzailea, bai euskara bai lurralde garapena elkartzen dituelako, eta esperientzia bezala benetan interesgarri suertatuko zaigula ez daukat zalantzarik.

Ondoren, Kontseiluko ordezkariak diren Iker Salaberria eta Miren Segurolak, arnasguneek euskararen normalizazio prozesuan duten garrantziaz jardungo dute. Hau, Kontseiluaren lan ildo berri bat da nolabait eta honen gainekoak aurkeztuko dizkigute.

Besterik gabe, Zigor eta Ugaitzi emango diegu hitza, nahi duzuenean.

4. LURRALDE-ANTOLAKETA ETA GIZARTE ERANTZUKIZUNA.

■ **Zigor Etxeburua**, EUSKARARAKO ZUZENDARI NAGUSIA eta **Ugaitz Iturbe**, LURRALDE GARAPENeko ZUZENDARITZA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | Hitzaldia

• LURRALDEAREN GARAPENA ETA EUSKARA.

Eskerrik asko Iñigo. Egun on eta eskerrik asko gaur berriro ere etorri zareten guztioi.

Sarrera

Hizkuntza lurralde atxikitzen zaio. Lurralde moldatu ditu hizkuntzak, batzuei eskaintzen dizkien kolore izen batzuk beste batzuei ukatuz, edo elementu jakin batzuen ugartasunari esker toponimo aberatsa sortuz... Baina ezarri al die lurralde mugarik hizkuntzei?



Millauko biaduktua

Uste izatekoa da batetik bestera zebiltzan gizaki nomadentzako mendi garaiak oztopo bat izango zirela, nolabaiteko muga eta, beraz, gizaki horien lurraldea eta, bide batez, hizkuntza zedarrituko zituztela alde horretan. Baina argi ikusten da orografia eta geografia fisikoak ez direla pertsonentzako ezta hizkuntzentzako ere traba izan. Gizakiok gai izan gara hizkuntza geurekin eramateko batetik bestera; areago, lurra bera eraldatzeko gai izan gara eta, zer esanik ez, gizakiak mendean hartzeko 'trebe' ere, tamalez. Eta hor sortzen da kezka. Mendiak itsasoaren mailarekin berdintzeko gai gara, haran eta ibai zabalak lotu dira ingeniariaren emaitza harrigarri diren zubi erraldoiekin...eta hori guztia pertsonen mesedetan, omen.

Agintari askoren begietan lurraldea plano bat da, lego erraldoi bat. Ez da kontuan hartzen planoan atzamarra jartzen den tokian bertan, errealitatean, jendea bizi daitekeenik, ingurune berezi bat dagoenik. Areago, jendea badela edo zaindu beharreko eremu bat dagoela ohartuz gero, oztopo gisa ikusten da, edo ezikusiarrena egiten.

Gutxi batzuek aberasteko duten grinarengatik, garapen ekonomiko azkarra eta gainbalioa metatzeko nahia jartzen dituzte beste ezeren aurretik. Historian zehar mozorro ezberdinak izan dituen arren, Kapitalismoa da piztiaren izena. Kapitalismoa basatia eta globalizazioa, jaun eta jabe.

Posible al da lurraldearen garapen eutsigarri bat, gizatasunaren, etikaren, justiziaren, ekologiarren eta kulturaren balioak zainduko eta indartuko dituen?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko zuzendaritza

Lurralde Garapeneko Zuzendaritza sortu berriaren helburu eta zereginak honakoak dira:

- Lurralde Garapena guztion artean erabakitako etorkizun bateranzko bidea moduan ulertzen dugu. Hau da, 'erabaki dezagun norantz joan nahi dugun ondoren bidea egiteko'.
- Lurralde-unitate eraginkorrena Gipuzkoan eskualdea da. Eskualdeak lurraldeko eragileen arteko elkar-eragintza eta elkarriketa arina ahalbidetzen du.
- Zuzendaritzaren lanak ekonomian zuzenean eragiten du herrialdearen lehiakortasunean eragiten duelako.

Lurralde Garapeneko zuzendaritzaren lanean euskarak duen presentzia nagusiki bi modutan azaldu daiteke:

- Alde batetik eguneroko lanean erabiltzen den hizkuntza nagusia da. Esan beharra dago Gipuzkoa Sarean ekimenaren barruan euskararen erabilera ia erabatekoa dela.
- Bestetik, Gipuzkoarron elkarlanerako kultura (beti ere modu erlatibo batean), gizarte kapitala eta Lurralde Garapena daude. Hemen sortzen zaizkigu galdera gehien, ea ba:

Jardunaldi hauetara gure egunerokotasunean sortzen diren galdera batzuk modu ordenatuago batean ekartzen saiatu naiz.

Motz hitz egingo dut, galderak botako ditut, eta gustatuko litzaidake ondoren zuek ere galderak botatzea, aurreratuz gehienetan ez dugula erantzuna izango.

Ez da gure iritzia soilik Gipuzkoak badituela osagai aproposak guztion artean gure etorkizunaz erabakitzeke. Gure kulturaren parte dira elkarlana eta elkarriketa, galdera da, ba al du hizkuntzak zerikusirik fenomeno honetan?

Zein neurritan eragiten du hizkuntza propioa edukitzeak, beti ere eleanitzak izanda, Lurralde Garapeneko prozesuetan eta honekin lurraldearen lehiakortasunean?

Lurralde lehiakorragoa kapital sozialarekin lotura badu, azken honek kulturarekin lotura badu, lotu al ditzakegu hizkuntza edo hizkera lurralde lehiakortasunarekin?

Eta errematatzeko, posible al da esatea euskararen alde egitea lurralde lehiakorrago baten alde egitea dela?

Lurraldearen garapenaren historia hurbila, gizartearen eta euskararen ikuspuntuetatik

Euskal Herrian, mendeetan euskal kulturak jasan zituen atzerakaden eragileak Espainiaren eta Frantziaren zapalketa eta inposizioa izan dira. Horiei estuki lotuta ageri dira, beti, boteredunen lukurreria eta handikeria. XIX. mendearen erdian hasita, lehen aldaketa demografiko eta kultural nabarmenak eragingo zituzten lurrazpiko aberastasuna ustiatzetik espero ziren irabazi itzelen grinek.

XX. mendean, berriz indartu ziren aldaketa horiek, Espainiako eta Europako gerren, euskara debekatu zuen diktaduraren eta Hego Euskal Herriko bigarren industrializazioaren ondorioz. Ehun urteren buruan, Euskal Herriaren etsaien asmo gaiztoek eta bertako oligarkiaren utzikeria konplizeak erabat aldatu zuten bertako egoera soziala eta, bereziki, kulturala, euskara galtzear izateraino.



1. irudia / Altza (Donostia). Altza Historia Mintegia / Google Maps

Hego Euskal Herrira etorritako langileak auzo berri prekarioetan metatu zituzten, nora zetozen inolako erreferentziarik eman gabe (1. irudia). Ez zen harrera plan bat pentsatu, kokatzen laguntzeko biztanle berriei. Ez zen konturik izan ordura arte euskaldunak ziren herri eta eskualdeetan eragingo ziren alda-

keta kulturalekin. Areago, soziologikoki euskaldunak ziren guneak erdalduntzeko asmoa zuten agintariek. Nahita gaizki egindako migrazio fenomeno horiek erabateko eragina izan zuten euskal gizartean, euskaldunak gutxiengo bilakatuz euskararen lurraldean.

Zorionez, meritu handiko ahalegina eta elkartasun erakuspen miresgarria eginez, milaka herrikidek euskara ikasi dute edo ikasteko ahalegina egin dute, berena eginez. Orain, euskaldun kopurua hazten ari da, urtez urte.


Ordutik urte asko pasa den arren eta euskararen aldeko ahalegin ugari egin bada ere, gaur egungo marko legeetan ere, Euskal Herriko administrazioek ez dute prebentzioaren ikuspegia barneratu beren hizkuntza-politiketan, oraindik. Euskararen aldeko politika garatzen duten administrazioek ez dute kon-tuan hartzen politikak zehazten hasten diren unetik bertatik egin behar dela hizkuntzaren kudeaketa. Ohituta gaude kalteak zuzentzen, edo horretan ahalegintzen.

Gipuzkoa lurralde euskalduna da

Gaur egunera etorrita, zein da herrialdearen argazkia, euskararen optikatik begiratuta?

Euskararen ezagutzaren maila honakoa da, azken ikerketen arabera:

- Biztanleriaren %53² euskaldun elebiduna da eta beste %23 euskaraz ulertzeko gai da (2. irudia).
- Gainera, 2-30 urte bitarteko gazteen % 77 euskaldun elebiduna da; euskaraz bizi³ diren 56 herri eta eskualde ugari, eta herritarren erdia baino gehiago euskaldunak diren 82 herri ditu.



2. irudia

Euskararen erabilerrari dagokionez, Gipuzkoan kalean neurtutako elkarrizketen % 33 euskaraz izan dira, 2011n¹ (3. irudia). Pentsa daitekeenaz bestera, erabilera maila altua adierazten du datu horrek, Jose Luis Alvarez Enparantza soziolinguistak aztertu zuenez. Gainera, ez da irudi estatikoa, geroz eta gehiago erabiltzen da, gipuzkoarrok euskaraz bizitzeko joera dugu. Datu horiek nabarmenagoak dira eremu soziolinguistikoaren arabera, inguru euskaldunenetan euskararen erabilera handiagoa baita (4. irudia). Hau da, inguru euskaldunak euskara erabiltzea errazten du.


¹ Eustat, 2011: Euskal Herriko 16 urte edo gehiagoko biztanleen %27 elebiduna da (1991n %22).

² Eustat, 2011.

³ Gutxienez biztanleen %70 euskal elebiduna.

⁴ Soziolinguistika Klusterra, EDB.

⁵ Soziolinguistika Klusterra, 'Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa' <http://www.soziolinguistika.org/es/node/784>




3. irudia

Biztanle eleanitzez osaturiko herrialdea dugu Gipuzkoa eta euskara euskaldun guztion berebiziko identitate ikurra da, lurraldearen eta herritarren kohesiorako funtsezko aldagaia. V. Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, euskara sustatzearen aldeko jarrera ere handia da Gipuzkoan (%75).

Horregatik ez da harritzekoa Gipuzkoaren garapen ekonomikoaren adierazle diren jardura eta eragile garrantzitsu askok euskara beren osagai bereizgarri gisa erakustea, edota euskararen normalizazioaren langintzan herrialdeko instituzioak, entitateak, erakundeak eta herritarrak izatea puntan ageri direnak. Euskara gipuzkoarron eta, oro har, euskaldunon gizarte kapitalaren parte da, nabarmen.

Gipuzkoa bakarra?

Tendentzia orokorrak ordea beste batzuk dira. Ikustea besterik ez dago inguruko lurraldeen egoera konturatzeko hiriburuak eta kosta garrantzia hartzen ari direla, barrualdea husten doan heinean. Batez ere Araba, Nafarroa eta Iparraldean gertatzen ari da.




4. irudia

Gipuzkoan ezberdintasunak hain handiak ez diren arren, badira aldeak hiriburu inguruaren eta barnealdearen artean. Euskararen ezagutzaren nagusitasuna ez da guztiz homogenea Gipuzkoan. Bi eremu soziolinguistiko handitan banatu daiteke herrialdea:

- Herrialdeko ipar-ekialdea: biztanleen % 57. Lasarten hasi eta Irunerainoko eremuan biztanleen %42 da euskaldun elebiduna. Tartean badaude euskaldun kopuru handia duten herriak (Oiarzun, %74; Hondarribia, %60).
- Herrialdeko hego-mendebaldea: biztanleen % 43. Euskaldunen proportzioa handia da (biztanleen %65 da euskaldun elebiduna), herri handi batzuetan proportzio hori jaisten den arren (Zumarraga %46; Andoain eta Eibar %52; Arrasate eta Beasain %55).

⁶ Bai Euskarari Ziurtagiria duten 1369 eragileetatik 499 gipuzkoarrak dira (%37). 2008-2011 bitarte, Bikain egiaztagiria eskuratu duten entitateen %57 gipuzkoarrak dira.



5. irudia


Gainera, lurralde txikia den arren, euskarak baditu moldaerak eta hizkera ezberdinak, ia eskualde guztietan, bereziki osasuntsu daudelarik eskualderik euskaldunenetan.

Behin eta berriz aipatzen da, lehenik eta behin norbera bere herrikoa dela, Gipuzkoarron izaeraren ikur bezala. Posible al da lotzea eremu geografiko konketuarekiko lotura, “bizi eta lan” kontzeptuarekin? Eta hauek biak euskalki edo hizkerek? Gipuzkoaren garapen ekonomiko homogeneoak loturarik izan al du lurraldean zehar hizkera ezberdinak barreiatu izatearekin?

Zer gertatuko litzateke Gipuzkoan, bai biztanleriaren banaketa homogeneoari begira, zein euskararen erabilerari begira, barnealdeko eskualdeetan porrot ekonomikoa emango balitz? Adibidez Debagoiena eta Goierri jausiko balira.

Baina gune soziolinguistiko euskaldunenetan (euskararen *arnasguneak*) geldialdi bat sumatzen da. Biztanleen %70 baino gehiago euskaldunak dituzten Gipuzkoako 39 herrik euskaldunen proportzioan galdu dute, 2011. urteko zentsuaren arabera .

Euskararen kale erabileraren datuetan ere sumatu da gelditzea herririk euskaldunenetan.



6. irudia

⁷ Xabier Isasi, 2013.

Zer eragin izango luke euskararengan barnealdeko eskualdeek, demagun Debagoiena eta Goierri, ekonomikoki behea joko balute?

Ondorioak

Beraz, lurraldearen garapena helburu duen edozein jarduerak euskara oso kontuan hartu beharra du.

Euskara kontuan hartzen ez duen jarduera pribatu zein publiko orok du negatiboki nabarmentzeko arriskua eta, aitzitik, euskara barneratuta duen jarduerak herritarren estimua eta atxikimendua jasotzen du.

Euskara hizkuntza ofiziala izanik ere, egoera gutxituan dago, espainieraren mendeko. Euskal Herria berreuskalduntzeko, euskarari lehentasuna ematen dion hizkuntza politika garatu behar da, eta euskaldunon hizkuntza eskubideen bermeak gidatu behar du administrazioen jardura: zaindu badagoena eta berreskuratu euskararentzako espazioak.

- Zaindu: Hain zuzen ere, beharrezkoa izango da prebentzioaren ikuspegia barneratzea instituzioen lan moldeetan, neurriak ezarri aurretik, jarduerak diseinatzen diren unean bertan ziurtatzeko, egitasmoek ez dutela euskararen aldekoa den egoerarik kaltetuko eta euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuko dituztela, gerora, eta horrela ez bada, behar diren aldaketak egiteko garaiz.
- Berreskuratu: Azkenik, euskararen hedapen homogeenago bat behar da Gipuzkoan, herri eta eskualde euskaldunen eredia eta eragina zabalduz herrialde osora, atzerapausoak saihestearekin eta berreuskalduntzea bizkortzearekin batera, jendartean harreman parekideak lortzeko eta gizarte kohesioari laguntzeko.

Esaerak dio ‘atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu’. Badakigu zer ez den egin behar, egin dezagun bada behar duguna.

Iñigo Urrutia | Moderatzailea

Eskerrik asko, Zigor eta Ugaitz. Orain gurekin daukagu Iker Salaberria, Kontseilutik. Arnasguneei lotuta Kontseiluak duen lan ildoaz azalduko digu ondoren.

Iker Salaberria, KONTSEILUKO KOORDINATZAILEA | Hitzaldia

• ARNASGUNEAK EUSKARAREN NORMALIZAZIO-PROZESUAN.

Egun on. Atzean duzue Kontseilua zer den egokien adierazten duen irudia. Hor biltzen ditugu gure berrogei bazkideak eta guk beti esaten dugu horiek direla Kontseilua eta Kontseilua horiek direla. 2011an erabaki zuen Kontseiluak arnaguneen lan ildoaz edo abian jartzea, eta horren ondorioa da gaur ni honi buruz hemen hitz egiten egotea.

Kontseiluak ildo hori abian jarri zuenean egin zuen lehen gauzatariko bat bere bazkideen artean ea gai honi heltzeko interesa nortzuk zuten galdetzea izan zen eta interesa agertu zutenekin lantaldetxo bat antolatzea. Lantalde horretan Euskaltzaleen Topaguneak, EHE, UEMAK, Bertsozaleen Elkarteak eta EMUNek hartzen dute parte eta gaur kontatuko dizuedana talde horrek ibilbide honetan egin eta hausnartutakoen inguruko zatitxo bat izango da. Lantalde hori martxan jarri eta ezertan hasi aurretik, arnaguneen inguruan nolabaiteko hausnarketatxo edo gogoetatxo bat egitea planteatu genuen eta hausnarketa horrek, aldi berean, ekintza edo dinamika bat ekarri behar zuela. Gogoeta horretan alderdi desberdinak izan genituen aztergai. Gaur batzuek aipatuko ditut, horien artean nagusi bi: arnaguneak zer diren, guk nola ulertzen ditugun eta zergatik duten garrantzia euskararen normalizazioaren ikuspegitik edo zer funtzio betetzen duten.

“Zer dira” aztergai horretarako, iturri desberdinetatik edan genuen: jatorrizko definizioak ikusi genituen, bestelako iturri batzuk, intuizioak zer dioten ere ikusi genuen (guretzat inportantea da hau)... eta hortik baliagarriak ziren ondorio batzuk (edo konbentzio deitu genituen batzuk) atera genituen. Borkazioa ez zen artikulua zientifikoa bat idaztea, gogoeta horietatik dinamika bati oinarria emateko ondorio edo ikasgai batzuk ateratzea baizik.

Lehenengo eta behin, zera planteatu genuen: arnaguneak zer dira? Honi buruz asko hitz egin da egun hauetan eta zuetako askorentzat kontzeptu ezaguna izango da, baina nahiko berria denez, beste batzuentzat hain ezaguna izango ez zela pentsatu genuen. Nola azaldu genezakeen modu erraz batean arnaguneak zer diren, ulermen hori errazteko? Irudi bat, analogia bat egin genuen. Hori

Amazonaseko argazki bat da, irudi bat da, eta guk irudi baliagarri bat izan zitekeela planteatu genuen honetaz ezer askorik ez dakienak ulertu dezan. Eta zergatik izango litzateke hori irudi egoki bat? Azkenean, Amazonas munduaren birika dela esaten dute, ez? Eta guk arnasmuneak ere birika bat direla ikusten dugu, euskararen normalizazio prozesuari arnasa ematen dion, prozesu hori elikatzen duen birika bat. Alde batetik hori, eta bestetik, Amazonasek oxigenoa ematen digu, zer arnastu ematen digu, eta arnasmuneak ere euskaldunontzako oxigenoa ematen digute. Askotan esaten dugu euskaldunok eguneroko bizimodua tentsio puntu batekin bizi dugula; edozein lekutara goazenean eta ez dugunean ezagutzen ez dakigu oso ondo joan eta euskaraz hitz egin, nola hartuko gaituzten, oztoporik izango dugun... Euskaldunok oso ezaguna dugun eguneroko tentsio bat da. Arnasmuneetan, aldiz, badakigu halakorik ez dugula izango. Arnasmuneetara joan eta gune natural batean lasai arnastu dezakegu, lasai hitz egin dezakegu euskaraz, badakigulako han hori gauza normala dela, halako oztopo, traba edo ezinegonik ez dugula izango. Beraz, arnasmuneak badute izaera hori euskaldunontzat, lasai, gure habian sentitzeko gune bat eskaintzen digute. Are gehiago, euskara gune horietan beharrezko dela ere sentiarazten digute nolabait. Halako herri edo arnasmune batera doanean, han euskara ohikoa edo normala dela sumatzen du bertara doanak, eta maila batean, han normaltasunez jarduteko beharrezkoa dela.

Arnasmuneak zer diren horretan ere, askotan etorriko zaigu udalerrri euskaldun baten irudi bat. Halakoak izango ditugu buruan eta erraz identifikatuko dugu "hau bai, hau arnasmune bat da", baina arnasmuneak udalerrriak bakarrik ez zirela ikusi genuen.

Bestelako arnasmuneak ere bazeuden, arnasmune soziofuntzional bezala izendatu genituenak: funtzio bat betetzen dute, badute entitate propio bat eta arnasmuneak dira. Ingurune oso erdaldunetan egon daitezke, baina eurak arnasmuneak dira.

Ingurune edo eremu geografikoez gain, eremu soziofuntzionaletan ere arnasmuneak izan bazirela ikusi genuen: lan munduan, aisialdian, kirol taldeetan... Arnasmuneen definizio horrekin jokatu genuen eta zera pentsatu genuen: beno, kontzeptua berria da baina ideia berria al da? Eta ezetz ikusi genuen, inondik inora; euskalgintzak aspalditik landu eta sortu izan ditu arnasmuneak, arnasmuneen kontzeptuari buruz ideiarik izan gabe. Horregatik diogu intuizioaren kontzeptua guretzat garrantzitsua dela. Atzo Koldo Telleriak ere aipatu zuen zientzia inportantea dela baina tokiko ezagutza eta intuizioak ere berebiziko garrantzia dutela. Euskalgintzak urteetan sortu dituen arnasmuneak ikusten dira (ikastetxean, aisialdian, lantokietan...). Esan bezala, arnasmuneen kontzeptua bera ezagutu gabe ere bide hori hartu izan du, eta garai batean nolabait elebitasunaren aukera mahai gainean egon izan denean ere, arnasmuneak sortzeko eta euskara nagusi izango deneko guneak sortzeko hautua egin du. Maila horretan hautu benetan egokia izan dela iruditzen zaigu eta intuizioak egoki funtzionatu izan duela.

Behin hori definituta, zera pentsatu genuen: beno, izaera hori izateak berak ematen die garrantzia arnasmuneei baina zer beste kontuengatik izan dezakete arnasmuneek garrantzia? Hau euskararen galera prozesuaren ohiko irudi bat da [aurkezpenean].

Euskara erabilera eremuak galtzen joan dela ikusten da (eremu geografikoak kasu honetan) eta bere erabilera eremuak estutzen joan dira. Hau horrela gertatu baldin bada, kanpotik barrurantzako prozesua izan baldin bada, normalizazio prozesuak kontrako norabidean funtzionatuko duela ulertzen dugu. Orduan, normalizazio prozesuak, arnasmuneen hedatze prozesu bat izan behar duela ikusten dugu; arnasmuneen bizi-indarra baliatu behar dugu ingurura hedatu eta inguruko eremu horiek arnasmune bilakatzeko nolabait ere. Eta horregatik, arnasmuneek eta, aldi berean, arnasmuneen inguruko eremu horiek berebiziko garrantzia dute. Normalizazio edo galera prozesua bi modutara eman daiteke: galera prozesua arnasmuneak galduaz edo normalizazio prozesua arnasmuneak hedatuaz. Bilakaera norantz ematen, den guk bide bat edo beste bat egingo dugu, hor dago gakoa. Orduan beti esaten dugu, honen ondotik, arnasmuneak direla normalizazio prozesuaren abiapuntu eta helmuga.

Badago beste begiratu bat arnasmuneen inguruan. Atzo Koldok ere aipatu zituen "pentsamendu konplexua" eta kontu nahiko berriak... guk ere erreferentzia horiek begiratu ditugu eta hortik pixka bat ikasten saiatu gara, arnasmuneak, azkenean, sistema bezala ulertu ditzakegun elementuak baitira. Sistemak elkar lotutako elementuak dira, eta elementu horiek funtzio bat betetzen dute eta helburu bat dute. Arnasmuneetan ere hori gertatzen da, ez? Sistemak mota ezberdinetakoak izan daitezke: irekiak, itxiak, biziak, hilak... Orain ez naiz "pentsamendu konplexuaren" zera guztia azaltzen hasiko, konplexuegia litzateke, baina zantzu batzuk izateko, arnasmuneak sistemak dira eta sistema irekiak dira. Irekiak

dira hartu-eman fluxuak dituztelako (gaur egungo gizartean gu bizi garen lekuan hori behintzat ekidin ezina da). Gaur egungo gizartean planteia ezina iruditzen zaigu arnaguneak ghetto bihurtzeko arriskurik badenik ere. Nahi izanda ere (Amazonaseko tribu batera joan eta han nonbaiten kokatzen ez bagara) hemen eta orain ghetto bihurtzeko ezina guretzat behintzat agerikoa da. Beraz, arnaguneak sistema irekiak eta sistema biziak dira.

Sistema bizi eta hilen arteko aldea, besteak beste, hau da: sistema hiletako elementu bat (imaginatu motor bat) bere tokitik ateratzen baduzue, pieza horrek funtzio bakar bat bete dezake eta ezin du ingurura egokitu; arnaguneetan pertsona bat gure herritik ateratzen badugu, ingurura erraz aldatu eta egokitu daiteke. Eta gainera, motor bateko piezak galdu ahala, motorra hil, desagertu egiten da; arnagune batean bertako elementu guztiak desagertu daitezke, hil, eta sistemak bere horretan jarraitzen du. Teoria honetan, guretzat interesgarriak diren elementu batzuk daude. Irekitasuna aipatu dut. Irekitasuna zerbait erlatiboa da, ez da ezer absolutua, neurriak aldatzen joaten dira eta dinamikoa da. Beste bat autonomia izango litzateke, arnaguneek sistema bezala kanpokoarekiko ze autonomia duten, alegia; elkar lotzen diren elementuak dira asko baina badute bere izaera propio bat. Beste bat auto-antolaketa edo deitzen dena izango litzateke, sistema bezala auto-antolatzeke duten gaitasuna. Erabat lotuta eta nahasian agertzen diren elementuak izango lirateke, erraz ulertzen den bezala: irekitasunaren arabera autonomia aldatu egingo da, eta auto-antolaketaren arabera ere autonomia maila aldatu egingo da. Orduan, gure ustez, hiru elementu hauek hainbat gertaera, fenomeno, ulertzeko behintzat lagungarri suertatzen dira.

Azken boladan arnaguneen ahultze bat edo eman dela aipatu da hemen, datu batzuk atera dira (atzo Davidek Xabier Bengoetxearen azterketa bat aipatu zuen, Tolosaldean). Ahultze horren arrazoi batzuk bota ziren, Fishmanen teoriatik hartutako kontzeptuak: dislokazio demografikoa, jendearen joan-etorriak edo haurren jaiotza-tasek eta zahartze kontuek eragindakoak; dislokazio soziala, maila sozialean gora egiteko jendeak zer hizkuntza erabiltzera jotzen duen; dislokazio kulturala, gizarte-molde berriek edo eragiten duten joerek zenbateraino arnagunea ahultzen edo indartzen duten... Bada beste erreferentzia interesgarri bat arnaguneen ahultzearen inguruan. *BAT* Soziolinguistika Aldizkarian diglosiaren inguruan hainbat artikulu atera ziren eta tartean Joxe Manuel Odriozolarena. Berak zera aipatzen zuen: "sistema soziolinguistiko zahar hartan, oraingoan ez bezala, Euskal Herriko lurralde batzuetan bederen, euskararen bizitasun etnolinguistikoa aski beregaina zen". Beraz, hemen aipatzen den autonomia eta auto-antolaketa gaitasunarekin lotzen da. Garai bateko beregaintasun bat aipatzen du Joxe Manuel Odriozolak, euren izaerari eutsi eta denboran zehar arnagune bezala iraun eta ez atzera egitera ahalmentzen zuena. Gure ustez, gertaera horiek nabarmenak dira.

Xabier Bengoetxeak, adibidez, Tolosaldeko herri batean aldaketaren eragileetako bat igandeetako giroan, eliza eta eliza ondorengo poteo giroa galdu izana zela aipatzen zuen. Horrek, jendea sozializatzeko eta integrazteko balio zuen nolabait, eta hizkuntzaren ikuspegitik bere funtzioa betetzen zuen gertaera edo sozializazio prozesu horrek. Eta irekitasunaren ikuspegitik ere, nabarmena da gaur egun arnagune askoren bueltan egin diren errepideekin, arnagune horietara iritsi diren teknologia berriekin eta hedabideekin, arnagune horiek erabat irekiak direla (garai batean ez zen horrela eta ez dira hainbeste urte igaro). Teknologia berrien sarrerak horretan eragin zuzena du. Gaur egun, arnagune gutxitako umeek ez dute Bob Esponja ezagutuko eta garai batean hori pentsaezina zen, erreferentzia horiek beste nonbaitetik zetozkien. Irekitasun horrek izugarritzko eragina izan du. Autonomia mailan, atzo Natxori Artezarauak eta lurralde planak noiztik datozen galdetzen nion... bi hamarkadetako kontua da. Bi hamarkadatan, arnagune horiek ezin dute bere kasa euren herria nola garatuko duten erabaki; Artezarauak, Lurralde Planak, Plan Sektorialak... daude, eta horrek autonomia galera ikaragarria dakar. Logikoa da, arnaguneek autonomia galera hori izanda, ezin dugu pentsatu ezer egokitu gabe osasun maila berarekin jarraituko dutenik. Badira elementu batzuk, beste hainbat egongo dira segur aski. Guk hemen aipatu nahi genuena zera zen: autonomia eta auto-antolaketa hori nola elikatu genezake? Zerk eusten dio horri?

Badira guretzat behintzat kontuan hartzeko ideia inportante bi: bat hizkuntza politika izango litzateke, eta bestea autoeratze soziala izendatu duguna (sozializazioa edo izendatu daiteke; sozialki eta politikoki gune horiek nola euren burua elikatzen duten, auto-antolatzen duten, auto-eratzten duten, autonomiari eusten dioten, finean). Gure ustez, autonomia hori eta auto-antolaketa hori elikatzeke nondik eragin dezakegun planteatzerako orduan, bi iturri hauetatik dezente egin genezake. Eta bi aldagai hauei dagokienez, nola gaude? Hizkuntza politikari dagokienez, 2010ean 33 arnagune aztertu ziren

eta euren hizkuntza politika zer nolakoa zen begiratu zen (Kontseiluak udaletako hizkuntza politiken neurketa deitzen diogun neurketa bat egiten du tarteka) eta arnaguneetan nahiko emaitza baikorrak atera ziren. Hor 8,2ko puntuazioa jartzen dut, 33 herri horien batez bestekoa edo izango litzatekeena, eta beno, baikorra da. Ateratzen zen ondorioa, hizkuntza-politika aurreratuenak arnaguneetakoak zirela zen, berdin da alderdia edo joerak zeintzuk ziren, horretan ez zuten eragiten.

Eta autoeratze soziala. Autoeratze sozialari dagokionez, ahultze prozesu bat eman dela ikusten dugu, gizarte joerak eta orokorrean eman den bilakaera aztertzen bada, erabat ulergarria dena. Gizarte likidorantz eta goazela aipatzen da hor barrena, eta horrek autoeraketa sozialean izugarritzko eragina du, noski. Salbuespenak daude eta atzo Zerainekoa atera zitzaigun: autoeratze sozial eta antolaketa ikaragarria duen herri bat, beren autonomia eta autoantolaketa hori etengabeko hartu emanen bidez eta herriari buruzko etengabeko lanketa bateratuaren bidez, parte-hartze prozesuen bidez elikatzen duena. Eta autoeratze sozial horretan ere atzo bestelako adibideak atera ziren. Xabier Mikelek errebotek jokatu dezakeen papera aipatzen zigun; errebotetik pasatzen dira Zubietako gazte guztiak, eta horren bidez nolabaiteko harreman sare bat eraikitzen dute, harreman estutze bat egiten dute, eta horrek segida horri eutsi eta transmisio-kate horri etenik ez egiteko balio die. Hori autoeratze sozialerako elementu bat da. Poteoarena aipatu dut lehen, eskola txikiena ere bai. Hori hizkuntza politikarekin ere lotuko litzateke baina eskola txikiek herri horietan betetzen duten funtzioa funtsezkoa zela aipatzen zuten atzo, bai Zerainen eta bai Zubietan. Bai hizkuntza politikarekin bai autoeratze sozialarekin lotzen zaizkigun elementuak dira. Beraz (eta bukatzeko aurrera begira jarriko naiz), elementu hauen jokoan arnaguneek segur aski etorkizun oparo edo txarragoa izango dutela pentsatu behar dugu.

Aurrera begira guk ideia edo elementu batzuk azpimarratuko genituzke:

-Batetik, autoeratze sozial horri arreta jarrita, jendea kontzientziatu eta jendea ahalmentzea, edo komunitatea ahalmentzea, edo komunitatea sustatzea... hor kontzeptu desberdinak erabili izan dira. Maila batean gure lantaldean ateratzen zen eta UEMAK partekatua zuen gogoeta bat dago: hizkuntza politikan UEMA-k izugarritzko lana egin du eta ez da kasualitatea arnaguneetan ere maila horretara heldu izana (sustatze-lan ikaragarria egiten du), baina aldi berean, herri horietako herritarren kontzientziazioa nola dago? Zenbateraino ohartzen gara edo ohartzen dira arnaguneetan daudenak alde batetik daukaten pribilegioaz (ez dela ezdeusa arnagune batean bizitzea, badutela aukera lasai arnasa hartzeko beste batzuk aukera gutxiago izan dezakegun bezala)? Beraiek aukera dute eta horretan pribilegiotxo hori dute, baina aldi berean erantzukizun maila bat ere; eta erantzukizuna ezin dugu arnaguneetan lasai bizitzera mugatu, dinamikoa da prozesua eta hedatze edo atzeratze joerak eman litezke, eta arnaguneetako kideek ere ingurura hedatzen lagundu behar dute noski, eurek dute inork baino bizi-ingar gehiago inguruko eremu horiek arnagune bilakatu daitezten. Horretan eragiteko beraiek ere badute zeregina. Beraz, jendearen kontzientziazio hori, gure ustez, inportantea da.

-Bestetik, "arnaguneek hizkuntza-politikan eskuduntzak zabaldu" aipatzen dugu, ez da oso ondo ulertzen agian. Arnaguneetako erakundeek hizkuntza-politiketan zeresan nabarmena izan behar dutela iruditzen zaigu eta hizkuntza-politikak ez ditugu gaur egun arte ulertu diren bezala ulertu nahi. Jardunaldi hauek perspektiba hori pixka bat zabaltzen laguntzen dutela iruditzen zaigu. Lurralde-antolaketan egiten den politika, hizkuntza politika da maila handi batean, ikusi den bezala. Etxebizitza-politikan egiten den politika, hizkuntza-politika da ikusi den bezala. Orduan, hizkuntza-politikaren ideia horretatik abiatuz, zentzu horretan arnaguneek erabakimen eta eskuduntza gehiago behar dituztela iruditzen zaigu. Atzo herrietan euskaltegietako taldeak zabaltzeko ratioak eta abarrak behar zirela aipatzen zen eta akaso, arnaguneek horretan malgutasun gehiago beharko luketela. Gure ustez, hori guztia aztertu eta arnaguneei duten garrantzia aitortzetik halako ondorio batzuk etorri behar dira; beraiek hizkuntza-politiketan zeresana izatea baina ez hizkuntza-politika orain arte ulertu den modu soilean ulertuta, modu zabalagoan ulertuta baizik, zehar-lerro bezala. Beti aipatu izan da kontzeptu hori baina inoiz ez da praktikan jarri.

-Hirugarrenik, kanpoko eragina aipatzen dugu. Gure ustez, arnaguneek jasotzen duten edozein kanpoko eraginaren aurrean, arreta berezia jarri behar da, alarmak piztu behar dira. Eragin horrek zer ondorio dituen ikusi behar dugu. Berdin zaigu zer PTP, zer artezarau edo zer den, bakoitzak zein arnaguneri eragiten dion ikusi eta horren arabera zein ondorio izango dituen, edo ez dituen, onerako edo txarrerako izango diren, planteatu behar ditu. Ez dugu esaten beti txarrerako izan behar dutenik baina historia hurbilean, hemen ikusi dugunagatik, estatistikoki kasu gehienak hala direla dirudi. Halako kasuetan, zein ondorio izango duten aztertu eta ebaluatu behar da, eta ondorio horien araberrako

egokitzeko neurriak planteatu beharko dira. Eta gure ustez, gako nagusietakoa: arnasguneak hedatzen jarraitu behar dugu, normalizazio prozesuak aurrera jarraitu behar du, eta iruditzen zaigu hori dela arnasguneak zaintzeko eta indartzeko modurik eraginkorrena, segur aski.

Atzo aipatzen zen sistema globalek, sistema nagusiek, sistema txikiak jateko edo integratzeko joera dutela, eta hori hala da; arnasguneak sistema txikiak dira beste erdal sistemen ondoan, oro har, gaur-gaurkoz behintzat. Joera horiek ematen diren neurrian, arrisku maila bat izango dugu beti eta arnasguneak hedatzen ditugun neurrian, arrisku maila hori txikitzen joango da. Erdigunean dauden arnasguneak ingurunean arnasgunez inguratuta badaude, arrisku gutxiago izango dute. Eustormak gero eta urutiago jartzen joan behar gara, eta orduan, horien inguruan edo horien barruan egongo diren arnasguneak (zentzu metaforikoan, ez da eustormarik egongo sekula) seguru egongo dira eta indartuago egongo dira. Beraz, hedapen prozesu hori gure ustez gakoa da.

Azkeneko hiru horiek, bete-betean dute hemen bi egun hauetan hitz egiten ari garen lurralde-antolaketaren kontu honekin harremana, beraz, lurralde-antolaketaz hitz egiten dugunean, hiru elementu horiek aintzat hartu beharko genituzke. Eta bukatzeko, arnasguneen ideia zabaltzeari begira, bideotxo bat egin dugu. Gaur azaldutako gehienak bertan jasota daude, beste batzuk ere, eta erreferentzia uzten dizuet. Beste edozertarako nire helbide elektronikoa ere bai.

Bukatzeko, atzo Zeraineko kasua azaldu zigun Jakobak, eta nik berari plagio txiki bat egingo diot. Zerainen erabiltzen duten lema hartu eta bukatzeko, *Arnasgune dezagun*.

Iñigo Urrutia: Eskerrik asko Iker. Orain, Miren Seguroleri emango diogu hitza. Miren UEMAko teknikaria da. UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea da, dakizuen bezala. UEMAk historia luze samarra du: aitzindaria izan zen euskararen erabilera arautzen. Gogoratuko dituzue Euskal Herrian Euskarazek 90ko hamarkadan planteatu zituen euskaraz bizitzeko mozioen onarpena... Bertan, udalerrri horietan gauzatu zen. Ondoren, euskara erabiltzeko ordenantzak udalerrri euskaldunetan onartu ziren. Euskarazko zerbitzuak ematen eta eskaintzen, eredugarri bihurtu da UEMA. Baina bere ibilbidea oztopo eta zailtasun juridikoz osatutako ibilbidea izan da. Etengabe ibili behar izan du planteatu zaizkion oztopo bereziki juridikoak gainditzen, eta horretan ere, eredu bihurtu da. Arnasgunez hitz egiterakoan ezinbesteko erreferentzia ditugu eta, beraz, zurea da hitza.

Miren Seguro, UEMAko KOORDINATZAILEA | Hitzaldia

• **ARNASGUNEAK EUSKARAREN NORMALIZAZIO-PROZESUAN.**

Eskerrik asko. Egun on denoi. Hasi baino lehen niri jardunaldi hauetako azkenengo hizlaria izatea tokatu zaidala esan behar dizuet, ondorioak atera aurretik, eta ez dakit ezer berririk kontatuko dizuedan. Euskal Herri euskaldun baten alde, arnasguneetatik lanean ari garen heinean, gure ekarpena egiten saiatuko naiz.

Azaldu nahi dizuedana hiru zatitan banatu dut: lehenengo zatian, UEMAk lurralde- garapenarekin zerikusia zuten helburu edo hausnarketak bere sorreratik bertatik aintzat hartu zituela azaldu nahiko nuke; bigarren zatian, gaur egungo arnasguneen argazki bat erakutsi nahiko nizueke; eta hirugarren zatian, UEMAtik bertatik egin dugun hausnarketa prozesu baten ondorioz, aurrera begirako joera edo aurrera begirako estrategia zer modutan planteatzen dugun azalduko dizuet.

UEMA 1991an sortu zen Aizarnazabalen. Iñigok azaldu du lehenagotik ere Euskal Herrian Euskaraz ekimenaren bidez udalerrri elebakarren mugimendua egon zela, baina mankomunitate bezala 1991an sortu zen. Bertan bizi ziren biztanleen % 70etik gora euskaldunak zireneko 17 udalerririk sortu zuten. UEMA hiru helbururekin sortu zela aipatu nahi dut eta helburu horiek ez zirela kasualitatea izan: garai hartako egoera soziolinguistikoa eta sozioekonomikoen inguruan UEMAn sortzaileek egin zuten hausnarketa baten ondorioz, hiru helburu berezi hartu ziren aintzat.

80ko hamarkadaren ondoren euskaraz galtzeko arriskua bizi zuen nolabait, baina bazeuden toki batzuk non egoera oso berezia zen: udalerrri euskaldunak ziren. Bertako eguneroko bizitza, herritarren arteko harremanak, bizitza kulturala... erabat euskaraz zen heinean, gizarteko beste funtzio batzuk, administrazioari lotutakoak bereziki, erabat erdaldunduta zeuden. Disfuntzio egoera hori gainditzeko, UEMAk bere buruari ezarri zion lehenengo helburua “udalerrri euskaldunetan herritarrek egiten duten bizitza sozial guztia publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea” izan zen. Gero, garai

hartan eta gaur egun ere, euskararen etorkizunean gizarteko funtzio denak euskaraz egingo zituen lur-gune bat egituratuta izatea ezinbestekoa izango zela ulertzen zenez, bigarren helburu bezala hori ezarri zen, “udalerrri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango den lur-gunea osatzea”. Garai hartan UEMAn bildu ziren udalerrri guztiak udalerrri oso txikiak zirela kontuan edukita (hango errealitatea eta egoera sozioekonomikoa momentu hartan larria ez bazen) hausnarketa hau egin zen: zerbitzu faltagatik inguruko herrietara joan behar izaten zuten zerbitzuak jasotzera. Udalerrri horiek jendez hustu eta arnagune horiek arnagune izateari uzteko nolabaiteko arriskua ikusi zen orduan, eta horretarako jarri zen hirugarren helburua: “udalerrri euskaldunen garapen sozioekonomiko eta soziokulturala bultzatzea”.


Hiru xede horiekin erronka nagusi bat zeukan eta dauka UEMAk: edozein hizkuntza bizi izango bada, nagusi izango den lur-gune bat behar du, hori ulertzen dugu guk. Orduan, gure erronka nagusia, arnagune linguistiko-kultural baten lurralde-sarea osatu eta hori ahalmentzea zen eta da. Erronka eta helburu horiekin, UEMAre jarduna udalerrriak beraiek euskalduntzeari eta lur-guneak osatzeari begira aritu da. Hamazazpi udalek sortu zutela UEMA 1991an eta gaur egun 72 udal gara mankomunitatean biltzen garenak. Garapenari lotutako jardunean, ez da lanketa handirik egin. Atzo norbaiti entzun nion gai honi eutsi eta honekin aurrera egiteko bidea urratzeko beldurra ere izan dugula esaten eta nolabait UEMari ere hori gertatu izan zaio agian. Garapenari eta hirugarren helburua den garapen sozioekonomiko eta soziokulturalari lotuta, garapen soziokulturalaren inguruan jardun dugu lanean, urteetan martxan izan dugun Kultur Elejira programaren bitartez. Gure ibilbide horretan, zeharka bada ere, garapenak eragin negatiboa izan ez dezan neurriak hartzen aritu garela konturatu gara eta horrek ekarri digu gaur egungo lurralde garapenak edo lurralde garapen ezak hizkuntzarengan izan dezakeen eraginari buruz serioski hausnartzera.

Gure udalerrietan merkataritza-gune berriak eraikitzerakoan (Usurbilen Urbil jarri zenean, adibidez), horrek udalerrian (Usurbilen) izango zuen eragin linguistikoa aintzat hartuta, kalterik sortu ez zezan nolabaiteko neurri batzuk aplikatu ziren, adibidez. Edo gure herri txiki batzuetan etxebizitza kopuru txukun bat egitea erabaki denean, udal horietako ordezkariekin jardun izan dugu horrek zer eragin edukiko zuen hausnartzen. Egia da aurrera begira neurriak ez dela hartu baina nolabait hausnartu den gaia izan da. Ibilbide horretatik ateratzen dugun ondorioa, udalerrri euskaldunetan egoera soziolinguistikoan eragiteko faktore ezberdin asko daudela da eta edozein motatako esku-hartzeek hizkuntzarengan eragin dezaketela. Eragin positiboa izan dezake, noski, baina errealitateak (lurralde antolamenduari lotutako garapen horretan bereziki) eragin hori askotan negatiboa izan dela erakutsi digu, hizkuntza kontuan hartu ez delako.

Hori alde batetik, UEMA bere sorreratik hausnarketa horien bueltan ibili dela ikusteko. Eta orain hemen erakutsiko dizuedana, udalerrri euskaldunak dira (9/20). Udalerrri euskaldunak ateratzeko euskararen indizea erabiltzen dugu guk (euskaldunak gehi ia euskaldunak zati bi indizea), eta horren arabera hor ikusten dituzue Euskal Herri osoa aintzat hartuta 188 udalerrri euskaldun daudela, % 70-100 artean indizea duten 188 udalerrri. Berde argiagorekin duzuen hori 35-70 bitarteko portzentajea duen gunea da eta beste zuriagoa den hori 0-35 tartekoa. 188 udalerrri euskaldunetatik 161 daude Hego Euskal Herrian eta horietatik 72 UEMAn. UEMAk mankomunitate izaera izanik, Ipar Euskal Herriko herriko etxeek ezin dute bat egin, bi estaturen arteko udalen arteko mankomunitateak ez daudelako baimenduta. Baina orain dela urte asko hango Herriko Etxeekin elkarlan txukuna izandakoak gara. Bost bat urtetan etenda egon dira harreman horiek, hango Euskararen Erakunde Publikoaren sorrerarekin batera, UEMAk laguntzen zuen funtzio hori Euskararen Erakunde Publikoak berak beteko zuela ulertzen zelako, nolabait. Iaz hango alderdi politiko eta euskalgintzarekin harremana berrartu dugu eta aurki horrek fruitu batzuk ematen hastea espero dugu.

Hemen azaltzen zaizue udalerrri euskaldunak herrialdeka nola diren.

Udalerri euskaldunak herrialdeka



Araban bat dago eta bera UEMAn dago; Bizkaian guztira 57 udalerri euskaldun daude eta horietatik 19 daude UEMAn; Gipuzkoan 68 udalerri euskaldun daude guztira eta 38 daude UEMAn; Nafarroan 36 eta 14 daude UEMAn; eta Behe Nafarroan 19 daude, Lapurdin ez dago udalerri euskaldunik eta Zuberoan 8 daude. Araba eta Lapurdiko emaitzak iruditzen zaizkigu aipagarrienak. Udalerri horietako biztanleria nola kontzentratzen denaren arabera, Euskal Herriko udalerri euskaldunetan biztanleriaren % 12a kontzentratzen dela ikusten dugu, eta udalerri ez euskaldunetan % 88a. Udalerri euskaldunak % 27 dira eta udalerri ez euskaldunak % 73. Horrek udalerri euskaldunak tamainaz nahiko txikiak diren udalerririk direla esan nahi du eta hor jarri dizuet datu bat: mila biztanletik beherako 118 udalerri daude. Adibide hori argiago ikusteko, Gipuzkoako kasua ekarri dut: Gipuzkoa herrialde euskaldunena da eta bertan biztanleriaren % 32a udalerri euskaldunetan bizi da, eta udalerri ez euskaldunetan % 68a. Baina zenbat udalerri euskaldun eta zenbat ez euskaldun dauden begiratzen baduzue, euskaldunak 68 udalerri dira eta ez euskaldunak 20. Gipuzkoan, bost herritan biztanleen % 47a bizi da, lurralde-antolaketak kontu honetan eragin nabarmena duela konturatzeko.

Gaur egun, euskara nagusi den eta arnasmune deitzen ditugun lur-guneak bizirik ditugu. Positiboki baloratzen dugun beste kontu bat, toki horietan erdararak betetzen zituen funtzioak euskararentzako berreskuratu ditugula da, eta borondatea dagoenean urrats inportanteak emateko aukera dagoela. Baina aukerak bakarrik egoten ez direnez, arrisku batzuk ere baditugu eta gai honekin lotuta, guretzat hauek dira arrisku nagusi biak: bata arnasmune geografikoak jendez hustea (gune horietan ez delako garapen egoki bat ematen eta ez direlako zaintzen) eta bestea lurralde-antolaketa eta garapenak berak egoera soziolinguistikoan eragin negatiboa izatea eta, ondorioz, gaur egun diren gune horiek arnasmune izateari uztea.

Hemendik aurrera zer egingo dugu orduan? Errealitate horren baitan, guk aukera bi ikusten ditugu: bata, gaur egun arte egiten ari garena egiten jarraitzea, hau da, unean- unean administrazioan ardura-dun dagoen horrek duen borondatearen arabera hizkuntza-politikak egitea (horrek ez dut uste etorkizuna ziurtatzen digunik, noski); eta beste aukera, hizkuntza-politikak modu integral baten egiten hastea litzateke. Zer esan nahi dugu hizkuntza-politikak "modu integral batean" egitea esaten dugunean? Guk urrats batzuk bezala planteatu ditugu. Hauetariko bat arnasmuneen aitortzea izango litzateke; egia da gaur egun dagoeneko arnasmuneen onarpen teoriko bat behintzat ematen zaiela, Jaurlearitzak berak Euskara 21 dokumentuan arnasmuneen ezinbestekotasuna aipatzen du, baina guri aitortza teoriko horretatik aitortza ofizial batera pasatu beharko genukeela iruditzen zaigu eta gero, legea, hizkuntza beharretara egokitu beharko litzatekeela. Zertarako? Alde batetik, arnasmuneetan hizkuntza-politika aurrerakoiak egitea posible izateko (gaur egunean UEMAk bere udalerrietan planteatzen dituen hizkun-

tza-politikek Euskararen Legearekin berarekin egiten dute talka maiz EAEn, Euskararen Legea garatuen dagoen gunean). Eta beste alde batetik, arnaguneak babesteko. Aitortza ofizialak, biotopoak eta babesten diren bezala, arnaguneak babestu beharko liratekeela suposatu beharko lukeela ulertzen dugu (atzo dezentetan aipatu zen), eta horretarako, horiek babestuta edukitzeko tresnak jarri beharko lituzkeela; modu horretan arnaguneetatik, arnaguneak hedatuz, nolabait Euskal Herri euskaldun bat osatzeko aukera izango genukeela ulertzen dugu.

Hausnarketa horretatik abiatuta, UEMAk lan ildo batzuk onartuta ditu iaiztik. Alde batetik, arnaguneetako erabateko hizkuntza-normalizazioa sustatzea, egia delako arnaguneetan izaera askotariko udalak daudela. Nahiz eta UEMAn biltzen diren denak arnagune izateko baldintzak bete, azkenengo urteetan, erabilerari dagokionez, zalantzazko arnagune batzuk egongo liratekeela edo daudela esaten dugu. Nolabaiteko hutsune horiek gaintitzen joateko (administrazioa eredu hartuta bereziki), normalizazio ekintzak eta normalizazioa sustatu behar ditugu. Beste alde batetik, hizkuntza-komunitateari eustea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu; arnaguneetan bertako hizkuntza-komunitateek urteetan izan duten jarreragatik gauden lekura heldu baldin bagara, horri heldu beharra ikusten dugu. Eta hirugarrena, arnaguneen zaintza deitu diogun lan ildoak litzateke. Lan ildo horren baitan, UEMATik zer egiten dugun edo zer egin nahi dugun azalduko dizuet. Arnaguneen erabateko normalizazio horri dagokionez, udalera erabileraren planak dira gure tresna nagusia eta horri eman nahi diogu lehentasuna: gure udalera hizkuntzaren normalizazioan, euskaraz funtzionatzen, eredu izan behar dutela ulertzen dugu, ez herrira eta beste esparruetara begira bakarrik, baita Euskal Herriko gainerako udalerrietara begira ere. Gero, udalerrira begirako egitasmoak ditugu. Bereziki handitxoak diren udalerrira askotan euskara zerbitzu propioak dituzte baina herrira begirako egitasmoak lantze aldera, gure udalerrietako asko txikiak izanik, ez dute zerbitzu propioak; udalerrira horietan dauden herrira begirako hutsune horiek gaintitzeko egitasmo batzuk sustatzen saiatzen gara.

Hizkuntza-komunitateari dagokionez, bi proiektu ditugu martxan. Bata, arnaguneen tailerra da: lehen lkerrek aipatu duen bezala, herritarrak arnaguneei buruz sentsibilizatzeko balio duten tailer batzuk izan dira, baina tailerraren helburua ez da herritar horiek sentsibilizatzeko bakarrik izan, tailer horietan parte hartzen duten herritarrak tailer horiei erreleboa hartzea baizik, gai hau gizarteratzen joateko. Jende hori arnaguneetan bizi dela kontziente izatea garrantzitsua dela ulertzen dugu, jabetuta egotea eta, beraiek etorkizunean erantzukizun inportantea dutela konturatzea. Harrotasun puntu bat emateko ere izan dira "begiratu non gauden eta guregatik ere bada". Hitzun-komunitateari begira daukagun beste proiektu bat Eusko Ikaskuntzak martxan duen Dikoma proiektua da. Proiektu horrek Diskurtsoa Komunikazioa eta Ahalmentzea dauka izena, eta horren helburua hizkuntza ekologiararen diskurtso bat sortzea litzateke, udalerrira hauetako herritarrak ahalmentzeko eta hizkuntzekiko beraien jarrera trinkotzeko. Horrez gain, bukatzeko, arnaguneen zaintzaren kontua dago. Arnaguneen zaintza kontuetan, ezinbestean tresnak behar direla uste dugu, esku-hartzeek eragin negatiborik izan ez dezaten neurtzeko eta bermatzeko. Zaintza gaietan, udalerrira euskaldunetako datuen azterketa batzuk egiten ari gara, aurten lehenengoz. UEMAk udalerrira euskaldunetako egoera soziolinguistikoez gain egoera sozioekonomikoen datu batzuk aztertuko ditu, nolabait udalerrira euskaldun hauen egoera edo bizia aztertzeko eta alarma gorriak pizten badira eragin ahal izateko. Beste alde batetik daukagun proiektua, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kontseiluarekin elkarlanean ari garen eta jardunaldi hauen oinarrian dagoen hausnarketa da, udalerrira euskaldunetara esku-hartzeek eragin negatiborik izan ez dezaten, esku-hartzeek izango lituzketen eraginak neurtu eta neurriak hartzeko balio izango duena. Eskerrik asko.

Iñigo Urrutia: Eskerrik asko Miren, puntu asko atera dira. Tarte bat zabalduko dugu galderetarako. Gauza batzuk aipatzearen: Zigor eta Ugaitzek galdera probokatzaile batzuk utzi dizkigute hemen mahai gainean, ekonomia lurraldearen gain duen eragina aztertzeko moduko faktorea da, lurraldearen garapenaren eta hizkuntzaren arteko lotura, hizkuntzaren eraginak ebaluatzeko beharra, lkerrek paradigmak aldaketa bat proposatu digu, arnaguneak zabaltzea euskararen normalizazio-prozesuaren abiapuntu eta helmuga bezala, arnaguneak sistema bizi eta ireki bezala aurkeztu dizkigu... Bestalde, arnaguneen autonomia ahultzen dituzten faktoreen artean, atzo jiraka ibili genituen lurralde-antolakuntzako arauak eta agertu ditu, autoeratzeko sozialaren garrantzia, herritarren kontzientziazioa... Mirenen hitzaldian ere debaterako puntu interesgarriak azaldu dira. Euskararen arnagunearen eredu dira UEMA eta UEMAKo udalerrira. Atzo David Anautek eta lkerrek garapenak indar negatiborik izan ez dezaten neurriak hartzeko behar edo premia hori agertu digu Mirenek ere. Lurralde-antolakuntzaren eragin negatiboak nolabait arriskuen artean kokatu ditu Mirenek, hizkuntza-politika modu integralean jasotzeko beharra,

legea hizkuntza beharretara egokitzeko beharra ere, bi hitzetan, estalki juridiko berri baten beharra. Horiek dira besteak beste bertan agertu diren ideietatik batzuk. Ordu laurden bateko tartea zabalduko dugu galderak, iradokizunak... egiteko. Galderez gain norbaitek zerbait esan nahi badu galdera moduan formulatu gabe ere, mikrofonoa zabalik du.

1 | Parte-hartzea

Publikoa: Mireni: UEMAn 72 herri esan duzu, guztira zenbat biztanle dira? Eta zeintzuk dira demografikoki hiru herri handienak?

Miren Seguroa: Udalerrri euskaldunetan 381.628 biztanle bizi dira 188 udalerritan. Euskal Herriko biztanleria: 3.127.326. Bost handienak, beno, hiru handienak, Tolosa, Zarautz eta Bermeo dira.

2 | Parte-hartzea

Publikoa: Lehenik eta behin eskerrik asko halako jardunaldi interesgarriak antolatzeagatik. Egun hauetan bururatu zaizkidan ideia batzuk elkar banatu nahiko nituzke. Beno, hirigintza eta lurralde-antolamendua aktibitate ekonomikoa edo aktibitate ekonomikoaren gainbalioa kudeatzen dutenen eskuetan egon da eta dago, ez? Prozesu ekonomikoak eta hauen kontrola eduki dutenen eskuetan. Horrela, beraz, aktibitate ekonomiko eta sozialen euskarria da lurralde-antolamendua. Egun, globalizazio ekonomikoak lurraldearen erregionalizazio-prozesua ekarri du, konektibitatea ziurtatuko duten azpiegitura erraldoi eta azkarrez (AHTa, superportuak, aireportuak...) elkar loturiko sistema urbanoak, espezializazio funtzional edo ekonomikoa duten erregio eta makroerregioak sortu direlarik. Gurean hau AHTak elkarrekin lotuko litzuzkeen euskal hiriburuez osaturiko sistema urbanoa izango da, Euskal Hiria, hemen noizbait atera dena. Eta horrela Euskal Hiria globalizazioaren erregioa edo espazioa izango litzateke. Atzo Koldok Zaldibarren espezializazio funtzionalek (landaguneek, herriguneek eta fabrika guneek), bakoitzak bere sistema soziolinguistikoa zutela erakutsi zigun: euskara landagunean erabiltzen zela, gaztelera herrigunean eta ingelesa espazio produktiboan edo globalizazioaren espazioetan. Honek ondorio argi bat daukala iruditzen zait, ez dela atzo komentatu zen bezala etxebizitzak sortzearena bakarrik euskara mehatxatzen duena; nahiz eta modu koiunturalean eman, hau ikusita, euskara benetan mehatxatzen duena globalizazioaren espazio hauek sortzen dituzten azpiegitura (AHTak edo egiturak), lurralde-antolamendua eta lehen esan dugun erregionalizazio-prozesu hau ahalbidetzen duten prozesuak dira. Honek, nire ustetan, irtenbide bi uzten dizkigu euskararen etorkizuna bermatzeko: bat euskara lurralde-antolamendua eta jendartearen egitura zehazten duten fluxu ekonomikoetan txertatzea izango litzateke eta bigarrena, gure arnagune ekonomiko-linguistikoak eraikitzen hastea, hau da, gure sistema sozioekonomikoa sortuko duen lurralde-antolamendua eraikitzen hastea, arnagune linguistikoak bezala autonomia eta autokudeaketan oinarrituak egongo diren sistema sozioekonomiko eta espazial irekiak. Beno, hau izan da pixka bat egun hauetan atera dudana. Mila esker.

Zigor Etxeburua: Nik ideia hori sakondu nahiko nuke agian. Hemen aurkeztu nahi izan duguna asko zentratu da herri euskaldunetan eta arnaguneetan baina Gipuzkoako Foru Aldundiaren intenzioa hortik harago doa. Kezka hau ezin da arnaguneen eremura soilik zedarritu; euskara ez dago hor mugatuta eta sistema osoa hartu behar du, euskararen lurralde osoa. Nik zu ere hori esaten ari zarela ulertzen dut. Beraz, jardunaldien konklusioa arnaguneetatik harago eramango nuke, nik behintzat ez nuke ulertuko hori hala bakarrik izatea, lurraldearen garapena, zerbait zabalagoa diren harreman batzuk baitira.

3 | Parte-hartzea

Publikoa: Egun on. Eskerrik asko horrelako jardunaldi hain interesgarriak antolatzearen, honetaz hitz egiteko garaia ere egokia dela uste dut. Askok hitz egin dezakegu, guztiok mila kontu izango ditugu segur aski esateko eta eztabaidatzeko. Ez dakit konklusio bat edo beste, nik iradokizun moduan ekarri nahi nuke atzo eta gaur entzundakoen ildotik. Askok gustatu zait Gipuzkoako garapenaren inguruan aipatu den plangintza nondik nora doan, berritzailea iruditzen zait; baina nire ikuspegitik, politikarien ikuspegitik da berritzailea eta iradokizun modura erantsi bat egin nahiko nioke. Garapen eredu berria iraunkortasunaren kontzeptuan oinarritu daitekeela iruditzen zait eta hau berreskuratu beharko genu-

keela; nire ustez, atzo memento batean iraunkortasunaren zentzua alde batera utzi zen arrazoi gehiegi-rik eman gabe. Badira 30 bat urte jada (1987) hori planteatu zenetik eta oraindik behar bezala ulertu edo garatu gabe dagoela iruditzen zait eta planteatzen duzuen ikuspegi berri horretatik oso eredu-garria izan daitekeela. Iraunkortasunaren balio integral moduan, hiru arloak (ingurumenarena, garapen ekonomikoarena eta garapen sozialarena) elkar batzen dituen pentsamendua (mundu berri baten ikuspegi horretatik), oraindik funtsezkoa dela iruditzen zait. Hiru esparru hauek kontuan izatea ezinbestekoa da: ingurumenarena, garapen ekonomikoa eta soziala. Eta sozial horretan sartzen da hemen aipatzen ari garen guztia: bai kulturaren ikuspegia, bai hizkuntzaren ikuspegia, bai generoaren ikuspegia eta abar. Beraz, nire iradokizuna, iraunkortasun kontzeptu integral hori oso kontuan hartzea eta plangintza guztia hortik abiatzea izango litzateke. Hemen oinarrian dagoen pentsamendu bat dela iruditzen zait baina esplizitu egin eta erreibindikazio puntu bat ekarri nahi dut nahiz eta eztabaidatuta dagoen kontzeptua izan. Momentu honetan oinarri oso sendoa ematen duela uste dut eta, zer esanik ez, hizkuntzaren ekologiaren ikuspegitik. Funtsezkoa dela iruditzen zait.

Hori alde batetik. Bestetik, ez dakit leku aproposa den hau esateko baina nik nire kezkatxo planteatu nahi nuke eztabaidagai. Hizkuntzaren ekologiaren ikuspegitik, metaforak erabiltzea oso interresgarria da, oso erabilgarria: iradokizunak egiten ditu, mobilizatzen du, sentimenduak ukitzen ditu... Baina "baina" bat ere badu, metafora erabiltzeak bere arriskuak ditu (bizitza, arnasa hartzea...). Ikuspegi honetatik "nota diskordante" bat ipintzen ausartzen naiz, nahiz eta desadostasun handiak egongo direla pentsatzen dudana. Nire ikuspegitik arnasmune kontzeptua erabiltzeak bere arriskuak ditu: ez da deskribatzailea eta bere alde iradokitzaileak norbanakoaren autoahalmentze hori bideratzen du baina arriskutsua ere izan daiteke; leku batean arnasa hartzeak beste leku batean ez hartzea dakar, irudiaren ikuspegitik. Nik behintzat mahai gainean jarri nahiko nuke badagoela jende bat, ni tartean, metafora hori erabiltzearen inguruko kezka daukaguna. Momentu batean, hori planteatu zenean, bere funtzioa bete zuela iruditzen zait baina, akaso, berriz pentsatu beharko litzatekeela. Eskerrik asko.

Ugaitz Iturbe: Bai, beno. Iraunkortasunari eta lurralde-garapenari lotuta, aipatzekoa da gure planteamendua metodologia bat dela; azken finean denon artean nora joatea nahi dugun planteatzea da, eta hara bidea egitea. Orduan, "nora" horretan oso kontuan hartu beharko da iraunkortasuna, hiru bektore horiek (iraunkortasuna, garapen produktiboa eta garapen soziala). Hiru bektore horien erdian egongo da garapen instituzionala. Ez da nahikoa garapena hiru bektore horietan egotea bakarrik, udal-letxe zein aldundi zein existitzen diren erakunde denek hori ahalbidetzeko eboluzionatu beharko dute. Orduan, guk hori bultzatzen dugu, baina benetan bultzatzen duguna metodologia bat da. Eskualde eta herrien, eta batez ere herritar eta eragileen esku geldituko da iraunkortasun horri bere indarra ematea. Guk beti aurkeztuko dugu baina ez da gure esku gelditzen. Esan bezala, nik "fazitadore" lan bat egiten dut, nire lan nagusia "errazle" lan hori da; gu ez gara eskualdeetan ere sartzen, guk Gipuzkoa mailan egiten dugu lan, eskualdeek beraien prozesuak garatzeko erremintak jartzen ditugu. Beste maila baten herri bakoitzak bere prozesua garatu dezake gero, baina guk eskualdeetako prozesuak bultzatzen ditugu behetik gorako prozesua izan behar dela pentsatzen dugulako. Zentzu horretan, nahiz eta guk iraunkortasuna zein beste bi faktoreak presente izan, behetik gorako horretan herritarrek eta eragileek presente edukitzea da lortu behar duguna. Baina ados nago, guztiz.

Iker Salaberria: Nik bi esku-hartzei lotuta ideiatxo batzuk. Bat, Zaldibarren kasua. Atzo atera zen eta aipatzen zen nola sistemak, herriak, bazituen azpisisistema moduko batzuk. Sistemak elkarrekin erlazionatuta daude gainera. Eta landa-ingurunea zen nolabait arnasmune peto-petoena, azpisisistema hori izango litzatekeena. Irekita dago, eta irekita zegoela aurkeztu zigun Koldo Telleriak; kontua da irekitasun horretan garrantzitsua dela sistemak norantz irekitzen diren. Zaldibarreko landa-inguruneak Bilborantz irekitzen ziren, ez ziren herrigunerantz irekitzen; harreman fluxuak nagusiki Bilborantz jotzen omen zuen. Horrek erabat baldintzatu dezake. Arnasmunea hedatzeko eta indartzeko, segur aski, eraginkorragoa litzateke herrigunerantz irekiko balira eta sistemen arteko harremana norabide horretan emango balitz. Hori, nire ustez, gauza inportantea da, arnasmuneetako irekidura norantz ematen den, jendea norantz mugitzen den arnasmuneetan. Eta horrek lehentasunak jartzerako garaian aztarna dezente eman ditzake. Arnasmuneetako jendeak non jasotzen ditu zerbitzu asko? Askotan, zerbitzuak hartzera kanpora jo behar duten herri txikiak izaten dira, beraz, kanpoko eragin hori nabarmen bizi dezakete, eta horrek lehentasun bat jarri dezake alboko eskualde buruan den ez dakit zer zerbitzu euskalduntzeko akaso. Eta alderantziz, nongo jendea etortzen da arnasmuneetara? Zer sistema elkar lotzen dira? Zer sistemarako joera edo fluxuak gertatzen dira? Niretzako aztergai bereziki inportantea eta interesgarria da eta

mugikortasun horiek askotan eragin nabarmena dute. Eta beste kontu bat. Globalizazioa aipatu da, iraunkortasuna... Bada beste joera bat eta nik Joseba Azkarragaren bidez jaso dut erreferentzia. Badu *Euskal Harria* delako liburu bat, eta berak egungo krisi sistemikoari aurre egiteko bidea desazkundera izango dela aipatzen du bertan. Desazkundera maila diferente hauetan ulertzen du, hemen aipatu diren maila diferenteetan, eta hiriguneetatik herriguneetara itzultzean ere. Lotura likidoagoak ematen diren hiriguneetatik, lotura trinkoagoak, harreman estuagoak (harria horregatik erabiltzen du) ematen diren herriguneetan berriz biltzera eta bizitza soziala horietan egituratzera jotzea planteatzen du aterabide joera egoki bezala, eta niretzako oso interesgarria da (arnasguneen ikuspegitik behintzat segur aski zer pentsatu eman dezakeen ikuspegi bat da). Arnasguneen kontzeptuaren inguruan ez nuke debatean gehiegi sartu nahi. Atzo aipatu zen eta gaur aipatu dudana pentsamendu konplexutik, dikotomiak ekitzera jo behar dugula uste dut. Atzo zientziak askotan dikotomikoki pentsatzen duela aipatu zen, bai ala ez, eta arnastea eta ez arnastea bi hautu bakarrik ez daude; Amazonasen izugarritzko oxigeno pila arnastuko dugu eta Bilbon dezente gutxiago, baina bietan arnasten dugu. Arnasguneak ere gradualak direla iruditzen zait eta arnastune guztiak ere ez direla berdinak. Arnastearen metafora hori, oso modu erlatiboan eta gradualean ulertu behar dela uste dut, ez dela dikotomikoki ulertu behar, inondik inora.

Zigor Etxeburua: Barkatu, ekarpen bat gehitzeko bakarrik. Desazkunderaren ideiaz erreferentzia baten bila ibili nintzen ni hain zuzen ere eta 2011an Bilbon horren inguruko jardunaldi bat egin zen. Lurralde-antolaketa gaia ere aztertu zuten, Desazkundera taldeak bultzatuta. Kultura aipatu zuten, ez zuten hizkuntza aipatu eta beno, nik twitterren ere zabaldu nuen eta aspektu bi azpimarratu nituen: eskola txikiak batetik (zaintzea eta edukitzea) eta horri lotuta curriculum, eskola txikietan, tokiko kulturari erreferentzia eginez. Ez zuten espresuki hizkuntza aipatu, baina badago zer egina horretan.

4 | Parte-hartzea

Publikoa: Nik Bilbotik egin nahi nuen hausnarketa hau, Santutxutik. Izugarritzko zera iruditu zait, hitzaldi guztiak oso onak, kristoren hausnarketa, antolaketa, egundoko lana egiten ari da arnastuneetan eta hori eskertzekoa da, eta beharrezkoa. Agian beste leku batzuetan ez dago hausnarketa maila horietara heltzerik, edo ez gara jarri, edo ez dakit ba... Entzun dut barne-antolaketa handiagoa behar dela, autonomia handiagoa garatu behar dela, kohesioa... Zuk ere aipatu duzu, Iker, arnastuneak hedatu egin behar direla, hau da, gehiago sortu... Baina nire kezka, orain esan duzunaren ildotik zera da: meatzealdean euskaraz arnastea hartzea nahiko zaila da, eta nahiko nuke jakin zelan ikusten duzun arnastuneen papera halako lekuetan eredu garri izan dadin. Barrura begira zaudete baina Mirenek erakutsitako datuetan arnastuneetan bizi dena oso kopuru txikia dela ikusi da. Nola hedatu edo zer egin dezakete kanpora begira irudi izateko? Ugaitzek hizkeraren gaia aipatu du, oso gai interesgarria da. Hizkera horiek arnastuneetatik kanpo bizi diren eta ama-hizkuntza euskara ez duten (gaur egun badakigu euskaldunen % 50 baino gehiagoren ama-hizkuntza ez dela euskara) horiengana hizkera horiek zelan hedatu, zelan zabaldu...? Ez dakit, hor badago lan bat egiteko, barrura begira ondo dago baina kanpora begira zer?

Iker Salaberria: Nik dakidanetik eta ahal dudanutik erantzun dizut, gainontzeko dena gainontzekoek erantzun dezatela. Azkenengo puntu horri helduta, lehenago aipatu dugu eta uste dut Zigorrek ere aipatu duela, ezin dugula arnastuneetan soilik jarri fokua. Fokuak orokorra izan behar du, sistemikoa, txikienetik hasita zabaleneraino, Euskal Herri osoraino. Lehen aipatu dudana irekitasunaren eta fluxuen kontuak gakoak dira hor; aipatu duzu Bilboko eragina inguruko hainbat arnastunek jasango dutela eta ezin dugu pentsatu arnastuneak arnastuneetan soilik lan eginez indartuko direla. Irekitasuna, esan bezala, herritar horiek gaur egun hortik kanpo bizitza asko egiten dutelako da. Orduan, ikuspegi sistemiko edo oso horretatik pentsatu behar dugu eta egin behar dugu. Hirigune handiek izugarritzko eragina izango dute segur aski, eta eskualde buruek izugarritzko eragina izango dute. Beraz, arreta jarri behar dugu inguru horiek euskalduntzeko, inguru horiek euskalduntzeak arnastuneen indartzean eragiten duela edo hori laguntzen duela jakinda. Ezin dugu fokua arnastuneetan soilik jarri baizik eta ikuspegi sistemiko hori arretaz behintzat zaindu behar dugu.

Iñigo Urrutia: Ekarpen interesgarriak egiten ari dira, beraz, jarraipena emango diogu eztabaidari.

5 | Parte-hartzea

Publikoa: Nik lehenengo zorionak eman nahi dizkiet antolatzaileei eta oso poztekoa da gainera eragile politiko garrantzitsuak ere halako gaiak planteatzen egotea eta bertatik planteatzea. Hori esanda, nik pare bat ohar (agian ez da plazarik onena hori esateko baina bi ñabardura). Niri gehiegi iruditzen zait Gipuzkoa euskalduna dela esatea, nahiago nuke, baina holako baieztapenek mesede handiegirik egiten ez digutela uste dut. Gipuzkoa euskalduna nahi dugula uste dut, eta Gipuzkoan horretarako lanean ari zarete (ez beste leku batzuetan bezala) eta ez dakit, gogora datorkit garai baten oso modan egon zela eragile politiko batzuetatik Sakana euskalduna zela esatea. Sakana erabat erdalduna da herri batzuen salbuespenarekin, zoritxarrez. Eta gauza horiek imajinarioan iltzatzen dira, jendea lasaitu egiten dute nolabait, baina gero errealitatea oso bestelakoa da.

Beste ohar bat, Txillardegiren teoria gorabehera. Txillardegiri errespetu guztiakin begiratu behar zaio, baina euskaldunen euskararekiko fidelizazio mailaren kontu hori erlatibizatu behar dela uste dut; higatzen ari dela uste dut.

Eta azkena, UEMAren lana funtsezkoa dela uste dut nik eta inoiz ez dela behar bezala aitortua izan. Niri bolada labur batez beraiekin lanean aritzea tokatu zitzaidan eta irudipena daukat inongo erakundek, inongo eragile politikok ez dituela merezi duten bezain aintzat hartzen eta pixka bat lan isolatua egiten dutela askotan. Sakanan aritzea tokatu zitzaidan beraiekin eta pixka bat beti eskean aritzea bezala zen: joan dauden udalerrri euskaldun bakanetara ia sartuko diren pixka bat eskean, ia mesedez, ia erregutuz... batek ez zuen ordaintzen, besteak ezin zuen, besteak... Eta bestalde, bailaran indar politiko jakin batek indar handia izanda ere, ez zen babesik sumatzen udalerrietatik, eragile horietatik. Nik uste dut Jaurilaritzak adibidez bizkarra eman diola nabarmen beti, ez dut ulertzen, eta funtsezkoa da. Eskualde buruak eta hiriak oso garrantzitsuak direla egia den arren, azken urteetan horiei begira asko jarri garela uste dut, planteamendu estentsiboak eginez, eta azkenean higadura oso nabarmena da arnasguneetan; hor dago Xabierren lana edo ezagutu nahi duenak Uribe Butroera joatea dauka eta ze urte gutxian arnasgune guztiak nola desagertu diren ikusi: Gamiz- Fika, Fruiz, Meñaka... Herri euskaldun-euskaldunak zirenak gaur egun herri erabat erdaldunduak dira oso urte gutxitan. Ezinbestekoa da arnasguneei begira jartzea, eragile politikoen indar guztiak horretan jartzea, eta gero, Sakana bezalako eta Uribe- Butro bezalako eskualdeetan, eskualde buruetan eragitea: ezin da bat Urdiain edo Arbizu batetik irten, Altsasura joan eta kultur programazio guztia erdaraz eduki, alferrik ari gara. Arnasguneei prestigioa eman eta babestu nahi baditugu, eskualde osoa hartu behar da aintzat, hiriburua gehituta.

Zigor Etxeburua: Ba arrazoia eman behar dizut, gu hori islatzen saiatu gara. Nik nolabait argazki bat erakutsi dut, eta gero Ugaitzek esan dezagun beste bat. Power pointean ez baina gure testuan galdera bat jarrita genuen izenburu bezala: Gipuzkoa bakarra da? Lelo moduan erabiltzen dugun holako baieztapen batek zuk esan duzun hori dauka, ez dela guztiz egia eta kontziente naiz. Edonola ere, guk sozialki zabaldu nahi izan dugun mezu bat da, gizartean pertzepzio hori nolabait indartu egin behar dela iruditzen zaigulako, gu Gipuzkoaren eremuan ari garelako. Hau da, jendeak benetan ba ote daki Gipuzkoaren egoera soziolinguistikoa zein den? Eta datu horiek islatzen ditugu beti "Gipuzkoa lurralde euskalduna da" esaten dugunean. Prentsaren aurrean hitz egin izan dudak bakoitzean eta esaldi hau esan dudak bakoitzean atzetik bi datuak esan ditut beti: euskararen ezagutza edo gaitasunaren datua, erabilerarena, edo gazteen ezagutza tasarena. Eta iruditzen zait lelo bezala erabili behar dugula gizartean, Gipuzkoarren artean behintzat, gure ustez ez dagoen edo behintzat ez zegoen beste ikuspegi bat hartzeko. Alde horretatik komunikazio edo marketin tresna bat izan dela esan dezakegu. Gero hori matizatu egin behar da, jakina, eta horretan ere saiatu garela uste dut. Baina alde horretatik arrazoia ematen dizut. Eta Txillardegirena ere bide beretik; aurrekoa gizarte osoari bidaltzen genion mezu bat zen bezala, bestea, fideltasunarena, euskaldunari bidaltzen diogun mezu bat da. Gure artean hedatuegi dagoela iruditzen zaigun halako gutxiespen ideia baten pertzepzio bat dago, eta hori aldatze aldera zabaldu nahi dugun ideia da. Horrek ere bere ñabardurak ditu, jakina, eta egia balitz ez geundeke linguistikoki anormala den egoera batean, baina nik uste dut, hein batean behintzat, baduela izateko arrazoia eta erabiltzeko arrazoia.

Iñigo Urrutia: Hitz batzuk eskatuta daude. Ondoren, kaferako tartea izango dugu eta gero ondorioak izango ditugu, beraz, halako hausnarketa orokorrak ondorioak irakurri ondoren ere planteatu ahal izango dira.

6 | Parte-hartzea

Publikoa: Zorionak jardunaldiengatik. Hainbat esparrutatik pixka bat lantzea lortu duzue, arlo ezberdinetatik ikuspegi ezberdinak ikustea... Ni Durangokoa naiz, beste bizkaitar bat. Eskualdea Durangaldea da. Izatez abadiñarra naiz baina Durangon bizi naiz urteetan. Eta atzo Zaldibarreko baseritarrak globalizazioa hartzeko ohitura hori edo Bilbo erreferentzia izatea pixka bat harrigarria egin zaizuela ikusi dut eta gaur ere zu horrekin gelditu zara, ea benetako arnagune txiki horiek zer lekutara zabaltzen diren. Beno, Durangaldeak (Zaldibar oso herri txikia da, ez dakit 10.000 biztanle inguru izango dituen, hortxe ibiliko da) beti izan du ohitura hori. Ni Matienakoa naiz, eta Matienan jan eta lo: ikasketak Durangon, lana Durangon, zinea Durangon, kirola Durangon, zerbitzuak Durangon... Matienan gauza batzuk eta erosteko bai. Zaldibarri berdina gertatzen zaio: Zaldibarren ez dago arropa dendarik, denda txiki bat dauka. Gizon batek zerbait jantzi nahi badu, joera Bilbora joatea da. Orduan, Zaldibarreko bati Eroski handi bat jarri diote Durango ondoan, Abadiñoko lurretan eta Zaldibarrekoak, baserrikoak, ez ditu erosketak egunero egiten, autoa hartu behar du. Merkeagoa ateratzen zaio Eroskira joatea eta horretara joaten da. Autoa hartu beharrez gero, arropak erosi behar baditut, ze ardua zait behin autoa hartu behar izatekotan Durangora joan eta lau denda miatu edo zuzenean Arteara joan; denak bertan ditut han eta Eroskiko erosketekin eta arropekin nator. Ikuspuntua pixka bat hori da. Ez orain 2000. urtea pasatuta dagoela. Durangaldean, nire gurasoek, nire aitona-amonek,... erreferentzia Bilbo zuten. Oskorriren abestiak diosku "Arratiko gizona Bilbora doala maiz Lemoako tranbian". Joera hori da, eta Bizkaiko herri txikiengatik, erreferentzia Bilbo izan da. Donostia agian ez da hainbeste izan Gipuzkoan, Debagoienetik Eibar edo izan ahal ziren beste, potenteak eta handiak izan diren herriak, baina Bizkaian Bilbo izan da.

Eta gero, beste zehaztasun bat. Bilbon lanean nabil ziurtagiriarekin eta Bilbon euskaldunak daude. Santutu gune euskalduna da, Alde Zaharra gune euskalduna da, Deustu auzo euskalduna da... Atzo komentatu zen gune berriak eraikitzean, jendea bizitzera doanean, duen eragina. Bilbon Miribilla berria da eta euskalduna da. Miribillara bizitzen joan diren gazteek umeak Urretxindorra ikastola eta inguruetan dituzte, eta jende hori euskaraz bizitzera joan da Miribillara. Abadiñon, aldiz, guztiz kontrako pasatu da. Eibarretik hainbat lantegi etorri ziren erdaldunez beteta Matienara, Matiena erdaldunez bete zen. Abadiñoko Udalak Abadiñoko beste auzo baten hainbat etxe egin ditu orain eta Matienatik gazte asko joan dira etxe horietara; umeek euskaraz ikasiko dute baina beraiek ez, eta Zelaieta eta Muntsaratz erdaldundu dituzte, euskaldunak zirenak. Orain Matiena erdalduna da, Zelaieta erdalduna da, Muntsaratz erdalduna da. Hori ere ikusi egin behar da.

Atzo Natxok, parte hartuz hasi behar dela komentatzen zuen, legedia ikusiz, pausu txikiak emanaz. Udaleko legedia beti sartzan dela edo sartzan saiatzen direla Foru Aldunditik datorren legediaren barruan eta inoiz izan daitekeela bata bestea tapatzea edo dena delakoa, eta parte-hartzeari garrantzia eman zion. Nik euskaldunok jarrera aldatu behar dugula uste dut, ordea. Mirenek lehen hori azpimarratu du eta oso garrantzitsua dela uste dut. Atzo ere komentatu zen arnagunean, euskalgunean erdaldun bat sartzan bada, segituan pasatzen garela erdarara eta hori da ekidin beharrekoa. Jarrerarekin eta taillerrekin, erdaldun hori gure terrenora nola eraman ikasi behar dugu, edo euskaraz hitz egiteko eskubide hori dugula zelan erakutsi inongo defentsa politikorik gabe. Beti hasten gara "eskubidea daukat, ze hau daukat eta bestea daukat". Ez. Euskaraz egin dizut naturaltasun guztiarekin eta hori naturala dela ikusi behar duzu. Non bizitzen zauden eta hemen naturala zer den ikusi behar duzu. Horretarako oso garrantzitsua da bakoitzaren jarrera. Miren oso ondo ibili dela uste dut eta jarreratik hasi behar dugula. Ez daukat galdera konkreturik, zuek zer egingo duzuen, nondik hasi, nora jo, zer bide jarraitu... nahiko nituzke jakin zeren ez da "behetik gora" bakarrik. Hemen Diputazioak ere badu zeresana, Gipuzkoan egiten dabilta eta irizpideak jartzen dabilta eta horrek asko laguntzen du. Goitik behera etorri behar zaigula uste dut, euskaraz egitera behartzen duen lege bat izan beharko genukeela, zeren hori heltzen ez den artean oso zaila dela uste dut. Eskerrik asko.

Iñigo Urrutia: Lehenbizi galdera guztiak egingo ditugu, Xabierrek eskatuta zeukan, eta gero erantzunak, bai? Barkatu.

7 | Parte-hartzea

Publikoa: Egun on. Zorionak. Nik uste belaunaldi aldaketa etorri dela nabari dela eta gazte jendea gogotsu ari dela. Ni harrিতa nago horrenbeste jende etorri izana. Eta beno, Txillardeggi birritan aipatu

denez, ni Txillardegiren ikaslea naizenez, defentsa sutsua egingo dut. Eta apustua nahi baldin baduzue, eta Zigorri botako diot erronka, ia lortzen duen bere soziolinguistika matematikoaren inguruan tankera honetako ikastaro bat antolatu eta 200 pertsona edo gehiago etortzea. Txillardegiri ez zaiola ulertzen uste dut. Bera ez herri honetan bakarrik, mundu mailan, soziolinguistika matematikoaren sortzailea izan da, eta bere teoria bizirik dago, teoria ez, praktika. Ikerri esango nioke dikotomia ez dela zientziaren ezaugarria, aniztasuna dela zientziaren ezaugarria, eta ikuspegi anitza, baina ez naiz irakasle jarriko. Beste izen bat aipatu nahiko nuke eta Iñaki Arregi da (UEMA). Bera hemen balego, pozez txorutzen zegokeen. Eta beno, bi izen horiek aipatuta, gizarte esperimentalak eta hemen Mackey-k aztertu zituen Irlandako gizarte esperimentalean, arriskutsuak dira guretzat. Guk, behintzat, behinik behin nik, hiztun normalak izan nahi dugu; desazkundera eraldunentzat, esperimentera eraldunek egin dezatela. Hazkuntzaren bidetik jo behar baldin badugu, nik udalerrri euskaldunak udalerrri erosoak izatea nahi dut, eta ez esperimenterarako. Asko sufritu izan dugu euskaldunok ikuspegi sozialetik eta ikuspegi politikotik esperimentera erabili gaituztelako, eta hemen bistan da, landu egin behar den elementu bat ahaztu egiten da: ez da botereari buruz hitz egiten. Euskaldunok daukagun problema boterea da, ahalduntzea, ahaldundu, emakumeek eskatzen duten moduan. Gure esku hartu boterea, gure burua gobernatzeko. Hori da UEMAn hartutako apustua. Zaila izaten da. Horrek jakina beldurra sorrarazten du, eta mintegi honetatik, boterea daukatenei helarazi beharko genien mezua euskaldunok bat, normalak garela, bi, gure buruaren jabe garela eta hiru, nahi dugun antolakuntza eratuko dugula gure hizkuntza bizi dadin da. Eskerrik asko.

8 | Parte-hartzea

Publikoa: Nik ere antolatzaileei zorionak. Batez ere aniztasuna (zenbat erakundek, zeintzuk) eta diziplinartekotasuna gustatu zait, gai hauetan, lurraldea eta hizkuntzan. Nik eskalaren garrantzia azpimarratu nahiko nuke pixka bat eta atzo Unai aipatu zuen, gaur ere ikusten da eta ni benetan poztu nauen gauza da, hirietan auzoka lantzen dela gaia, hizkuntzaren gaia, plangintza. Gertatzen ari da. Ni Donostiarra izanik hortik indarrak hartzen ari direla ikusten dut. Eta batez, ere eskualde mailako eskala.

Garrantzitsua da bai hizkuntza gutxiagotuetan eta gurean, eta baita ere ekologiaren ikuspuntutik. Jasangarritasuna, iraunkortasuna eta desazkundera aipatu dira eta denak kontzeptu beraren baitan ari direla ikusten ditut. Hor interesgarria da adibidez *Transition* mugimendua. Nazioarteko mugimendu bat da eta autosubirautza energetikoa, mugikortasunean, antolakuntzan gure herrira aplikatuta eskala egokiena eskualdea bera dela planteatzen du, Joseba Azkarragak eta hainbatek. Bailara mailako esperientziak badaude: Bagara Debagoienean adibidez, oso prozesu zabala eta interesgarria, euskararen arlotik Oarsoaldean badago eskualde mailako euskara taldea edo udalerrri ezberdinen batzordea eta baita komunikabideen aldetik ere, Berria eta Hitza eskualdeka. Oso eskala garrantzitsua dela iruditzen zait.

Ekologiarekin lotura ere oso interesgarria da, kontzeptu asko hizkuntzetarako aplikagarriak direla ikusten dut. Bi aipatzearen: bata, arnasmuneena, dudarik gabe, eta hor adibidez korridoreak, korridore ekologikoak. Arnasmuneen arteko lotura eta arnasmuneen inguruko lurraldeek duten garrantziez hitz egiten da askotan eta hor fluxuak aipatzen zituen Ikerrek. Ba bai, hirietarako fluxu horiek ere eskualdetik bereiz aztertu beharko dira; bateragarriak direla iruditzen zait, ez dela bat edo bestea. Eta gero beste kontzeptu bat: Ingurumen Ebaluazio Inpaktuak hizkuntzetarako eredu garri. Benetan poztu nau Galeseko adibideak, badagoela jada erreminta bat. Ez da osoa izango, ez da perfektua izango, baina badago eta badaukagu non ikasia. Eta hor etortzen zait zalantza. Nik ekologiarekiko ardura ere daukat eta Galeseko gure lagunari galdetu nahiko nioke, Hizkuntza Ebaluazio Inpaktu horiek egin direnean, zenbatetan egon den baita ere ingurumen inpaktuarekiko lotura. Askotan, nire pertzepzioa (ez dakit intuizioa edo zer den eta agian erratuta nago), baina ekologiarekiko kezka, lurraldearekiko kezka, garen ereduarekiko kezka eta hizkuntzarekiko gure kasuan (eta gure kasuan hizkuntza gutxiagotua dela azpimarratuz), interesek bat egiten dutela iruditzen zait, hartuko ditugun neurriak ere indarrak batze aldera egin behar dutela. Herrigintza aipatu da, garrantzi horrekin, eta nik uste dut jardunaldi hauen balioa hori dela. Euskalgintzatik, mugimendu ekologistatik, mugimendu feministatik, herrigintza egiten ari garen arlo guztietatik indarrak batzea. Ba ingurumen inpaktuaren ebaluazioa egiten badakigu, alegazioak egiten badakigu, goazen hizkuntzaren dimentsioa hor txertatzera, indarrak batzera, ezagutzak partekatuz. Zoriondu berriz, bide honek elkarlanean eta indar batze horretan bidea egiteko aukera ematen digula ikusten baitut. Eskerrik asko.

Meirion Davis: Egun on. Ingurumenaren eta hizkuntzaren artean lotura argia dago. Zoritxarrez, Gales ingurumenara lotuegi egon da, eta ez horrenbeste hizkuntzara, baina bi esparruak elkarren artean lotuta daude, eta biak batera erabili baditzakezu, indartsuagoak izango dira. Hala ere, argitu behar dugu (bai hemen bai Galesen) gauzek zein eragin izango duten hizkuntzan. Eta hori ingurumeneko neurketak egiten diren moduan egin behar da, hau da, modu zientifiko eta neurgarrian. Gure eginbeharretatik gertuago gaudela uste dudan arren, oraindik teorikoa da dena, oraindik zehazteke dago hizkuntzan sortzen diren eraginak nola neurtuko diren, ingurumeneko eraginak neurtzea beharrezkoa den modu berean. Hori zehazten saiatzen ari garen arren, oraindik ez dugu behar bezainbeste arrakastarik izan. Hortaz aparte, aipatu nahi dut galeserari lotutako mugimenduaren barne, izugarritzko eztabaida izan dugula arnasgune delakoen eta Galeseko gainerako eskualdeen artean, beraz, kasu honetan eztabaida horretan amaitzen ez badugu, asko eskertuko nuke, nire ustez behintzat, dena elkarren artean lotuta dagoelako, eta beraz, elementu guztien arteko harremana sinbiotikoa delako. Adibidez, Galeseko eremu ingelestuenetan eskola berriak dituzte, eta eskola berri horietarako irakasleak arnasguneetatik datoz, beraz, harreman hori sinbiotikoa dela esan daiteke. Hori ere kontuan hartu behar dugu, eta ziur nago kontuan hartzen ari zaretela, baina mesedez, ez gaitzezen erori bati eta besteari buruzko eztabaidan. Arnasguneak zabaltzearen ideia gustatzen zait, hori egin beharra dago, baina gaia ulertzeko modu bat besterik da, ez setio pentsaera antzeko zerbait. Eskerrik asko.

Miren Seguro: Nik Durangaldeko adibidea jarri duzun horri erantzutea edo gure tokitik behintzat hori nola ikusten dugun azaltzea nahiko nuke. Ez nuke nahi hemen arnasguneetara eta arnasguneak euskalduntzera bakarrik begira gaudela ulertzera ematerik. Arnasguneetara begira gaude bertan egiten dugulako lana eta Euskal Herri euskaldun bat lortzeko horien hedapena, estrategia egoki bat izan daitekeelako, beharrezkoak direlako. Zuk planteatu duzun sistema irekien kontu horren inguruan, udalerrri euskaldunetatik egunerokoan biztanleak beraien zerbitzuak jasotzera nora joaten direnaren inguruan (supermerkatuen kontua aipatu duzu): gure herri askotan ez dago ginekologorik adibidez eta eskualde buruetara joaten dira ginekologia zerbitzuak jasotzera. Gune horiek, askotan, ez dira udalerrri euskaldunak, ez daude mediku euskaldunak... Gu horren kontziente izanik, udalerrri euskaldunetako herritarrak parte hartzen duten edo zerbitzuak jasotzen dituzten guneetan eragiten saiatzen gara nolabait. Egia da UEMAK dituen bitartekoak dituela eta askotan nahiko lan eta gehiegi daukagula udalerrri euskaldunetako politikak beraiek zehazterakoan. Baina bai eremu zabalago hori aintzat hartzen dugula, arnasguneak hedatu esaten dugunean, hori nolabait arnasguneak hedatzea dela iruditzen zaigulako.

Eta gero, zuk zeuk aipatu duzun hizkuntza komunitatearen jarrera hori azpimarratu nahiko nuke berriz. Lehen aipatu dut beharrezkoa dela eta guk ezinbestekoa ikusi dugula herritar horiek zer diren jabetzea, zer paper jokatzan duten hizkuntzarengan, erantzukizun bat ere badutela hizkuntza honen biziraupenean eta gehitu ahal zaion harrotasun puntu horrekin nolabait gune ez hain euskaldunak diren eremura joan eta hain erraz hizkuntza joerak aldatzen dituen jende hori kontziente egitea asko aldatu daitekeela beraiek benetan diren bezala adierazten baldin badira eta jarrera horiek mantentzen badi-tuzte.

Ugaitz Iturbe: Nik hainbat gauza lotu ditut elkarrekin: alde batetik, Durangaldea; bestetik, Andoni, eredu sozioekonomikoaren inguruan; eta azkenik, Transition mugimendua eta ekologia. Txikitik hasi eta handira, teoria polinuklearra jarraituz, merkataritza erlazio eta dinamika ekonomiko jakin batzuk proposatzen dira. Txanpon soziala edo txanpon lokala bezalako dinamikak ageri dira eta halakoek aldaketak ekartzen dituzte. Normalean oso jende gutxik erabiltzen dituen horrelako alternatibak zentralitatera eramateko gipuzkoarrok izan dezakegun kapazitatean sinesten dut nik. Adibide dezente ditugu Euskal Herrian bai ikastolekin, bai kooperatibekin... Txanpon soziala bezalako ekimen batek merkataritza erlazioak alda ditzakeela uste dut. Hiribururako lotura pixka bat moztu eta gertuagoko produkzioa eta merkataritza bultzatuz, eremu sozioekonomiko horren garapena indartu dezakegu euskararekin lotuta; eta urrunago joanez gero, Iparraldea edo Nafarroa eta Gipuzkoa edo Bizkaiaren arteko merkataritza erlazioak ere (eta horrekin, ahal den neurrian, euskara). Aukerak daudela uste dut nik. Txanpon sozialaren kasua, ekonomiarekin lotuta dagoen ekintza konkretu bat izanda, hizkuntzan eta gure arteko harremanetan eragina izan dezakeen elementu bat dela uste dudalako aipatu dut.

Iñigo Urrutia: Mila esker hizlariei eta bertan zaudeten guztioi.

5. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK.

Paul Bilbao | Moderatzailea

Arratsalde on guztioi. Kafea hartuta azken txanpari ekiteko prest. Egun hauetan zehar ezagutu izan gaituzue: Iñigo Urrutia EHUko irakaslea, Unai Fernandez de Betoño EHUko irakaslea eta UEUko Zuzendaritza taldeko ordezkaria eta ni neu Paul Bilbao Kontseiluko ordezkaria. Guk osatu dugu jardunaldi hauetako Batzorde Akademikoa eta guri dagokigu ondorioak edo azaltzea.

Lehenik eta behin, egia esan, pozik gaude jardunaldi hauek izan duten arrakastarekin. Bagenekien gai interesgarria izan zitekeela lurralde-hizkuntza, lurralde-antolakuntza, hirigintza, hori guztia hizkuntzaren berreskurapen-prozesuarekin lotzea baina egia esan behar badizuegu ez genuen uste horrenbesteko arrakasta izango zuenik. Egia da ez dela oso normala izaten euskarari buruzko, hizkuntzari buruzko jardunaldietan 200 pertsona biltzea eta gainera diziplina desberdinetako pertsonak biltzea. Alde horretatik, oso pozik gaude gutxienez maila kuantitatiboan honek izan duen arrakastarekin. Kuantitatiboarekin ere, hor zuen iritziak jaso beharko ditugu.

Eskerrak eman behar ditugu erakunde antolatzaileen izenean. Hau elkarlanean jorratu dugu UEUK, Kontseiluak, UEMAK eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta eskerrak eman nahiko nizkieke beraien hitzaldiak aurkeztu dituzten hizlari guztiei: Natxo Cubero, Koldo Telleria, Beñat Etxebeste, Ziortza Bilbao, Xabier Mikel Errekondo, Jakoba Errekondo, Elisabeth Naucclér, Meirion Davies, Wilfried Vandaele, Zigor Etxeburua, Ugaitz Iturbe, David Anaut, Iker Salaberria eta etorri ezin baina prestutasuna agertu zuten Peio Lozano eta Igor Ahedo ere.

Ondorioak irakurri baino lehen, pare bat ohar. Orain aurkeztuko ditugun ondorioak guk hirurok, egun hauetan esan diren gauzekin, adostu ditugun ondorio eta erronka batzuek dira. Hemen askotan entzun izan dugu halako prozesuetan parte-hartzea oso garrantzitsua dela eta horrexegatik, nahiz eta gero tarte bat zabalduko dugun jendeak iritzia emateko, ondorio hauek zuei helarazteko asmoa daukagu (izena eman zenutenean helbide elektronikoa jarri zenuten). Ondorio hauek jasoko dituzue eta hamar eguneko epea emango dugu zuen ekarpenak jasotzeari begira. Horretarako, Irati arduratuko da hori jaso eta gero guri helarazten. Lehen ere atera dira ekarpen batzuk eta beraz, gure ondorioetan iritzi gehiago agertzea nahiko genuke.

Ohartuko zinetenez, jardunaldiak aurkeztu genituenean, honezkero zenbaki bat jarri genien, alegia, “Lurraldea eta Hizkuntza. Hizkuntza eta Lurraldea. I. jardunaldiak”. Hori berariaz egindako gauza bat izan zen. Azken finean, jardunaldi hauek antolatzen hasi ginenean, bai diziplinartekotasunari dagokionez, bai gai konplexuak izango zirela kontuan hartuta, jardunaldi batzuekin hau behar bezala garatuko ez genuela aurreikusi genuen eta, beraz, berandu baino lehen, urte honen amaieran edo (Aldundiko Euskara Zuzendaria hemen daukagu eta bere aurrekontuetan diru partida gorde dezan eskatzen diogu), bigarren jardunaldi are arrakastatsuagoak antolatzeko asmoa daukagu. Horrexegatik jarri genien “lehenengo jardunaldiak”, bagenekielako gaur ez genuela amaituko eta gure buruari ere, behar hori jartzeko. Gaur aterako ditugun ondorioekin, zuek egingo dizkiguzuen ekarpenekin, bigarren jardunaldiak prestatuko ditugu.

Orain Unai Fernandez de Betoñok irakurriko ditu ondorioak eta etorkizuneko erronkak eta ondoren beste tarte bat zabalduko dugu zuen hasierako iritziak jasotzeko.

Unai Fernandez de Betoño | Ondorioak

Beno, lehen ondorioa arnaguneen inguruan ateratzea erabaki dugu, arnaguneak bi egunotan komentatutako ideia askoren erdian egon baitira.

Lehenengoa

Ondorioa: Arnaguneak ez dira herri euskaldunak soilik, baina arnaguneen multzoan oso azpimultzo garrantzitsua dira, euskararen erabileraz eta hegemoniaz betetzen dituzten baldintza horiez gain, eus-

kararen transmisioa edo sozializazioa modu bete- betean egiten dutelako, horrek kualitatiboki duen garrantziarekin

Erronka: Politika publiko guztietan hizkuntzaren zehar-lerrotasuna kontuan hartzeko eskatzen diegu Administrazio guztiei

Bigarrena

Ondorioa: Lurralde-antolakuntza eta hirigintza ez dira neutroak eta eragin zuzena dute berezko hizkuntzan. Haien eragina ez da inoiz kontuan hartu Euskal Herrian: lurralde- antolakuntzako araubideak ez dio arretarik jarri

Erronka: Eragin hori aztertzea, alde kuantitatibotik eta alde kualitatibotik:

Azterketa kuantitatiboa (zenbat): Ikerketa zehatz eta objektibo bat egitea, datuen bidez frogatzeko hirigintza-hazkunderaren (etxebizitza berrien) eta euskararen galeraren arteko harremana.

Azterketa kualitatiboa (nola): Ikerketa bat egitea aztertzeko Euskal Herriko hirigintza- eredu(ar) en (etxebizitza-poligonoak, suburbanizazioa, zonifikazioa, merkataritza-gune handiak, azpiegiturak) eta euskararen galeraren arteko harremana.

Euskal Herriko lurralde-antolakuntzaren eta hirigintzaren alorretatik konturatu behar dira ezin dutela kultura-ondareaz eta tokiko identitateaz ganoraz hitz egin euskara (eta euskal hiztunen komunitatea) kontuan hartu gabe

Hirugarrena

Ondorioa: Europako beste herrialde batzuetan aspalditik daude kezkatuta gai honekin (hirigintzaren eta hizkuntzaren arteko harremanarekin).

Erronka: Beste herrialde horiekin harremana lantzea, eredu teoriko eta praktikoa eragingarri bilatu.

Laugarrena

Ondorioa: Egungo ordenamendu juridikoak ez dio beharrezko arreta jarri izan hizkuntza eta lurraldearen arteko harremanari. Batzuetan, gainera, aurrerapausoak eman nahi izan direnean (UEMA), auzitegiek oztopo juridikoak jarri dituzte.

Erronka:

- Hizkuntza-politika territorializatzea, alegia, lurraldetasun-printzipioari begira jartzea
- Gaia Euskal Herriko politikaren agendan sartzeari, gutxienez EAEko lurralde- antolakuntzako tresnetan (Lurraldea Antolatze Gidalerroetan eta Lurralde Plan Partzialetan, bereziki) kontuan har dadin

Bosgarrena

Ondorioa: Egungo paradigmek mugak dituzte euskal komunitatea osorik babesteko eta indarberritzeko

Erronka: Hizkuntza babesteko paradigma berrien bila, ingurumenaren alorrean baliagarriak izan diren tresnak eta kontzeptuak (iraunkortasuna) aztertu behar dira, eta, ahal dela, baliatu

Seigarrena

Ondorioa: Gaia sozializatu edo gizarteratu behar da. Jendea kontzientziatu eta jendearekin landu. Arriskuez ohartaraziz, baina baita aukerez eta indargune posibleez ere

Erronka: Hizkuntza babesteko paradigma berrien bila, ingurumenaren alorrean baliagarriak izan diren tresnak eta kontzeptuak (iraunkortasuna) aztertu behar dira, eta, ahal dela, baliatu

Azken erronka eta konpromisoa

Jardunaldiotako antolakuntzak eta batzorde akademikoak konpromisoa hartzen dugu ELE (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa) izeneko tresna definitzeko, eta bigarren jardunaldi batzuetan aurkezteko

Hori litzateke gutxi gorabehera pentsatu duguna eta ea zuekin orain zerbait osatu, xehatu edo kritikatu daitekeen.

Norbaitek galderarik baldin badu aipatutako ondorioren baten gainean edo ñabarduraren bat sartu nahiko balu, hau litzateke aukera. Paulek esan du tarte bat izango dela ondorio hauek aberasteko eta guztion artean parte-hartze sistema honen bitartez osatzeko. Etorkizuneko erronkak handiak dira eta konpromiso bat ere aurkezten da bertan. Zuen da hitza.

1 | Parte-hartzea

Publikoa: Azken ohar honetaz ekarpen txiki bat egin nahiko nuke. Oso interesgarria iruditzen zait Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren inguruan ahalegina egitea. Iradokizuna: seguru asko kontuan hartu beharko genuke gai honen inguruan nazioartean egon den bilakaera. Kasualitatez edo dena delakoagatik, azken denboratan giza garapenaren edo garapena neurtzeko adierazleek azken urteetan izan duten bilakaeraren inguruan irakurtzea tokatu zait. Garai batean, adierazle horiek erabat ikuspegi ekonomiko batetik hartuak izan direla gogoratu nahiko nuke, hau da, herrialde batek nazioartean zer garapen maila daukan adierazteko alderdi ekonomikoak soilik neurtu izan dira. Halako batean Nazio Batuetako Garapen Programak (PNUD esaten da gaztelaniaz), garapen hori neurtzeko giza garapen adierazleak erabiltzea proposatzen du, mailaketa desberdin bat. Adierazle horien barruan hezkuntza -maila edo horrelako beste adierazle batzuk sartzen dira. Gauza da, adierazle horietan ez dela ez kultura adierazlerik ez eta are gutxiago hizkuntza neurtzeko adierazlerik kontuan izan. Horren arrazoiak badaude eta idatzita daude, kulturak ze adierazpide desberdin ematen dituen eta ze arazo sortzen dituen. Kontuan hartzea komeniko litzateke. Are gehiago, hizkuntzaren gaian sartuz gero, askoz ere zailagoa da nazioartean kontuan izaten denik ikustea; gizarte-mailan kultura kontuan hartzen den toki horietan ere, oso gutxi ikusten da hizkuntza-irizpideak kontuan hartzen direla. Baina aipatu nahi nuke, behintzat badagoela kultura-adierazleak definitzeko saiakera txiki bat oraindik test moduan planteatuta dagoena, UNESCOk egiten duena eta 2011an proposatutakoa. Adierazle horiek sortzeko zailtasun bereziak ditugula oso kontuan hartu behar dela pentsatzen dut; hasteko, kulturaren ikuspegitik (kultura modu integralean, ez bakarrik kultura produkzioan baizik eta kultura bizitzeko moduan), baina are eta zailagoa iruditzen zait eta are eta erronka handiagoa iruditzen zait hizkuntza-irizpideak maila honetan definitzea. Beraz, iradokizun moduan, zer dagoen ikustea komeniko litzateke. Oker ez banago (ziurtasun garbirik gabe diot hau) kultura-adierazle horietan kultur produkzioak hartu dira kontuan batez ere, ez bizitzaren edo bizitza antolatze komunitateek duten ikuspegia. Beraz, animo, erronka izugarri handia dela iruditzen zait, baina nazioartean gauzak nola dauden kontuan hartzea komeniko litzateke.

Paul Bilbao: Zalantza barik. Lan konplexua izango dela iruditzen zaigu eta lehen esan bezala, zuen helbide elektroniko guztiak ditugu, hor ere ikuspegi bat baino gehiago beharko dugu eta. Erabat ados, eta guzti hauek aztertu beharko dira, zalantzarik gabe.

2 | Parte-hartzea

Publikoa: Kaixo. Zorionak aurrena. Ni Usurbilgo Udaleko euskara teknikaria naiz eta kafe garaian gure artean komentatu ditugunak azaldu nahi ditut. UEMAko lankideekin aritu naiz hizketan eta laburpena hau litzateke: arnasmune da baina eguneroko bizitzan arnasa hartzeko zailtasun handiak ditugu. Gure udalean euskaraz jarduteko egunero-egunero mila traba, mila oztopo izaten ditugu, kanpotik etorritakoak gehienetan. Gauza askotan ereduak falta zaizkigu, euskarazko idatziak gaztelaniara itzultzeko eskatzen digute... Nire hausnarketa alde horretatik doa: arnasa ezin dugu behar bezala hartu eta galdera ikur hori pixka bat irekita uzten dut. Hori lehenengo hausnarketa. Eta bigarrena, nire tokitik eta ikusten dudana: nik eguneroko lanean sinesten dut halako proiektu handietan baino gehiago. Norberak norbere lekutik eta eguneroko lanean, eguneroko bizitzan bere metro karratu horretatik eskura etortzen zaizkion idatzi eta egoera anormal horiei aurre egiteko gaitasunean sinesten dut. Denok hor eragiten badugu, benetako aldaketak hortik etortzen direla iruditzen zait. Bi hausnarketa, batetik arnasmune bai baina neronek ere ez dakit, arnasa hartzeko zailtasun handiak ikusten ditut. Eta bi, eguneroko lanean, norberak norbere lekutik egin dezakeen horretan sinesten dut.

3 | Parte-hartzea

Publikoa: Nik hurrengo pausura begiratuta, zaila iruditzen zaidana honen gizarteratzea da. Hemen denok pozik gaude halako tresna batek daukan garrantzia ikusten dugulako eta gutxi gorabehera kontrara etorriko zaizkigun diskurtsoak irudika ditzakegu, honek izango dituen zailtasunak. Horretan ere pentsatzen has gaitezke agian, horri nola aurre egin, kontrako diskurtso horiek nola orekatu... Atzo planteatu zen adibidez etxebizitza erosteko hizkuntza-eskakizuna eskatzea; ez dakit hirugarrena edo bigarrena eskatuko den, edo dorre altuak badira laugarrena, baina... besterik gabe, denok ere pentsatzen hasteko.

4 | Parte-hartzea

Publikoa: Aupa. Eguneko gaitik pixka bat aldenuz baina Usurbilgo teknikariak esan duena pixka bat aprobetxatuz, nik ere norberaren lanean sinesten dut baina muga bat daukala uste dut: baldintzek laguntzen ez dutenean, azkenean, norbera ere ahitu egiten da. Guk Jaurlaritzan, azkenean amore eman eta etsita, beste lanpostu bat eskatu duen balio handiko jendea ikusita daukagu. Eta hori, teoriarik, baldintzarik onenetan gaudelarik: tresnarik ez da falta, legeak bertan egiten dira, nagusiak bertan daude, denok euskaltzaleak garela pentsatzen da... Baina laguntza apur bat ez daukan teknikaria askotan isolatuta ito egiten da. Nik agintaritzan nagusitik hori aldatzeko borondaterik ikusten ez dudanez eta hemen beste espiritu bat ikusi dudalarik, gonbidapen bat luzatzeko aprobetxatuko dut: euskalgintzan gabiltzanok eta bereziki Administrazioan gabiltzan teknikariok saretzeko tresna bat sustatzea. Badakit esperientzia batzuk badaudela, Teknikari eta Bizkaian agian besteren bat, baina azkenean batarekin eta bestearekin hitz eginda, batzuek eta besteek gure erakundeen berririk ez daukagula konturatzen zara: Lasartekoak ez daki Jaurlaritzan zer gertatzen den, Andoaingoak ez daki Altsasun zer gertatzen den eta horrela gabiltza denok isolatuta eta askotan etsita lanean. Badakit ez dela jardunaldi hauetako helburua baina uste dut lagungarria izango litzatekeela edozein lan, gaur hemen aurkeztutako proiektua ere bai, bultzatzeko.

Paul Bilbao: Beno, enbidoa botata dago, hemen teknikari asko zaudete eta gero amaitzen denean gelditu eta lehenengo hitzordua jarri.

Ados, printzipioz esan bezala, ez genuen bat-batean halako ekarpen uholdea izango genuenik aurreikusten. Hurrengo astean jasoko dituzue gure ondorioak eta horien gainean zuen ekarpenak gustura hartuko ditugu. Hemendik eta aste batzuetara jardunaldien informazio guztia (bideoak, aurkezpenak...) unibertsitatea.net webgunean izango dituzue eskuragarri eta honekin amaiera emango diegu jardunaldiei. Eskerrak eman nahi dizkiet hizlariari, antolatzaileei eta Aldundiari laguntzeagatik baina eskerrak zuei ere hona etorri izanagatik eta zuen parte-hartzearengatik. Bigarren jardunaldietan ikusiko dugu elkar eta ondo izan.



Gipuzkoako Foru Aldundia